

Mistika-liburuak

HITZAURREA

Lehenik Eckhart Maisuak indar handiarekin eta gero ikasle izan zuen Johannes Tauler-ek bultzatu zuen alemaniar mugimendu mistikoaren loraldiak adierazi zuenaren ikuspen doiago bat izateko beharrezko da Erdi Aroaren atzealde historikoaz jabetzea, izan ere haren errailetatik sortzen baita, antitesi gisa, kimu ezohiko hori indar berritzaile legez.

Alemaniar Erdi Aroko Mistika Aro Garaitik Aro Behererako iragaitzaren fruitu, ordurako aski umotu eta berantiarra da izatez. Hohenstaufendarrek berenganaturiko zalduneria-kultura, lehenago bikaina izan bazen ere ordurako behegunera iritsia da eta burgoetako hiri-kulturak hartuta zeukan ordurako haren lekua. XIV mendeko burgo eta hiribildu horietan sortu dira indarrarekin gotiko berantiarren katedralak orain alemaniar Mistikaren loratze erabat helduaren lekuko direnak. Luberritze-, inflexio- eta krisi-garaiak dira. Inozentzio III eta Gregorio IX aitasantu handiek garaipena lortu ondoren Frederiko II (1212-1250) enperadore azken eta ahaltsuaren lepotik, inperioa eta aitasantutzaren bi botere eskergek, enperadore gabeko interregnum ikaragarri baten ondoren, elkarren aurka aritzen dira azken orduko deskonposatze-borroka batean. Borroka luzea da disturbio eta hegemoniako alternantziek, eskomikatu eta debekuz betea, zeinean aitasantuaren boterea ere ahulduz baitoa eta azkenean amildu egiten baita Avignongo aitasantuen babiloniar gatibualdi (1309tik 1377ra) deitu izan den horretan. Hirurogeita zortzi urteko erbestealdia izan zuten aitasantuek Erromako beren egoitzatik kanpoan. Elizaren hierarkia-egitura burdinazko eta ahaltsua haustura- eta porrot-mehatxupean aurkitzen da, gero eta indar eta astrapala handiagoz buruan eta ataletan erreforma eskatzen duten sekta eta heresien mugimendu eta errebindikazioek hertsatua.

Aldi berean aroa hondamendi natural, ausiabantza, lurrikara eta uholdeek konbultsionaturik eta izularriturik aurkitzen da, baita heriotza beltzaren espektro lazgarriak ere, sarraskia eginez baitabil Europan zehar alde batetik bestera, zeinen adierazpen plastikoa aurkitzen baita dantza makabroaren pintura-motibo obsesiozkoan. Horren lehen gauzatze artistikoa da, era ikararazlean iraitzekoa eta galkorra den mundu honetako guztiaz ohartarazten duena. "Erdi Aroaren udazkena" (Huizinga) zen eta bertan Europako gizateriak, gorputzean eta ariman torturatuak, bizi eta dastatu sakoneraino egin zuen heriotzak duen alderdi ikaragarria eta bizien usteltzea.

Bestalde eraikuntza txundigarriko Eskolastika Garaiaren sistema zientifikoaren garatze bikaina, Santo Tomas Akinokoaren Suma handietan gorena jo zuena, jadanik iraganeko zerbait zen. Lehenago nagusi eta Eskolastika Garaiaren euskarri zen errerealismoaren aurrez aurre, zeinentzat gauzen izate zinezko eta egiazkoa unibertsaltasunean eta espezifikotasunean oinarritzen baita eta giza pentsamenduarentzat kontzeptu unibertsalean bihurtzen baita atzemangarri, nominalismoa sortu zen pixkanaka lurra janean. Ikuspegi nominalista berri horrek, giza ezagutzaren baliozkotasun eta hedaduraren aurrean jartzen zuen bere skepsis hautsezinarekin, gizakiaren kontzeptu unibertsalak "flatus vocis" soilak edo "nomina" hutsak izendatu zituen, zeini gauzetan ez zegokien inolako entitate errealek. Izaki erreala gauza banakoetan bakarrik aurki zitekeen eta ez arrazoiketaren eta Logika abstraktuaren bitartez, baizik gauza banakoen nolakotasunak behatu, neurtu eta haztatzearen (pisatzearen) bidez Nominalismo horretan jadanik urrunetik iragarrita zegoen Natur Zientziaren pentsamendu eta ezagutza modernoan izpiritua behaketaren bitartez. Eskolastika Behereko eskola eta joeren arteko borrokan erlijio-sentimendua eta erlijio-esperientzia sentsibilitate- eta bizipen-ahalmena hainbat gehiago galtzen ari ziren, zenbat eta haiek gero eta gehiago pasatu, Eskolastika

berantiarreko Filosofian eta Teologian, determinatze eta zarpailtze kontzeptual eta gnoseologikoaren (teoriko-ezagutzazko) objektu izatera.

Hain zuzen ere krisi-aro horretan sortzen da berriro indarberriturik atzera lehentasunarekin zuzeneko esperientzia eta hunkitze erlijiosoaren premia, herriaren geruza oso zabaletan sartu eta barrentzen den premia, sektetan eta mistikan erremedioa eta salbamena bilatuz. Alemaniar Mistika XIV. mendean sortu zen Haraindia eta Honaindiaren arteko harmoniarik eza tenkatuaren aurkako kontrapozoi gisara. Tirandura arozko horrek herriaren geruza zabaletan larridura torturatzaila sortzen zuen azkenki (heriotza, judizioa, infernua, zerua) hurbilekoen zirrara mehatxuzkoaren azpian bizi izatean. Zeren garbi utzi behar da Mistikak harmoniarik eza horren distentsioa eta baretzea esan nahi duela, ez du esan nahi transzendentzia, baizik jainkoazkoaren inmanentzia, esan nahi du Jainkoa altzoan bertan barrentzea "unio mystica"-ren bizipenaren bitartez.

Hala ere, XIII. mendearen erdi aldera, nola Alemanian hala Flandrian, Magdeburgeko Mechthild eta Herbeheretan Suster Hadewich emakume mistikoa bezalako figura gailenak sortuta zeuden, eta horiek beren idatzietan sentimendu handiko mistika kristozentriko bat adierazten zuten, eta neurri handi batean profetiko-bisionarioa zena, bere adierazmolde biziki poetikoan Minnesangaren eragina nabari zuena, hau da, Erdi Aroko gorteko zaldunen lirika amodiozkoarena.

Baina hurrengo mendeko Mistika handiaren iragarlea zen agerpen goiztiar horri zientzia eskolastikoaren gogoeta eta espekulazioa gehitu behar zitzaizkion, bere pentsatzeko moduen tresna esperientzia mistikoari aplikaturik. Gogoeta hori komentu eta monasterioetako sermoi eta hitzaldietan nagusiki egina izateak tratatu teologikoetan baino areago erlijio-demografiako fenomeno baten laguntza izan zuen. Gurutzaden eta zaldun gurutzadariak eurrez hiltzearen ondorioz, ordena dominikar berri eta berritzailearen komentuak, eta hemen zehatzago esateko lekaime dominikarrenak, jadanik XIII. mendearen erdi aldetik nobizia umezurtzez eta goi- eta behe-nobleziako alarguntsez hornitu ziren aurretik zeuden komentuak betez eta beste asko sortzera behartuz. Lekaime horiek, gizarteko goi-gerizetatik zetozenak gehienak, kultura-hornidura nabarmena zekarten eta prestakuntza erlijioso eta teologikoa hartzeko gogo bizia, eta horietako askok ikuspenetarako hipersentiberatasuna zuten eta ia eszentrizitatera iristen zen erlijio-sentimendu sendo bat. Beharrezko zen, beraz, Ordena dominikarraren aldetik ongien prestaturiko fraideen eskuetan jartzea talde hain ugari, hain landu eta bere bizitzari zentzu transzendentea emateko hainbesteko irrika zuenaren zainketa izpirituala.

Guztiarekin ere, "fratres docti" deitzen eskuetan ezarritako eginbehar hori, Ordenako Buruak behin eta berriz eskatu eta gerora Klemente IV. aitasantuak ere hisiaz erregutua, ez zatekeen arrazoi aski argigarria izango hezkuntza eta gogoeta bereziki mistiko baten jaiotza eta garapenerako, mistiko-espekulatiboarena areago, baldin eta Mistika ordurako aura eta arnas giro bat izan ez balitz eta izen bereko Ordenako predikariek jadanik izan ez balituzte sentsibiltate eta sen mistiko horiek gizaki mistikoaren ezaugarri aparteko gisara¹.

Izaera aparteko horretaz horniturik zeuden bi autoreak, zeinen idatzi-hautapen hau euskal irakurlearen eskuetan jartzen baitugu gaur. Lehen predikari dominikarra, Johannes Eckhart da, alemaniar Mistikaren ordezkari indartsu eta sakonena, haren izpiritu gailenen, sakonen eta gaitasun espekulatibo eta sortzaile handienekoa. Espekulazio mistikoaren egiazko erraldoia da. Bestea bere dizipulua eta era berean dominikarra izan zen Johannes Tauler da. Maisuaren gaiez elikatzen da nagusiki, baina haren hogeita hamar bat tesi aitasantuak kondenatu izanak zirrara sakona eragin ziolarik, arreta handiagoarekin jokatzeko du bere azalpenetan, bere maisuaren

enuntziatuetan alderdi etiko eta pastoralak gehiago azpimarratuz espekulatibo eta filosofikoa baino.

Baina puntu honetara iritsirik ezinbestekoa zaigu argi eta garbi uztea, edota adierazpena ez estrapolatzearren, argitzen ahalegintzea, batez ere aditua ez den irakurleari, kristautasunaren barruko Mistika ez zela alemaniar Mistikarekin jaio, zerutik eroritako meteorito bat bailitzan, Erdi Aroko erlijio-eguratsean sartzean ikusgarriro irazeki zena azkenean bere goritasuna galdu arte. Fenomeno mistikoa beti egon da presente kristau-tradizioan --hori lekukoa eskuratze bezala ulerturik-- eta kristau-fedearen hasieratik bere adierazpen egokien eta zientifikoki araztuen Teologia negatibo deituan izan du. Egia ere da hori eta dagokion esperientzia mistikoa ia beti korrante albokide bat izan direla, eta sarri askotan ezkutukoa ere bai, eta ia beti errezeloz begiratua eta zenbaitetan Eliza ofizial eta hierarkikoak jazartua sarritan izaera eta adierazpen nabarmenki subertsiboak izateagatik.

Ezerezaren esperientzia erlijiosoa, Erdi Aroan adierazpen nabarmen eta puntuala Meister Eckhart, Johannes Tauler eta Heinrich Susorengan daukana, baina jadanik aditzera eman dudanez, tradizio kristau eta mendebaldarrean zehar izandako korrante bat da eta funtsezko garrantzia du tradizio erlijioso eta filosofiko ez-kristauak ulertzeko, nola islamdar edo juduak hala hinduista, taoista edo bereziki budistak ere bai. Horrek ekumenismo handiko ikusmuga zabal baterako sarbidea eskaintzen digu, gure tradizio propioaren interpretazio berria eta nagusiki europarra izan den kristautasunaren mugak eroso gainditzen dituen.

Testuinguru honetan komenigarria da adieraztea gure historia mendebaldarrean bertan Teologia Negatibo deitu izan den horren tradizio handi bat nabari dela, zeinean Jainkoa Ezereza bezala agertzen eta esperientzatzen baita. Egia da esperientzia horiek Aro Modernoko europar nihilismoaz zeharo bestelako testuingu historiko batean aurkitzen direla, baina benetan esanguratsua gertatzen da azken finean eta amaierako emaitzari dagokionez gauza berean bukatzea.

Egia da kristau-tradizioak oro har ikonografia oparoa erakutsi duela eta halaber eta batik bat kontzeptuz erabat egituraturiko unibertso bat erlijio-esperientziari adierazpena emateko. Guztiz landuriko metafisika kontzeptual baten janzkera eta arropak soinean ezarriz joan da poliki-poliki, halako moldez, non hori Mendebaldeko erlijioa eta teologiaren lengoia bereizgarri bihurtu dela baitirudi.

Hala eta guztiz ere, oso goizetik, eta era errepikarian detektatzen da negatibitate hutsaren esperientzia eta adierazpena imajina guztiak eta kontzeptu guztiak berriro disolbatu eta desegiten dituzten esperientzia eta lengoia: hitz batean, Ezerezaren esperientzia da. Aski bedi adibide batzuk aipatzea, gutxi, baina, hori bai, muntadunak.

Gregorio Nisakoak (334-394) "Moisesen igoera" (De vita Moysis) bere iruzkin alegorikoan interpretatzen du Moisesek Sinai mendian izan zuen Jainkoaren ikuspenaren kontakizun biblikoa gizakiak Jainkoa ezagutzera egiten duen pixkanakako igoeraren paradigma gisara. Igoera hori, jainkozkoaren gailur-ikuspenerraino, honela deskribatu eta laburbiltzen du: "Giza gogamenak errealitate ikusgaia alde batera utzi duenean, hau da, zentzumenek hautematen dituzten gauza guztiak bakarrik ez, baizik eta pentsamenak itxuraz susmatzen duen guztia, etengabe aurrera eginez doa gero eta barnerago, harik eta pentsamenduak akuilaturik, (barrunbe) ikusezin eta atzemanezinean sartu arte eta bertan Jainkoa ikusten du. Bilatuaren benetako ikuspena horretan datzanez gero, ikusten ez duen horretan ikustean hain zuzen ere, zeren Bilatua ikuspen oroz gainetik aurkitzen baita, ulertezintasunezko ilunpe batez bezala alderdi guztietatik inguraturik dagoelarik².

Pasarte honek eta beste batzuek erakusten dute esperientzia propioaz ari dela, zeren "ikusi" eta "ikuspen" (grekoz: "idein" eta "eidesis") terminoak baitarabiltza. Baina ikusten duena "ez-ikustea" da ("to me idein"), ilunpea, lainoa, hau da, Ezereza.

Elizaren Gurasoak testuinguru horretan eta beste batzuetan etengabe hitz egiten du hodeiaz eta lainoaz (gr.: gnóphos), testu biblikotik hartu eta bere esperientzia mistikoari aplikatzen dizkion adierazmoldeak.

Dioniso Aeropagita aizunak, mende eta erdi geroago, 500. urte aldera, bereizkuntza bikoitz bat egiten du Teologian hitz hauekin: "Gainerakoan kontuan hartzekoa da tradizio bikoitza dagoela teologo kristauen artean: bata arkano (gr.: "apórrheton") eta mistikoa da, eta bestea irekia eta ezagunagoa. Lehena sinboliko eta esoterikoa da; bigarrena filosofiko eta frogatzailea. Baina arkanoak irekiarekin du lotura. Horrek, bere aldetik, argudio fede-emailetara jotzen du eta derrigor lotzen du iragartzen duenaren egia, baina hark jardun dihardu eta Jainkoagan itsasoratzen da irakaskuntzaren gai ez den hasiera-emate batekin"(tais adidáktois mystagogiais")³.

Nolanahi ere aurreko tradizio mistagogikoarekin duen lotura nabaria da puntu askotan, baina bitan bereziki: Jainkoaren ikuspenerako baldintzen deskribapenean eta horren izaera negatiboan.

Lehen aspektuan deigarria eta guztiz harrigarria gertatzen da bere *De mystica Theologia* liburua sarrarazteko darabilen arren trinitarioaren superlatibizazio eta hiperkodetzea. "Oi Hirutasun, kristauen teosofiaren talai supernatural eta superjainkozko eta superrona. Gida gaitzazu hizketaldi mistikoen gailur txit garai, superfrogagarri eta superargitsuraino, zeinean Teologiako misterio bakun eta absolutu eta aldaezinak ilunpe ilun-ilunetan argitasun gorenez distiratzten duten arkanoen isiltasun hasiera-emaelean ilunpe hiperrargitsuan bildurik aurkitzen baitira eta zeinak bere haztaezintasun eta ikusezintasun erabatekoan edertasun paregabeko erlantz bez blai egiten baitituzte begi lurtarrez gabeturiko gogamenak"⁴.

Nekez aurkituko da literatura grekolatindar guztian beste pasarte bat hizperri grekozko hainbesteko luxu eta zarrastelkeriarekin horrelako katakresi-sorta bat eskaintzen duenik, hau da, beste hitz batzuetan esateko, metafora metaforaren gainean metatzean datzan figura erretorikoa lengoaiak bere pobretasun eta egokimen eza adierazkorrez huts egiten duen tokian. Baina aldi berean onartu beharra dago ezertan ez duela huts egiten gehiago giza hitzak, bere "paupertas sermonis" horrekin, apartekoa den jainkozkoaren gaian adina. Hortxe datozkie lengoaiari eta lumari noraeza eta durduzarik handiena. Hortik pleonasmoen elkargainkatze horretara ihes egin beharra.

Baina metatze eta neurririk gabeko ugaritze hori aldi berean suhertasun baten emaitza da jainkotzearen⁵ zentzu jatorrizkoen eta benetakoenean edo salbuespenezko esperientzia horrek erasan eta eraldatua izan denaren jainkozko horditze argitua.

Aldi berean funtsean eta indar guztiarekin iraun egiten du Gregorio Nisakoaren ilunpe beltz-beltzaren irudiak goreneraino areagotuz.

Era berean eutsi eta errebortxatu egiten da bere indar guztian jainkozko igoera horretan ezinbestekoa den eginbeharra: "Eta hik, Timoteo laztana", --dio aurrerago⁶-- "begieste mistikoan biziki trebatuz utz itzak alde batera zentzumenak eta endelguaren jardunak eta sentigarria eta adigarria den guztia eta baden eta ez den guztia, eta, ahal den neurrian, gora hadi ezjakintasunean funts oro eta ezagutza oro gainditzten dituen harekin batasuna lortu arte. Ze, ez bahaiz (gr.: ékstasis) heure baitatik eta gauza guztietatik garbiro irteten, inolako lotura eta bagaiarik gabe, ez haiz iritsiko ilunpe jainkozkoaren izpi supernaturalera harik eta ihes egin arte guztitik heure buru askatuz eta gauza guztiak baztertuz".

Baina Dionisio Aeropagita aizuna Teologia Negatiboaren jarraitzaile ere bada. Bil dezagun puntu hori interes handiko aipu pare batean beren baitan daramaten paradoxazko zama handiarengatik teologia kontzeptualizatu batetik edo Jainkoaren kontzepzio topiko batetik besterik gabe datorrenarentzat.

Obra horretan bertan dio: "Hartan (Dena gaintitzen duen kausan) baieztapen guztiak ezarri eta kokatu beharra dago hura delako guztiaren Kausa, baina aldi berean eta propietate handiagorik hari buruzko baieztapen horiek beroriek ukatu beharra, zeren hura haien guztien gaintetik gainexistitu egiten baita; eta ez da zilegi pentsatzea ukapenak baieztapenen aurkakoak direnik, baizik Kausa hori gabetze oro baino askozaz goragokoa dela eta oso goitik urrundua negatibitate eta positibitate orotatik" (hyper pasan kai apháiresin kai thésin)⁷.

Tomas Akinokoak Aeropagita aizunaren De divinis nominibus liburuaren azalpen eta iruzkinei liburu oso bat eskaini zienak, bere beste obra batean⁸ aipu esanguratsu hau jaso du: "Ukapenak jainkozkoan egiazkoak dira, aldiz baieztapenak trinkotasunik gabeak (incompactae) edo desagokiak". Hortik dator tradizio horri Teologia Negatiboaren izendapena.

Gregorio Nisakoak azaltzen zuen "ez-ikustean ikustea"-ren parekatzea "Bilatuaren benetako ikuspen"⁹ legez hona ere aldatzen da, agian, erredundantzia handiagoarekin: "Guk ere badugu ilunpe hiperrargitsu horretara heltzeko uzia, eta geure itsutasun eta ezjakintasunarekin ikusi eta jakitera iristea, ez ikusiz eta ez ulertuz ikuspen eta ezagutza ororen gaintetik dagon hura. Zeren horixe baita hain zuzen ere ikustea eta ulertzea bere zentzu benetakoan, eta funts ororen gaintetik dagoen hura gorestea, izakiak erabat abandonatzearen bitartez" (día tes pánton ton ónton aphairéseos)¹⁰.

Baina Dionisio aizuna behar bada kezkarrien, paradoxazkoen eta probokatzailleen hurrengo paragrafoan gertatzen da eta beharturik nago hemen aipatzera: "Goranzko zentzuan (unibertso osoaren Kausa) ez dela ez arima, ez gogamena eta ez duela irudimenik edo irizmenik edo arrazoimenik edo adimenik; ez da ez logos ez noesi, ez da mintzamenaren edo adimenaren gaia; ez da ez zenbakia ez ordena, ez handiera ez txikiera, ez berdintasuna ez desberdintasuna, ez antzekotasun ez desantzekotasuna; ez dago zutik eta ez da mugitzen, ez du atsedenik hartzen ez du baretasunik eta ez dauka dinamikarik; ez da potentzia eta ez da argia; ez da bizi eta ez da bizia ere; ez da substantzia, ez eona, ez denbora; ez da bere buruaren ukimen ukigarri; ez da jakitea ezta egia ere, ez da erreinua ezta jakituria, ez da ba ez batasuna ez dibinitatea edo ontasuna; ezta ikusi gaituen izpiritu ere; ezta semetza ez gurasotza, ezta guri edo existitzen direnetako batzuei ezaguna zaien beste edozer gauza ere, ezta ez diren eta diren gauza haietako ezer; existitzen direnek ere ez dute ezagutzen bere baitan den bezala eta berak ere ez ditu ezagutzen direnak badiren heinean; ez du arrazoirik ez izenik ez ezagutzarik; ez da ilunpea edo argia edo egia edo errorea: eta. hitz batean, ez dago hartaz ezarpenik (baieztapenik) edo ukapenik, baizik eta haren ondoren dauden gauzen baieztapenak eta ukapenak ezartzen ditugunean, hura bera ez dugu ez baieztatzen ez ukatzen, zeren guztiaren kausa betegin eta bakuna baita baieztapen ororen gaintetik, eta haren bikaintasuna ukapen ororen gaintetik dago bere bakuntasunean gauza orotatik alderatua dagoelako eta horiek gaintitzen dituen haraindi batean"¹¹.

Gregorio Nyssakoaren eta Areopagita aizunaren ideiek, hautespenean azaldu ditugunek, Erdi Aroko eta ondorengo aroetako Teologian eta pietatean izan zuten jarraipena. Hartan antzeko esperientziak errepikatu ziren ia hitz berez adieraziak. Egia da hain zuzen ere Erdi Aroa izan zela kontzeptualizazio metafisikoaren arte gorena garatu zuena. Baina hain zuzen ere garai horretan aurkitzen ditugu oso sektore adierazgarrietan erlijio-esperientziaren lekuko behinenak, zeinean artifiziozko kontzeptualizazio hori guztia Ezerezean disolbatzen baita. Horren adibiderik garrantzitsuenak Meister Eckhart da eta bigarren maila batean, haren gaien menpean, Johannes Tauler. Egokia izan daiteke hemen oso laburki bada ere bien biografia-xehetasunak ematea.

Johannes Eckhart 1260 jaio zen Ekialde Alemaniako Trübingenen. Oso goiz Predikarien Ordenan sartu zen. Kolonian ikasi zuen "Studium Generale" deitua eta hori egitean segur aski Alberto Handiaren ikasle izan zen. Laster ohartu ziren adimenez eta gizatasunez zeukan balioaz eta horregatik Ordenaren barruan eta Parisko Unibertsitatean garrantzizko karguak izatera iritsi zen; azken horretan lehenago "Magister" gradua lortu zuen, bere irakatsien goi-mailak errebortxaturik bere izenari ezin banatuzko eran loturik geratuko zen titulua bera hil eta gero ere. Han idatzi zituen bere "Quaestiones Parisienses" Gonsalvus de Vallebona Ordena Frantziskotarraren Nagusiarekiko eztabaida ausart eta erronkalarian. Han, Parisen bertan, ezarri zituen segur aski "Opus tripartitum" beste obra teologiko baten oinarriak; ez zuen amaitu eta horretatik zati batzuk soilik geratu zaizkigu. 1314an jadanik Strassburgen dago Dominikar Komentuaren Nagusi bezala eta hiri horretan loratze-gune nagusia izan zuen alemaniar Mistika indartsuaren gidari gisara. Alemaniar hizkuntzaren mugez haraindi lortu duen sonaren gailurrean dago. Bera da hizkuntza horretako kontzeptu filosofikoen gauzatzailea bateratzaile izan Luterori aurea hartuz.

Bere sermoi eta hitzaldi gehienak, beti astintzaileak eta sarritan probokatzaileak, Rhin Garaian zehar zeuden moja-komentu ugarietan aletuz doaz. Bere entzule ikasiek xeheki jasotzen dituzte beren dialekto aleman-alsaziarrean. Komentu horiek dira izpiritualitate mistikoaren benetako zentroak.

1320. aldera berriro Parisen aurkitzen da lehenago Alberto Handiaren eskuetan egona zen "Studium Generale" katedran. Baina bitartean Heinrich von Virneburg, Koloniako Artzapezpikuak, alde zuzenetik Begardoak eta "Izpiritu Askearen Senideak", baita beste sekta batzuk ere jazarri zituenak, prozesu inkisitorial bat irekitzen dio "fedearentzako doktrina arriskutsuak zabaltzeagatik herriari egindako alemanezko sermoietan", Prozesuko Akusazio Agiriak zioenez¹². Hartan bere latinezko eta alemanezko obren 49 pasarte inkriminatu ziren heresia-susmopean, eta horietako 15 bere Buch der göttlichen Tröstung-etik (Kontsolamendu jainkoazkoaren liburua gure argitalpenean). Artzapezpikuak izendaturiko Batzorde inkisitorialaren epaiarekin ados ez zegoelarik, Meister Eckhartek zuzenean eta pertsonalki Avignongo aitasantuarengana jo zuen. Aitasantuaren Batzordeak, halaber gureganaino iritsi den "Diktamen" batean, tesi inkriminatuak "In agro dominico"¹³ Joan XXII.aren Buldako 28 artikuluetara murriztu zituen. Eckhart ez zen bizi izan 1329ko martxoaren 27an emandako bigarren kondena horretara arte. Ustea da 1327 eta 1329 bitartean hil zela Kolonian edo agian Avignonen bertan ebazpenaren zain zegoela. Nolanahi ere Buldak hildakotzat ematen du eta baldintzapean balizko errakuntzetatik aldendutzat. Salbuespen esanguratsu banaka batzuk alde batera utziz gero, kondenatua izanak eragotzi egin zuen bere Teologia mistikoak berehalako eragina izatea, baina askozaz geroago, XIX. mendean bere obrak aurkitu zirenean, eta erlijio ofizialaren defendatzaileek jazarritako mistiko bat izatearen aureolarekin, eragimen berria lortu zuen. Gaur egun aho batezko iritzia dago Eckharten benetako doktrinaren gaizkiulertzeetan oinarritu zela haren kondena, nahiz eta onartu beharra dagoen ez zela gehiegi saiatu bere adierazpen-zakartasunak leuntzen, baizik eta naturaltasun diamantezko eta argi-ikuslean bertan behera utzi zituela.

Johannes Tauler Strassburgen jaio zen 1300 aldera. Artean nerabe zela sartu zen dominikarren ordenan jaioterrian bertan eta bertan 7 edo 8 urtez ikasi zuen eta gero Koloniara joan zen "Studium Generale" ikastera; ozta-ozta izan zen Meister Eckharten zuzeneko ikasle, baina bai haren ikasle izpiritual. Entzute handia lortu zuen arimen gidari probidentziazko eta bizitza izpiritualaren bultzatzaile gisara. Predikari eta arima-artzain bezala ari izan zen, batez ere moja-komentuetan, Kolonia, Strassburg eta Basilean. 1350 aldera, denboraldi batez, baita Parisen ere. Pertsonalitate elizako eta zibil ohargarrien adiskide eta/edo aitorrentzule izan zen. Heinrich Suso, beste mistiko

dominikar handiaren eta era berean Eckharten ikaslearen garaikide izan zen; horrengandik klbiatura izpiritual desberdinak bereizten zuen, Taulerrena, Eckhartena bezala, lehorragoa baitzen, eta Susorena irudimenera eta grafismo bapikatueta isuriagoa, Erdi Aro berantiarreko herri-pietatetik hurbilago zegoena. 1360an hil zen.

Tauler fidagaitz ageri da "Parisko maisu handi"-ekiko "liburu handitan" irakurri arren "bizitzaren liburuaz ezer ez dakitenekiko" (78. sermoia). Nahiz eta ez erabili bere maisua Avignongo inkisidoreengana eramane zuten bezalako adierazpen paradoxazkoak, bere funtsezko gaiak eckhartiarrak dira: Hitzaren betiko sorkuntza, erditze sekretua arima garbituaren, eta ondorioz birjinaren baitan "jainkotasun" garbiaren "irudi" batena ("Gottheit" edo "Abgrund", hau da "amildegia", I. sermoia, ikus 79-81 orrialdeak gure argitalpenean). Baina Jainkoaren jaiotzaren kontzeptua ez dago Taulerengan Eckhartengan bezain nabarmendua eta, lehen esan dudanez, bere maisuaren tesien alde etikoa indar handiagoarekin azpimarratzera jotzen du filosofikoa baino. Taulerren doktrinaren zertzelada ezaugarri bat "Jainkoaren atzeratzea" ("Rückzug Gottes") da arimaren goranzko abiadan etapa gisara, zeinean garbitzen eta sakontzen baita Jainko-irrika. Sufrimenduzko etapa bat da, zeinean "izpiritua abandonaturik gelditzen baita biluzte torturatzaille batean". Kontzepzio horrek geroago adierazpen beteena Donibane Gurutzekoaren "arimaren gau ilunean" aurkituko du.

Taulerren sermoiek jarraipena eman diote Eckharten pentsamenduari haren kondanaren ondoren, baina esan beharra dago ere Tauler dizipulu soila baino zerbait gehiago izan dela.

Ezinbestez Hitzaurre honek duen laburtasunak ez dit uzten ezta gaingiroki ere Meister Eckharten pentsamendu gakoak azaltzen, baina argitalpen honetan duen presentzia murriz samarrak berak ere libratzen nau horretatik. Guztiarekin ere hemen jaso den testua "Das Buch der göttlichen Tröstung" nahiz eta laburra izan, aski adierazgarria da, baina pasarte ez gutxitan enigmatiko samarra gertatzen da, uste dut ondorengo ohar hauek lagungarri gerta litezkeela ulertzeko.

Bere "justifikazio-idatzi"-tik eta prozesu-agirietatik¹⁴ dakigu Eckhartek bere Kontsolamenduaren liburua 1308an asasinatua zuten Albrecht Habsburgekoaren alaba zen Hungariako Agnes erreginarentzat konposatu zuela (1280tik 1364 bitarte aldera). G. Théryk uste du hori izan zela liburuaren konposatze-urtea eta zioa. Horregatik liburua bere zioz eta izenburuz kontsolamenduzko liburuen tradizio luzean sartzen da, zeina esparru kristauan eredu izan zen Boezioren Consolatio Philosophiae estreinatua baitzuen, baina aldi berean Marko Tuliok bere alaba bakarraren heriotzaz eta Erromako errepublika zaharra hondoratzeaz bere burua kontsolatzeko idatzi zuen izenburu bereko obra zizerondarra jarraituz.

Eckhartiar liburutxoa zenbait pasartetan eta batez ere sarrerako pasarteetan oso espekulatiboa da eta guztiz zaila ulertzen, zeren pentsamendu mistiko-eskolastiko zeharo garaietatik barrena baitabil.

Gure argitalpeneko 31. orrialdean, 1.etik 7.erao lerroetan¹⁵, Eckharten oinarritzko gaietako baten aipamena egiten da, "perfectiones generales" deiturikoen erlazioaren gaia, Bakarra, Ona, jakitua, justizia eta abarrena, perfekzio horien eroale diren izakiekiko, batez ere justizia eta justuaren arteko funtsezko erlazioarena.

32. eta hurrengo orrialdeetan nekatu, ahuldu eta zahartzen diren arimaren indarrez hitz egiten denean, bereziki zentzumenenez, gorputzeko organoei estuki loturik daudenez, arimaren "goiko" indarretatik bereizi beharra dago, hau da, nahimena eta arrazoimenetik. 40. orrialdea, 1. lerroa: izatez 30 dira gutxi gorabehera liburuaren erdiko atalean garatzen dituen kontsolamendurako zioak.

61. orrialdean, 13 lerroa eta hurrengoetan Eckhartek laburbildu egiten du, testua egokiro zabaltzen duen bitartean, alde z aurretik azaltzen ari izandakoa: Semearengana

(dibinitatean) heldu nahi duenak, lehenago berak seme bihurtu beharra dauka, eta seme izan ondoren, Semea dagoen tokian dago, hau da, "Aitaren altzoan eta bihotzean". 13. lerroak eta hurrengoek esan nahi dute beraz: Horregatik ongi dio Semeak (= Kristok): Jainkotasunaren Semea (Logosean eta berarekin) Aitarengan, ni nagoen tokian, han egon beharko du... eta abar.

Beste pasarte asko argituago geratuko lirateke baldin eta hobeki ulertzeko Eckarten sermoietako edo beste tratatu teologiko batzuetako ideia eta esamolde parekideetara jotzerik izango bagenu, nahiz eta partez ere jasoak izan ez diren edizio labur honetan. Argitasun handiago horretan sakondu nahi duenarentzat Bibliografian aipaturiko Gabriel Théryren lan horretara igortzen dut, izan ere bertan baitaude jasota latinezko testu jatorrizkoan Eckartek berak emandako argibideak bere liburuan inkriminaturiko artikuluen defentsan¹⁶.

Bere salatzaileei aurre egiteko erabili zuen defentsa eta soberanotasunaren izaeraz aipaturiko "justifikazio-idatziak" ematen du lekukotza. Epaitzeko eskuera Koloniako Artzapezpikuak izendaturiko Fraide Txikien Batzorde inkisitorialari ukatu ondoren, bera jurisdikzioz gabeturiko ordena batekoa zela, kemen eta kategoria morala ukatzen dizkie errotik gaizkoatuak daudelako faltsukeria maleziazkoak bilatzen. "Areago", gehitzen du, "nik sona txikiagoa banu herriaren aurrean eta ez banintz kausa justuekiko hain zelatia, ziur nago ez legokeela nire kontra arituko zen etsairik. Baina egonarriz jasan beharra daukat..., batez ere aspaldidanik Parisen eta gure garai honetan teologiako doktoreek beren agintariaren agindua baitzeukaten Santo Tomas eta anai Alberto (Handia) gizon txit argien liburuak azterketapean jartzeko susmagarriak eta erratuak omen zirelako. Eta Santo Tomas beraren aurka ere askok idatzi zuten eta jendaurrean idatzi eta esan zuten erroreak eta heresiak idatzi eta irakatsi zituela. Baina Jainkoaren laguntzarekin bai Parisetik eta bai Erromako Pontifizearen eta Kuriaren aldetik onarpena merezi izan zuten nola bizitzarena hala doktrinarena".

Eta bere lau argitalpenetatik zetozen inkriminaturiko 49 artikuluen eztabaidan sartuz, ironiaz erronka egiten die bere inkisidoreei: "Egia esan, harritzen nire liburu desberdinetako idatzien aurka egiten dituzten objekzio urriek, zeren aski ezaguna baita horietako ehun eta gehiago idatzi ditudala, (nire akusatzaileen) kamustasunak ez atzeman ez ulertu ezin dituztenak". "Nik predikatu, irakatsi eta idatziriko (eta horiek inkriminaturiko) asertuetako edozeinetan agerian jartzen da horien zentzua hondatzeko borrokan ari direnen kulturarik eza eta buru-moztasuna". "Eta egiten duten lehen errakuntza da ulertzen ez duten guztia errakuntza dela epaitzean, eta aldi berean errakuntza oro heresia dela, hisituki errakuntzari atxikitzea soilik heresia eta heretiko izatea egiten dituenean". "Ze erratzea nik egin dezakedana zerbait da, baina heretiko izatea ez, zeren lehena adimenari dagokio eta bigarrena nahimenari¹⁷.

Pentsatzaile handi baten, ausardiaz beteriko mistiko espekulatibo baten eta, hitz batean, gizon handi baten kemen eta soberanotasunak esanarazitako hitz mamitsuak dira.

Ernesto MARTÍNEZ DÍAZ DE GUEREÑU

Bibliografia

I) Johannes Eckhart

A) Jatorrizko obrak

MEISTER ECKHART. Die deutschen und lateinischen Werke. (Deutsche Forschungsgemeinschaft-ek editaturiko obrak, Erdi Aroko goi-alemanez eta latinez idatziriko jatorrizko eskuizkribuen arabera). Stuttgart 1936 eta hh.

MEISTER ECKHART. Deutsche Predigten und Traktate (Erdi Aroko alemanetik aleman modernorako itzulpena), Regensburg 1955.

MEISTER ECKHART. Buch der göttlichen Tröstung und Von dem edlen Menschen (Liber "Benedictus"). Lehen ezezagunak ziren eskuizkribuen edizioa J. Quint-ek prestatua) Berlin 1952.

MAESTRO ECKHART. Obras escogidas. Ilse M. de Brugger-en itzulpena, Bartzelona 1983.

MEISTER ECKHART. Tratados y sermones. Ilse M. de Brugger-en itzulpena, Bartzelona 1983.

MEISTER ECKHART. Comentario al prólogo de S. Juan. Oscar García Sanz-ek latinetik egindako itzulpena, Madril 1994.

B) Prozesatze-agiriak

DENIFLE, H.: "Akten zum Prozess Meister Eckharts". In: Archiv für Kirchen- und Literaturgeschichte des Mittelalters, 2. libkia, Berlin 1886. (Eskuratzen zaila baina garrantzitsua).

THÉRY, Gabriel, O.P.: "Édition critique des pièces relatives au procès d'Eckhart contenues dans le manuscrit 33b de la bibliothèque de Soest". In: Archives d'Histoire Doctrinale et Littéraire du Moyen Âge. I. libkia, 1926, 129-268 orr.

C) M. Eckhart edo bere obraren aspektuez

WELTE, B.: Meister Eckhart. Gedanken zu seinen Gedanken. Friburgo/ Basilea/Viena 1977.

DE LIBERA, A.: Maître Eckhart. Métaphysique du Verbe et Théologie Négative. Beauchesne 1984.

CAPUTO, J.D.: "The Poverty of Thought: A reflection on Heidegger and Eckhart". In: Listening. Journal of Religion and Culture, 12. libkia, n.º 3 1977. River Forest, III., USA.

UEDA, Shizuteru: "Das "Nichts" bei Meister Eckhart und im Zen-Buddhismus". In: D. Papenfuss/J. Söring (eds.), Transzendenz und Immanenz, Stuttgart, 1978, 257-266 orr.

II) Johannes Tauler

A) Jatorrizko obrak

Die Predigten Taulers (Ferdinand Vetter-ek argitaraturiko haren Sermoiak, Freiburg eta Engelbergeko eskuizkribuen arabera eta Schmid-en Strassburgeko eskuizkribu zaharren kopien arabera) Berlin 1910.

QUINT, J.: Textbuch zur Mystik des deutschen Mittelalters. Halle 1952 (aleman modernoan).

Sermones de Jean Tauler. F. Vetter-en alemanezko edizioaren frantses itzulpena, A. L. Corin, G. Théry eta E. Huguenyren edizioa eta hitzaurreak. Paris 1930-35, 3 libk.

TAULER, Juan: Obras. Teodoro Hernández Martinen edizioa, itzulpena eta oharra. Salamanca 1990.

B) J. Tauler edo bere obraren aspektuez

- GANDILLAC, M. de: "De J. Tauler à H. Seuse". Études Germaniques, 5, Lyon 1950, 241-256 orr.
- LAVAUD, B.M.: L'angoisse spirituelle selon Jean Tauler. Paris 1938.
- LAVAUD, B.M.: Valeur du temps dans la pédagogie spirituelle de Tauler. Montréal/Paris, 1965.
- WYSER, P.: "Der Seelengrund in Taulers Predigten". In: Lebendiges Mittelalter. Festgabe für W. Stammer, Freiburg 1958, 204-311 orr.
- III) Mistikaz oro har
- ORTIGUES, E.: "Que veut dire "mystique"?". In: Revue de Métaphysique et de Morale, 1984, 19, 68-85 orr.
- BAUDARD, A. / SIRET, V.: "'Mystique" gaiari buruzkoa artikulua". In: Les Notions Philosophiques. Dictionnaire, II. libkia, Paris, 1712h. zutabeak.
- COMOTH, K.: "Hegels Logik und die spekulative Metaphysik. Ueber Typen des trinitarischen Symbolons". In Hegel-Studien, 1984, 19, 65-93 orr.
- THUM, B.: "Mystik und Negative Theologie". In: Kairos, 1982 n.º 3-4, 232-253 orr.
- WELTE, B.: Das Licht des Nichts. Von der Möglichkeit einer religiöser Erfahrung, Düsseldorf, 1982.
- SUTTER, A de: "Mística". In: Diccionario de Espiritualidad, t.2.º, 619-624 orr. Barcelona 1983. Liburuki horretan bertan:
- ANCILLI, E.: "Mística no cristiana", 624-629 orr. lehen aipaturiko liburukian.
- MOIOLI, G.: "Mística cristiana". In: Nuevo Diccionario de Espiritualidad. (Italiar edizioaren espainierazko moldaera) Madril 1983 (Erroma 1979), 931-943 orr.
- ANDÍA, Ysabel de: Mystique d'Orient et d'Occident. Abbaye de Bellefontaine, Bégrolles-en-Mauges (Maine-et-Loire) 1994.

Oharrak

- ¹ Atzealde historikoaren ikuspegi zabal eta xeheagorako, ikus bedi HEER, Friedrich: Meister Eckhart, Hamburg, 1956, bere "Einleitung"eko 7-54 or.
- ² Ikus bedi testu grekoa in DANÉLOU, Jean: Sources chrétiennes, Paris, 1955, 337 A. Halaber in ROUËT DE JOURNEL, M.J. eta DUTILLEUL, J.: Enchiridion Asceticum, Brib. de Brisg., 1947, n.º 342 (Quid visio Dei).
- ³ Ikus bedi bere Epistolarioko IX. Gutun horren testua aipaturiko obran: Enchiridion Asceticum, n.º 1065.
- ⁴ Ibid. n.º 1054. N.B. Hori eta aipaturiko gainerako testuak Hitzaurre honen egileak jatorrizko grekotik egindako itzulpenak dira.
- ⁵ Berak "theosis" izendatzen du.
- ⁶ Ibid. n.º 1055.
- ⁷ Ibid. n.º 1056.
- ⁸ Ikus bedi Tomas Akinokoa, "In Librum de Causis Expositio", de. Ceslaus Pera O.O., Torino, 1955, n.º 161 (= 45. or.), zeinean aipatzen baitu Aeropagitaren "Caelestis Hierarchia", cap. II.
- ⁹ cf. Supra oharra (2).
- ¹⁰ Ibid. 1057. Letra kurtsiboa nirea da.
- ¹¹ Ibid. n.º 1059.
- ¹² Ikus bedi bibliografia "Gabriel Théry" eta "Denifle".
- ¹³ Cf. Denzinger/Umberg, "Enchiridion Symbolorum, Frib. Brisg. de. 26, 1946, n.º 501-529, "Errores Ekardi"
- ¹⁴ Ikus bibliografia "Gabriel Théry", 156 or. eta bere defentsa edo "justifikazioa" artikulua bereko 185-207 orrialdeetan. Beste autore batzuek beranduago kokatzen dute. Ebatzi gabeko auzia da.
- ¹⁵ Ondorengo oharretan etengabe aipatzen ditut orrialdeak.
- ¹⁶ Ikus THÉRY, G., o.c., 167-184 eta 187-192 orr.
- ¹⁷ Cf. THÉRY, o.c., 185 eta hh., eta 205 eta hh. orrialdeak.

"Benedictus Deus et Pater Domini nostri Jesu Christi etc." (2 Ko 1, 3).

San Paulo maisu ospetsuak hitz hauek esaten ditu bere gutunetako batean: "Bedeinkatua Jainkoa, Jesukristo gure Jaunaren Aita, Aita errukitsu eta kontsolamendu ororen iturri den Jainkoa! Berak ematen digu adore atsekabe guztietan".

Hiru eratakoak dira gizakiari erasotzen dioten nahigabeak eta zorigaitza sortzen diotenak: lehenengoa, kanpoko ondasunak galtzea; bigarrena, lagunik onenei gertatutakotik datorkiona; hirugarrena, norberak bere baitan pairaturiko lotsakizun, ezbehar, gorputzeko oinaze eta bihotzeko estuasunak.

Hori dela eta, liburu honetan zenbait irakaspen nahi nuke eman, gizakiari kontsolagarri izan dakion ezbehar, nahigabe eta zoritxarrean. Lehenengo partean zenbait egia ekartzen da gogora, sofritzen duten guztiei kontsolamendu bete eta eraginkorra ekar diezaiekeena. Ondoren, hogeita hamar idaz-aipamen eta irakaspen aurkezten dira, berauetako bakoitza kontsolagarri gerta daitekeelarik, baita banaka harturik ere. Eta

azkenik, liburuskaren hirugarren partean etsenplu eta irakatsiak agertzen dira, ezbeharra pairatu izan duen zenbait jakintsuk hitzez eta egitez emanikoak.

I

Ezer baino lehen gogoan hartu behar da, jakintsua eta Jakinduria, egiazalea eta Egia, ona eta Ontasuna, zuzena eta Zuzentasuna, bata bestearen baitan ikusi ohi direla. Ontasuna ez da eгина, ez da sortua, ez da jaioa; sortzailea da eta bere baitatik sortzen du gizaki ona. Eta gizaki ona, on den aldetik, ez da eгина, ez da sortua, eta hala ere, umea da eta Ontasunetik jaiotako semea. Ontasuna ugaritu egiten da eta bera den guztia sorrarazi egiten du ona den hartan. Jakite, maitatze eta egite: hau guztia isurtzen du gizaki onaren baitan, eta gizaki onak bere izate, jakite, maitatze eta egite osoa Ontasunaren barrenetik hartzen du eta handik bakarrik. Gizaki ona eta Ontasuna ez dira ontasun bakar bat besterik, hura sortua dela ezik, eta hau, bestalde, sortzailea. Eta bere baitatik sortzea, Ontasunari dagokiona, eta sortua izatea, onaren ezaugarria dena, izate bat eta bizitza bat besterik ez dira. Onak, Ontasunetik eta Ontasunean hartzen du berari dagokiona; Ontasunean dago, bizi eta kokatzen da, eta Ontasunean ezagutzen du bere burua. Onak ezagutzen eta maitatzen duen guztia Ontasunarekin eta Ontasunean maitatzen du eta egiten; eta Ontasunak, berriz, onarekin eta onagan dihardu bere ekintza bakoitzean, idatzia dagoenez, eta Semeak esan zuen eran: "Niregan bizi den Aita da bere salbamen-egintza burutzen ari dena" (Jn 14,10). "Nire Aita etengabe ari da lanean, eta ni ere bai" (Jn 5,17). "Daukadan guztia zurea da eta zurea nirea; eta hauengan azaldu da nire aintza" (Jn 17,10).

Jakin behar duzue, baita ere, "Ontasuna" izenak edo hitzak ez duela esan nahi Ontasun xume eta argia besterik: ez gehiago, ez gutxiago. Bestalde, gizaki ona esaten dugunean, horrelakoetan ulertu behar da onizate hori emana izan zaiola eta jaio ez den Ontasunari dariola eta beronetik datorrela. Honi buruz hala dio Ebanjelioak: "Aitak bizia bere baitan daukan bezala, Semeari ere bizia bere baitan edukitzea eman dio" (Jn 5,26). "Bere baitan" horrek ez du esan nahi "beretik" duenik, Aitak emana baitu.

Onari eta Ontasunari buruz esan dudak guztiak berdin balio du egizaleari eta Egia-ri buruz, zuzenari eta Zuzentasunari buruz, jakintsuari eta Jakinduriari buruz, Jainko Semeari eta Jainko Aitari buruz; eta balio du Jainkoagandik jaio eta lurrean aitarik ez duenari buruz ere, horrelakoengan ez baitago egindakorik ezer, jainkozko ez denik ezer, horrelakoengan ez baitago beste irudirik Jainkoaren irudi xume, argi eta bakarra besterik. Jadanik San Joanek esaten du bere ebanjelioan, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman ziela ez odoletik, ez haragiaren borondatetik, ez gizakiaren borondatetik jaiotakoei; baizik eta Jainkoagandik, eta beragandik bakarrik, datozenei.

"Odola" esatean San Joanek adierazi nahi du gizakiagan dagoena baina gizakiaren borondatera makurtzen ez dena. "Haragiaren borondatea" esatean adierazten du, haragi-irritserako isuria, gizakiaren borondatearen aurka dagoena, nahiz eta honek bere menpe har dezakeen: gorputzarena da, eta aldi berean arimarena ere bai, nahiz eta arimarena modu ez-propio batean dugun, eta hortik etorri indarrak eskatea eta ahultzea. "Gizakiaren borondatea" esatean San Joanek adierazten ditu arimaren kemenik goitiarrenak, izatez eta egitez haragiarekin nahasten ez direnak, baizik eta arimaren baitan bakarrik sustraitzen direnak, denboratik eta espaziotik urrunduak, eta berauekin zerikusia duten guztitik ere bai, eta berdin beren grinen atsegina berorietan bilatzen duten haietatik. Hemen arimak ez du ezer amankomunean beste gauzekin; hemen gizakia Jainkoaren irudira moldaturik dago, jainkozko jatorria du eta Jainkoaren familiakoa da. Baina arimaren indar goitiar hauek Jainkoa bera ez direnez, baizik eta hasiera batean arimagan eta arimarekin sortuak, beren irudia urratu egin behar dute eta Jainkoarenarekin bakarrik antzaldatu, horrela irits daitezen Jainkoagandik eta Jainkoagan beragan jaiotako sorkariak izatera, Jainkoa bakarrik izan dadin beren aita, eta berak sorkariak izan daitezen, Jaingoikoagandik jaiotako seme-alabak. Ni naiz bere baitan, eta bere jatorriaren arabera, eratzen eta sortzen nauenenaren seme-alaba. Horrela

eratutako gizakia Jainkoaren seme-alaba da, ona eta Ontasunaren seme-alaba, zuzenaren eta Zuzentasunaren seme-alaba. Seme-alaba den neurrian da jaiogabe eta sortzaile aldi berean, eta, jaiotako seme-alaba bezala, Zuzentasunaren esentzia bera du, eta Zuzentasunaren eta Egiaren propietate guztiak bereganatzen ditu.

Irakaspen hauetan guztietan, Ebanjelio santuan idatzirik daudenez, eta arrazoiz jantziriko arimaren berezko argiak ziurtasunez ezagut ditzakeenez, egiazko kontsolamendua aurkitzen du gizakiak bere atsekabe guztientzat.

San Agustinek honela dio: "Jainkoa ez dago ez urruti, ez aldendurik. Ez baduzu nahi zugandik urruti eta aldendurik egon dadin, hurbil zakizkio, izan ere, Haren baitan mila urte egun bat baizik ez baitira". Era berean esango nuke neronek ere: Jainkoagan ez dago estuasunik, ez oinazetik, ez zorigaitzik. Eta ez baduzu zorigaitzik eta oinazetik nahi, itzul zaitez Jainkoagana eta Beragana bakarrik. Ezbairik gabe hor dago oinazearen iturria: ez garela Jainkoagana hurbiltzen eta beragana bakarrik. Zuzentasunaren seme-alaba izango bazinete, eta berorren irudi leial, ez zenukete izango oinaze-arriskurik, jainkozko zuzentasunak berak ez duen bezalaxe.

Salomonek dio: "Zintzoari ez zaio kalterik suertatuko, gaiztoari zoritxarra bete-betean" (Es 12,21). Eta ez dio "gizon zintzoa" edo "aingeru zuzena", ez eta zuzena den honelako edo horrelako besteren bat ere. Era honetako zuzena "semea" besterik ez litzateke izango, eta beraz, aita lurterra izango luke, sorkaria izango litzateke, eta honek egina eta sortua, bere aita ere sorkaria izango litzatekeen bezala, eta egina eta sortua. Zuzentasun single eta zuzena, ez sortua eta ez egina, Jainkoa bakarra da. Horregatik zuzenari, Jainkoari ere ez datorkion eran, ezin etor dakioko oinazetik, ez zorigaitzik; zuzentasunak ezin ekar diezaioke zuzenari atsekaberik, zuzentasuna poza denez, eta maitasuna eta zoriona. Zuzentasunak ekar badiezaioke atsekaberik zuzenari, zuzentasuna bera eroriko litzateke oinazepean. Ez nahigabeak, ez injustiziak ezin ekarri sofrikariorik zuzenari, berau sorkari guztien oso gainetik dagoenez, eta sorkariak ezin baitezake eraginik izan zuzenaren baitan eta ez daiteke birsor ere bere Aita Jainkoa duen haren baitan.

Beraz gizakiak hautsi behar ditu loturak, bai bere buruarekikoak bai edozein sorkariri buruzkoak, eta Jainkoa beste aitarik ez du ezagutuko. Honek bere burua askatzeko emango dio bide Jainkoagandik nahiz lurkariengandik, egindakoaetatik eta egingabekoaetatik etor lekizkioketen oinaze eta estuasunetatik; eta gizakiaren izate osoa, ezagutze, maitatze, jakite, Jainkoagandik etorriko dira eta Jainkoagan izango: Jainko bera izatera iritsiko.

Bigarren gauza bat ere jakin beharko genuke, gizakia bere zorigaitzean kontsola dezakeena; eta zera da: on eta zuzen denak zuzentasuna egitean askoz ere gozamen handiagoa duela, konparaziorik gabe eta ezin esana gertatzeraino, bere izaerak edo jatorrizko bizitzak eman diezaioketen atsegin eta pozbidea baino. Eta hau bera esan daiteke aingeru gorenengaz ere. Hala dela ikusteko, gogora dezagun santuek pozaren pozez eman zutela beren bizia zuzentasunaren amorez.

Gizaki zuzen eta on bati ageriko kalte bat datorkionean, eta lasai eta egonarriz irauten badu bere bihotzeko bakean, orduan ikusiko da harako esaldi hura egia dela: zuzen dena ez du ukitzen gerta dakioketen ezerk. Baina ikusten bada zuzen omen den gizakia ageriko kalteak atsekabetzen duela, horrelakoetan jainkozko zuzentasuna agertuko litzateke, zeinek kezkatzera uzten baitu zuzena izan nahi duen gizakia, baina iruzurtu ere egiten dena uste duelako zuzena dela, hain gauza hutsalek aztoratzen unetik. Jainkoaren legea da, baita ere, gizakia ez dadila atsekabe horregatik, baizik eta poz dadila oraindik bizi duen biziagatik, horrek mundu guztia baino gehiago balio duenez. Izan ere, zertarako luke gizakiak mundu osoa, bera biziko ez balitz ?

Hirugarren egia ezagut daitekeena eta ezagutu behar dena, zera da: Jainkoa dela, berez, ondasun guztien iturri eta ubide bizi bakarra, eta funtsezko egia eta erabateko kontsolamendua; eta Jainkoa ez den guztiak bere baitan daramatzala oinarritzko garraztasuna, nahigabea eta oinazea; eta ez du eskuratzen Jainkoagan dauden eta harengandik datozen ondasunetatik bat ere, baizik eta gutxitu egiten ditu ondasun horiek eta itxuragabetu egiten du Jainkoak denoi emandako gozotasuna, atsegina eta kontsolamendua.

Gehiago esango dut: oinazea dator galdu dudan hartan maitasuna jartzetik. Kanpoko gauzak galtzeak atsekabea ematen badit, gauza ziurra da kanpoko gauzak ditudala maite nik, eta beraz, atsekabea eta nahigabea ditudala maite errealitatean. Zertan harritu, beraz, ni atsekabeturik egoteaz, atsekabea maite badut eta bihotzez bilatzen, eta sorkariei eskaintzen badiet nire maitasuna, Ontasunarena dena, hau da Jainkoarena? Sorkarietara bihurtzen naiz, berez atsekabearen iturri diren sorkarietara, eta urrundu egiten naiz bere izatez kontsolamendua eta poza sortzen duen Harengandik. Orduan zergatik harritu neure atsekabe eta tristuragatik? Erabat ezinezkoa da, bai Jainkoaren eta bai munduaren aldetik, egiazko kontsolamendua gizakiak aurkitzea, sorkarietan bilatzen badu. Baina, sorkarietan Jainkoa bakarrik maitatzen duenak, eta sorkariak ere Jainkoagan bakarrik, horrelakoak leku guztietan aurkituko du kontsolamendu benetako, zuzen eta egokia.

II

Arreta jar dezagun orain hogeita hamar idaz-aipamen horietan, berauetako bakoitza, bera bakarrik, kontsolagarri egokia gerta daitekeelarik atsekabetan dagoen gizakiarentzat.

Lehenengoa da, gogora ekartzea, ez dagoela ezbeharrik erabat zorigaiztokoa denik, eta ez dagoela kalterik bete-betekoa izango denik. Honi buruz, horrela dio Paulo Santuak: "Ez zaizue gainera etorri giza indarrez gainditu ezin halako tentaldirik; leiala da Jainkoa, eta ez du utziko zeuen indarrez gaindiko tentaldirik izan dezazuen. Aitzitik, tentaldiarekin batera indarra ere emango dizue, tentaldia garaitu ahal izateko" (1Ko 10,13). Bai santuek eta bai maisu paganoek berek esaten dute Jainkoak eta Naturak ez dutela onartzen erabat gaiztoa eta eramangaitza izango den gauzarik.

Jo dezagun, adibidez, gizaki batek ehun marko dituela, eta hauetatik berrogei galdu egiten dituela eta hirurogei gelditzen zaizkiola: galdu dituen berrogei markoetan bakarrik pentsatuko balu, atsekabeturik eta nahigabeturik aurkituko luke bere burua. Nola kontsola daiteke eta oinazetik aska, galdu duenaz bakarrik gogoratzen bada eta bere oinazeaz etengabe ohartzen? Bere galeraz bakarrik behin eta berriz oroitzen bada, bere sofrikarioa bakarrik kontuan badauka, eta hartu duen kalteaz bakarrik hitz egiten badu eta beti gogoan edukitzen, nahitaez areagotu egingo zaio jaso duen kaltea, oinazea handiagotuz. Aitzitik, aipatu dugun gizaki horrek oraindik geratzen zaizkion hirurogei markoei begiratuko balie eta, galdu dituen berrogeiak ahaztuz, geratzen zaizkionekin bakarrik baliatuko balitz, kontsolatuko litzateke ezbairik gabe. Zerbait denak eta on denak badu gaitasunik kontsolamendua sortzeko; baina ez denak, eta ona ez denak, nirea ez denak eta galdu dudanak, nahitaez oinazea, atsekabea eta nahigabea ekarri behar.

Horregatik dio Salomonek: "Zoritxar-eginean, ahaztu egiten da zoriona" (Si 11,25). Hau da, oinazepean eta atsekabean aurkitzen zarenean oroi zaitez oraindik gozatzen dituzun ontasun eta zorionez, eta berauetaz balia zeure mesederako. Kontsolagarri behar luke izan gizakiarentzat pentsatzeak, milaka pertsona badirela, berak gordetzen dituen hirurogei markoak edukiz gero, jaun handi eta aberastzat edukiko lituzketela beren buruak, eta zoriontsu izango liratekeela, eta eskertuko lioketeela beren zoria Jainkoari.

Bada bigarren gogoeta bat gizakia kontsolatu beharko lukeena. Demagun eri dagoela, gorputzeko oinaze handiak dituela, baina badu etxebizitza, hornituta dauzka jan-edaneko behar-izanak, eta ez du eskasik mediku-laguntzetan, ez neskame-morroien zerbitzuetan, eta badu lagunen harrera ona eta ardura. Ez ote lituzke, horrelakoetan, gogoan izan behar behartsuak, zorigaitz bera edo handiagoa dutenak, baina inor ez daukatenak ez eta ur freskoa emateko ere? Horiek beharturik daude ogi zati gogor bat bilatzera euritan, elurretan, hotz gogorrean, eta etxez etxe. Zure zorigaitzean kontsolamendurik eduki nahi baduzu ahaztu itzazu zu baino hobeto daudenak; gogoratu zu baino okerrago daudenak.

Oinazea maitasunetik eta nahi izatetik dator, maitasuna eta nahi izatea dira oinazearen sorburu eta azkena. Beraz, nire maitasuna suntsikor diren gauzetan jartzen badut, igarotzen diren gauzei diedan estimuagatik da, eta beraz Jainkoa ez dut maite bihotz osoz, berak eskatzen didan bezala, eta maitatua izatea nahiko lukeen bezala. Suntsikor diren gauzetan maitasuna jartzea gauzak Jainkoaren gainetik jartzea da; zertan harritu, beraz, Jainkoak nahi izatea hain zuzen oinazeak eta zorigaitzak ni eraso nazaten?

Hala dio San Agustinek: "Jauna, ez zintudan galdu nahi, baina sorkariak ere niretzat nahi nituen Zurekin batean; hau zen nire irrika eta horregatik galdu zaitut, nahi ez duzulako Zurekin, Egia zaren horrekin, sorkari faltsurik eduki". Beste leku batean ere esaten digu, "gutizi gehiegi edukitzea litzateke Jainkoarekin nahikoa ez edukitzea; Jainkoaren dohainek nola ase dezakete Jainkoarekin aski ez duen sorkaria?".

Jainkoari arrotz zaionak eta bera bezalakoa ez denak ezin ase eta kontsola dezake gizakia: aitzitik, sofrikizun litzateke beronentzat. Gizakiak beti esan behar du: Jauna, nire Jainko eta nire poza: zerori ez zaren beste zerbait bidaliko bazenit, emaidazu beste Zu bat, ez baitut ezer nahi Zu baizik. Gure Jaunak, Moisesi ondasun guztiak agintzen zizkion hartan, berau Lur Santura bidali zuenean, hitz hauek entzun zituen Moisesengandik: "O Jauna, zeu gurekin ez etortzekotan, ez gaitzazu hemendik abiaraz" (Ir 33,15).

Norbaitenganako isuria, atsegina eta maitasuna aurki daitezke norberaren antzekoa den beste norbaitengan, izaki guztiek dutenez beren antzeko direnentzat isuria eta maitasuna. Gizaki garbiak maite du garbi dena, zuzenak maite du zuzentasuna eta beronetara du joera, eta gizakiaren ahoak hitz egiten du berari barrukoena zaion hartaz. Gure Jaunak dio, "Ahoak esan, bihotzari gainezka darionik esaten baitu" (Lk 6,45); eta Salomonek esaten du "Ahora zer eramana izateko lehiatu ohi dira gizon-emakumeak lanean" (Koh 6,7). Horregatik, seinale ziurra da, maitasuna eta kontsolamendua kanpoan bilatzen edo ipintzen direnean, gizaki baten bihotzean ez dagoela Jainkoa, baizik eta iragankor eta suntsikor diren sorkariak daudela.

Horren arabera, gizaki onak sakonki lotsatu beharko luke Jainkoaren eta bere buruaren aurrean, jabetzen delarik Jainkoa ez dagoela gizakiaren baitan, eta Jainko Aita ez dela gizakiaren barruan ari dena, baizik eta zorigaitzoko sorkaria dela gizonaren baitan bizi eta ari dena. Horregatik Dabidek hots egiten du Salmoan: "Gau eta egun malkoak ditut janari, jendea uneoro galdezka ari zaidala: Non duk Jainkoa?" (Sal 42,4). Nigan nabarituko banu kanpoko gauzetara dudala isuria, sorkari hutsalaren zorigaitzean jartzen dudala atsegin eta kontsolamendua, sorkariez etengabe ahoa betean hitz egiten dudala, seinale ziurra da Jainkoa ez dela bizi eta ari nire baitan. Eta oraindik lotsa handiagoa behar genuke eduki gizaki onen aurrean hauek gudan horrelakorik ikusten dutenean. Gizaki onak ez luke sekula kexu izan behar bere kalteengatik eta oinazeengatik; baizik eta deitoratu behar du oraindik kexu dela, eta arrazoiak dituela kexu eta arranguraz agertzeko.

Maisuek diote zeru azpian sua dagoela, eta suak zerua bere zabalera osoan inguratzen duela, oso hurbiletik gainera; eta hala ere, zeruak inon ez duela nozitzen suaren eraginik. Maisuek diote, baita ere, noblezia gutxien duen arimako alderdia, nobleagoa dela zeruko alderdirik gorenena baino. Eta gauzarik txikienaz estutzen eta atsekabetzen den gizakiak, nola iruzur dezake bere burua, uste izanez zerutar jatorrikoa dela eta bere bihotza zeruan bizi dela?

Beste gai batera igaroz, esan beharra daukat gizakia ezin litekeela ona izan, berak egin nahi ez badu Jainkoak espreski nahi duen hura. Absurdua bailitzateke pentsatzea ona ez den zerbait Jainkoak nahiko duela. Beti gogoratu behar da Jainkoak nahi duen guztia nahitaez dela ona, eta gauzarik onena ere bai, Jainkoak nahi duen une beretik. Jainkoak erakutsi zien apostoluei, eta hauen bidez guri, egunero behar dela eskatu egin dadila Jainkoaren nahia; eta, hala ere, gertakariren batean Jainkoaren nahia betetzen bada, tristatu egin ohi gara eta samindurik aurkitzen.

Irakasle pagano batek, Senekak, galdetzen zuen: "Zein da pozbiderik ederrena oinazepean eta atsekabeen?", eta erantzuten zuen: "Gizakiak gertatzen zaion guztia onartzea, berak hala nahi izan eta eskatu balu bezala". Zuk eskatu eta nahi baduzu gauza guztiak Jainkoagatik gertatzea eta Jainkoak nahi bezala, ezin zenezake haserririk izan sekula. Irakasle pagano batek esan zuen hau ere: "O zu, Printze eta Aita Gorena, zeru goiko Jaun bakarra, prest nago ni zuk bidali nahi diezadakezun guztirako. Emaidazu borondatea zurearekin bat datorrena".

Ona den gizakiak Jainkoagan halako uste ona eduki behar du, eta hain ziurtasun handia, eta Jainkoa hain ontzat eduki, non ontasun eta maitasun hori kontuan hartuz, uste baitu

ezinezkoa dela zorigaitzen bat sortzea, non eta horien bidez ez duen nahi sofrimendu handiago batetik askatzea edo pozbide askoz handiagoko bat lurrian ematea, nahiz ondasun bikainago bat eskaintzea, beronetan hobeto distira dezan Jainkoaren aintzak. Nola nahi ere, kontuan izanik Jainkoaren nahia ezinbestez beteko dela, gizaki onak bat egin behar du Jainkoarekin eta honen nahiarekin, hainbestearino, non iritsiko baita Jainkoak nahi duen hura nahi izatera, nahiz eta gizakiaren kalterako izan. Horregatik San Paulok esaten zuen (Erm 9,13), Jainkoaren borondatea balitz bera Jainkoagandik urruntzea, orduan bertan nahiko zukeela Jainkoagandik urruntzea, honekin handiagotuz Jainkoaren aintza.

Bete-beteen zuzena den gizakiak alde batera utzi behar du bere burua, bere buruaz ustu egin behar du eta (honek oso-osoko zoriona bihurtuko dio) eraldatu egingo da Jainkoaren borondatean, ezer ere ez jakiteraino aldatu ere, ez bere buruaz, ez munduaz; eta Jainkoa bakarrik ezagutuko du, eta ez du ezer jakingo Jainkoaren borondatea baizik, eta beraz, Jainkoa ezagutuko du Jainkoak ezagutzen duen bezala, San Paulok esandakoaren arabera (1Ko 13,12): "gizakiak ezagutzen eta maitatzen duen guztia, Jainkoak bere baitan ezagutzen eta maitatzen du, bere baitako nahimenean. Gure Jaunak diotsa: Honetan azaltzen da betiko bizia: zu, egiazko Jainko bakar hori, ezagutzean (Jn 17,3)."

Maisuek diotenez, zoriondunek zeruan ez dituzte sorkariak ezagutzen beren sorkari-irudietan, baizik eta jatorrizko irudiaren argitan, irudi hau Jainkoa bera denez, eta irudi horretan Jainkoak ezagutzen du, eta maitatzen bere burua, mundu osoarekin batean. Jainkoak berak erakutsi zigun hori eskatzen, horrela otoitz egin behar genuela esan zigunean:

"Gure Aita, zeruetan zarena, santu izan bedi zure izena", hau da, ezer ez dezadan ezagutu zu baizik (Jn 17,13). "Etor bedi zure erreinua": ez dezadala ezer eduki, ez arretaz hartu, ez ezagutu zure nahiaren agindua baizik. Ebanjelioak honela dio: "Zorionekoak gogoz behartsu direnak" (Mt 5,3), honek beren borondatez behartsu direnak esan nahi baitu. Eta guk Jainkoari eskatzen diogu bere nahia egin dadila lurrian, hau da, gure baitan, "zeruan bezala", hau da, Jainkoaren beraren baitan bezala. Horrela prestaturik dagoen gizakia hain dator bat eta hain dago ados Jainkoaren nahiarekin, non nahiko baitu Jainkoak nahi duen guztia, edozer gauza dela. Jainkoak nahiko balu nik Jainkoa baztertzea beronen borondatea betetzeko, eta ni Jainkoagandik urruntzea hori delako bere borondatea, ez nuke nahiko nik bekatu hori ez egiterik, horrela beteko bailitzateke Jainkoaren nahia "lurrian", hau da, delituan, "nola zeruan", ekintza zuzenean. Era honetan gizakiak Jainkoagandik urrundu nahi du Jainkoaren borondateari men eginez eta Jainkoagandik apart gertatuz: hau da nire bekatuaren egiazko penitentzia. Nire bekata mingarri izango da niretzat, baina oinazerik gabe, Jainkoak gaizkia sentitzen duen bezala, baina oinazerik eduki gabe. Nire nahigabea, nire nahigaberik garratzena, bekatutik datorkit, ez bainuen nik bekaturik egingo kreaizio guztiagatik ere, eta nahiz niretzat mila mundu izan betiren beti. Bestalde, hori ez litzateke txarra izango nik onartuko banu Jainkoaren borondatez etorriko balitz bezala eta ni neu Jainkoaren borondatera makurtuko banintz. Horrelako gaitza bakarrik da erabateko gaitza, maitasunean bakarrik baitu bere iturri eta sorburu, borondaterik garbienean eta Jainkoaren gozamenen. Horrela ziurtatzen da eta argi geratzen liburuska honetan esan dudana: gizaki ona, ona den aldetik, Ontasunaren erabateko esentzian barneratzen da, hau da Jainkoa ber-beragan.

Orain ohar gaitezen zeinen bizitza zoragarria daraman horrelako gizaki batek, ez bakarrik "lurrian", baita "zeruan" ere, eta Jainkoaren beraren baitan. Zorigaitza zorion bihurtzen zaio, eta oinazea maitasun. Puntu honetan kontsolamenduaren era bereziak ager daitezke: neuk orain aipatutako graziak eta dohainak baldin baditut, nire adoreak

aldatzeke iraungo du bere poztasunean ordu eta egoera guztietan; eta ez baldin baditut, horiek gabe jarraituko dut Jainkoagatik eta beronen nahiagatik; Jainkoak eman nahi badit neuk eskatutakoa, beraren izenean onartuko dut eta bakea izango dut. Jainkoak ematen ez badit, gabe izango naiz beraren nahiagatik, ez baitit eman eskatu diodanik, horrela onartuz gabezia eta absentsia. Adore honekin ez zait ezer faltako; gainera, egia esan, Jainkoa beteago edukitzen da gabezia hartzekoan baino. Izan ere, gizakiak hartzen duenean, bere baitan du bihotza poztan eta kontsolatzen duen dohaina; baina, ezer hartzen ez denean, ez da ezer edukitzen, ez da ezer aurkitzen, ez da ezagutzen poztekorik ezer Jainkoa eta honen borondatea ez bada.

Gogora dezagun, orain, beste kontsolabide bat: alegia, gizakiak kanpoko ondasunen bat galdu duela, edo lagun bat, edo ahaideren bat, edo begi bat. Galera hori egiaz Jainkoaren maitasunagatik jasaten badu, ziur egon gintezke oso gutxitzat joko duela hori guztia Jainkoaren aurrean, nahiz eta bere borondatez nahiko ez zukeen horrelako oinazetik hartu. Nahiz eta gizakiak nahiko ez zukeen begietako argia galdu, ez eta mila markogatik ere, argi hori pozik galtzen du Jainkoagatik. Hau da, agian, esaldi harekin gure Jaunak esan nahi zuena: "Hobe duzu begibakar betiko bizitzan sartu, bi begiekin infernuko sutara jaurtikia izatea baino" (Mt 18,9). Eta agian hori bera da Jainkoak adierazi nahi duena hau dioenean: "Eta niregatik etxeak, senideak, aita, ama, seme-alabak eta lurak uzten dituenak ehun halako jasoko du eta betiko bizia izango ondare" (Mt 19,29).

Jabetu behar dugu, baita ere, egonarri osoz sofritu ahal izateko bertutea eta gaitasuna trebetasun berezia dela, hala nola naturan ere, gizaki bat ederragoa da edo artosoagoa da beste batzuk baino. Era berean, gizaki on bat lege onez izan daiteke on, eta aitarekiko edo amarekiko berezko maitasunak ukitua izan, horregatik urruntzen ez delarik ez Jainkoagandik, ez Ontasunetik. Horrelakoaren ontasuna handiago edo txikiago izatea honetan datza: ea modu handiagoan edo txikiagoan ukitzen duen gurasoenganako, senideenganako eta bere buruaganako maitasun naturazkoak.

Horago esan dugunez, gizakiak Jainkoaren borondatea bailitzan onartu behar ditu gaitzak; izan ere Jainkoaren nahia baita giza izaerak bere ahuldadeak eduki ditzan (horrela disposatu zuen zuzentasun jainkozkoak lehen gizakiaren bekata zela-eta). Eta horrela ez balitz ere, gizakiak onartu behar du gabezia hori, bere jokabidea zuzena izan dadin eta kontsolamendu ziurra izan dezan oinazealdian. Baieztapen hau aipatzen du San Joanek dioenean: "argi horrek ilunbetan egiten du argi" (Jn 1,5); edo San Paulok esaten duenean: "nire indarra ahulezian agertzen baita bete-betean" (2Ko 12,9). Lapurrak heriotza alaitasunez eta bihotzez onartuko balu Jainkoaren zuzentasunari dion maitasunagatik, zeinak nahi baitu gaizkilearen heriotza, lapur hori salbatuko litzateke eta Paradisuan sartuko. Jainkoaren borondatea da gure salbamina eta gure zoriona.

Bada beste kontsolabide bat: agian ez litzateke aurkituko inor pertsona baten bizia ahin gutxi maite duenik, nahi ez izateraino begi bat galdu eta urte betez itsu gelditu, nahiz eta gero begitako argia bereganatu, horrekin laguna heriotzatik askatuko balu. Gizakiak urte betez gal badezake bere begia besteren mesedetan, urte gutxiren barruan hil behar duen horrek heriotzari ihes egin diezaion, ez ote lieke gogotsu uko egingo ez bakarrik begiari baizik eta agian geratzen zaizkion hogeita hamar bizi-urteei, horrela betiren beti zoriontsu izateko eta betikotasunean Jainkoa kontenplatzeke beronen argi jainkozkoan eta Jainkoagan bai bere burua beste sorkari guztiekin batean?

Kontsolamenduzko beste era bat: gizaki onak, ona den aldetik, Ontasunetik jaioa denez, eta Ontasunaren antzirudi, ez da kexu sortutako ezerengatik; harentzat sorkariak garraztasun eta kalte dira, eta hurbiletik begiratuz gero, harentzat, sortutako gauza guztiak galtzeak esan nahi du askatzea eta urruntzea ezbeharretik, atsekabetik, oinazetik. Oinazea galtzea kontsolamendu zuzena da, egiaz; kanpoko ondasun oro ez da

nahigabea besterik, oinazea eta atsekabea besterik, eta, beraz, gizakiak ez luke negar egin behar hori galtzeagatik. Aitzitik, nahigabetuta egon beharko luke ez dituelako ezagutzen egiazko kontsolamendua eta benetako zoriona, eta kontsola ezin daitekeelako egiazko kontsolamenduz. Eta deitoratu behar luke sorkarietatik liberatu ez delako eta Ontasunean antzaldatu ez delako, beronetan sustraituz eta beronen irudi leial izanez.

Samintasun egunetan gogoratu behar litzateke, gainera, Jainkoak egia diola, eta egiazkoak direla bere agintzariak, Bera ere Egia denez. Jainkoak hutsegiterik egingo balu bere egian, edo bere hitzekin iruzurtuko bagintu, ez litzateke Jainkoa izango; bere hitza Egia da. Baina Jainkoaren hitzak esaten digu oinazea behar dugula pozbide bihurtu (Jr 31,13). Ziurtasun osoz baneki mintzen nauten harriak urre gorri bihurtuko liratekeela, zenbat eta harri gehiago eta handiagoak izan, hainbat hobe niretzat! Ziurtasun osoz baieztatzen dudan uste hau edukiz gero, edozein gizaki kontsola liteke bere ezbeharretan.

Bada beste kontsolamendu bat antz-antzekoa. Edontzi batek ez ditzake une berean bi edari desberdin bere barruan eduki; ardoa eduki behar badu, nahitaez ura hustu egin beharko dugu; edontziak lehor egon beharko du tanta bat ere gabe. Era berean, jainkozko pozez zeure burua bete nahi baduzu, nahitaez zeure baitatik atera beharko dituzu sorkari guztiak. Horregatik San Agustinek dio: "Huts zaitez betea egon zaitezen; ez dezazula maita, horrela maitatzen ikas dezazun; urrun zaitez zeure burutik horrela zeure buruarekin aurki zaitezen!". Esaten dugunean beharrezko dela bete behar den hura hutsik egotea, propietate guztiaz hitz egiten dugu. Maisuek esaten digute begiak bere baitan kolorerik izango balu kolorea hartzen duen hartan, ez lukeela ezagutuko daukan kolorerik, ez eta ez daukanik ere: begiak ez du kolorerik eta horregatik ezagutzen ditu kolore guztiak. Paretak, adibidez, bere kolorea du eta horregatik ezin ezagutu du ez bere kolorerik, ez, eskuarki inolako besterik, urrearen margo ederrik, ikatzaren kolore beltzik. Begiak ez du kolorerik eta, hala ere, modu berezian hartzen du kolorea, atseginez eta gozaldiz bere-baitaratzen duenez.

Horregatik, zenbat eta garbiago eta gardenago izan arimako indarrak, hainbat beteago eta zabalago hartuko ditu arimak bere baitan, gozamen handiagoa izango du eta estuago bat egingo du hartzen duenarekin, hain era estuan ze gauza guztietatik libre den eta hauekin inolako zerikusirik ez duen arimaren ahalmenik gorenena ez baitu bere baitan ezer hartuko Jainkoa bera ez bada, bere-berea duen izaeran. Eta maisuek diotenez, ezer ez omen dago konparatzekorik batasun honen gozamenarekin eta gainezkatze honekin. Horregatik argi eta garbi dio gure Jaunak Ebanjelioan: "Zorionekoak gogoz behartsu direnak" (Mt 5,3). "Behartsu" da ezer ez duena, eta "gogoz behartsu" da, izpiritua hutsa izanik, gaitasuna duena bereganatzeko izpirituzko dohain guztiak eta izpirituaren betea ere bai (hala nola begia, behartsu denez eta inolako kolorerik gabea, gai da, hala ere, kolore guztiak bereganatzeko). Jainkoa izpiritua da eta izpirituaren dohainak dira maitasuna, bakea eta alaitasuna. Xume eta behartsu izateak, ezer ez edukitzeak, hutsik egoteak, antzaldatzen dute natura: hutsaren eraginez, ura igo egiten da mendi gainera eta beste ondorio harrigarri asko ere egin ohi ditu, guk hemen aipatuko ez ditugunak.

Jainkoaren kontsolamendu eta alaitasun beteak aurkitu nahi badituzu, ahalegindu zaitez sorkari guztietatik zeure burua askatzen, eta hauetatik datozen kontsolamendu guztietatik, izan ere, egiaz ez duzu benetako kontsolamendurik aurkituko sorkarietan bilatzen duzun bitartean. Jainkoak beste inork ez zaitzake kontsola eta bere baitan eta berarekin bakarrik aurkituko duzu zorientasun betea. Jainkoa ez den hartan zeure kontsolamendu bilatzen baduzu, ez duzu inon ere aurkituko; baina sorkarietan bilatzen ez baduzu kontsolamendua eta berauetan atsedetik hartzen ez baduzu, nonahi aurkituko duzu kontsolamendua.

Gizaki batek edontzia hustutzerik balu, eta honek eduki lezakeen guztia kentzerik, baita haizea ere, antzaldatuko luke ezbairik gabe koparen izaera eta hustasunak zeruraino igoaraziko luke. Era berean, apaltasunak, pobreziak eta sorkaririk ez edukitzeak jasoko lukete bere arima Jainkoaganaino. Orobat, barne-berotasunak eta adiskidetasun-gogoak gorantz bultzatzen dute. Jainkotasunean, berdintasuna Semeari bereganatzen zaio, berotasuna eta maitasuna, berriz, Izpiritu Santuari. Kasu guztietan, eta bereziki Jainkoaren izaeran, antzekotasuna Batasunaren sortzea da; Batasunaren sortze hau, eta Batasunean eta Batasunarekin, maitasun sutsuaren hasiera eta sorburu da loretzear dagoena.

Baina Batasuna hastapenik gabeko hasiera da; berdintasuna Batasunari esker bihurtzen da hastapen, eta Batasunari bakarrik dio zor izaera eta hastapen izatea. Maitasuna, bestalde, bik batasun bat egiten duten aldetik sortzen da, ez bi diren aldetik, ez bitasunetik: maitasunik ezin da izan, oro har, bitasunean. Baina batasun itxura hartzen duen bitasunak berez eta nahitaez sutsu, jaieratsu eta abegitsu bihurtzen du maitasuna.

Salomonek dioenez, "ibaiak oro itsasora doaz, ibaiak, nora doazen, harantz dira behin eta berriro joaten" (Koh 1,7). Honek neuk esaniko gauza bera adierazten du: Jainkoaren antzeko izateak eta Jainkoa maitatzeak bultzatzen diola arimari eta eragiten ere bai gora jotzeko, bere lehenengo iturrira itzultzeko, Batasunera itzuli, zeruan eta lurlean gure Aita den harengana (Ef 4,6). Nik diot, antzirudiko izateak eta batasunetik sortua izateak Jainkoagana jasotzen dutela arima, jaio gabeko Batasunean bat den Jainkoagana. Bada nik diodanaren adibide argi eta garbia: suak egurra pizten eta erretzen duenean, egurrak suaren izate berbera bereganatzen du, eta zero azpian inoren laguntzarik gabe dagoen su beraren antzeko bihurtzen da. Suak ahazten ditu eta "bertan behera uzten aita eta ama, neba eta arreba" eta zeruetako Aita azkar bilatzen du harengana joz. Txingarraren aita sua da hemen lurlean; haren ama egurra, eta haren neba-arrebak gainerako txingarrak dira. Baina lehenengo txinpartak ez die itxaroten; azkar egiten du gorantz, eta egiazko Aitagana zuzentzen da, hau da, zerura. Baina Egia sakonetik ezagutzen duenak badaki sua, sua den aldetik, ezin daitekeela txinpartaren egiazko aita izan; su guztien eta gar guztien egiazko Aita zerua dela.

Ohartu behar da, baita ere, txinparta txiki honek ez duela hau bakarrik egiten: aita eta ama abandonatzea lurlean, baizik eta bere burua galtzen duela, bere egiazko aitaganako, zeruaganako, maitasun jatorrizkoaren indar huts batean bihurtzen dela, nahitaez haize hotzetan desegingo delarik, eta hala ere, bere izatez dagokion maitasuna agertu nahi dio zeruko bere egiazko Aitari.

Hutsarteari buruz orain arte esan dugunak berdin balio du pobreziari buruz ere. Hau da: zenbat eta xumeago eta behartsuago izan arima, orduan eta sorkari gutxiago hartuko ditu bere baitan, eta hutsagoa gertatuko da Jainkoa ez den gauza guztiak utziz, eta garbitasun handiagoz hartuko du bere baitan Jainkoa, orduan eta gehiago egongo da Jainkoagan, hertsiago bat egingo da Jainkoarekin Jainkotasunean, eta iritsiko da Jainkoa "aurpegiz aurpegi" kontenplatzerara, San Paulok esaten digun bezala, eta jadanik ez irudien edo itxurapenen arabera. Gauza bera esan dezaket nik orain Batasunari buruz eta maitasun sutsuari buruz: zenbat eta antz handiago izan bata eta besteak, orduan eta azkarrago joango da bata bestearen ondotik eta gozoago izango da beretza bilaketa hori: eta zenbat eta gehiago urundu bere baitatik, eta berak izan nahiko lukeen batasun hura ez den guztitik, orduan eta desberdinago aurkituko da bere buruarekiko eta batasuna ez den guztiarekiko, eta antza handiagoa izango du berak desio eta bilatzen duen harekiko. Eta berdintasuna Batasunetik datorrenez, eta batasunaren indarrez eta kemenez, antzeko direnek elkar erakartzen dutenez, ondorioz ez da atsedetik ez pozbiderik izango, ez erakartzen duenarentzat, ez erakarria denarentzat, harik eta bata eta bestea Batasun berean bat egiten duten arte. Horregatik Isaias profetaren ahotik hitz egiten digu eta

erakusten Jainkoak: "Ez gaindegiak, ez haran sakonak, ez maitasun sutsua zaizkit aski, harik eta neroni nire Semearen baitan agertzen naizen arte, eta berau sutu eta irazeki dadin arte Izpiritu Santuaren maitasunean" (Is 62,1).

Jesukristo gure Jaunak eskatu zion Aitari bat izan gintezela gu Berarekin eta Beragan, eta ez bat eginik bakarrik, baizik eta Batasun bakar bat bera. Hitz hauek eta egia hau baieztatzeko, badugu bistan eta agerian den seinale bat, sendogarri dena: sua. Egurrean sua pizten denean, eta egurra garretan jartzen, ilinti bizi bihurtzen du, suak egurra urritu egiten du eta erabat aldatzen lehengo itxurari bagagozkio, bere laztasuna eta hotza kentzen dizkio, bere pisua eta ezetasuna ere bai, eta antz handiagoa harrarazten dio suaren izate berarekin. Baina ez egurrak, ez suak, ez dute etsirik, ez atsedetik hartzen berotasun bat lortu dutelako edo biak garretan daudelako; beharrezkoa da sua egurrean berean sartzea, eta suak egurrari bere natura ematea, guztia antzeko gerta dadin, gero eta berdinago, beren arteko diferentziarik txikiena ere ezabatuz. Une honetara iritsi aurretik, zirti-zartakoak eta jazarketak egon ohi dira, txingarketak eta borrokak suaren eta egurraren artean; eta aurretik zeuden ezberdintasun guztiak kendu eta ezabatu ondoren, sua lasaitu egiten da, itzaltzen eta egurra berriz, ezkututzen.

Honi gehituko nioke orain, Naturaren indar ezkutuak ez duela sakabanaketa bakarrik gaitzesten, baizik eta antzeko izatea ere gaitzesten duela, antzekotasunak ezberdintasuna eta bikoiztasuna baititu berekin; Batasuna besterik ez du bilatzen bestalde, Batasuna antzekotasunean: hori da bilatzen duen gauza bakarra, ahoak ardoan dastaketa maitatzen eta bilatzen duen eran, gozotasunarekin batera; urak ardoaren erakartasuna edukiko balu, ahoak ez luke ardoa ura baino gogokoago izango.

Eta hari honi jarraituz, esan dut nola arimak antzekotasuna gaitzesten duen, eta ez duela maite antzekotasunagatik beragatik, baizik eta bere baitan ezkututzen den Batasunagatik, eta egiazko "Aita" den honengatik, berau baita ororen sorburu, hasierarik ez duena ez zeruan ez lurrian. Honi buruz, nik diot: suaren eta egurraren arteko antzekotasunaren estadioan gauden artean, ez dugu aurkituko ez atseginik, ez gozotasunik, ez bakerik, ez pozbiderik. Horregatik diote maisuek supiztea loturik doala zailtasunarekin, oinazearekin, eta atsedetik gabeko lanarekin. Supiztea, ordea, pozbide den aldetik, denboraren eta espazioaren mugetatik at dagoen zerbait da.

Orain arte esan dudan guztia gure Jaunak ere esaten digu hitzotan: "Emakumea, erditzerakoan, triste egoten da, ordua heldu zaiolako; haurra jaio ondoren, ordea, ahaztu egiten da larrialdiaz, mundura gizon bat ekarri duelako" (Jn 16,21). Jainkoak adoretzen gaitu Ebanjelioan, zeruko Aitari eska diezaiozun, betea izan dadin gure poza. Filipok dio: "Erakutsiguzu Aita eta aski dugu" (Jn 14,8). "Aitak" Batasuna esan nahi du, zeinetan antzekotasun-gogoia baretzen baita eta itzaltzen izateko grina oro.

Seinale hauei esker gizakiak ezagut dezake zergatik nahigabetzen den bere oinazetan, bere zorigaitzetan eta ondasunak galtzen dituenean. Seinale hauen argitan jabetuko da nola dena Jainkoagandik aldentzetik datorkion, nola bere burua sorkarieratik ez duen askatu ez eta kezka-gabetu, nola den Jainkoaren desberdin, eta zeinen epela den Jainkoari dion maitasuna.

Bada beste burutazio bat ere, galeraren bat edo kanpoko ezbeharren bat izan ondoren, kontsolagarri izan daitekeena gogoeta egin nahi duenarentzat. Demagun norbaitek bide bat aukeratu duela, ekintza bat osabete duela, edo beste lanen bat egin gabe utzi, eta horrela jokatu eta gero kalte bat datorkiola: izterra edo besoa hautsi, edo begia galdu edo gaitzen bat harrapatzen duela. Pentsatzen hasiko balitz: beste bide bat hartu izan banu, edo beste lanen bat egin izan banu edo hura egin izan ez banu, ez zitzaidan horrelakorik gertatuko, orduan nahitaez atsekabetuko litzateke eta ondamenean eroriko. Baina beste modu honetara pentsatu beharko luke: beste bide bat hartu izan banu, beste ekintzen bat egin izan banu, edota, egin gabe utzi, agian orduan gaitz askoz handiagoa

nozitu beharra gerta zekidakeen. Horrela jokatzuz gero, poztu eta alaituko litzateke bere bihotz barruan.

Jo dezagun mila marko galdu dituzula. Ez zara sekulan lantuz hasiko mila marko galdu dituzulako; Jainkoari eskerrak eman behar dizkiozu diru hori eman dizulako, eta egokiera honetaz baliatu behar duzu bertuteari diozun maitasuna erakusteko, zure pazientzia sendotzeko eta betiko bizitza irabazteko, gizakietan milaka askok ez baitute egokierarik horretarako.

Aipa dezagun orain gizakia kontsola dezakeen beste egia bat. Norbaitek bere ongizate bete urte jakin batean lortu izan balu eta gero halabehar gaiztoz galdu, zuzen jokatzez gerotan, Jainkoari eskerrak eman beharko lizkioke orain nozitzen duen zorigaitzagatik: jadanik badaki, batez ere, nolako ongizatea eta erosotasuna gozaten zituen lehenago, eta eskerrak eman diezaizkioke Jainkoari beronek aldi hartan emaniko onura guztiengatik, bere zortiaz gaizki esaka ari gabe. Gogoratu behar du gizakiak bere izatez ez duela ezer, gaizkia eta itsuskeria ez bada; duen on guztia Jainkoak ordaintzekotan utzia duela eta ez beretzat emana. Egiaren berri duen orok badaki zeruko Aitak Semeari eta Izpiritu Santuari bakarrik eman diela Ontasun guztia; baina sorkariei ez die ontasuna ematen, ordainetan itzultzeko utzi baizik. Eguzkiak beroa damaio eguratsari; argia, berriz, prestamen modura. Horregatik eguzkia gorde bezain laster, eguratsak argia galdu egiten du, nahiz eta beroak oraindik iraun, beretzat emana izan delako. Arrazoi horregatik diote maisuek zeruko Aita Semearen Aita dela, ez ordea bere Jauna, Izpiritu Santuarena ere hala ez den bezala; baina Aita Jainkoa, Seme Jainkoa eta Izpiritu Santu Jainkoa eginak diren gauza guztien Jaun direla. Horregatik esaten dugu Jainkoa, betieratik Aita izanik, Jaun egin zela gauza guztiak sortzeagatik.

On den guztia eta gizakiarentzat kontsolagarri izan litekeen guztia gizakiari ordaintzekotan utzi bazaio, zer eskubide du gizakiak lantua jotzeko Jainkoak berriro kentzen dionean? Eskerrak eman behar lizkioke bere esku utzi dizkion denboragatik, eta eskertu behar dio ordainetan utzitako guztia erabat kendu ez diolako; horrelako zerbait merezia luke gizakiak sutzen denean Jainkoak kendu diolako sekula berea izan ez den zerbait, jabegoan eduki ez duen zerbait. Horregatik arrazoiz deitoratzen zen Jeremias profeta atsekabetan sumindurik aurkitzen zenean, esanez: "Jaunaren onginahia ez dela amaitu, haren errukia ez dela agortu" (Nk 3,22). Norbaitek ordainetan bere jantzia utziko balit, eta berdin bere sare-gorontza eta bere gainjantzia, eta gero gain-jantzia eskatzen badit, soinekoa eta sare-gorontza kontsolagarri utziz, ez al nuke pozik egon behar eta benetan eskertua, egin didan mesedeagatik? Zeinen makurra den gure jarrera, zerbait galdu dugula-ta, haserretzen eta oihuka hasten garenean! Izan ere, nahi izatea gozaten ditugun gauzak gureak bezala eman zaizkigula eta ez ordainetan utzi, hori jabe izatea desiratzea da, izatez Jainkoaren seme-alaba, perfektuak nahi izatea, izanik gu Jainkoaren seme-alaba Haren graziari esker bakarrik. Errealitate eta egoera guztietan bere izaerarekin bat etortzea, hori Semearen eta Izpiritu Santuaren eskubidea da beti.

Jakin behar da gainera, eta inolako zalantzarik gabe, beste hau ere: jadanik hain da handia eta indartsua gizakiaren bertute naturala, non ez baita kanpoko langintzarik, zail eta neketsu izanik ere, bertute naturalari agertzea eta distiratzea debeka diezaiokeenik. Baina bada gainera barruko langintza bat ez espazioaren, ez lekuaren mugabarruan sartzen dena, eta beraz, Jainkoarekin eta jainkozkoekin analogia gordetzen duena, hauek ere sartzen ez direnez espazioaren eta denboraren mugabarruan. Langintza hori beti presente dago leku guztietan, eta honetan ere beste edozein sorkarik baino Jainkoaren antza handiagoa du, sorkariak ez baitaitezke Jainkoagana era perfektuan igo, eta ez ditzakete bere baitan hartu ere Jainkoaren ondasun guztiak. Horregatik da beharrezko barruragoko eta goragoko den zerbait egon dadin, sortua ez den zerbait, mugarik eta

irudirik ez duena, zeinengan Aitak isur dezakee bere burua, eta zeinengan Aitak ikus dezakee bere burua: Semea eta Izpiritu Santua.

Ezer ez daiteke bertutearen barruko langintzaren aurka jarri, ezer izan ez litekeen bezala eragozpen Jainkoarentzat. Langintza hau argiro agertzen da gau eta egun; kantu berri batez maitatzen du eta goratzen Jainkoaren aintza. Hala dio Dabidek: "Kanta Jaunari berria, kanta Jaunari, lurtar guztiak" (Sal 96,1). Kanpoko langintza ez da Jainkoak maite duena, denboraren eta espazioaren muga barruan kokatzen den langintza, hedadura gutxikoa, kanpotik zailtasunak eta eragozpenak izan ditzakeen langintza, ohituraren nekeari eta denboraren zahartzeari loturik dagoena. Barruko langintza Jainkoa maitatzean datza eta ona nahi izatean; hemen gizakia aurki badaiteke berak egin izan duen guztiarekin eta onerako borondate osoenaz egin nahi izan duenarekin. Honetan ere konparagarri da Jainkoarekin, Beronengan, Dabidek dioenez, dena bete baita: orain egin duena eta egin nahi izan duena.

Irakaspen hau sendotzeko frogarri bat harriak ematen digu: harriak agerian egiten duena da goitik behera erori eta geldirik geratu lur gainean. Ekintza honi eragozpena jar dakioke, eta horregatik harriak ez dira etengabe erortzen. Baina beste gertakizun bat bada harrian: beherako duen etengabeko bulkoa, eta hau berezkoa du; ezin diezaioke ken ez Jainkoak, ez sorkarik, ez inork. Egiteko hori eskakizun da harriarentzat, etenik gabe, gau eta egun; eta ehun urtez egonik ere han goian, beherantz egingo luke lehen egunean bezala, ez gehiago ez gutxiago.

Era berean egiaztatzen dut bertutean badela barruko ekintza-joera bat, hau da, onerako joera eta isuri bat, gaitz eta kaltegarri denari aurka eta ihes egitekoa, Jainkoarentzat eta ongiarentzat arrotz direnei aurka eta ihes eginez. Ekintza bat zenbat eta txarragoa izan eta Jainkoarentzat arrotzago, orduan eta handiagoa izango da ekintza honekiko etsaigoa; baina, zenbat eta nobleago eta Jainkoaren idurikoago izan ekintza bat, orduan eta errazago, atseginago eta gogotsuago joko du horrelako ekintza batera. Eta bere lanturu eta hasperen guztia da, gaitzen bat datorkionean, jasaten duen mindura txikiegia dela Jainkoagatik sofritzeko, eta denborazko eta azaleko lanak arinegiak direla mindura hori ager dadin eta distira dezan berorietan; ariaren ariz sendoago egiten da eta bihotz zabaltasunez aberatsago. Oinaze-minik ez du utzi nahi, ez berorietatik askatu; nahiago du etenik gabe sofritu Jainkoagatik eta onagatik. Erabat zoriontsu da Jainkoagatik sofritzen duenean, ez noski, sofritzeagatik bakarrik.

Horregatik dio gure Jaunak "Zorionekoak zuzenagatik erasotuak". Gizaki zuzenak ez du aski sofritzearekin, lehen sofritu izana ez baita orain berak sofritu nahiko lukeena. Horrelako gizaki batentzat, lehen sofritu izana eta orain sofritu gabe, oraingo sofirimendurik ez edukitzea litzateke; eta era berean esan daiteke ez duela pozbiderik etor lekiokkeen sofirimenduarekin ere, berau ez baita hertsiki sofirimendu bat, nahiz eta maiteago izan etortzekoa den sofirimendua eta ez igarotako hura, berau konpara ez daitekeenez oraingo oinazearekin, jadanik joana baita. Etorkizunean jasan beharko duen oinazeak, berriz, ez dio erabat eragozten berak maite duen sofirimendua.

San Paulok esaten digu (Erm 9,3) bera Jainkoagandik aldenduko litzatekeela Jainkoaren maitasunagatik, hori egitearekin gehiagotu eta zabalduko balira Jainkoaren izena eta aintza. Baieztatzen da San Paulok hau esan zuela oraindik perfekziora iritsi ez zen hartan. Nik, berriz, uste dut perfekziozko bihotzean bakarrik jaio litezkeela horrelako hitzak. Bada uste duenik horrela mintzatzean hau baizik ez zuela esan nahi: "Jainkoagandik une batez urruntzea"; baina honi erantzuten diot gizaki perfektuak atsekabe eta sofirimendu bera izango lukeela sofirimenduak ordu bete iraun, edota mila urte iraun. Jainkoak hala nahirik eta Jainkoaren aintza handiagotzeko gizaki zuzena

Jainkoagandik urrunduko balitz, nahiz eta mila urte iraun urruntze honek, eta betikotasun bat ere bai, ordu bete bezain erraz jasango luke horrelako urruntzea.

Honetan ere barruko langintzak koalitate jainkozkoa du, sortua den orok nahiz eta mila mundu izan, izpi bat ere ez luke onduko berak bakarrik kreatzailearen koalitaterik. Horregatik diot, eta lehen ere esan dut, kanpoko langintzak, denik eta handiena eta eraskotakoena izan, ezer ere ez duela gehiagotzen barruko langintzaren ontasunik, honek balioa bere baitan duenez. Ondorioz, kanpoko langintza ezin liteke sekula txikia izan barrukoa handia bada, eta kanpooka ezin liteke handia edo ona izan barrukoa txikia bada, edota ez bada. Barruko langintzak bere baitan biltzen du beti kanpooka, beronen alderdi guztiekin. Bere izatea Jainkoagandik eta Jainkoaren bihotzetik bakarrik hartzen duena, Jainkoaren seme-alaba egiten da, eta Jainkoaren seme-alaba sortzen zeruko Aitaren altzoan.

Kanpoko ekintzarekin ez da horrela gertatzen. Honek bere ondasun jainkozkoa barruko ekintzatik hartzen du. Nola? Beherantzako bidetik eman ohi da, diferentziaz, kantitatez eta partzialitatez jantzitako jainkotasunetik; baina hori guztia, antzekotasuna ere hala den bezala, arrotz eta kanpoko zaizkio Jainkoari. Barruko ekintzak Ontasun jainkozkoan ditu erroak eta bere atsedena; sorkaria itsu da bere baitan harturiko ontasunarentzat eta argiarentzat, itsu da Batasunarentzat, zeinetan Jainkoak bere Seme bakarra sortzen baitu, eta beronengan sortzen ere Jainkoaren seme-alaba diren guztiak, bere egiazko seme-alaba direnak. Hemen dago Izpiritu Santuaren sorburua, beronen bidez, Jainkoaren Izpiritua, Jainko berarekin Izpiritu bakarra baita, Semea sortzen da guregan. Hemen dago Jainkoaren seme-alaba diren guztien sorburua, Jainkoagandik jaio direnez modu gutxi-asko garbian, Jainkoaren arabera eta Jainkoagan, eta desberdintasun guztitik askatuak, baita aingeru gorenenetan aurkitzen den hartatik ere, berauen izaerak oraindik hala eskatzen duenez.

Barruko langintza osokoa lortu nahi lukeena, urrunduko da ontasunetik, egiatik eta bere ideian edota izenean bereikuntza baten itzala edo itxura daraman guztitik: Batasunean bakarrik du bere uste ona, Batasunak ez duenez desberdintasunik eta mugarik, eta beragan dena singlea bihurtzen da, bereizkuntzak eta mugaketak galduz, eta Aita eta Semea eta Izpiritu Santua ez dira Izate bakar bat baizik. Batasuna da betiko bizia damaiguna. Gu zenbait eta gehiago urundu Batasunetik, orduan eta gutxiago izango gara Haren Seme, edo seme-alaba, eta indar urriagoz irtengo da gugandik Izpiritu Santua. Zenbat eta hurbilago izan Batasunetik, orduan eta egiazkiago izango gara Jainkoaren Seme eta seme-alaba, eta ugariago jaioko da guran Jainkoa eta Izpiritu Santua. Hau da gure Jainkoaren Semeak bere jainkotasunetik jalgitako hitzen esanahia: "Nik emango diodan uretik edango duena, ordea, ez da sekula egarri izango; zeren nik emango diodan ura betiko bizia darion iturburu bihurtuko baitzaio barruan" (Jn 4,14). San Joanek esaten du Harengan sinetsiko zutenek hartuko zuten Izpirituaz esan zuela hori (Jn 7,39).

Bere izaeraren arabera, Semeak, jainkotasunean, hau baizik ez du agertzen: Semea izatea, Jainkoagandik jaio izana, -Izpiritu Santuaren, Jainkoaren maitasunaren, sorburu eta urbegi den Jainkoagandik-, eta batasunaren, zeruko Aitaren, atsedena bete, egiazko eta osoa. Horregatik zeruko Aitaren ahotsa jaisten da Semearengana: "Hau da nire Semea, nire maitea; beran dut atsegin" (Mt 3,17).

Ezbairik gabe, inork ez du hainbeste eta hain garbi maite Jainkoa beronen Semeak bezainbat; izan ere maitasuna, Izpiritu Santua, Semeagandik datorrena da, eta Semeak Aita Aitagatik du maite eta bere buruaren maitasunagatik, eta Aitagan du maite bere burua. Horregatik dio gure Jaunak: "Zorionekoak gogoz behartsu direnak" (Mt 5,3), hauek baitira gizakiari berez dagokionetik ezer gordetzen ez dutenak, eta ezer gabe

Jainkoagana jotzen dutenak. Eta San Paulok dio: "Hark jakinarazi digu nolako maitasuna sortzen duen zuengan Izpirituak" (Kol 1,8).

San Agustinek esaten duenez, Idazteuna ondoen ulertzen duena dela, gainerako ulerkeraguztiak alde batera utziz, Idazkiaren egia dagoen hartan bilatzen duena: idatziko hitz guztiak ekarrarazi dituen Izpirituan, Jainkoaren Izpirituan. San Petrik dioenez, "antzinako profetek Jainkoaren partetik hitz egin zuten" (2P 1, 21). Eta San Paulok azpimarratzen du: "Nork ezagut dezake gizakiaren barru-barruan, bere baitan dagoen giza Izpirituak baizik? Era berean, Jainkoaren barrua ere ezin dezake inork ezagut, Jainkoaren Izpirituak ezik" (1Ko 2,11). Non edo han egoki esan izan da, inork ez ditzakeela ez ulertu es irakatsi San Pauloren idazkiak, San Paulok hitz egiterakoan eta idazterakoan edukitako Izpiritua eduki ezean. Eta neuk behin eta berriz azaldutako kezka da, kulturarik gabeko jendeek, Jainkoaren Izpiritutik hain urruti daudenek, eta giza ulerkuntza dorpearen azpian daudenek, nola duten ausardia Idazteunean ulertzen edo irakurtzen dutena epaitzeko, Izpiritu Santuak eta Izpiritu Santuagan esanak eta idatzia baitira idazteunak; eta nola ez duten gogoetarik egiten idatzirik dagoenari buruz: "Gizakiarentzat ezinezkoa da hori, baina Jainkoak dena dezake" (Mt 19,26). Gauza bera gertatu ohi da beheko naturarekin, goikoarekin erkatuz gero.

Horregatik, beste bein arreta jar diezaiozuen nahi nuke jadanik esana dudanari; gizaki on batek, Jainkoaren seme-alaba denak, Jainkoagandik jaioak, maite du Jainkoa Jainkoagatik beragatik eta beragan. Gogoratu, baita ere, lehendik askotan nik esanikoa: gizaki on batek, Ontasunak sortuak eta Jainkoagandik jaioak, natura jainkozkoaren koalitateak bereganatzen ditu. Salomonek dioen arabera, Jainkoaren propietatea da, gauza guztietan bere buruagatik ari izatea, hau da, ez dio arretarik hartzen beregandik kanpo dagoen ezeri, bere buruari bakarrik baizik: Jainkoak bere buruagatik ditu sortzen eta maitatzen gauza guztiak. Gizakiak bere burua eta mundu guztia Jainkoaren maitasunagatik bakarrik maite baditu eta Jainkoaren aintzarako, eta ez badu bilatzen bere ekintzetan ez saririk, ez izen onik, ez ongizaterik: seinale sendo bat izango litzateke Jainkoaren seme-alaba dela.

Jainkoak gauza guztiak beragatik ditu maite eta sortu ere beretzako ditu sortu. Bestela esanik, maitatzen du Maitasunaganako maitasunagatik, eta sortzen du Ekintza sortzaileari dion maitasunagatik. Ezbairik gabe, Jainkoak ez zukeen inoiz bere Seme bakarria sortuko, sortua izatea eta sortzea gauza bera ez balira. Horregatik diote santuek Semea betidanik jaio dela, etengabe sortua dela, baita gaur egun ere. Era berean, Jainkoak ez zukeen sekulan mundua sortuko, sortua izatea eta sortzea sinonimoak ez balira izango. Horregatik era honetan sortu du Jainkoak mundua eta gaur egun ere etenik gabe sortzen du. Iragana eta etorkizuna arrotzak dira, izan ere, Jainkoarentzat.

Beraz, Jainkoaren seme bezala Jainkoagandik jaio denak, Jainkoa maite du Jainkoagatik bakarrik; hau da; Jainkoa maite du Jainkoaren maitasunagatik eta bere ekintzak betetzen ditu Jainkoarentzat direlako bakarrik. Ez da nekatzen ez maitatzez ez ekitez, eta maite duen guztia berarentzat maitasun bakar bera da. Horregatik, Jainkoa maitasuna da, eta esan dudan bezala, gizaki onak Jainkoagatik nahi du sofritu, eta ez du nahikoa lehen sofritu izanarekin. Berak nahi duen huraxe dauka: Jainkoagatik sofritzea; sofritzen du Jainkoaren maitasunagatik, eta horregatik da Jainkoaren seme, Jainkoaren irudiko eta Jainkoagan egina. Bere buruaganako maitasunez du maitatzen, hau da, Maitasunarekiko maitasunagatik maitatzen du eta ekintzei dien maitasunagatik. Jainkoak etenik gabe ekiten eta maitatzen du, ekitea da Jainkoaren izatea, bere esentzia, bere bizia, bere zoriontasuna. Era berean, Jainkoaren seme-alabak, gizaki onak, Jainkoaren seme-alaba den aldetik, Jainkoagatik nahi du sofritu eta Jainkoagatik lan egin, eta Jainkoa da bere izatea, bere bizia, bere ekintza eta bere zoriona. Eta honela dio gure Jaunak: "Zorionekoak zuzenagatik erasotuak" (Mt 5,10).

Hirugarren aldiz diot, gizaki onak ona den aldetik, ez du berekin Jainkoaren izaera Jainkoa maite duelako bakarrik eta Jainkoagatik lan egiten duelako, baizik eta, maitatzekoan, berdin maitatzen eta lan egiten bere buruagatik ere. Izan ere, berak maite duena Aita Jainkoa da, jaio ez dena; baina beronengan maite duena Seme Jainkoa da, jaio dena. Era honetan, Aita Semeagan dago eta Semea Aitagan; eta Aita eta Semea bat dira Izpiritu Santuagan.

Bestalde, nola iritsi sortua den ariman zer den muin-muinena eta gorenena jakitera eta nola garen iristen Zeruko Aitaren altzoan eta bihotzean Jainkoaren sema-alaba izatera, irakurlea igortzen dut (liburuska honi jarraitzen dion) Gizaki noblea izeneko mintzaldira.

Gogoratu behar dugu, gainera, nola naturan, goragoko izaki baten inpresioa eta eragina atseginago eta gozoago den, edozein izakirentzat, izaki honek berea duen natura eta izaera baino. Ura berez ibarrera jaisten da, bere izaerak hori agintzen diolako. Baina ilargiaren zerutiko inpresioz eta eraginez, utzi eta ahazten du bere izaera, eta gorantz egin ohi du eta goratze hau errazago egiten zaio beheratzea baino.

Gizakiak zentzunez jokatu balu, etsenplu honekin kontzientziaz aitortu beharko luke, pozaren pozez uko egin beharko liokeela bere naturazko borondateari, eta bere buruari, eta bere burua erabat askatu, Jainkoak bidaltzen dizkion nahigabeaz baliatuz. Hau da, gainera, taxuzko iruzkin baten arabera, gure Jaunaren ikuspegia, dioenean: "Nire jarraitzaile izan nahi duenak alde egingo du bere baitatik, uko egingo dio bere buruari eta bere gurutzea jasoko du", hau da, biluztu egingo da eta askatu gurutzea eta sofrikizuna den guztitik. Ezbairik gabe, bere buruari uko egin dionak, eta bere baitatik erabat atera denak, ez du inoiz ere gurutzerik eta sofrikizunik izango, berarentzat, izan ere, dena gozamina izango da, atsegina eta bihotzeko poza. Horrelakoa, Jainkoagana iritsiko litzateke eta egiaz berari jarraituko lioke. Izan ere, ezer ez den bezala Jainkoa atsekabetu eta oinazepean jar dezakeenik, ez da ezer horrelako gizaki bat nahigabetu eta tristatu dezakeenik. Horregatik dio gure Jaunak: "Nirekin etorri nahi duenak uko egin bezaio bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai bekiit". Hau ez da agindu bat, askotan uste izaten den bezala, fedeko artikulua da, Jainkoak emandako irakaspena, gizakiak aurki ahal ditzan bere sofrikizunetan, bere ekintzetan eta bere bizitzan atseginak eta poztasunak; beraz, agintzaria gehiago da, agindua baino. Era honetan prestaturiko gizakiak badu, izan ere, nahi duen guztia, eta ez du nahi besterik. Honetan datza zoriontasuna, eta horregatik dio gure Jaunak: "Zorionekoak zuzenagatik erasotuak" (Mt 5,10).

Gure Jaunak esaten duenean: "Uko egin bezaio bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai bekit", hau da ulertzen dena: seme-alaba egin dadila, ni neu Semea jaio naizen bezala. Jainkoa neu naizen Batasun bera da, eta Batasun honetan sortua naiz neure izate osoz Aitaren altzoan eta bihotzean irauten dudanean. Semeak dio: "Aita, nire nahia da, jarraitzen nauena eta nirekin datorrena ni nagoen lekuan egon dadila". Semeagatik egiten dena bakarrik da semeagana iristen dena, Semea den neurrian; eta Semea izan daiteke Jainkoaren altzoan eta bihotzean dagoena bakarrik, Batasunen bat eginik, Semea dagoen hartan.

"Bakardadera eramango dut eta han bihotzera diot hitz egingo" dio Aitak (Os 2,16). Bihotzetik bihotzera eta Batasunean bat, hori da Jainkoak maite duena. Jainkoak gaitzesten du arrotz eta urrutiko zaion guztia, Jainkoak batasunera erakartzen eta dei egiten du, Batasuna da sorkari guztiek bilatzen dutena, baita sorkari behekoenek ere. Sorkari gorenenek antzalda daitezen eta bere baitan bat den Batasuna bila dezaten, dio Jesukristok, jainkotasunean Semea denak: "Aita, Ni nagoen lekuan egon behar du baita ere niri zerbitzatzen didana, niri darraikidana, nigana datorrena".

Bada beste kontsolamendu bat ere, beste hau gogoratuz datorkiguna: erabat ezinezkoa da naturarentzat izaki bat suntsitzea, ezerezte eta gutxitze ere bai, non eta hori egiteaz errealitate baliatsuagoa lortu nahi ez bada. Ez litzateke nahikoa errealitate berdina lortzea baizik eta nahi dena da gauza oro errealitate perfektuago bat bihurtzea. Sendagile artotsu batek ez ditu gizaki eriaeren hatzak ukitzen min emateko, baizik eta hatz eriak sendatzeko eta hatzen bidez gizaki osoa, gorputzari mesede eginez. Sendagileak eria eta hatzak sendatzerik baleuka, atseginez egingo luke, baina ez baleuka, zalantzarik gabe hatz eriak moztuko lituzke gizakia salbatzeko. Hobe da hatza galtzea eta gizakia salbatzea, gizakia eta hatza galtzea baino. Kalte bat hobe da bi baino, batez ere bigarrena askoz handiagoa denean.

Kontuan eduki behar da, baita ere, hatzak eta eskuak, gizakiaren beste atal guztiek bezala, maitasun handiagoa diotela berez gizakiari, beronen osagarri direnez, beren buruei baino, eta edozein arrisku edo kalte pozik onartzen dutela, beharrak hala eskatzen badu. Ezbairik gabe, egia diot hau esaten dudanean: atal horiek ezin dituztela beren buruak maitatu osatzen dituzten gizakien bidez eta gizakien baitan ez bada. Beraz, behar bezalakoak egiaz izango bagina, erabat zuzena eta berezkoa behar luke izan guk geure buruak Jainkoagatik eta Jainkoagan bakarrik maitatzea. Hau horrela balitz, erraza eta gozagarria beharko luke izan guretzat Jainkoak gugandik nahi duen guztia; batez ere zehazki jakingo bagenu, zalantzarik gabe jakin, Jainkoak gure kalterik ez lukeela onartuko guretzat gordeko ez balitu ondasun askoz handiagoak. Egia esan, uste duenak Jainkoa ez dela gai horrela jokatzeko, merezi duena baizik ez zaio gertatzen oinazea eta buruhaustea izaten dituenen.

Bada beste kontsolabide bat ere: San Paulok dioenez, "maite duena baitu Jaunak zentzarazten eta semetzat hartzen duena du zigortzen" (Heb 12,6). Horregatik beharrezkoa da seme-alaba izan nahi duenak sofritzea; eta Jainkoaren Semeak sofritzerik ez zeukanez jainkotasunaren eternitatean zirauen artean, zeruko Aitak denboran izatera bidali zuen, gizon egin zedin eta sofri zezan. Oso oker zenbiltzake Jainkoaren seme-alaba izan nahi bazenu baina oinaze-minik gabe. Jakinduriaren Liburuan idatzirik dago, "Jainkoak probatu egin zituen eta beretzat duin aurkitu. Urrea arragoan bezala garbitu zituen, eta erre-opari bezala onartu" (Jkd 3,5-6). Erregek edo printzeak konfiantza osoa agertzen dute zaldunagan, gudan aurren-aurrenean borrokatzera bidaltzen dutenean. Ezagutu nuen jaun bat, zeinak, norbait bere zerbitzurako hartzen zuenean, agintzen zion zerbitzari honi gauzez atera zedin eta borroka egin zezala, zein zen jakin gabe, nagusiarekin. Eta behin gertatu zen hiltzeko zorian egon zela frogatu nahi izan zuen zerbitzariaren eskuetan, eta horregatik, lehen baino maiteago eta preziatuago izan zuela zerbitzari hori.

Irakurtzen da, non edo han, nola San Antoniok basamortuan jasan behar izan zituen modu bereziki gogorrean izpiritu gaizkinen tentaldiak. Menperatu zituenean santuak tentaldiak, gure Jauna bera agertu zitzaion, guztizko atseginez. Orduan santuak esan zion: "Non zinen, Jauna, ni zure beharrean aurkitzen nintzenean?". Eta Jaunak erantzun: "Hemen nengoen zure ondoan, orain nagoen bezala, baina jakin nahi nuen noraino iristen zen zure pietatea". Urrea eta zilarra garbiak dira egiaz; baina horiekin edontzi bat egin behar denean erregek edan dezan, suz arragotzen dira beste pertsona batentzat direnean baino areago. Horregatik idatzirik dago, "Apostoluak Biltzarra Nagusitik pozik atera ziren, Jainkoak Jesusenagatik sofritzeko duin aurkitu zituelako" (Eg 5,41).

Naturaz Jainkoaren Semea zenak graziaz Jainkoaren Semea nahi zuen izan, sofritu ahal izateko, eta zuk Jainkoaren seme-alaba izatea nahi duzu, gizaki izateari uzteko, horrela sofritu beharrik izan ez dezazun, ez Jainkoagatik, ez zeuregatik? Gizakiak ikusi eta gogoratu nahiko balu, nolako poza hartzen duen Jainkoak berak, bere naturari

dagokionez, eta nolakoa aingeruek denek, eta Jainkoa ezagutzen eta maitatzen duten guztiek, ikusten dutenean gizakiak duen pazientzia Jainkoagatik arazoak, nahigabeak eta kalteak jasateko, egiaz kontsolamendu handia izango luke gizaki horrek bere zorigaitzean. Ez al ditu gizakiak bere ondasunak xahutzen eta ezbeharrak jasaten lagunari poza emateko eta maitasuna erakusteko? Demagun gizon batek lagun bat duela eta honek, haren erruz, ezbeharren bat daukala: bidezko litzateke gizon hori lagunarekin batean egotea sofrimenduetan, bere laguntzaz adorea eman diezaion. Horregatik gure Jaunak gizaki onari buruz, salmo batean dio, "Hurbil dago Jauna bihotz-hautsiengandik eta salbatzen ditu etsita daudenak" (Sal 34,19). Hemendik zazpi irakaspen atera daitezke eta zazpi arrazoibide kontsolamendurako.

1. Lehenik, San Agustinek dioen bezala, Jainkoagatik sofritzen duenaren pazientzia goragokoa da eta nobleagoa gizakiak bere borondatearen kontra gal dezakeen guztia baino, hau ez baita kanpoko ondasuna besterik. Ene Jainko! Mundu hau maite dutenen artean bakar bat ere ez litzateke egongo, denik eta aberatsena dela, pozaren pozez onartuko ez lituzkeenik oinazerik handienak eta sofrimendurik gogorrenak, honekin munduko jaun eta jabe izatera iritsiko balitz.

2. Bigarren, ez nuke gelditu nahi Jainkoaren hitz hauetan bakarrik, zeinetan agintzen baitu gurekin izango dela sofrimenduetan; baizik sakonago jo nahi dut, zera esateko: Jainkoa nirekin badago nire sofrimenduan, zer gehiago eska dezaket? Nire jokabidea zuzena bada, ez dut nahi besterik Jainkoa ez denik. San Agustinek dio: "Egiaz zekena eta burugabea da Jainkoarekin pozten ez dena". Jainkoarekin berarekin gogobetetzen ez den gizakia nola gogobete daiteke Jainkoaren kanpoko nahiz barruko ondasunekin? Horregatik beste nonbait dio: "Jauna Zugandik urruntzen bagaituzu, beste Zu bat emaiguzu, ez baitugu besterik nahi Zu baizik".

Jakinduriaren Liburuan hitzok daude idatzirik: "Eta jakinduriaren ondasun guztiak batera etorri zitzaizkidan" (Jkd 7,11). Honek esan nahi du, ulerkuntza baten arabera, ezer ez dela on, eta ezin litekeela ona izan ere, Jainkoagandik ez baletor. Baina Jainkoagandik datorren guztia ona da Beragandik etortzeagatik bakarrik. Jainkoaz ez dut ezer esango; baina sorkari guztiei eta mundu guztiari kenduko bagenie Jainkoak damaien izaera, ezereza besterik ez litzateke geratuko, adoretzeko balio ez duen zerbait, baliorik eta edertasunik gabea. Esanahi baliotsu bat baino gehiago geratzen da hitzotan, alegia Jainkoarekin datozkigula ondasun guztiak; baina hortaz hitz egiteak denbora asko eramango liguke orain. Gure Jaunak dio: "Berekin izango nau larrialdian" (Sal 91,15). Horregatik esaten du San Bernardok: "Jauna, nirekin bazaude oinazea, egizu sofri dezadala etengabe, beti nirekin egon zaitezen eta nik beti nirekin izan zaitzadan".

3. Hirugarren, "Jainkoa gurekin badago sofrimenduan", honek esan nahi du Jainkoak berak gurekin sofritzen duela. Egia ezagutzen duenak badaki gauza ziurra diodala. Jainkoak, izan ere, bere naturaren arabera, gizakiarekin askoz ere gehiago sofritzen du, gizakiak Jainkoagatik sofri dezakeena baino. Eta Jainkoak sofrimenduraino iritsi nahi badu, erabat bidezko da neuk ere sofri dezadan, bide onean bainago Jainkoak nahi duena neuk ere nahi dudanean. Egunero, Jainkoaren aginduz, honela otoitz egiten dugu: "Jauna, egin bedi zure nahia". Eta hala ere, Jainkoak oinazea bidaltzen digunean, kexu gara sofrimenduaz: eta hau bidegabekeria da. Esan dezadan argi eta garbi: Jainkoak gurekin eta gugatik hain pozik sofritzen du ze oinazerik gabeko sofrimendua da berea, geuk Jainkoaganako maitasunez sofritzea onartzen badugu. Sofrimendua Harentzat atsedena da, sofrimendua ez da sofrimendu. Horregatik, gure jokabidea zuzena denean, guretzat ere sofrimendua ez litzateke sofrimendu, baizik eta pozbide eta eragin on.

4. Laugarren, naturaren arabera, lagun baten errukiak norberaren oinazea gutxitzen du. Lagun baten sofrimenduak, nirekin partaide izanik, kontsolatzen badu, zernolako pozbidea ez du ekarriko Jainkoaren errukiak?

5. Bosgarren, nik neuk nire borondatez maite dudan eta maite nauen gizakiarekin sofritu nahi badut, ez ote dut atsegin eta eskubide handiagoz Jainkoarekin sofrituko, niri didan maitasunagatik Jainkoak sofritzen badu?

6. Egia bada Jainkoak nik sofritu baino lehenago sofritzen duela, eta neuk Jainkoagatik sofritzen dudala, errazki pozbide eta kontsolamendu bihurtzen da nire oinazea, denik eta handiena eta eraskotakoena izan oinaze hori. Naturaren ordenako egia da hau: gizaki batek beste norbaitentzat lan bat egiten duenean, norbait hori lana egiten duenaren bihotzetik hurbil dago; baino lana bera urrutiago dago bere bihotzetik, eta lan hori pozgarri izango zaio langintzak daraman intentzioaren neurrian. Norbaitek eraikuntza bat dagienean, zura edo harria zizelkatzen ditu etxea egiteko asmotan, udako berotik edo neguko hotzetik babesteko, baina etxean du batez ere bihotza jarria, eta ez luke harririk zizelkatuko, ez lan hori guztia hartuko, etxeagatik ez bada. Hau ere ikusten dugu: eri den batek ardo gozoa edango balu, ardo hori mikatza irudituko litzaioke eta hala dela esango luke; eta hau egia litzateke, bada, ardo horrek gozotasun guztia galduko luke eriaaren ahoko mikaztasunarekin gorputzaren barruan sartu aurretik, non izpirituak dasta baitezake bere zaporea. Gauza bera gertatzen da, eta oraindik arrazoi handiagoz, gizakiak bere langintza guztiak Jainkoagatik osabetetzen dituen; izan ere, izpirituaren jomuga eta helburu hurbila Jainkoa denean, ezerk ezin dezake uki horrelako gizaki baten izpiritua eta bihotza, Jainkoaren eta honen gozotasunaren bitartez garraztasun guztia galtzen ez bada, eta nahitaez galtzen da gainera; eta zerbait garbia eta zerbait gozoa bihurtzen ez bada, gizakiaren bihotza mugitu eta ukitu aurretik.

Maisuek erakusten dute zero azpitik sua dagoela, alderdi guztiak inguratuz; horregatik ez euririk, ez haizerik, ez ekaitzik, ez erauntsirik zeruraino hurbil daiteke, berau ukitzeraino, behetik datozenek: suaren berotasunak dena erretzen du eta suntsitzen zerura iritsi baino lehen. Era berean nik diot, Jainkoaren maitasunagatik jasaten eta egiten den guztia, gozo bihurtzen dela Jainkoaren gozotasunean, Jainkoagatik sofritzen duen eta lan egiten duenaren bihotzera iritsi aurretik. Hau da, hain zuzen, aditzera eman nahi dena hitzok esatean: "Jainkoagatik". Gizakiaren bihotzera sartzen dena Jainkoaren gozotasunaren bitartez izan behar du; eta bihotz horretan maitasun jainkozkoaren su biziak suntsitzen du, zeinak gizaki onaren bihotza erabat inguratzen baitu.

Orain ikusten da zeinen erraz eta zenbat eratara kontsola daitekeen gizaki ona bai sofrimenduetan, bai ari den lanetan. Lehen pozbidea Jainkoagatik sofritzen duenari eta lanean ari denari datorkio; bigarrena, maitasun jainkozkoan aurkitzen denari. Beraz, beharrezkoa da gizakiak jakin eta aitor dezan ea Jainkoagatik egiten ote dituen bere lanak. Gauza bat dago argi: gizakiak sofrimendua pozbiderik gabe duen neurrian, gizaki horrentzat argi dago Jainkoa ez dela izan bere lanen helmuga bakarra. Eta era berean, bere bihotza ere ez dagoela maitasun jainkozkoaz inguratua.

Hala dio Dabid erregeak: "Sua doakio aurretik, inguruko etsaiak kiskaliz" (Sal 97,3), hau da, sofrimendua, pozbiderik eza eta bihotz garratza.

7. Hitz haietatik atera daitekeen kontsolamendua geratzen zaigu: Jainkoa gurekin dagoela gure sofrimenduetan eta gurekin sofritzen duela. Pentsamendu honek pozbide izan behar du guretzat: Jainkoaren esentziari dagokio Batasun Hutsa izatea, ez zaio gehitzen ez kantitaterik ez multiplizitaterik, ez eta pentsamendu mailan ere; eta Jainkoagan dagoen guztia Jainkoa bera baizik ez dela. Eta hau horrela bada, nik diot, Jainkoagatik gizakiak sofritzen duen guztia, Jainkoagan ere sofritzen duela; eta Jainkoa gizakiarekin batera oinazetzen dela; eta nire sofrikizuna Jainkoagan badago, nire pairamena Jainko bera bihurtzen da. Hau horrela izanik, nahigabe bat nola izan daiteke sofrimendu, honek bere oinaze-mina galtzen badu? Nire oinazea Jainkoagan dago: Jainkoa da nire oinazea. Ezbairik gabe badakigu Jainkoa Egia dela, eta egia aurkitzen dudana hartan Egia den nire Jainkoa ere aurkituko dudala. Era berean, sofrimendu bat

aurkitzen dudanean, Jainkoagatik eta Jainkoagan onartzen badut, Jainkoa dut aurkitzen nire sofrimenduan! Hau ulertzen ez duenak bere baldarkeriari eraso diezaiola, eta ez nire aurka hasi, ez eta Jainkoaren egiaren aurka ere.

Beraz, onez eraman ezazue, Jainkoaren maitasunagatik, zuen jainkozko sofrimendua, horrek asko laguntzen baitio zuen salbamenari eta zuen zorionari, gure Jaunak dioenez: "Zorionekoak zuzenagatik erasotuak" (Mt 5,10). Nola liteke Jainko onak bere maitasunean lagun dituenak, gizaki zuzenak, oinazepean ez edukitzea etenik eta atsedetik gabe? Norbaitek lagun bat izan, eta honek ondasunak, ohoreak eta onespenak jasoko balitu egun gutxi iraungo duen sofrimendu baten bidez, eta hala ere eragotzikio balio sofritzea, edota lagunduko balu bestek eragotz diezaion, inork ezin esan dezake hori egiten duena egiazko laguna denik. Horregatik, Jainkoak ezin onar dezake inoiz ere, bere lagunak, gizaki zuzenak, sofrimendurik gabe egon daitezen, nahiz eta lagunek beren borondatez sofritzerik nahi ez izan, edota zigor bezala oraindik hartu oinazea.

Kanpoko sofrimenduaren balio guztia borondatearen baliotik dator, lehenago esan dudanez. Beraz, gizaki onak sofritu nahi duen guztia, eta bere aldetik egiteko prest dagoen guztia eta Jainkoaren maitasunagatik sofritzeko eskatzen duena, Jainkoaren begi aurrean eta Jainkoagatik eta Jainkoagan sofritzen du. Dabid erregeak hala dio bere salmo batean: "Izan ere, erortzeko zorian nago, minak ez dit alde egiten" (Sal 38,18). San Hieronimok dioenez, ukitu gabeko argizariak, biguna denean eta berarekin behar dena eta nahi dena egiteko prest, bere baitan du argizariaz moldeka litekeen guztia, nahiz eta inork landu ez. Esanahi honekin lehenago adierazi dut harriak ez duela pisurik galtzen nahiz eta lurrean datzala dirudien; harriak bere pisuz behera egin ohi du eta erortzeko beti dago prest. Eta esanahi honekin lehenagotik adierazi dut, gizaki onak orain eginik daukala zeruan eta lurrean egin nahiko zukeen guztia, eta honetan ere Jainkoaren irudiko dela.

Orain konturatu gintezke, zeinen zoroak diren harritzen direnak ikustean gizaki onak atsekabe eta oinazeak sofritzen dituztela; eta pentsakizun mila bururatzen zaizkie, okerki uste izateraino gaitz horiek ezkutuko bekatuetatik ote datozkien, esaten baitute: "Nik uste nuen oso ona zela gizaki hori! Eta nola liteke hainbat atsekabe berak jasan beharra, errugabea zela uste bainuen?". Egia esan, gizaki horiek sofritzen dutena, oinazea, atsekabea eta zorigaitz neketsua balira, orduan ez lirateke hain onak izango eta bekatugabeak. Baina onak badira, beren oinazea ez da hauentzat atsekabe eta ezbeharra izango, zorion handia eta poza baizik. Jainkoak dio: "Zorionekoak Jainkoagatik eta zuzenagatik erasotuak" (Mt 5,10). Eta Jakinduriaren Liburuan esaten da: "Zintzoen bizitza Jainkoaren esku dago. Zentzugabeen ustetan, hilda zeuden behin-betiko: baina zintzoak bakean daude egon" (Jkd 3,1-3).

San Paulok bere idazkietan esatean, nola santuek atsekabe asko eta handiak jasan behar izan zituzten; eta honi eranstean dio: "munduak merezi baino hobeak ziren" (Heb 11,38). Hitzok hiru esanahi dituzte bete-betean ulertu nahi dituenarentzat. Lehenengoa, munduak ez duela merezi gizaki on asko egon daitezen. Bigarrena, egokiagoa, mundu honek gorrotagarri eta baliogabeko jotzen duen ontasunak Jainkoaren begia urrean bakarrik duela merezimendu; horregatik Jainkoak maite ditu santuak, eta hauek Jainkoaren duin dira. Hirugarren nik neuk horrela ulertzen dut: "mundu honetako jendeek (hau da, mundu hau maite duten jendeek) ez dute inolaz ere merezi Jainkoagatik oinaze-minak eta ezbeharrak paira ditzaten. Horrela esaten da Eskrituretan "Apostoluak Biltzarra Nagusitik pozik atera ziren, Jainkoak Jesukristogatik sofritzeko duin aurkitu zituelako" (Eg 5,41).

Honekin aski dut gai honi buruz. Hirugarren partean, kontsolamendu bat edo beste eman nahi diet sofrimenduetan diren gizaki onei, errealitatetik hartutako kontsolamenduak eta ez bakarrik gizon jator eta jakintsuaren hitzetatik.

III

Erregeen Liburuan irakurtzen da nola norbaitek madarikatzen duen Dabid erregea, belzkeria bat eginez. Dabiden lagunetako batek nahi izan zuen gaizkile hori hiltzea, baina Dabid erregeak erantzun zion: "Utziozue madarika nazan, Jaunak aginduko baitzion hori. Beharbada, Jaunak nire atsekabea ikusirik, ongi ekarriko dit gaurko madarikazioaren ordain" (2 Sm 16,11-12).

Aitagoien Liburuan irakurtzen da, gizon bat aieneka ari zitzaiola guraso santu bati berak sofritzen zuenagatik. Orduan guraso hark esan zion: "Nahi al duzu, seme, Jainkoari eskatzea nahigabe horretatik aska zaitzala? Eta besteak erantzun: "Ez, aita, badakit ongi asko ongarri zaidala sofrikizun honi; baina eskaiozu Jainkoari eman diezadala jakinduriaz eta egonarriz eramateko grazia".

Eri bati galdetu zioten ea zergatik ez zion Jainkoari senda zezala eskatzen. Eta erantzun zuen hiru arrazoi zituela hori ez egiteko. Lehenengoa, Jainko errukitsuak ez zuela sekula ontzat emango bera eri egotea, ez bazen eritasunetik ondasun handiago bat eskuratzeko. Bigarrena, gizaki onak Jainkoak nahi duen guztia nahi du, eta ez Jainkoak nahi dezala gizakiak nahi duena, hori bidegabekeria hutsa litzatekeenez. Beraz, Jainkoak nahi balu ni eri egotea (eta nahi ez balu ni osasuntsu izango nintzakete), ez nuke nahiko osasuntsu izaterik. Ezbairik gabe, gerta liteke Jainkoak niri osasuna ematea bere asmoen aurka, baina orduan sendatze hori ez litzateke ene gogoko, baizik eta nahigabetu egingo nintzateke. Sofrimenduak maitasunean du sorburu; sofritu nahi ezak adierazten du ez dela maitatzen. Nahiago dut mila aldiz, eta mesedegarriago litzateke niretzat, Jainkoak maita nazala eri egonik, ezen ez eta oinazerik gabe ikusi neure burua Jainkoren maitasuna galtzen badut. "Nola iraungo luke zerbaitek, zuk gogoko izan ez bazenu? Edo nola jarraituko izaten, zuk dei eginda sortu ez balitz?" (Jko 11,25).

Jakinduriaren Liburuan idatzirik dago (eta egia da) ona dela Jainkoak nahi duen guztia eta hala dela Jainkoak nahi duelako bakarrik. Gizakion erara mintzatuz, hobe litzateke niretzat gizon aberats eta ahaltsu batek, errege batek adibidez, maiteko banindu, nahiz eta mesederik ez egin niri denboraldi batean, ezen ez eta mesedeak etengabe jaso haren maitasunik gabe; baina baldintza honekin: berak ezer ematen ez badit maitasunagatik bakarrik dela hori, eta haren asmoa dela gero niri erregalia aberatsagoak eta ugariagoak egitea. Pentsa dezaket, baita ere, maite nauen gizon honek, eta ezer ematen ez didanak, ez duela asmorik niri ezer emateko baina, aurrerago, sentimentu hobeak izango dituela niretzat eta gero edozein gauza emango didala. Beraz, egonarriz itxarongo dut, batez ere ikusiz nik ez ditudala merezi haren erregaliak, baizik eta dohainik jasotzen ditudala. Ezbairik gabe, inoren maitasunari muzin egiten badiot, eta inoren nahiari nirea kontrajartzen badiot, eta maite badut haren dohainak jasotzeko asmoz, ez dit erregalirik egingo eta gorrotatzera ere irits liteke, eta ni bertan behera uztera.

Hirugarren arrazoi bat ere bada, Jainkoari ni sendatzeko eskatzea zail eta higuigarri egiten didana: ez diot inolaz ere eskatu nahi maitasunaren Jainkoari, hain aberats eta eskuzabala denari, inolako mesederik, denik eta txikienik ere. Aita Santuaren aurrera joango banintz ehun edo berrehun legoa ibili ondoren eta haren aurrera iristean esango banio: "Aita Santua, nekearen nekez berrehun legoa egin ditut bide txarretan zehar, eta orain zure aurrean hartu nauzunez, emaidazu eskatzen dizudana: babarrun-ale bat". Bistan denez, Aita Santuak berak eta nire hitzok aditu dituztenek arrazoi osoz esango lukete erotuta ote nagoen. Baina ezbairik gabeko egia da hau ere: Jainkoaren aurrean ondasun guztiak guretzat babarrun-ale bat baino gutxiago direla. Horregatik, arrazoi handiagoz arbuiautuko dut Jainkoari senda nazala eskatzea.

Honi buruz badut oharpen bat egin beharrik: bihotz ahularen seinale da mundu honetako gauza igarokorrengatik poztea edo tristatzea. Lotsatuko beharko genuke Jainkoaren eta aingeruen aurrean, eta geure buruen aurrean, konturatuko bagina horrelako zerbait

gertatzen zaigula guri. Eta pentsa jendea lotsatzen dela aurpegian akats bat duelako kanpotik ikusten dena!

Zertan gehiago luzatu? Testamentu Zaharreko eta Berriko liburuek, santuen liburuek eta paganoen ere bai, gizaki errukitsuen kasu ugari aipatzen dizkigute, beren buruei uko egin dietenak eta beren bizitzak eskaini dituztenak Jainkoaren maitasunagatik, eta inoiz bertute naturalagatik ere bai.

Sokrates paganoak dioenez, bertuteak ahalezko, atsegin eta erraz bihurtzen ditu ezinezko diren gauzak. Ez dezagun ahantz ere Makabeoen liburuan aipatzen den zorioneko emakume hura: egun bakar batean bere begiekin gauza ikaragarriak ikusi zituen, esan eta entzun ezin direnak bere zazpi semei eginiko tortura beldurgarriak; eta bera han egon zen bihotz sendoz, seme bakoitza adoretuz beldurrik izan ez zezaten eta gogotsu gorputz-animak eskaini zitzaizten Jainkoaren Zuzentasunagatik.

Bukatzeko, beste hitz bi. Lehenik eta behin, gizaki onak eta Jaunaren borondatearen mendeko denak, benetan eta bihotz osoz lotsatu beharko luke edozein oinazek uki dezakeelako. Ikustagun merkatariaren jokabidea: behin baino gehiagotan, irabazpide txiki batengatik eta ziurtasunik eduki gabe, urruntzen da bere sorterritik, bide nekatsuak ibiltzen ditu, mendi eta haranak igaroz, basamortu eta itsasoak zeharkatuz, lapurrei eta hiltzailei aurre eginez, gosea eta egarria, logalea eta nekea eta beste mila ezbehar jasanez, eta hala ere, hau guztia ahanzten zaio irabazbide txiki eta ziurtasunik gabeko batengatik. Gudukatzen duen zaldunak bere ondasunak, bere gorputza, eta agian, bere bizia ere arriskatzen ditu, ohore hutsal eta labur bat lortzeagatik. Eta guri oso gogor egiten zaigu Jainkoaren maitasunagatik eta betiko salbamenagatik zertxobait sofritzea!

Bigarren gauza, nik hemen esan nahi nukeena, hau da: bururik gabeko norbaitek esan dezake ez direla egiak nik liburu honetan idatzi ditudan gauza asko. San Agustinen esaldi batekin erantzungo diet, Aitorkizunak-en lehenengo liburuan datorrenarekin. Santuak dio Jainkoak jada eginik daukala etorkizun den guztia, nahiz eta milaka eta milaka urte behar izan hori gertatu ahal izateko, munduak denboraldi hori guztia iraungo badu behintzat; eta milaka eta milaka urte lehenago gertatutakoa Jainkoak gaur bertan egin ohi duela. Zer egin dezaket nik norbaitek hori ulertzen ez badu? Eta santuak beste nonbait dio gizakiak era dorpe eta lotsagabea duela maite bere burua, eta besteak nahi lituzkeelaitsu egin, honekin bere itsukeria estaltzeko. Niri dagokidanez, nahikoa dut Jainkoagan eta nigan egia izatearekin esan eta idatzi dudana guztia. Makila bat uretan sartzen baduzue, irudituko zaizue okertu egin dela, nahiz eta zuzen-zuzen egon: iruzurra dator urak haizea baino dentsitate handiagoa izatetik. Makila berez da zuzena, ez okerra, eta hala dela ikus dezake haize garbian begiratzen dionak.

San Agustinek dio: "Kanpoko ikusmenak arimari inolaz ere eskura ezin diezaioken hura, barruko ezagueraz ezagutzen denean eta ezagutu gainera gogoetak egin beharrik gabe, irudi eta sentiberatasunik erabili gabe, orduan badaki hori egia dela. Horrelako ezaguerarik ez duenak, isekaz hartuko nau; baina barre eta burla hauek ez didate minik emango, beren itsukeriak ematen didan tristurarena besterik. Horrelako gizakiek nahi lukete betiereko errealitateak eta jainkozko operazioak kontenplatu eta aurkitu eta betikotasunaren argian iraun, baina horrelakoen bihotza atzokoaren eta gaurkoaren artean bizi da, denboran eta espazioan".

Senekak, maisu paganoak, honela dio: "Gauza handiez eta jasoez handitasunez eta jasotasunez behar da hitz egin, arima leinargiz". Esango duenik izango da, noski, honelako irakatsiak ez hitzez, ez idatziz, ez zaizkiela agertu behar ezjakinak direnei. Honi erantzungo nioke, ezjakinei erakustea zilegi ez bada, inork ez lukeela izango ikasterik eta inork ez lukeela ez ikasterik, ez erakusterik, ez idazterik. Ezjakinei bakarrik, beraz, zaie erakusten ezjakintasunetik jakintzara igaro daitezen. Ezer berririk ez balego, ez legoke ere ezer zaharrik. Gure Jaunak dio: "Ez dute osasundunek

sendagilea behar, gaixoek baizik" (Lk 5,31). Balego norbait hitzok behar bezala ulertzen ez dituenik, hitz zuzena leialki erakusten duenaren errua ote da hori? San Joanek bere Ebanjelioa fededunei zuzentzen die, eta fedegabekoei ere bai, fededun egin daitezen; eta hala ere, bere Ebanjelioa hemen munduan Jainkoaz esan daitezkeen hitzik gorenenekin hasten du, eta bere hitzak, gure Jaunarenak bezala, gaizki ulertuak izan dira askotan.

Errukiaren eta gozotasunaren Jainkoak, egia berbera denak, eman diezagula niri eta liburu hau irakurtzen duten guztiei geuron baitan Egia aurkitzeko grazia.

"Kontsolamendu jainkozkoaren liburua"-ren

AZKENA

JOHANNES TAULER

Predikuak¹



I

Kontenplazioa²

"Entzun, Israel" (Dt 6,4)

Jainkoa ezin zatituzko batasuna da. Hala ere, Jainkoagan bereiz ditzakegu atributuak eta hurrenez hurren kontenplatu ere bai Jainkoaren errealitatea eta bere oroz gaineko ontasuna, bere intimitate misteriotsuaren izaera, bere bakardadea eta bere iluntasuna.

Moisesek esan zuen: "Entzun, Israel, Jauna da gure Jainkoa, Jauna bat bakarra da" (Dt 6,4). Jainkoagan ez dago pluraltasunik, baina etekina atera dezakegu Jainkoari eta honen izateari eransten dizkiogun izen berezi, partikular eta ezaugarrietatik, Harekin geure ezereza erkatzen dugunean atera ere. Askotan esan izan dut: hasiera batean gizakiak edukin erabat tenporala eman behar badio ere bere meditazioari, hala nola gure Jaunaren Jaiotza, egintzak, bizitza eta etsenpluak; orain, berriz, gora jaso behar du bere izpiritua eta hegan egiten ikasi denboraren gainetik, betiereko bizitzan.

Gizakiak eginkortasunez isla ditzake bere ariman Jainkoaren atributuak. Pentsatuz Jainkoa izate hutsa dela, izakien izakia baina inongo izakiarekin berdintzen eta kidekatzen ez dena, Jainkoa, izatez eta ontasunez den hartan guztian badena. San Agustinek dio: "Ikusten baduzu gizaki on bat, aingeru on bat, zeru eder bat, ahantz itzazu gizakia, aingerua, zerua". Gelditzen dena ontasunaren esentzia da, Jainkoa da. Bera gauza guztietan dago, eta guztien oso gainetik. Ezbairik gabe, gizakiek ontasunaren eta maitasunaren osagairen bat badute, izakia dei dakioken guztiaren osagairen bat, gizakiak desira dezakeena.

Kontenplazioaren bidez gizakiak erabat Jainkoagan murgildu behar du bere ahalmen guztiekin, horrela bere ezereztasuna osorik onartua izan dadin eta eraberritua. Izaera har dezala Jainkoaren izaeratik, bakarra den izaeratik, gauza guztien bizia eta ekinbidea denetik. Berehala gogora ekar ditzala batasun single hauen propietateak, esentzia, izate eta ekinbide bakarra duen propietatearenak, eta beronen ezaguera, maitasuna eta norabidea. Den guztiak gauza bat bakarra dago: errukia eta zuzentasuna. Sar zaitez eta eramán Harenganaino zure multiplizitatearen azkengabeko izaera ulertezina, Berak sinplifika dezan bere esentziaren singletasunean.

Gizakiak kontsidera beza jarraian Jainkoaren misterio esanezina, zeinetaz Profetak baitio: "Egiaz, Jainko ezkutua zara zu" (Is 45,15). Gauza guztietan gorderik dago, gauza bakoitza bere baitan legokeen baino sakonago. Arimaren zolan datza, zentzu guztietatik gorderik eta erabat ezezaguna, han sakonenean. Sar zaitez bertan zeure ahalmen guztiekin, pentsamendu mugatuetatik urruti; ahantz ezazu kanporatzeko duzun joera eta isuria. Jainkoa barruago dago, arimari eta barne bizitzaren intimitateari arrotz izanik. Jakina denez, hara ezin hurbil daiteke animaliarik, hau ez baita bizi zentzumenarentzat baizik, eta ez du ezaguerarik, ez sentimendurik, ez kontzientziarik. Murgil zaitez, ezkuta zaitez Jainkoaren misterioan, sorkari guztietatik benetan urruti, eta izateari arrotz zaion guztitik ere bai, eta desberdin zaion guztitik.

Hau ez da betetzen irudimenaren bidez edota pentsamendu jakin baten bidez. Esentzialki bakarrik, bete ohi da, fakultateek eta nahimenezko gaitasun guztiek zentzumenaren gainetik ariz, kontzientzia hartzearen ekintza soila bailitza. Ondoren kontsideratzen da Jainkoaren bakardadea bere isolamendu baketsuan, non ez baitute ez hitzek ez ekintzek ukitzen jainkozko esentzia. Han ez dago ezer kezkarazten duenik. Dena da sosegu, misterio, dena Jainko. Jainkoa bakarrik da han bizi dena. Arrotz denik ezer ezin daiteke sar haren bizilekuan. Ez sorkaririk, ez irudirik, ez modaliterik. Bakardade honetaz dihardu Gure Jaunak profetaren ahoz dioenean: "Nik neuk basamortura eramán eta bihotzera mintzatuko natzaio" (Os 2,16). Jainkotasun baketsu eta bakartiaz ari da. Han sartzen ditu Jainkoaren arnasa orain eta betierean hartzeko gai diren guztiak. Jainkotasun bakartiak, hondar-eremu zabalak dituenak, zure arima

librearen zola basamortura darama. Aurreratu zaitez, beraz, Jainkoaren basamorturaino zure arimaren zolaz, nahiz eta arima-zola belar gaiztoek harturik eduki, inolako ontasunik gabe, piztia salbaiaz betea, hala baitira zure zentzumenak, basa eta piztia bizitzara emaniko ahalmenak.

Kontenpla itzazu ondoren iluntasun jainkozkoak, hauek, beren esanezinezko distiraz, ilunpe baitira giza eta aingeru adimenentzat. Hala nola eguzki betearen dirdaia itsumen iluna den begientzat. Sortutako adimen oro, bere izatez, Jainkoaren argitasunaren aurrean, eguzki distiratsuari begiratzen dion enararen begiaren antzekoa da. Dirdai jainkozkoa da, ezjakinaren itsutasunera jaurtitzen gaituena, sorkariak garelako. Haraino zuzendu behar duzu zeure iluntasunen leizezuloa egiazko argirik gabe erabat egonik, egiaz ilunpean aurkitzen baitzara. Dei egiozu zeure jainkozko ilunpeen leizezuloari, Hark bakarrik ezagutzen duenez, gauzek ezagutzen ez duten Hark. Ezagutzen ez den, izenik ez duen eta zoriontsugile den leizezulo hark maitasun eta egarri gehiago eragiten eta sortzen du ariman, zoriontasun betierekoan jainkozko izaerari buruz irits ditzakegun ezagupide guztiak baino.

II

Jaiotza³

"Haur bat jaio zaigu, Jainkoak seme bat eman digu" (Is 9,5)

Eliza osoan ospatzen da Jaunaren hiru jaiotzen festaburua. Kristauek hainbestearainoko poza aurkitu beharko lukete hemen, non barruko alaitasunez gainez egin behar luketen maitasunean eta eskerronean. Errukarria benetan horrela sentitzen ez duena.

Lehenengoa eta ezin ederragoa betiereko Hitzaren jaiotza da. Zeruko Aitak bere Seme bakarra sortu zuen zer-izanean bakar, nor-izanean bereiz.

Bigarrena gertatu zen Ama Birjinagandik jaio zenean, berau sortzez garbia geratuz.

Hirugarren jaiotza arima santu bakoitzean gertatzen da, non Jainkoa izpiritualki jaiotzen ari baita beti maitasunaren eta graziaren bidez. Hauek dira hiru jaiotzak, gaurko hiru mezetan sinbolizatzen diren eran.

Lehenengoa gauaren ilunpeetan ospatzen da eta hitzokin hasten: "Hau esan dit: Nire seme zara zu: gaur zaitut nik sortu", hau da ab aeterno (betidanik). Meza honek jaiotza misterioitsu hura ematen du aditzera, jainkotasunaren leizezulo ezkutu eta hondo gabekoan gertatutako hura.

Bigarrena hitzokin hasten da: "Itzalpean bizi zirenei argiak egin die distira" (Is 9,1), esan nahi baita jainkoturiko giza izaeraren distira. Egunsentian ospatzen da, erdizka ezagutzen den eta oraindik bere betean agertu ez den jaiotzaren sinbolo.

Hirugarrena egun-argian esan ohi da, hitzok dituelarik sarreran: "Haur bat jaio zaigu, Jainkoa seme bat eman digu" (Is 9,5). Eta egunero, ordu oroz, eta une oro zintzoaren ariman ematen den jaiotza eman ohi du aditzera. Hau gertatzen da maitasunez ohartzen garen bakoitzean Jainkoa ariman bizi ohi dela, eta bihotz-bihotzez Harengan biltzen garenean. Jainkoa hain sakonki gurea gertatzen da eta halako propietatez non ez baita gurekin ezer jaiotza honi esker bera den bezalakorik. Testutik ondorioztatzen da: "Haur bat jaio zaigu, Jainkoak seme bat eman digu". Ez dago ezer bera bezain gurerik. Une oro jaioko ahal da gugan. Mintza gaitezen jaiotza honi buruz.

Jaiotza hau gure barruan egin dadin duintasunez eta fruitu ugariz, gogoetak egin ditzagun batez ere Aitagan sortzen den lehen jaiotzaren izaerari buruz, bere Semea betierean sortzen duenean. Jainkoaren borondateak, esentziaren gaindiko aberastasunaren ugaritasunak eraginik, gainez dagi elkar-batasunean, San Agustinek dioenez: "Jainkoa, ontasun gorena, berez da isurbera". Aitagandik Semea jaio da, jainkozko bigarren pertsona, eta gero bere borondatez zabaltzen da izate guztien sorkeran. Horregatik dio San Agustinek: "Gu baldin bagara Jainkoa ona delako da, eta edozein gauzatan ontasunetik dagoen guztia kreaizailearen berezko ontasunetik dator".

Zer da Aitarenago kontsideratu behar duguna Semea sortzean? Bere jainkozko aitatasunaren egitez bere baitan biltzen da berezko adimenez, eta bere burua osotasunean kontenplatzen duenean, argi eta garbi aztertzen du bere betierako izaeraren leizezulo esentziala. Erabateko eta singlea den ulermena mintzoan adierazten eta errainutzen da, bere Semegan, bere Hitzean. Aitak bere buruaz duen ezaguera honetan datza, hain zuzen, Semearen betiereko jatorria. Aitak izaeran ezagutzen du bere burua, batasunean bere baitan bilduz, eta bereizten ere du hedadura pertsonalez. Aita bere baitan sartzen da bere burua osotasunean barne-sumatzen duenean eta ateratzen ere da bere irudia bereizketa pertsonalez adierazten duenean. Bere burua ulertzetik sorturiko irudi hura. Berriro, bere baitara jotzean, guztizko atseginez gainezka dagi esan ezinezko maitasunean, beronen izena Izpiritu Santua delarik. Diogu, beraz, Jainkoa bera baitan dagoela, ateratzen dela, eta berriro bere baitara itzultzen dela. Arrazoiz esan ohi da berriro sartzeko atera ohi dela Jainkoa.

Horren adierazgarri da zeruek biraka eginiko ibilbidea, denetan nobleena, hor bete-betea itzultzen delako sorburu eta abiapuntura. Orobat, giza bizitzaren ibilaldia noblea da eta bete-betea, bere hasiera den Jainkoagan itzultzen denean.

Hitza gure bizitzan haragi egin dadin nahi dugunok, ama-izpirituz parte hartu behar dugu Zeruko Aitaren ezaugarri diren goraldi eta beheraldietan. Beharrezko zaigu batez ere bete-betea barruratzea norbere bizilekuetan. Orduan bakarrik izango da emankor irteera. Nola, ordea, lortu hori?

Oroipena, adimena eta askatasuna, arimaren hiru fakultaterik nobleenak, Hirutasun Santuaren irudi soil dira. Fakultateon bidez arima gai da Jainkoari heltzeko eta lortzeko ere bai Jainkoa erabat arimaren gatibu izan dadin bere aberastasun eta erregalia guztiekin. Honi esker, arima betiereko bizitzara igotzen da denboraren bideetatik dabilen bitartean. Goi-fakultateei esker jadanik betikotasunekoa da; behekoiei esker, sentimenduzkoak eta animaliazkoak direnez, oraindik denboran dirau. Tamalez, ordea, nahiz bateko nahiz besteko potentziak denborazko gauza hutsaletan aritzen dira eta nahasten. Bi-biak, goiko eta beheko fakultateak, sakonki elkarloturik aurkitzen dira. Horregatik, nobleenak ere errazki barreiakuntzara dute jotzen eta arrunkeriak zereginei lotzen dira betiereko gauzak ahaztuz edo kaltetuz.

Ezinbestekoa da barrura itzultzea, geure barruan sartzea, Jainkoa ariman jaio dadin. Premiazkoa da bildutasunaren bulko indartsu bat lortzea, gure ahalmen guztiak, behekoak eta goikoak, biltzea eta barneratzea, eta barreiakuntza bildutasun bihurtzea, esaten baita batasunak indarra dakarrela.

Tiralari batek erdiz erdi jo nahi duenean, begi bat itxi ohi du bestearekin zuzenago ikusteko. Era berean, zerbait sakonki ezagutu nahi duenak beharrezkoa du bere zentzu guztiak puntu batean biltzea, arimaren erdi-erdira zuzentzea, hemendik atera direnez. Zuhaitz Arbolaren adarrak zuhaitz-gerritik datoz guztiak. Gisa berean, irris-gurariak eta haserrekorrak goi-fakultateetan eta arimaren zolan dute beren sustraia. Honetaraino iristeari, geure baitan sartzea esaten zaio.

Horrela geure buruak prestatzen ditugu Jaunaren bidera ateratzeko. Kanpora irten gaitezen eta geure buruen gainetik aurrera egin dezagun Jainkoaganaino. Beharrezkoa da bakoitzak bere nahi-izate, gurari edo ekinbideari uko egitea. Ez da besterik behar: asmo garbi eta soila Jainkoa bakarrik bilatzeko, inolako nahikunderik gabe ez bere burua, ez probetxugarri gerta dakioken ezer bilatzeko. Jainkoarentzat bakarrik izateko nahikunde beteaz, Jainkoari bizileku duin bat eskaintzeko, denik eta bizilekurik bihoztiena, Jauna bertan jaio dadin, eta bere langintza gudan osabete dezan, inolako eragozpenik gabe.

Izan ere, bi gauzek bat egin dezaten, beharrezkoa da bata hartzaile izatea eta bestea ekile. Begia garbi dagoenean bakarrik ikus dezake horman zintzilik dagoen laukia edo edozein gauza. Ez luke hori egiterik beste pintura bat marrazturik balerama begi-ninian. Gauza bera gertatzen da belarriarekin: zarata batek menpe hartzen badu, eragotzirik dago beste soinu bat entzuteko. Beraz, ontzi bat zenbat eta garbiago eta hutsago izan, orduan eta baliagarriago gertatzen da.

Honetaz ari da San Agustin hau esaten duenean: "Huts zaitez betetzeko, irten sartzeko". Eta beste nonbait: "Oi zu, arima noblea, sorkari noblea, zergatik kanpoan bilatzen duzu zeure barruan dagoena, bete-betea eta agerian egon ere? Jainkozko izaieran partaide zarenez, zer dela eta egiten zara sorkarien gatibu? Zer ikusteko duzu sorkariekin?"

Gizakiak era honetan prestatuko balu bere bizilekua, arimaren zola, Jainkoak beteko luke ezbairik gabe, eta gainez eragingo lioke. Hautsiko lirateke, bestela, zeruak hustasuna betetzeko. Izadiak izuikara dio hustasunari, hala diote. Zenbatez gaizkiago datorkio Kreatzaileari eta jainkozko zuzentasunari horrela prestatuturiko arima bat bertan behera uztea! Bietako bat aukera ezazu. Zu isildu eta Jainkoak hitz egingo du edota zuk

hitz egin eta Jainkoa isildu. Isiltasuna egin behar duzu. Orduan esango da zeuk uler dezakezun hitza, eta Jainkoa ariman jaioko da. Baina ziur egon, zeuk hitz egin nahi baduzu, ez duzula sekula haren ahotsik entzungo. Geure isiltasuna lortzea, Hitza entzutea zainduz, hau litzateke presta diezaiokegun zerbitzurik hoberena. Zeure baitatik erabat ateratzen bazara, Jainkoa bete-betea emango zaizu, zeu ateratzen zaren neurrian sartzen baita bera. Ez gehiago ez gutxiago.

Moisesen testu batek ematen digu irteera honen adibide bat; testu horretan Jainkoak Abrahami agintzen dio utz dezala bere aberria eta bere familia. Eta hori ondasun handiago bat erakutsi nahi diolako da: jainkozko jaiotza erakutsi, ondasun guztien gainetik dagoena. Lurrak, zeinetatik atera behar baitzuen Abrahamek, gorputza eman nahi zuen aditzera bere grina eta nahasmenduekin. Familia, berriz, gurari zentzukoi eta irudimenezkoen antzirudi da, gurariok norberagandik kanpora eramaten dutela. Gorputza ezinegonera daramate, eta arima ere asaldatzen dute atseginezko eta oinazezko grinekin, pozezko eta tristurazkoekin, beldurrezko eta desirazkoekin, urduritasunezko eta arduratiekin.

Esan ohi da etxean hazitako semea, etxetik kanpo txekor dela. Esaera zahar hau bete-betea dator hemen-honetan. Bere baitatik atera ez direnek berezko eraginei bakarrik jarraitzen diete, ikusitakoari, entzundakoari, sentipenei eta bihotz-ikarari. Ez dira gai beren eskuera ez daukatena ulertzeko; inpresioen munduan bizi dira. Jende honek adimendurik ez du goragoko gauzetarako, jainkozkoetarako. Behiak eta txekorrak bezala dira egiaz. Mendiko burdin meatze bezala da hauen arima-zola: argi-errainu bat ere ez zaio iristen. Hauen sentiberatasuna sorgortua dago, ez dute irudimenik, ez zaie ezer sartzen eta egiaz ez dakite ezer. Etxetik ez dira atera. Gure mintzagaia den jaiotzak ez die ezer esaten. Jaunak esana da: "Eta niregatik etxeak, senideak, aita, ama, seme-alabak eta lurrak uzten dituenak ehun halako jasoko du, betiko bizia izango ondare" (Mt 19, 29).

Orain arte lehen eta hirugarren jaiotzei buruz hitz egin dugu; eta nola lehenengoari esker uler ditzakegun hirugarrenaren eskakizunak. Jarrai dezagun hemendik aurrera hirugarrena ulertzen bigarrena sakonduz, hau da, zer gertatu zen gau hartan, Birjina Amagandik jaiotako Jainkoaren Semea gure senide izatera iritsi zenean. Berau amarik gabe sortua izan baitzen betikotasunean, eta aitarik gabe mundualdian.

"Egiaz -esango digu San Agustinek- Maria zoriotsuago izan zen Jainkoa bere ariman jaio zelako, ezen ez eta gorputzeko jaiotza eman ziolako".

Beraz, hain jaiotza prestu eta izpirituzkoa bere baitan gertatzen ikusi nahi duenak, Mariaren ariman gertatu zen bezala ikusi ere, bi eratara prestatu beharko du bere burua, Jainkoaren Amak egin zuen antzera: arimako jaiotzaz eta gorputzeko haurgintzaz. Birjina garbia zen eta dontzeila, eta gainera, ezkontzeko hitzeman. Bakardadean bizi izan zen eta erabat askaturik Jaunaren Gizakundearen Adierazpena arte. Horrela beharrezkoa da nor bere baitan prestatzea Jainkoa jaio dadin ariman. Arimak birjina behar du izan, garbia eta nahasgabea. Inoiz galtzen bada arimako garbitasuna, erabateko garbikuntzaz berreskuratu egin beharko da.

Itxura batean birjina bat pertsona agorra da, baina bera da emankorrena ere bere bihotzean. Era honetan, hemen aipatzen dugun arima birjinak itxi beharko du bihotza kanpoko gauzentzat, inongo sorkariren mirabe izan gabe, nahiz eta, lehen begiradan, urriak izan fruituak. Era honetan jokatu zuen beti Mariak, zeinak Jainkoaren hitzari bakarrik eman baitzion leku bere bihotzean.

Barruan, orde, arima birjinak fruitu ugaria darama, profetak dioenez: "Guztiz ospetsu dago printzesa" (Sal 45,14) ("Guztiz ospetsu doa barrutik erregearen alaba"). Antzeko izan nahi duena bakardadean biziko da. Horrelakoaren ohiko jarrerak, pentsamoldeak eta jokabideak barruan dute beren bilgunea. Horrela bakarrik eman dezakete fruitu

ugaririk, fruitu bikainik: Jainkoa bera, Jainkoaren Semea, gauza guztiak bere baitan dituen.

Emazte gaztea zen Maria. Bera bezala, arima birjina ere Kristori egongo da aginduta, San Paulok erakusten digun eran: "Senar bakarrari, Kristori, zauzkatet aginduta" (2 Ko 11,2). Errotik atera zeure bihotz aldakorra eta eskaini zeure burua ezin aldatuzkoa den Jainkoaren borondateari. Zure ahuldadea kemen bihurtuko da. Maria bezala, Jaunaren ikasleak ere bihotzaren itxituan bildu behar du, Jainkoaren jaiotzaren bizipena eduki nahi badu. Ihes egin behar die lur honetako harremanei, kalte egiten dutenei jakina, baita bertutea praktikatzean hartutako atsegin zentzuzkoei ere. Isiltasuna eta bakea ere askotan lortu beharko ditu bere bihotzean. Sar bedi bizilekurik ezkutuenean, zentzumenaren deiadarrak iristen ez diren hartan, eta bizi bedi bertan isiltasunean eta bere buruarekin bakean.

Izpirituaren sosegu hau aipatzen du hitz hauekin hasten den Meza Kantuak: "Isiltasun bareak inguratzen zuen dena" (Jkd 18,14). Isiltasun osoan, sorkari guztiak isil-isilik zeuden gauerdiko bakealdirik sakonenean. Orduan, Jauna, hitz guztiahaldunak utzi egin zuen bere jarlekua gure kanpa-dendan bizitzen jartzeko. Une honetan, isiltasunik isilenean, gauza guztiak baretasunean murgiltzen direnean, orduan bakarrik sentiaraziko da hitz honen errealitatea. Izan ere, nahi baduzu Jainkoa mintza dadin, beharrezkoa da zu isiltzea. Eta Jainkoa sartuko bada, atera beharko dute gauza guztiek.

Jesus haurra Egipton sartu zenean, goitik behera erortzen ziren bera igarotzen zen lekuko idoloak. Edozein gauza dela, denik eta onena eta santuena dirudien arren, galarazten badu Jainkoa zuen arimen barruan jaiotzea, gauza hori Egiptoko idoloa bezala izango da zuretzat. "Ezpata ekartzera etorria naiz -dio Jaunak-. Semea aitarengandik, alaba amarengandik, eta erraina amaginarrebarengandik banatzera etorri naiz. Eta nork bere etxeak izango ditu etsai" (Mt 10, 35-35).

Zure etsairik handienak, hurbiltzen zaizkizunak dira egiaz. Eraskotako irudiekin atxiloturik daukazu Hitza eta irudiok ilundura sortzen diote eta galarazten ere bai jaiotzen, nahiz eta Hitza gudan egotearen bakea erabat ezkutatu ez. Betearen beteko bake hau, eta erruak hainbeste mugatzen duena, ama da, Jainkoa jaio dadin ariman.

Beraz, erabateko isiltasuna lortu behar duzu askotan, ohiko zerbait bezala bizi arteraino. Horrela behin eta berriz gauza bera egiteak maisutasun osoz egitera eramaten du. Hasiberrientzat ezinezko gertatzen denak inolako zailtasunik ez du trebatuentzat. Behin eta berriz aritzeak maisu egiten du.

Jaunak nahi dezala guri bere grazia ematea, Jaiotza hau etenik gabeko errealitatea izan dadin gure arimetan, Jainkoaren ama berak izpirituan.

III

Isiltasuna⁴

"Isiltasun bareak inguratzen zuen dena"

(Jkd 18, 14)

Jaunaren jaiotza dela-eta, Hitzaren betidaniko sorreraz mintzatu naiz, nola Semea, Aitak betikotasunean etengabe sortua, gizon eginik denboraren esparruan jaio den. Zerbait esan dezagun, beraz, gure barruan, eta arima santu guztietan, lortu behar den jaiotzari buruz. Zeruko Aitak bere betidaniko Hitza esaten du zintzoaren ariman. Perfekzio-bidean dauden pertsonen diet hitz egiten. Orain ez natzaie mintzo bertutean ahalegindu ez diren haiei eta berezko isuriaren kariaz kudeatzen direnei. Berezko isuria hain dago urruti, ezen ez baitu ezer ulertzen beste jaiotze horri buruz. Gaiak bi testu biblikotan du bere oinarria: lehenengoa, Jakinduriaren Liburukoa, honela dioena: "Isiltasun berak inguratzen zuen dena eta, gaua bere ibilbidearen erdian zegoela..." (Jkd 18, 14). Bigarrena, Joben Liburutik: "Mezu bat etorri zait isilpean, haren zurrumurrua entzun dut" (Jb 4, 12).

Aipatu testuotan hiru puntu gogoratuko ditugu. Lehenengoa, arimako zein partetan esaten duen Aita Jainkoak bere Hitza, jaiotzaren lekua hori baita, eta noiz dagoen arima prest horretarako. Hau gertatzen da arimaren zatirik garbien, nobleen eta zolien hartan. Horregatik, jaiotze hau gertatuko bada, behar-beharrezkoa da arima erabat garbitu dadin eta leialtasun osoan bizi, bildutasun osoan. Uko egin beharra dago sorkarien inpresio zentzukoiei eta multiplizitate ohargaltzaitetik bizitzeari. Bizi bedi bere barnean erabateko bakardadean, bere baitan duen zatirik nobleenean. Hemen dago jaiotze-lekua. Bigarrena da zer jarrera hartu jaiotza honen aurrean. Mesedegarri ote zaio gizakiaren laguntza? Beharrezko ote adimena zenbait irudiren inguru erabiltzea edo pentsamendu onak oldoztea? Pentsatzea, adibidez, Jainkoa ona dela, ahalguztiduna, betikoa, eta pentsatu Jainkoaz asma litezkeen gauzarik hoberenak? Edota hobe da alde batera utzi arrazoiketak, hitzak, eginak, adimenduaren erak eta irudiak, Jainkoa baretasun eta atsedeen santuaz hartuz, eta berari askatasunaz ekiten utziaz?

Hirugarrenik, jaiotza honen emaitzez hitz egingo dut. Arrazoen bidez ziurtatuko dut diodana, eskuekin ia ukitzeko moduan ziurtatu ere nire arrazoiketaren egia. Jakina denez, balio handiagoa dute Idazki Santuetako esaldiek. Nire burubideek lagunduko dizute errazago sinets dezazuen eta gogoki gordetzen oroitzapenean.

Hasteko, itzul gaitezen lehenago aipaturiko testuetara:

"Isiltasun bareak
inguratzen zuen dena,
eta gaua bere ibilbidearen
erdian zegoela..." (Jkd 18, 14)

"Mezu bat
entzun dut isilpean,
haren zurrumurrua entzun dut" (Jb 4, 12).

O Jainko! Ona zarenez, ausartu naiz galdetzen zein den isiltasun horren lekua, hitz egiteko Zuk erabiltzen duzuna. Zein lekutan ahoskatzen duzu zeure Hitza?

Erantzuna lehenago emanik dago. Guztia gertatzen da arimaren zati guztiz garbi eta noblean, izaeraren zolan, ezkutuen hartan. Han dago isiltasunaren jarlekua gauerdian. Han ez da sekulan sartu ez irudirik ez sorkaririk. Han arimak ez dago ezer, ez daki ezer, ez du ulertzen ezer. Han ez dauka bere buruaren irudirik, eta ezin daiteke egon beste sorkarienik ere.

Arimak gogalmenen bidez egiten du bere lana: adimenaren bidez ulertu du, oroimenaren bidez amesten eta nahimenaren bidez dabil maitasuna. Arimaren egintza guztia bitartekoak erabiliz bete ohi da. Ez dago ikusterik begirik ez dagoenean; arimak ezin

ikusi begien bidez ez bada. Gauza bera gertatzen da beste zentzuekin ere. Esan dudanez, arimak bitartekoak behar ditu beti bere ekintza bideratzeko. Arimaren izatean ez dago, beraz, egintzarik. Zergatik hori? Gogalmenak eramangailu direlako, arimaren egintza bururatu dadin. Arimaren zolan isiltasunak agintzen du orain, gauerdiko isiltasunak, jaiotza jainkozko honen zain. Orduan, Aita Jainkoak bere Hitza esan ohi du. Jainkoak ez du gogalmen-bitartekotza beharrik. Zuzenean ekiten du, izatetik izatera. Han Jainkoa bere betean eman ohi da, ez zatika. Jainkoa eta ez beste ezer ezin liteke sartu erdigune horretan, arimaren zolan. Ez da sorkaririk erdigune horretan sar litekeenik, kanpoko gogalmenetan geratzen direnez. Ariman irudiaren bidez sartzen da, bertan kokatzera datorrenez irudia. Egiaz, arimaren gogalmenak dira sorkariak ukitzen dituztenak eta antzirudiak ateratzen dituzte, eta hauetan, barruan hartutakoan, ezagutzen dituzte sorkariak. Baina sorkariek ez daukate barrurago sartzerik, arimaren ondoraino. Arimak ere ez dauka sorkarietara begiratzerik, sorkariok, irudian, aldezturik hartzen ez badira. Izan ere, arimak bere gogalmen barruan ferekatzen dituen irudiak kanpoko gauzetatik datoz. Aldezturik hartuak dira. Beraz, harri bat ezagutu nahi badu, edo zaldi bat, edo gizon bat edo beste zerbait, barruan daukan irudiari begiratu dio lehenik. Hau da arimak egiten duen bidea sorkariekin elkartuko bada. Irudia kanpotik dator eta zentzuen bidez hasten du bere bidea.

Horregatik, arimak ez dauka sekula bere buruaren irudia ikusterik. Hau dela-eta, Doktore batek esan zuen: "arima ez da gai bere buruaren irudia sortzeko, eta ez dauka kanpotik hartzerik ere". Gauza garbia da arimak ezin dezakeela eduki bere buruaren irudi bakar bat ere, irudi guztiak zentzuen bidez igarotzen direnez. Arimak irudien bidez ezagutzen du, baina ez dauka bitartekorik, zeinetan bere burua ezagutu dezan. Aske da bere barruan, irudirik gabe, bitartekorik gabe. Horregatik, Jainkoa askatasunean elkartzen da arimarekin, bitartekorik gabe, irudirik gabe.

Artista bat zenbat eta jeniordunago eta indartsuago izan, orduan eta tresna gutxiago beharko ditu; eta bere lana erraztu egingo du. Gizakiaren ekintzak bitarteko asko beharko ditu bere kanpokoegintzetan, irudikatua etekin onez osabetetzeko. Eguzkiak eta ilargiak besterik gabe bete ohi dute beren artzaintza eta lana: argi egitea. Beren errainuak zabaltzean, mundu guztia argitzen da leku guztietan. Gorago aingeruak daude, eta hauek oraindik gutxiago behar dute bitartekorik eta irudirik. Gorenean, serafinak dena irudi batean begiratzen du. Besteek, beheragokoek, aniztasunean.

Jainkoak, serafina eta sortutako guztia mugagabeki gainditzen duenak, ez du irudi beharrik, ariman egiten du lan, hobeto esan, arimaren ezin ukituzko zolan, sekula irudirik iristen ez den hartan. Jainkoak han egiten du lan bitartekorik gabe, irudirik gabe, antzirudirik gabe. Eta ez dago sorkaririk hau egin dezakeenik. Han, Aita Jainkoak Semea sortzen du, betiraunean sortzen duen bezala. Ez sorkariek ezagutzen duten moduan, irudien, formen eta antzirudien bidez.

Aitak nola sortzen du Semea betikotasunean? Jainkoak bere buruari so eginez bete-betea ulertzen du, bitartekorik gabe, bere burua. Horrela Semea izatearen batasunean sortzen du. Era berean Semea jaiotzen ari da arima zintzoaren izate-zolan, Jainkoarekin bat eginiko arimarenean. Han beste irudiren bat egongo balitz, Jainkoa ez letorke bat egitera eta arimak bere dohainik hoberena galduko luke. Irudiren bat egon ote liteke ariman beronen berdin izango denik? Jainkoak ezin dezake sorkaririk egin, zeinetan arimak zorion betea, dohatsutasuna lor lezakeen. Jainkoa bera lekuri gabe geratu litzateke, eta hori ezinezkoa da, Bera denez gauza guztien hasiera eta azkena. Sorkaria ezin liteke izan, ez arimaren zoriontasuna, ez atsegin betea. Bizitza honetako perfektzioa datza bertuteen garapen betean. Gero dator betiko bizitza. Beraz, beharrezkoa da arima egon dadin bere baitaren zolan, Jainkoaren izate singleak uki dezan han, bitartekorik gabe, irudirik gabe. Irudi bat ez dago bere buruaren irudi izango denik; kanpoan dagoen

irudi baten erreferentzia dakar eta berau adierazten du. Eta egia denez kanpoko gauzen irudia baizik ez dela izaten, zentzuetatik sartzen diren gauzena, irudiek gauzetara baizik ez dute bidaltzen arima. Eta gauzen bidez ezinezkoa litzateke zoriontasuna lortzea.

Agindu nuen, bigarren gauza batez ere hitz egingo nuela: gizakiak zer egin behar duen jaiotza lor dezan bere ariman. Gizakiaren egitekoa ote Jainkoaren irudiekin eta egiekin arima janaritzea? Ez ote hobe isiltasuna eta bakea, Jainkoari utziz barruan hitz egin eta ekin dezan? Itxaron dezala itxaropenean eta lagun dezala. Hasieran esanikoa errepikatzen dut: perfektuei mintzatzen natzaie, hau da, bertute guztien muina sutsu praktikatzan dutenei. Ezer baino lehen gure Salbatzailearen bizitza eta irakatsiak bereziki bizitzen ahalegintzen direnei. Hauek jakin bezate eta gauza segurutzat eduki, bizitza honetan amestu dezaketen gauzarik hoberena eta nobleena isiltasuna dela eta Jainkoari uztea hitza eta lana egin dezan barruan.

Arimaren gogalmenak irudi guztietatik biluzten direnean, han barruan Hitza esan ohi da, aipaturiko esaldiek diotenez:

"Isiltasun bareak

inguratzen zuen dena

eta gaua bere ibilbidearen

erdian zegoela...

zure hitz ahalguztiduna..." (Jkd 18, 14)

"Mezu bat etorri zait isilpean,

haren zurrumurrua entzun dut" (Jb 4, 12)

Beraz, pertsona hauek zenbat eta gehiago ahaztu sorkariak, zenbat eta gehiago biluztu gogalmenak irudi eta gauzetatik, hainbat eta hurbilago daude betiereko Hitza esana izan dadin. Horregatik, lortuko balute sorkariak erabat ahaztu eta ez ezagutzea; erdietsiko balute beren bizitza gogoan ez izatea eta burutik uztea, San Paulok aitortzen duenez: "Gorputzarekin ala gorputzik gabe ez dakit, Jainkoak daki" (2 Ko 12, 3), orduan gai izango lirateke jaiotza horretarako. Benetan, Apostoluaren bahitze hartan, Izpirituak gogalmenak barrura erakarri zituen, Paulo bere gorputza ia erabat ahazteraino. Ez zuten beren langintzarik betetzen ez oroitzapenak, ez adimenak, ez zentzunek, ez gogalmenek, nahiz eta berauek beren eraginez mugitu eta edertu behar zuketena gorputza bera. Bien bitartean etenik zegoen berezko berotasuna. Haren gorputzak ez zuen ezer hartu hiru egun haietan, ez jatekorik, ez edatekorik. Hau bera gertatu zitzaion Moisesi berrogei egun eta gau barau egin zuenean. Azken egunean, lehenengoan bezala, haren gorputza ez zen ez eri, ez gaixo.

Era berean, gizaki perfektuak guztia ahaztu behar luke, ez luke zentzuen morroi izan behar, eta gogalmenak bere baitan bildu behar lituzke. Honen arabera, Doktore batek aholku hau eman zion arima bati: Alde batera utzi ezazu, o arima, kanpoko gauzen kezka bidea, ihes egizu berehala zalapartatik. Era berean bazter itzazu barruko irudiak. Arimako bakea galarazten dute. Jainko ahalguztidunak bere Hitza esan dezan, arima bakean egongo da, barealdian.

Honelako ariman, arima baretuan, Jainkoak esaten du bere Hitza eta bere burua. Bere burua diot, eta ez irudi bat. Dionisiok esaten duenez: "Jainkoak ez du ez bere buruaren irudirik, ez antzirudirik, Bera on guztia denez, egia guztia, esentzia guztia. Begirada batez bere baitan ikusi ohi ditu egintzak eta perfekzioz biribiltzen"; bere baitan eta bere egitez. Inork ez dezala uste, Jainkoak, zeru-lurren jaun eta jabeak, lurra eta zerua itxi zituenean, hauek beren baitan duten edukiarekin, egun batean gauza batzuk egin zituela, eta hurrengo egunean besteak, nahiz eta hala esan Moisesek. Moisesek honela adierazten ditu gauzak, batzuek, adimen eskasekoek, bestela ulertzerik ez zeukatenez. Egiaz Jainkoak ez zuen horrela jokatu. Jainkoak nahi izatea ez zen besterik gertatu, eta dena egina izan zen. Jainkoak irudirik gabe eta bitartekorik gabe egiten du.

Berdin gizakia ere. Zenbat eta biluziago izan irudietatik, zenbat eta gehiago barruratu, zenbat eta gehiago gauzez ahaztu, orduan eta gehiago hurbiltzen zaio Jainkoaren langintzari. Era honetan Dionisio jainkozkoak Timoteori, bere ikasleari, dei dagio eta berau adoretzen du, esanez: "Zu, ordea, Timoteo bihotz-bihotzekoa, jardun zaitez kontenplazio jainkozkoan. Utz itzazu izpirituaren zentzubideak eta egintzak, gauza sentikor eta ulergarriak, direnak eta ez dena. Elkar zaitez izate guztien eta jakintza guztien gainetik dagoenarekin. Joan zaitez Beragana zeure gogalmenak lotan utzirik, eta zeure baitatik atereaz. Gauza guztietatik erabat askaturik eta garbiki harantzago joanez, hegatu zaitez iluntasun jainkozkoaren substantziaz gaineko errainura. Biluztasun gorrian, askatasun betean". Horrela, bai, horrela guztiz beharrezkoa da gauzetatik jaregitea. Jainkoak ez du gogoko irudipenaren antz-bideekin jokatzeko. Jainkoak ariman jarduten du, arimaren izate berean, zalogintza jainkozkoa inork ezagutu gabe.

Gogalmenek ez dute beren bururik ezagutzen, ez eta gauzarik ere irudietan ez bada. Irudia denez gure ezagupidea eta hori kanpotik datorrenez, ulertzen da nola Jainkoaren jardura, egintzarik onuragarriena, arimarentzat estalirik geratzen den. Hala ere, ezjakintasun honetan, arimak bizipenez daki Jainkoa han dagoela, miresmen batera jasotzen da, Jainkoa ezagutzea irrikatzen eta desiratzen du, nahiz eta sartzerik izan ez bere izaeran. Honela dagokio oraingoz, beti Jainkoaren bila ibil dadin. Jainkoaren aurpegia estalirik edukitzeak akuilatu egiten du bilatzera eta iraupen handiagoz bat egitera; Jainkoaren egarria sentitu ohi du eta Beragana sutsuki doa. Horregatik dio jakintsu batek:

"Mezu bat etorri zait isilpean,

Gau-ikuskari kezkarri bat izan nuen
lozorroak gizakia hartzen duen garaian".

(Jb 4, 12-13).

Eta ondoren:

"zutik zegoen, ez nuen ezagutu;

irudi bat bakarrik aurrean.

Dena isilik. Gero ahotsa entzun nuen"

(Jb 4, 16).

Galdetu beharko genuke isilpeko mezuak zer esan nahi duen. "Zutik zegoen -esaten du- ez nuen ezagutu". Zerbait epaitzera bailihoan bezala, "zutik zegoena nire begien aurrean". Isilpeko hitza da. Hitza, Jainkoa agertzen duelako ariman. Isilpekoa -hala ere- arimak ez dakielako barruan dagoena zer den. Horregatik jarraitzen du: "Mezu bat etorri zait isilpean". "Haren zurrumurrua entzun dut". Zurrumurru honek zer esan nahi ote du? Beraz, bilatu beharra dago guztizko irrikiaz, ezkutaturik dagoen bitartean. Isilpeko mintzoa, dio jakintsuak. Zer dela-eta isilpekoa? Jainkoa amets eta irrika dezagun bihotz osoz.

Era berean Apostoluak adoretzen gaitu "haz gaitezen gauza guztietan, burua den Hari egokitu arte" (Ef 4,15). Ez dezagun etsirik har, harik eta iristea lortu arte. Apostolua bera hirugarren zeruraino eramana izan zen (2 Ko 12,3), Jainkoa bere izatean kontenplatu arte. Bere baitara etorri zenean, guztia ahaztu egin zitzaion. Dena arimaren barrenean gertatu zen, adimenarentzat lekuri ez dagoen hartan eta horregatik gauza ezkutukoak ziren. Adimenak ez zuen jarraitzerik ez atzematerik izan. Ez. Kanpoan dago adimena eta Jainkoa barruan zegoen, guztiz barruan. Paulo Apostoluak, bizipen honekin adoreturik, honela dio gero: "Bai baitakit ziur, ez heriok... ez beste izakik... ez gaituela aldenduko Jainkoaren maitasunetik" (Erm 8, 38), Jainkoak beretzat hartutako arimaren bizileku hartatik.

Gai honetaz ari zirelarik, filosofo batek beste filosofo bati esaldi hau adierazi zion: "Nire adimenean nabaritu dut zerbait badela, nahiz eta nik ezin dudan ulertu. Endelegatuko banu, iruditzen zait berorretan egia osoa ulertuko nukeela".

Eta besteak erantzun: jarrai iezaiozu uste osoan egonik, ulertuko bazenu, ondasun guztiak lortuko zenituzkeela, eta horrela betiko bizitza eskuratuko zenukeela".

San Agustinek ere berdin: "distira bat nabaritu dut ene barruan. Etenik gabea balitz, ez nuke dudarik betiko bizia izendatzeko. Ezkutatu egiten da, eta hala ere, agerian dago. Ezkutuan dator, lapurretan egitera eta arima osoa eramatera".

Esan nahi du arima liluratzan duela eta zirikatzen, eta bera arrastakatzen duela eta berekin eramaten.

Horregatik, profetak dio: "Jauna, hartzazu harengandik izpiritu hau eta Zuk zeurea emaiozu". Eta arimak, guztizko atseginez, horixe adieraziz esaten du: "Dardar dagit barruan, Maiteak hitz egin didanean" (Kt 5, 4). Hau esango balu bezala: bera sartzean, bizia baita, beharrezkoa da nire heriotza. Hau bera adierazten du Kristok, dioenean: "Eta niregatik aita edo ama uzten dituenak ehun halako jasoko du" (Mt 19,29). Eta beste nonbait: "Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, bere gurutzea hartu eta jarrai beki" (Mt 16,24). Eta "Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat" (Jn 12, 26).

Norbaitek esan dezake hori naturaren kontra dagoela, arimak zentzuetatik hartzen baitu inpresioa, irudiak sortzen, eta onartzen edota gaitzesten. Horregatik, badirudi hemen naturazko ordenaren aurka jokatzela. Baina hori ez da egia. Nork du ezagutu egiaz Jainkoak naturari emaniko bikaintasun eta noblezia? Eta ez bakarrik filosofoak aipaturiko sekretu hura, baita arrazoiak erdiets ezin dezakeen hura ere. Arimaren nobleziaz filosofoek idatzirik utzitakoa naturazko argiez lortu zuten ezagutzea. Baina ez zuten inoiz aurkitu hondo hori eta horregatik gauza asko itzuri egin zitzaizen beren ezagueratik.

Hitz honi buruz Profeta Erregeak esan zuen: "Jainkoak dioena entzun nahi dut" (Sal 65,9). Hitz hori ezkutuan dagoenez, gauaz etorri zela esan ohi da, "Isiltasun bareak inguratzen zuen dena eta gaua bere ibilbidearen erdian zegoela, zure hitz ahalguztiduna atera zen zeruko tronutik" (Jkd 18,14). Honekin bat dator San Joanen hura: "Argi horrek ilunbetan egiten du argi" (Jn 1,5). "Bere etxera etorri zen, baina beretarrek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, ordea, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien" (Jn 1, 11-12).

Asmoa hartu nuen zeruko Hitz honetaz hemen hirugarrenik mintzatzea. Hobeto esan, arimako jaiotzaz nahi nuen hitz egin, eta Hitz horrek berak distiratzan duen ilundegiaz, beronek fruitu onuragarriak omen dituen arimarentzat. Egiaz, San Joanek dioenez, jaiotza hau gertatzen zaion arimari Jainkoaren seme edo alaba deitzeko ahalmena eman zion. Jaiotza horretan Jainkoa da Aita, jainkozko sortzez izan ere, eta ez beste inolako.

Bada beste abantaila bat. Filosofoek eta arrazoi-indarrez egia hau ikertu, aurkitu eta erakutsi nahi izan dutenek, ez zuten lortu arima-zolaren jakinduria ezagutzerik. Jakinduria honi arrazoi osoz ezjakintasuna deitzen zaio. Baina hala ere, beste ezaguera guztiak baino aberatsagoa eta konplexuagoa. Izaki horri esker, gizakia askatzen da ezagugai diren gauzetatik, uko dagio bere buruari eta Jainkoagana igotzen da. Hori adierazten du Jaunak dioenean: "Nor bait baletor niregana eta bere aita-amak ez ditu gorroto... eta bere bizitza ere bai, hori ez liteke nire ikaslea izan" (Mt 14,26). Esango balu bezala: sortutako gauza guztiak ukatzeko prest ez dagoenak, jaiotza jainkozko hau arbuiatzen du, Aitaren Hitza arbuiatzen, hain onuragarria gerta lekiokkeen jaiotza. Hau emango zaio kanpoko gauza guztiak eta norberaren burua ere erantzten dituenari. Ziur dakit grazia hauek eman zaizkiona ez duela ezerk munduan erauziko Jainkoarekin duen

batasunetik. Bekatu astunak jadanik ez du ukitzen, ez eta bekatu arinak ere, eta ez die hauei lekurik ematen, beren esku leudekeen aldetik".

Honelako gizakiek hartu dute gonbitik, deirik eta erakartasunik barne-bizitzarako, halako maitasun-indarrez, non ez bailitezke gehiago joan bide bihurrietatik. Hori dute beren ametsa eta ezin dute deia erantzunik gabe utzi.

Horrenbeste eman diezagula gizon egin nahi izan zuenak, guk, gizaki ahulok, Beragan izan dezagun jainkozko jaiotza.

IV

Jainkozko mirra⁵

"Non da juduen Erregea?" (Mt 2,2)

Non da juduen Errege jaioberria? Gurtu nahi genuke, goratu eta ohoratu ere bai erregalia mistikoeekin, urre, intsentsu eta mirrarekin.

Halaxe da. Arimak bere indarrekin jakin ohi du Jainkoa badela. Baina Jainkoa zer den eta non aurki litekeen, arrazoiaren gainetik dauden galderak dira, arrazoiak ezagutzen ez dituenak. Ondorioz, arima erlijiozkoan sortzen da arretaz azterketa egiteko nahi pietatezkoa. Jainko ezkutua ahal den neurrian ezagutzeko irrika.

Arima sutsuki ari den bitartean bilaketa honetan, izar bat ateratzen da arimaren begi aurrean. Esan nahi da, graziaren distira, argi jainkozkoa, hori dela izarra, diz-diz egiten duena. Bihotzera hitz egiten duen argia, erakutsiz non gertatu den jaiotza jainkozkoa, arrazoiak, berak bakarrik inoiz aurki ezin dezakeena.

Badira pertsonak beren-berezko argi soilekin jaiotza ezagutu eta gozatu nahi dutenak. Ez dute inoiz aurrerabiderik egingo perfekzioan eta galbidean erortzeko zorian bizi dira. Ezinezkoa zaio arimari bere indarrez sakontzea eta misterioa aurkitzea. Beharrezkoa da Hitzak zabalduko argiak berak zuzen eraman gaitzala zer den eta non dagoen ikusi arteraino.

O jende burugabea, ez baitezakete itxaron bederenik, argia denaren argiagatik! Norberezko ahalegin zakarrez tematzen dira Jainkoa menperatzen, jakinik Jainkoa ez dela inoren esanera jartzen, baizik eta bete-betean eskaini egiten dela. Itxaroten jakin behar da.

Batzuei hain desira jasangaitz eta sutsuak sortzen zaizkie, non ahuldu egiten baitituzte beren gorputz, odol eta hezur-muinak. Egia da ahalegin guztia jarri behar dutela Jaunaren bideak atontzeko eta jaiotza jainkozkoa guri erakusteko. Baina jakin bezate ez direla sekula Jaunarengana iritsiko ahalegin naturazkoekin bakarrik.

Hiru gauza dira hemen gogoan eduki beharrekoak: lehenengoa, nork bilatzen duen, hau da, desira. Bigarrena, bilatzeko era, eta azkenik jaiotza jainkozkoaren bilakuntza. Era berean, hiru bizitza bereiz daitezke gizakiaren baitan. Bata haragiak eta odolak markatua: gorputzeko zentzuak eta sentiberatasuna. Bigarrena arrazoiak litzateke. Eta hirugarrena, izpiritua edo arimaren izate soil eta singlea. Hirurak desberdinak dira, eta bakoitzak ditu bere pertzepzioak bere izateari dagozkionak. Hala nola eguzkiaren argia, bere baitan singlea dena, kolore desberdinetan zabaltzen da, aurkitzen dituen kristalen arabera, beltza, horia eta txuria adibidez. Sentiberatasunak kristal beltza ematen du aditzera. Horiak arrazoiak. Kristal zuriak izpiritu soil eta singlea.

Sentiberatasunak arrazoiaren antzaldatzerik baleuka, eta hauek biok izpirituan, kolore beltza kolore hori bilakatuko litzateke, eta gero zuri guztia sinplizitate hutsean. Puntu honetan du distiratzeko argiak; eta beste inon ere ez hemendik kanpo. Argi garbi hori barruratzen zaigunean, ezabatu egin ohi da irudi, forma eta figura oro. Orduan argi eta garbi agertzen da jaiotza jainkozkoa.

Mundualdiko bizitzan izpirituaren zerua berezko iluntasuna da. Bat-batean argi garbiko eguzki batek erabat argituko balu, irudimenaren kandelatxoak sumagaitzak izango lirateke horrelako argi-itsasoan. Horrela gertatzen da arima, argi distiratsu hark itsutzen duenean. Irudi oro ezabatzen da, zentzubidezko formak itzaltzen eta galtzen dira naturazko beste argien eraginez. Salbatzailearen jaiotzaraino zuzen eramaten zuen izarra ez zen naturazkoa, zeruan zintzilik dauden beste izarren antzera.

Kanpoko errealitatez janaritzen dira zentzuak, eta errealitate horiek nobleago bihurtzen dira pertzepzioan beste izaera bat hartzen dutenean. Kristal beltza zentzuen sinboloa da; gero arrazoiak dator zentzuzkoa galbahetzen duena eta intelektu-produktua eskaintzen. Kolore horia da hau. Arrazoiak bere burua alde batera uzten badu biluztasun osoan, bide

ematen dio izpiritu garbi eta singleari, orduan dena da zuritasun. Hemen bakarrik egiten du argi izarrak. Gizakiak helburu honetara daude deituak. Hiru aro, hiru erregalia errege magoek Jesus Haurri eskaintakoak: urrea, intsentsua eta mirra. "Eskuerakutsiak eskaini zizkioten: urrea, intsentsua eta mirra" (Mt 2,11).

Has gaitezen mingotsa den mirratik; Jainkoa egiaz aurkitu nahi duenak jasan beharreko garraztasuna ematen du aditzera. Izan ere, bihotz-berritzearen hasieran, gizakiak oraindik ohiko gozamenei eta atseginei itsatsirik jarraitzen du, nahiz eta guztiz beharrezkoa zaion osotoro alde batera uztea bere ondasunak eta gozabideak. Oso garratza eta neketsua izanik ere hasierakoan, beharrezkoa da, hala ere, penitentzia egoki baten arabera, orain mingostasuna izan dadin lehen gozabideak izan ziren adina. Egiaz, nahimen-indar handia eta arreta eskatzen dira hori egintzetan beteko bada.

Norbaitek esan dezake, nola egin uko gozabide guztiei bizi garen bitartean? Goseak nago eta jan egiten dut; egarritu naiz eta edan egiten dut; logalea dut eta lo egiten dut; hotza egiten du eta berotu egiten naiz. Ezinezkoa da naturazko atseginak oinaze bihurtzea, gure naturak den bezalakoa dirauen arte.

Hala da. Atsegin horrek ez zaitu menpean hartu behar, ez du zure barne-bizitzara iritsi behar. Irrist egin behar du, subjektuan sustraitzen ez diren ekintzak igarotzen diren bezala. Bebil ura eta sendo egon bitez untziak. Ezer ez dakiola barruan atxiki barealdiari eta gozamenari. Aitzitik, uxa ditzala munduak eta sorkariek dakartzaten atsedanak. Naturak hilduratua eta garaitua behar du izan, bere baitan erroturiko indarrei esker. Baita aienatu behar du Jainkoaren adiskideekin eta jende onarekin edukitako tratuak dakarren atsegina ere. Berez atsegina denaren gustua sublimatu, garaitu edo kanporatu beharra dago, ziur zauden arte egiaz zeure burua hil duzula, eta hil, baita ere, haurra nondik hilko dabiltzan Herodes eta honen menpekoak. Ez dezala inork ametsik egin; bihotza zaindu behar da; ez izan barkabera norbere buruarekin, eta galga bezala erabili beldur santua.

Bada beste mirra bat lehenengoa baino askoz ere mingotsagoa. Jainkoak oparo ematen die bere lagunei barruko eta kanpoko sofrikarioen bidez, nahigabeen eta ezbeharren bidez. Zorionekoa mirra hau Jainkoak opa dion maitasun eta asmo berekin onartzen duena. Nork kanta dezake, nolako pozaldiz, zorionez eta bakez bete ohi den arima-zola, Jainkoak mikaztasuna sortzen duen hartan? O, bai! Jainkoak gerta dadin uzten duen sofrikariorik txikiena, nahiz handiena, bere maitasun sakon eta harrigarritik dator. Hau horrela da. Jainkoak dohainik bikainenak eta goienenak eskaintzerakoan erakusten duen maitasun hain handitik dator. Egiaz dohain hauek ez dira arimarentzat hain probetxugarri Berak opa dituen nahigabea den neurrian, ongi etorriak badira behintzat. Izan ere, nahikoa da zuk hartu nahi izatea, eta sofrikario oro probetxu handikoa litzateke zuretzat, nahiz eta txikia izan, burutik sentitu ere gabe erortzen den ile hutsalaren moduan.

"Zuen buruko ileak ere denak zenbatuak dauzka Jainkoak" (Mt 10,30). Sekulan ez zaizu gertatuko sofrikariorik, denik eta txikiena dela ere, Jainkoak betidanik eratu ez duenik. Berak nahi izan du eta agindu, horregatik zureganatu da. Hatzean ebakia egin duzu, adibidez, buruko mina daukazu, oinetan hotza sentitzen duzu, goseak eta egarriak zaude, norbaitek hitzez edo egitez min eman dizu. Gogoz kontrako duzun edozer gauza dela, honek guztiak prestatu egiten zaitu pozbide nobleenaren eta funtsezkoenaren bizitzarako. Jainkoak prestatu zuen hori guztia zuri gerta dakizun. Neurturik zeukan, haztaturik, zenbaturik, eta ez zitzaizun ez gehiago ez gutxiago gertatuko zuri. Jainkoak, zeruko Aitak, betidanik nahi izan du begiak buruan egon daitezen. Egunen bateanitsu eta gor gelditzen banaiz, zeruko Aitak berak betidanik aurreikusirik zeukan hori; bere xedeen arabera nik begietako argia galdu beharra neukan.

Ez ote nituzke neuk arimako begiak eta belarriak ireki, eta eskerrak eman behar, Jainkoak nirekiko zituen asmoak bete direlako? Asaldata egin behar al dut? Aitzitik, onartu egin behar nuke, eskerrak emateko arrazoi miragarria bailitzan onartu ere. Era berean lagunak galtzeari dagokionean, edo ondasunak, ohoreak, kontsolamenduak galtzeari buruz, eta Jainkoak bidali nahi digun guztiari buruz. Onartzen asmatzen baduzu, askoz gehiago prestatzen eta egokitzen zaitu egiazko bakerako. Badira, hala ere, ezbeharririk txikienaz ernegatzen eta protestaka hasten direnak: "Jauna, inolaz ez dago hau jasaterik". Eta Jainkoak aditzera ematen badie komeni zaiela, berehala erantzuten dute: "O, zuzenbidezko zigorra izango da. Gaizkiari eman diot leku ene bihotzean. Tamala!".

Ezerk ez zaitzala aztora. Ez zaitzala kezka ere jakiteak mereziak zenituen edo ez sofrikarioak. Onar itzazu Jainkoagandik etorriak bezala eta eman Berari eskerrak. Eutsi, eta zarena utzi Jainkoaren nahiaren eskuetan.

Jainkoagandik datozen mirra-moduak, sofrikarioak, Berak agindutakoak dira, gizakiak gaitasuna izan dezan dohain handiagoak hartzeko eta hauekin ahalegintzeko. Horregatik ematen diote min, estutu egiten dutelako eta neurria zabaltzen ere bai, jende arruntak lortzen ez duen neurrian. Jainkoak agin zezakeen ogia haz zedin garia bezala, gizakiak oreka egin beharrik izan gabe, baina nahiago izan du gizakidetzak. Betirauneko plangintzan xehetasun guztiak aurreikusiak eta aginduak daude, margolari jeinutsu batek bere laukientzat artez ditzakeen baino hobeto. Halako edo horrelako pintzelkada, luzea zein zabala gutxi-asko, asmatutako maisu-lanaren arabera. Tonalitatea, koloreen barreiakuntza, gorria, urdina... Jainkoa edozein margolari baino askoz ere arduratsuago da atontzen, nola gizakia eraman, sofrikarioen eraskotako pintzelkaden bidez eta bertuteen koloreen bidez, gizaki honi dagokion betearen batera, mirra hauen eta beren dohainen balioak preziatzen eta estimatzen dituzten neurrian beti ere.

Badira batzuk, hala ere, Jainkoak emandako mirraz pozten ez direnak. Fantasiatzko plangintzek betetzen dituzte horrelakoen buruak, etekinik gabeko sofrikario luze eta ugariak. Gutxi haziko da horiengan grazia. Beti geldi egonik, beren asmoen arabera eraiki nahi dituzte gauzak: beren penitentziak, beren barauak, beren otoitzak, beren gogoetak eta gainerako ariketak. Ahalegintzen dira Jainkoa etor dadin beren nahikundeak zerbitzatzera eta Jainkoak bete ditzan erabat norberezekoak diren egintzak. Horrek ez du inolako irtenbiderik. Jainkoak erabaki du egintza jainkozkoak bakarrik saritzea, eta ez zureak, baizik eta Berak zugaran egiten dituenak, ez besterik. Bere jainkozko egintzak izango dira koroatuak Zerueta Erreinuaren. Zure baitakorik ezerk ez du balio, Berak zuregan egin duena ez bada.

Jainkoak oraindik beste mirra bat mikatzagoa egiten du erregalia: estuasuna eta barne- iluntasuna. Sofrikario hauek akitzen dituzte gorputz, odol eta izate guztia atxikitasun osoz bizi ohi dituztenena. Barruko lanbideak iristen dira aurpegiko kolorea mudatzera, kanpoko langintza handiak baino gehiago iritsi ere, Jainkoa tentaldi beldurgarriekin baitator, frogakizun izugarri, neurritz kanpoko eta pentsaezinekin, jasaten dituenak bakarrik ezagutzen dituen eta ezagut ditzakeen frogakizunekin. Badira sofrikarioen bizipen hain harrigarri eta neurrigabekoa dutenak, non ez berak ez beste inork ez baitezake norabidetu horrelako estualdian. Jainkoak daki aski ongi nora doan.

Arimak horrelako altxorra galtzen utziko balu, konpondu ezinezko kaltea izango litzateke, inork neurtu ezinezkoa. Sinesturik egon zaitezte nolako berezitasuna suposatzen duen mirra guztiz garratzak, Jainkoaren maitasun neurrigabeak emaniko honek. Igaro dadin utziko ote dugu loaldi baten alferkeriaz edo nagikeriaz? Ezin pentsatuzkoa litzateke. Inork lantua joko balu esanez: "Jauna, hau lehentasuna eta iluntasuna ariman daukadana!", erantzun beharko litzaioke: "Seme, ohartu zaitez eta

izan pazientzia; eta aurkituko duzu erregaliak kontsolamendurik handienak gainditzen dituela".

Bi erataraz aurka egin diezaiokegu Jainkoak emaniko mirrari: arrazoiaren bidez eta zentzuen bidez. Zentzuek kanpoko mirra arbuiatzen dute. Zenbait pertsonak, bere ustez asko dakienak, bere buruari eragiten dio eta asmatzen ditu sofrikarioei ihes egiteko erak. Zorte onaren edo txarraren bizkar botatzen ditu sofrimenduak, eta bere buruari sinestarazten dio beste modu batera jokatu eta itzuri egin behar zukeela. Hau eta beste egin izan balu -dio- ez zen eroriko orain daukan zorigaitzean. Jainkoari erakutsi nahi lioke, eta ez da gauza Jainkoak bidalitakoa onartzeko. Bere gaitza areagotzea besterik ez dute lortzen eta mirra mikatzegia gertatzen zaie.

Beste batzuek beren berezko asma-indarra barne-mirraren aurka ekiteko erabiltzen dute, eta atsekabeei ihes egin nahi diete arrazoiketa zorrotzen bidez. Honen ondorioa da, pertsona xume eta ezjakin askok azkarrago aurreratzen duela diskurtsodun pentsalari horiek baino. Xumeek Jainkoari malguki jarraitzen diote, ihesbiderik gabe. Baina ikasienek erabakiko balute Jainkoari egiaz jarraitzea, Jainkoaren nahiera utziz beren buruak, perfekziora etekin handiagoz eta poz sakonagoz iritsiko lirateke, adimen ona izatea laguntza miragarria litzatekeenez.

O, bai, azkeneko odol tantak ere berebiziko etekina eskuratuko lieke, baldin era uste osoan Jainkoagan uzten badituzte beren buruak!

Mirrari aldaxka bat jaiotzen zaio, intsentsu-alea daraman kimua, gero ale horrek usain gozoko kea kiribiletan banatuko duelarik. Sua, intsentsua ukitzerakoan, mihi antzeko bihurtzen da eta gozoki milikatzen du pozez eta samurtasunez hurruparatzerraino. Sugarrak adierazten du otoitzean gordetzen duen Jainkoaren maitasun sutsua. Otoitzak, bestalde, intsentsua adierazten du, non gordetzen baita debozio santua, idatzirik dagoenez: "Otoitza da izpiritua Jainkoagana jasotzea" (S. Th. I,II,q. 83,a.1).

Lastoaren balioa neurtzen da berekin duen alearen arabera. Hortik kanpo, lastairak egiteko erabiltzen da edo simaurtegitako. Horrela gertatzen da ahozko otoitzarekin ere. Hemen balioa datza gizakiagan esnatzean usain gozoa banarazten duelako, usain gozoa darion debozio noblea. Horrelako usaina darionean, ez beldurrik izan otoitzak uzteko. Baina argi gera bedi, ez ditudala hemen liturgi otoitzak aipatzen, edo Elizak jendeaurrean eginiko erreguak.

Azkenik urrea, magoen hirugarren eskuera. Sinboloan hau adierazten du: eskaintzarik hoberena eta pertsonarik bikainenak, miresgarrienak, ospetsuenak, goresmen guztien gainetik daudenak. Zeruko Aitak Kristo baitan betidanik aukeratu zituen. Beren bizitzan edozein pertsona jatorren moduan jokatzen dute, eta jende arruntagandik ez dira bereizten. Berek ere ez dituzte benetan umiltzat hartzen beren buruak. Ez dira ospetsuak, inor ez da badirenik konturatzen. Baina Jainkoak barru-barrutik ezagutzen ditu, berauetan du bere atsegina eta berauen bizitzari esker Jainkoak berritzen du eroskunde-oparia. Ez dago hitzik pertsona miresgarri hauek zer diren adierazteko, eta hauen bizitzak inguratzen dituen argi-koroaz mintzatzeko.

Norbaitek esan dezake, zer dela eta ahalegintzen gara guztiok horien antzeko izan gaiten? Inolaz ere ez. Ezinezko da gizakiak hori bere egitez lor dezan. Graziaren fruitu da barneko hazkuntza. Gogoeta zentzudunak egin ondoren, ausartzen naiz argibide moduan esaten, inork ez duela ausartu behar horrelako lege apartekorik eskatzen, eta ez dakiela gainera, eta ezinezkoa zaiola. Zergatik? Jainkoari bakarrik dagokiolako grazia hau eskatzeko eta emateko ekimena. Ez dago beste inoren esku. Jainkoa eta bera bakarrik da eskatzen eta ematen duena horrelakoetan.

Bada beste urre-mota bat, kilate gutxiagokoa egiazki, baina guztiok eska eta lor dezakeguna: norberaren bihotz-berritzea. Alde bat utzi sorkari erorkorrak eta geure

geurekoikeriak, Jaunari urrats irmoz jarraitzeko. Eska dezakegu, eta eskatu behar dugu gainera, bihotz-berritze funtsezko hau bete dadin guregan.

Izarra sortzen da gu jar gaitezen izpirituzko jaiotzaren bidean.

Aipatu ditugun lege bereziko horientzat, zeruak berak erdibitzen dira aintzazko distiratan eta Aitak diotso bakoitzari: "Hau da nire Semea, nire maitea; berau dut atsegin" (Mt 3,17). Jaisten da orobat Izpiritu Santua usoaren itxurapean, bere begi antzaldatzaileak horiengan ezartzen dituela, hor Salbatzaileak ere ura ardo bihurtu duela, gaurko hirugarren ezaugarri liturgikoa.

Zorioneko pertsonak horiek, esan baitezakegu jadanik Jainko direla gizaki izatea utzi gabe, erabat jainkozko eta jainkoantzeko. Hemen jadanik ez da ezer gelditzen Jainkoa besterik. Bakarrik Jainkoa eta arima garbia, biluziaren biluziaz jainkotua.

Guztia dezakeen Harek berak nahi dezala, guk ere magoekin batera bila dezagula Jainkoa eta merezi dezagula haren jaiotza aurkitzea.

Kristal gardena⁶

"Nire uztarria eramanerraza da eta nire zama arina" (Mt 11,30)

Betidaniko egiak, Jesukristo gure jaunak, esana da: "Nire uztarria eramanerraza da eta nire zama arina". Zuhur-hitz hau arbuiatu egin ohi dute zentzukoitasunarekin eta norberaren izatearekin barkabera direnek. Protestatzen dute, bestalde, gogorra dela Jainkoaren uztarria eta eraman-gaitza bere zama. Esan dezatela nahi dutena, baina garbi dago egia baizik ez daitekeela izan Jaunaren zuhur-hitza, egia bera denez Jauna.

Uztarritzat uler daiteke gure urratsei jarraitzen dien edozer gauza, guk zailtasunez tiraka daramaguna. Eramailea zapaltzen duena, zama deitzen da. Hemen uztarriak barne-gizakia du adierazten; eta kanpoko gizakia, berriz, zaharra eta lurretikoa, zamaldiaz irudikaturik dago. Barne-gizona, noblea eta garbia, jainkotasunaren hondo guztiz nobletik dator, Jainkoaren irudira.

Gizakia beti dago gonbidatua, deitua eta erakarria hondo eta sorburu horretara, parte har dezan, barrunbe atsegin eta noble hartan naturaz dagoen ondasun guztitik, graziaren bidez barruan aurkitzen, ezagutzen eta kontenplatzen duena, eta bere burua ere Jainkoarekin sakontzen duena, han-hartan ezkutaturik egonez. Gizakiak kanpoko aldera itzuli badu ere bere arimaren aurpegia, barru-barruko zeru honetatik aldenduz, beronek erakarria sentituko da beti, halako isuriaz, non ez baitu erabat urruntzerik lortuko. Ez du atsedetik izango, kanpoko sorkari guztiek utzitako pozik eza, barrurako dei gertatzen baitzaio. Gizakia konturatzeke, ondasun jainkozko berak egiten dio dei atsedenera, Jainkoa denez gizakiaren helmuga. Gauza guztiek beren atsedena hartzen dute beren erdigune naturalera iristen direnean, hala nola harria lurrera, sua eguratsaren gaineko esferara, eta arima Jainkoagana iristean.

Nori zaio eramanerraza uztarri hau? Nori zaio atsegingarri uztarritik tiraka aritzea eta arrastaka eramatea? Bakarrik bere barrunbera itzultzen denari, Jainkoaren zolagune guztiz garbi hartara itzuli, atzea emanez sorkari guztiei. Horrelako arima egiaz ezarririk dago denboraren eta betikotasunaren artean. Bere begirada denboran ezartzen duela? Ahazten hasten da eternitateko gauzak, hauek urratzen doazelarik gero eta txikiago eginik, urrutiko zerumugetan. Aitzitik, hurbiltasunak handi egiten ditu begien aurrean daudelako.

Ohar gakizkion eguzkiari. Lurra baino hirurogeita hamar aldiz handiagoa da. Presta dezagun azpil bat urez betea, barruan ispilutxo bat jartzen diogula: udaparte dugu, eguzkiak bere gaina hartu du. Eguzkia osorik ispilatzen da, babarrun ale bat bezain txiki. Edozein pantaila jartzen dugula ispiluaren eta eguzkiaren artean, erabat ezkutatuko litzateke honen irudia. Gizakiari ere berdin gertatzen zaio, eragozpenei leku ematean, denik eta txikienak direla. Eragotzi egiten dute egiaren hondoa bera. Arimaren ispiluan ezin ikus daiteke, bere betean eta bere garbitasun osoan ezin esan eta neur daitekeen ongia, Jainkoa.

Denik eta nobleenak eta bikainenak izanik ere figura hauek, komunikazioa moztu egiten dute arimaren eta esentziaz gaindiko irudiaren artean, hau da Jainko beraren artean. Horregatik, ariman distira dezan eguzki jainkozkoak, arimak erabat biluzik egon behar du eta edozein iruditik aske. Orban bat bakarra egonik ere, eragozpenak lituzke arimak Jainko bera den irudi guztiz garbia hartzeko. Honen ondorioa da, arduratzen ez direnak barruko biluztasuna eta garbitasuna lortzen, arima-zolak distiraz bere irudia ager dezan arte, eltze-zain izatetik ez direla pasatzen, sukaldeko zerbitzari direla seme-alaba izan beharrean. Honelakoentzat uztarria, Jaunaren hitzetan eramanerraza dena, garratza gertatzen da.

Egia esan, inor prestatuko ez balitz sekula barne-kontenplazioa hartzera, arimaren zolaguneko gozotasuna dastatzera (dio Origenesek) ezaugarri garbia da hori ez duela

inoiz gozatuko, ez eta zeruan ere. Ausartzen naiz esaten, sartzen ez dena arimaren zolagunean egunean behin gutxienez, bere ahalmenen arabera sartu ere, ez dela bizi egiazko kristau bezala. Bestalde, Jaunaren uztarria ezta baino gozoagoa da eta gozotasun guztiak baino areagoa; baina uztarri hori ez den guztiak zapore mikatza du arimaren zolaguneko irudi oro baztertu dutenentzat. Hauek dira eguzki-argiaren kontra jarri direnak, argi hori eragozpenik gabe sartzen delarik arimaren sakonenean.

Izan ere, mundua belar mikatzak baino mingotsagoa da zorioneko ezti hartatik behin bederen gozaldia izan dutenentzat. Arimaren erdigune guztiz nobleak halako indarrez du erakartzen, non irudi bailuke hara zuzentzen direla hezur-muinak eta zainetako odola. Desiratzen den irudia grabatuz gero, gainerako guztiak urratzen eta bukatzen dira.

Zergatik edozein sorkarik oztopo egiten duen eta itxura-galarazten barrutik, horren arrazoa da gure atxikitasunean badelako halako gurekoikeria eta jabego-irrika bat. Aitzitik, ez bagenu inolako eraspenik eta zaletasunik, orduan eduki genezake erreinu zabal bat, hori dela eta kalterik txikiena ere etorri gabe.

Beraz, bakoitza saia dadila jabego-izpiriturik gabe izaten, eta irudirik gabe. Orduan bai, eduki dezake nahi duen guztia, arriskurik gabe, apaltasunean eta Jaunaren beldurrean beti ere.

"Vitae Patrum" idazkietan irakurtzen denez, ba omen zen gizon zahar santu bat, sorkarien irudietatik hain aske, non jadanik ez baitzezakeen oharmena galtzerik. Behin batean, Anaia batek jo zion gelako atea, zerbait utz ziezaiola eskatuz. Joan zen gizon zaharra eskatutakoaren bila, baina abiatu eta laster, ahaztu egin zitzaion zeren bila joan zen eta ahaztu inor zain zeukala. Anaia dei egin zion berriz ere, agertu zen zaharra atean, eta jakinik zer eskatzen zitzaion, joan zen berriro eskatutakoaren bila. Baina itzuli zen barrunbera eta oraingoan ere ahaztu egin zitzaion. Hirugarrenez atea jo zutenean, atera zen gizon zaharra eta esan zuen: "Arren, sar zaitez zerorri eta eramazu eskatu didazuna, ezinezkoa zait hainbeste denboran nire oroitzapena edukitzea zure gauza horren irudian. Hain biluzik bizi da nire arima edozein irudiekiko".

Jainkozko eguzkiak blai egiten ditu honelako gizakiak, irudi eta figura guztitik garbituak eta aske direnak. Nabarmenki alde batera utzi dituzte gauza guztiak eta beren buruez harantz bizi dira. Beren borondatea eta izate guztia utzia dute Jainkoaren eskuetan eta beronen jainkozko nahikundean. Jainkoaren nahiarekin leial izanik, Jaunaren uztarria hain gogo onez daramate, non ahazten baitira munduko gauzez. Hain hutsal iruditzen zaie guztia! Betikoa, berriz, oso hurbila egiten zaie, inolako bitartekorik gabe ikusten baitute, beren baitan daramatena. Horregatik ezti gertatzen zaie Jaunaren dei guztiei jarraitzea.

Gogora dezagun orain Jaunaren beste esaldia: "Nire zama arina da" (Mt 11,30). Kanpoko gizonaz ari da, zeinari era bateko eta besteko atsekabeak eta pairamenak gertatzen baitzaizkio. O Jainko ona! Non daude Jainkoaren zama hain arina egiten zaien gizaki zoriontsu horiek? Gaur nekez dago inor Zugatik zerbait sofritu nahi duenik, nahiz eta oso beharrezkoa den gizakiak pairamenak jasatea eta bere buruari uko egitea, onik atera nahi badu. Noranahi zoazela, han izango duzu gurutzea. Eta ihes egitea nahi baduzu, egon ziur, eurtik ateratzean elurretan sartuko zarela. Beraz, onar ezazu atseginez eta zeure oldez Zeure burua Jainkoari uzten gauza guztietan. Jesukristo gure Jaunak berak ere sofritu behar izan zuen, horrela "bere aintzara iristeko" (Lk 24,26).

Norbaitek galde dezake. Eta zer da Jainkoaren zerbitzariak jasan behar dutena? Erantzungo dut argi eta garbi. Apaltasunean eraman behar dute Jainkoak agintzen edo baimentzen duen guztia, edozein egoeratan dela, arrazoiz edo arrazoirik gabe, zuzenean Jainkoagandik etorri edota gizakiengandik. Esate baterako: lagun baten heriotza, ondasunak galtzea, izen ona galtzea, barruko nahiz kanpoko hondamendia, Jainkoak

eragina edota sorkariek. Gauza hauek eta antzeko beste zenbait dira gozotasunean onartu beharrekoak.

Zaldiak gorotz zikin eta kirasduna ateratzen du ukuilutik. Gurdi batean bildurik, kostata darama zelaira, eta han ildotan zabaltzen du edo mahatsondoak galtzatzeko erabiltzen. Gerora, gari eta ardo ezin hobeak bilduko dira, horrelako uzta ezinezkoa izango zelarik gorotz-ongarririk gabe. Era berean, norberaren bekatu eta hutsegiteak, oraingoz erabat deserrotu ezin direnak, etsi-etsian eraman behar dira Jainkoaren borondatearen zelai garbi-garbira. Ezbairik gabe, hemen sortu eta helduko dira fruitu oparo eta gozagarriak. Zamaren azpian bere sorbalda okertzen duena eta Jainkoaren epaiak eta erabakiak harrera apalez onartzen dituen; Jainkoaren nahiera makurtzen dena, nahiz onaldian nahiz txarraldian, konfiantza apalean iraunez; gauza guztiak Jainkoaren eskutik etorriak bezala hartzen dituen, Jaunari guztizko jaregitez eskainiz; bere burua onartuz, Jainkoaren betidaniko borondatean murgiltzen dena, inolako berekoikeriarik eta sorkariekiko atxikimendurik gabe. Hau guztia iraupenez betetzen duenak aurkituko du zeinen gozo eta eramangarria den Jainkoak ezarritako zama. Gehiago oraindik, munduko astuntasun guztia hain arina gertatuko da, ezer eramango ez balu bezala. Baizik eta astuntasun hori berotasun, poz, alaitasun eta zeru gertatuko litzaizkioke.

Egiaz Jainkoa da zama eramaten duena, eta arima aske horiek, bide-fardelik gabeek, Haren itzalpean dagite ibilbide. Arima bere baitatik atera bezain laster, Jainkoa dator bizileku hutsa betetzera. Bera da ari dena, zuzentzen duena, betearen betera daramana.

Hirutasun ospetsuak, Aitak, Semeak eta Izpiritu Santuak egin diezagula duin izateko grazia, Jainkoa gure jabe izan dadin eta gudan lan egin dezan, bere uztarria eramanneraza eta bere zama arina gertatzeraino.

VI

Emakume kanaandarra⁷

"Handik irtenik Jesus " (Mt 15,21)

Handik irtenik, Tiro eta Sidon aldera aldendu zen Jesus. Hartan, inguru haietan bizi zen emakume kanaandar bat deiadarka hasi zitzaion: "Erruki zakizkit, Jauna, Dabiden Semea! Oinaze gorritan dauka deabruak nire alaba". Baina Jesusek ez zion hitzik erantzun. Bere ikasleek, ondoraturik, eskatu zioten: "Kasu egiozu, deiadarka baitatorkigu atzetik. Jesusek ordea: "Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak". Baina emakumea, hurbildurik, ahozpeztarri zitzaion, esanez: "Lagun nazazu, Jauna!". Jesusek, orduan: "Ez dago ongi seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea". Emakumeak erantzun zion: "Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahitik erortzen diren ogi-apurrak". Orduan Jesusek esan zion: "Emakumea, handia da zure fedea!, gerta bekizu nahi duzuna!". Eta une hartatik sendatua gelditu zitzaion alaba (Mt 15,21-28).

Ebanjelio honek bihotz-berritzea ematen digu aditzera, mundu honetan gerta litekeen nobleena, onuragarriena, sakonena eta funtsezkoena. Egia esan, norbaitek modu batera edo bestera bizi izan ez badu horrelako bihotz-berritze bat, antzeko disposizioak dituenak, norbait horrek harrigarriak eginik ere, alferrik izango du.

Abia gaitezen ebanjelioan dauden lehenengo hitzetatik: "Irtenik Jesus". Nondik? Norengandik aldendu zen Jesus? Garbi dagoenez, lege-maisu eta fariseuen artetik. Arren, begira dezagun ongi nolako jende-mota ziren horiek, zeinengandik Jauna urrundu baitzen. Lege-maisu ziren juduen arteko jakintsu haiek, beren ezagutzaz harrotzen zirenak.

Fariseuak, bestalde, beren pietateaz puze ziren, beren errito eta arau-zaintzari oso atxikiak zeudenez. Hemen ezagutarazten zaizkigu pertsona pietatetsuen artean aurki daitezkeen bi hondo kirastu eta kaltegarrienak. Horrelako jarrera dutenak galdu egiten dira, jarrera horrek hil egiten duenez, inolako mesederik gabe. Min ematen du aitortzeak, baina gertatzen dena da oso gutxi direla gaitz horietakoren batek kutsatu gabeak, hondoan gutxi asko usteldu gabeak.

Lege-maisuak esandakoan zera ulertzen dugu: arrazoitako pertsonak, beren ulertze- eta sentitze-moldeetatik dena iragazten dutenak. Beren susmatze-datuekin iritsi ohi dira mistikako gauzarik goratuena ulertzera, harro sentitzen dira horrelako ekintzaz eta erraz mintzatzen ere bai gai horietaz. Baina arimako zolagunean, egia sortu behar duen hartan, ez dute maitasunik; hutsik eta agor sentitzen dira.

Fariseuak, bestalde, pietatezko jendeak dira, beren ontasunez harro daude, eta Ebanjelioan esaten denez, uste dute berak bakarrik direla onak. Erabat atxikirik daude beren errito, praktika eta arau-zaintzari, atxikimendu hau gainerako gauzen aurretik jartzen dute, eta horrela egiteagatik begirunea eta estimua eskatzen dute. Horiek, beren arimako zolagunean, irizkeriaz eta akarrez beterik daude berak bezala bizi ez direnentzat, edota beren moldeak eta ohiturak benetan maite ez dituztenentzat.

Jesukristo gure Jauna urrundu egin ohi da horrelakoengandik. Jende honek galdetzen zion Jaunari, ahakarrez galdetu ere, zergatik beronen ikasleek gordetzen ez zituzten zaharrek erakutsitako ohiturak eta jaten hasten ziren eskuak garbitu gabe. Gure Jaunak beste galdera batekin erantzun zien: "Eta zuek zergatik hausten duzue Jainkoaren agindua zuen usadioengatik?" (Mt 15,3). Berdin egiten dute jende hauek ere. Hauen iduriko, beren praktikak, beren asmoak, eta beren ohitura guztiak jainkozkotzat hartzen dituzten aginduak ere hala diren bezala. Gutxiesten eta kondenatzen dituzte Jainkoaren lagun nobleak, pietatearen era partikularretara lerratzen ez direnak, Jainkoari bide misteriotatik jarraitzearen.

Argi gera bedi, iritziak ematea gaitzetsi badut, ez ditudala izan gogoan jende alfer-zuri eta ezbairik gabe gaiztoak, zenbait komunitatetan ikusten direnak. Hau hala izatea

onartu ezinezko utzikeria bat litzateke Elizan. Ohartarazi nahi diet guztiei azkar ihes egin dezaten fariseuen bizimolde honetatik, eta arretaz azter dezatela arima-zola, ea barruratu zaien santutasun-idea bat, Jainkoagandik ez datorrena eta Jainkoa garbi bilatzen ez duena. Jesus urrundu egiten da egiaz horrelako jendeetatik. Ez dira inor Jainkoa beraiekin bizi dadin. Besterik behar ez duten asko dira gizarte portaeraren kanpoko praktikei eta ariketei garrantzi handia ematen dietenak. Hori ongi badago dena da ona. Ez zaie ardura bihotza jela baino hotzagoa edukitzea. Leporaino daude sarturik ordenagabeko nahikerietan. Sorkarienganako maitasunak ilundurik, gero otoitz luzeak errezatu ohi dituzte eta salmoak kantatzen juduek egiten zuten bezala, hauek, beren itsutasunean, maiz irakurtzen baitzuten Idazteuna, nahiz eta bihotza urrun eduki Jainkoa egiaz ezagutzetik. Beren maitasun, nahikunde eta desira guztiak sorkari zirtziletan jarritz, era guztietako praktika jaieratsuetara emanik bizi dira, praktika bere moduko eta bitxietara. Egia da, bai, gauza onak eta gomendagarriak izan daitezkeela, baina baldintza honekin: arima-zola argi eta garbi Jainkoagana isurtzen bada.

Gertatzen dena da, gauza hauetan guztietan bihotz-garbitasunez ez dutela bilatzen Jainkoa. Maitasun, asmo eta grinek sorkarietan diraute, Egilea ahaztuz. Horregatik Jesusek alde egin zuen, fariseuen bizimoldea ezin eramanez. Hauek ez dira Zeruko Aitaren landareak, egon ziur horretan. Zuztarretik atera behar dira, Jaunak esan baitzuen: "Nire alde ez dagoena nire kontra dago, eta nirekin biltzen ez duena sakabanatzen ari da" (Lk 11, 23). Egon ziur, uzta biltzeko garaia datorrenean, Jaunak garia bilduko duela, hau da, bera maite duten guztiak. Haren soron lana egin ez dutenak, beste nagusi bat zerbitzatzen dutenak, alde batera utziko ditu. Zuztarretik atereak izango dira horiek guztiak Jainkoak ez duelako landaketarik egin horien bihotzetan.

Beraz, bi sustrai horietatik ihes egitea, lege-maisuarenetik eta fariseuarenetik, faltsuak eta ustelak direlako, jende askoren baitan hala den bezala. Oso arraroa da batzuetan edo besteaz kutsaturik ez egotea, edota bietaz. Adimen-zorroztasuna, lege-maisuak duten antzera. Edo fariseuen azaleko santutasuna, zenbait praktikarekin aski dutenak barruko garbitasunik gabe. Egia denez, horretan dagoen ona ez da arbuia behar, baina beharrezkoa da askoz ere gehiago barrua lantzea. Badira ere jendeak lege-maisuaren zorroztasun eta kalamatrikak dituztenak. Zail da hauen aitormenak entzutea, hauen mintzamolde bitxiak jabetuz ez bada. Hauen bizitzek ez dute hobera egiten horrelako jarreraz dirauteino. Horrelakoa zen Jesusek bertan behera utzitako jendea. Orain ere gurekin gauza bera egingo luke, mota berekoak garenez geu ere.

Nora joan zen Jauna? Tiro eta Sidon aldera. Tirok estura nahi du esan eta Sidonek ehiza. Asko ez dira konturatzen, eta zenbaitek arbuia ere egiten du bi gauza horiek biltzean sortzen den poza. Norbait iritsiko balitz hori ulertzea, neurri gabeko zoriona izatera iritsiko litzateke. O, nolako noblezia etorriko den berehala ehiza hau egiaz gertatuko den hartan, inguraturik egotetik sortzen den estura sentitzen den hartan!

Hori zertan datzan? Honetan bakarrik: barne-gizakia, beti Jainkoari begira dagoena, sakonenean jartzen da eta handik etengabe kezkatzen du bere beste kanpoko gizakia, zirikatzen du eta hertsatzen helburu berera joan dadin. Baina kanpoko gizakia beste bideetatik doa, kanporakoi, beheko errealitateen gainean. Lurra du bere atsedena eta lurrean tinkatzen da. Haustura bat dago, beraz, bi horien artean, gizakiaren liskarra sortuz. Jainkoa da lehenengoaren erdigunea, barne-gizakiarena, honek Harengan baitu bere irrika eta Harengana baitoaz bere desirak, nahimena eta zaletasuna. Kanpoko gizakiak, ordea, natura-kontrakoa dela uste du, armaz hornitzen da eta erabat gogor jartzen da borrokarako, Apostoluak dioen bezala: "Nahi dudana ongia ez dut egiten, eta nahi ez dudana gaizkia egiten dut" (Erm 7,19). Elkarren etsai diren gorputzaren eta izpirituaren arteko borroka etengabea. Jainkoak esku hartzen du gatazkan, eta bere

graziaz eragiten die, behartzen ditu eta nekatzen. Erasotze honek zer esan nahi duen ulertzea osasungarri da, San Paulok dioenez: "Jainkoaren izpirituak gidatzen (ehizatzen) dituenak Jainkoaren seme-alabak dira" (Erm 8,14).

Bestalde, ehiza honetatik estura handi bat sortu ohi da, atsekabe sakona. Gizakiak estualdian murgildurik dirauenean, eta ohartzen delarik Jainkoa arimaren ondotik dabilela, ez zalantzarik izan Jesus han dagoela, bertan eraikiz bere etxola. Laguntasunaren eta aparteko lege baten ezaugarri da hori. Horrela ez balitz, izan dezala beldur gizakiak, ez delako Jainkoaren barru-barrukoa.

Izpirituaren eragin honetara zabaltzen ez denak eta bere bizitzarekin lagunduz horrelako estura onartzen ez duenak, ez du gaindituko sekula kaskartasuna. Ez dute oraindik barne-bizitza sakonik eta horregatik ezjakinak dira beren baitan ezkutaturik dituzten altxor baliotsuei buruz: hau da, beheko ahalmena eta izpirituaren beraren froga antzaldatzailak. Honen aurrean, ez dago ezer nobleagorik belauniko jartzea eta eskerronez gurtzea baino. Orduan egon ziur iritsi dela Jauna zure arimara, atsekabezko zalgurdian etorri ere, agindu zuen bezala: "Berekin izango nau larrialdian" (Sal 91,15).

Etsaiek beren aldetik elkar hartu dute. Hor dator mundua ekaitz zakarraren danbaladekin. Etsaia, deabrua, zirika ari da maltzurkeria abilekin. Sexualitateak, zentzuak eta beheko ahalmen guztiek hesitzen dute eta behartzen gizakia, kale bazterretako jende zatarrekin hartu-emanak izatera. Baina barne-gizakiak ezin eman du amore. Jainkoak berak indarberrituko du. Jainkoa irrikatzeko berak duen joera sakonak tinkatzen du gezi-uztaia, eta sutzen garaipena lortu arte. Ulergarria benetan horrelako gizakiaren heroismoa, kanpotik hesiturik dagoen gizakiarena, barruko ahulezietan utziarena eta izpirituzko esturek zapalduarena.

Eta zer egin dezaket, erasotua aurkitzen banaiz, txakurrek basahuntza baino erasotuago, irtenbiderik gabe? Emakume kanaandarrak egin zuena. Jesusengana hurbildu eta goraki dejudar egin, hau da, nahikunde sutsuz: "Erruki zakizkit, Jauna, Dabiden semea".

Tentaldiengatik urduri, esturengatik zapaldua, eraskotako etsaiengatik zauritua eta akitua. Bere burua horrela harrapatua ikusirik, oihu ozena dagio laguntza eskatuz, mila legoatatik ere entzungo den oihua. Izpirituaren oihua, deiadar sinestezinez zeruak urratzen dituen; hondorik hondoenetik sortutako zotinak. Naturazko indarrak gainditzeko dituen zerbait, eta Izpiritu Santuak oihukatzen duena, San Pauloren esanetan: "Izpirituak berak erregutzen du gure alde esan ezin halako intziriz" (Erm 8,26).

Hemen-honetan arima-zola bizitza honetan pentsa daitekeen baino askoz hobeto prestatu ohi da. Egon zaitezte adi. Gizaki honek, horrela inguraturik dagoenean, hain estura sakona jasaten du, non Jainkoagana jasotzen baitu bere oihua esan ezinezko deiadarrez, zeruak jo eta pasa nahiz; horrelakoetan Jainkoak jokatzeko badu nahi ez balu bezala, ez dauka burua makurtu beste biderik. Apaltasunik sakonenean, desirenugarra ados egon dadila eta gehiagotu ere bai, bere Jaunari bihotza eskainiz. Utz biezaio Jainkoari, hobe denez honek eraginiko prestaera.

Leialtasun osoz hori egin eta gero, Jainkoaren erruki-iturriak itxi ote dezake kontsolamendu-urik? Kanaandar emakume gaixoa deiadarka ari zenean agortu egin zen iturria, beste askoren egarria ase zuen hura. Baina emakumea oihuka aritu eta gero ibaika lehertu zen iturria. Zer dela-eta dago isilik orain Jainkoa? Nor ez harritu ikustean Jauna isilik dagoela eta ikasleak mintzo direla?

Jesusek oso gogor erantzun zuen: "Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak. Ez dago ongi seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea". Halako gogortasunez eta mesprezuz ari izan zen Jauna, ezezko soila ematearekin aski ez izateraino. Erantzunik ez zuten hitzekin, aurpegiratu zion ez zela zuzena eskatzen zuena hari ematea. Ogia bakarrik ez zion ukatu, hain beharrezkoa eta ohikoa dena bestalde. Alabatzakoa ukatu zion, eta ez zion aitortu beraren giza kondizioa ere, txakur bat

bailitzan tratatu zuenez. Ba ote zeukan Jaunak modurik froga gogorragoan jartzeko, era biziagoan erasotzeko eta estutzeko?

Zer egin zuen hark estuasun hartatik ihes egiteko? Ez zuen protestarik egin. Gozotasunez jasan zuen eta zigorraldia onartu zuen guztizko atseginez. Emakumea urrunago joan zen oraindik bere buruaganako mesprezuan, leizaren hondoraino joan ere, eta apaltasunez erantzun zuen: "Egia da, Jauna, ez naiz iristen zakur izatera ere, doi-doi txakurkume izatera. Baina aldi berean konfiantza osoa zeukan eta esan zuen: "Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogi-apurrak".

Oi, ukitzerik balego egiaren hondo hau! Ez iruzkin eruditoen bidez, edota zentzuek haztatzen dutenaren bidez, baizik eta zuzenean hondora joanez, hautemaniko zolagunera. Ez Jainkoak, ez inongo sorkarik oinpera gaitzake, ez hain ondoraino azpiratu, geurok egiaz irits dezakeguna areagotuz. Irainak jasan ditzakegu, isekak eta mesprezuak, eta hala ere itxaropenez jasaten iraun. Zerbait gehiago egin dezakegu oraindik. Konfiantza osoz sakon dezagun Jainkoagandik hurbilago. Gero eta sutsuago joka dezagun, emakume honek bezala, inoiz etsi gabe, harik eta grazia lortu zuen arte. Bai, ene lagunok, horretan dago guztia. Hauek dira bideak eta ez dago besterik, Jainkoagana zuzenean joateko, zeharbiderik gabe.

Sinestezina dirudi bat ukazio-maila hain sakonera iristea eta han konfiantza osoz eta sutsuz irautea, emakume kanaandar gaixoak egin zuen bezala.

Horregatik azkenean ere merezia izan zuen Jaunaren erantzuna: "Emakumea, handia da zure fedea!, gerta bekizu nahi duzuna". Eman zitzaion eskatu zuena. Erantzun bera jasoko dute bide hori bera egiten dutenak. Egunen batean entzungo dute. Nahi duzun guztia gerta bekizu, eskatu duzun bezala. Izan ere, zeure baitatik ateratzen zaren neurrian, eta zeure jantzia uzten, nire baitan sartzen zara eta nire jantzi apainez jantzen zaitut zu. Nahi duzunik ez duzu lortuko, harik eta zugar zeure desira hiltzen ez den arte. Emango zaizu eskatzen duzuna. Iritsiko da. Baina ez duzu sekula lortuko zure buruari uko egiten ez diozun arte. Gizakia bere baitatik ateratzen den neurri berean, Jainkoa sartuko da han eta bertan geratuko.

Lagunok, ez natzaizue gehiago luzatuko. Harira datorren istorio bat kontatu nahi dizuet bakarrik. Ezagutzen dut emakume kanaandar bat (horrela izenda dezakegu, egokitasunez gainera). Lau urte ez dira bete oraindik hori gertatu zela, bizi delarik oraindik emakume hori. Gainezkaldia izan zuen behin eta ikusi zituen Jainkoa, Andre Maria eta Santu Guztiak. Aldi berean ulertu zuen zeinen urruti zegoen Jainkoagandik. Esan ezinezko oinaze batek blai egin zuen bere izpiritua sinestu ezinezko sofrikarioz, infernuko oinazetan ikusiz zeinen urruti zegoen Jainkoagandik. Hain zuzen, hau da kondenatuen zigorrik handiena: konturatzea Jainkoak eta santuek arbuia egiten dituztela, eta hauengandik urruti eta aldendurik bizi direla.

Esan ezinezko estualdi honetan aurkitzen zelarik, arima hau Andre Mariagana eta Santuengana itzuli zen, arren eta arren eskatuz etor zitezela berari laguntzera. Begiak jasorik, denak hain murgildurik ikusi zituen Jainkoaren kontenplazioan, non ez baitzuten une zirkin bat ere, emakumearen eskabideari arreta jartzeko. Hain zen handia santuak asetzen zituen pozaldia! Zer egin zezakeen orduan emakume kanaandar apal eta oinazetu hark? Aurpegia itzulikatu zuen eta hasi zen Jesusen Pasioa kontenplatzen, Jesusen zauriak, oinaze-minak eta Jaunaren heriotza, barkazioa eskatuz. Hau beste erantzunik ez zuen izan: zergatik eskatzen duzu zuk inoiz ohoratu ez duzunaren mesederik? Lotsaturik, eta ikusiz, ez Andre Maria, ez Santuak, ez pasio santua bera ez zetoze berari laguntzera, zuzenean Jaunagana jo zuen bihotz-bihotzez esanez: Oi, nire Jainko eta Jauna! ez dator inor ni laguntzera. Ona zara Zu mugagabeki. Izan gogoan sorkari pobrea naizela ni eta Zu Jauna zarela, nire Egilea, nire Eroslea. Nire Epailea ere

bazara. Zure eskuetan uzten dut nire burua, zure nahikunde gurgarrian bai denboran eta bai eternitatean. Infernuko oinaze hondogabekoetan betiko eduki nahi banauzu, Jauna, erabat etsita nago, eta pozik gainera, zuk nahi duzuna onartzeko". Eta une hartantxe arima sakonki Jaunari emana gertatu zen betikotasun osorako. Gure Jaunak horrela ikusi zuen bezain laster, antzaldatu egin zuen bitarteko eta bitartekari guztien gainetik. Maitasunaren azkenik gabeko leizezuloraino murgildurik geratu zen jainkotasunaren itsas zabalean. Zorioneko sakontasuna huraxe!

Emakume gazte honek ibilbide bera egiten du eguneko bidearen azkenerraino. Nire ustez pertsona honek ez du inoiz hutsegite larriarik egin Jauna haserretzeraino. Eta hala ere, hain urruti ikusi zuen bere burua Jainkoagandik eta santuengandik. Zergatik harritu orduan, beren buruak Jainkoagandik urruti aurkitzea, gaiztakeria higuinagarriz Jainkoa nahigabetu dutenek, beronen aginduak hautsiz? Eta orain bertan ere sorkari hutsalei erantsita diraute, beren bihotz-berritzearen fruiturik gabe.

Emakume kanaandar gazteak hainbesterraino utzi zuen Jaunagan bere burua, non prest baitzegoen betierako infernua jasatera, Jaunak hala nahi izanez gero. Gehiengo handi batek ez du horrela jokutzen. Doi-doi lau edo bost zerbitzu-urte (haiek ere ez leialki emanak) erabat perfekzioan bizitzeko erabakirik hartu gabe. Bekatu astunetatik bakarrik alde egiten dute, eta uste dute eskubidea daukatela Jainkoari eskatzeko gauza miresgarriak erakuts diezaizkien. "A, -oihukatzen dute handi-gosez- egin otoitz nire alde, Jainkoaren lagunik minetako bat izatea merezi dezadan". Egiaz aitortu beharko lukete ez direla nor azkenekoen artean izateko ere. Azken tokia bila ezazu, Ebanjelioak erakusten duenez, ezbairik gabe mereziko duzu Jaunagandik entzutea: "Adiskide, igo gorago" (Lk 14,10). Beren buruak goratzen dituztenak, bestalde, beheratuak izango dira. Desira ezazu Jainkoak betidanik erabakirik daukana, eta onar ezazu Jaunak bere maiztasun-asmoan zuretzat aukeratu zuen tokia.

Lagunok, hau da Jainkoarenganaino iristeko bidea: nork bere buruari eta bere eduki guztiei bete-betean uko egitea. Inork ukapen honen tanta bat bederen lor ahal baleza, horren txinparta bat bederen, merezia izango luke Jainkoaren ekintzarako prestaturik egotea bihotzaren sakonean, Jaunak bizilekua duen hartan; eta hori eginez, hobeto prestatuko litzateke, bere jantziak behartsuei emateko erantziz baino, edota arantzak eta harriak janez baino, horrelakorik naturak onartuko balu. Etsipen honekin egiaz bizitzako une bat baliagarriago da berrogei urtean, jabe eta gustura izateko asmoz, aukeratutako praktikokin bizi baino. Zoritzarrez askok, erlijioso-erlijiosek ere bai, arbuia eginen dute.

Lagunok! Zertan ari zarete? Denbora preziagarri eta jainkozkoa galtzen duzue. Ihesi joaten uzten diozue ondasun bikain, maitagarri eta garbiari, zuengan etengabe jaio daitekeen eta jaio behar duen hari. Urteak eta urteak ematen dituzue zuen pausoan ibiliz eta ez duzue aurrera egiten. Urte asko grazia egunero ukituz, lotan bezala, bertuteetan aurrerabiderik gabe, eta horrela gerora, zahartzaroa hurbil denean, hasi zineten egunean bezala aurkitzen zarete.

Gogorra da, ezbairik gabe, eta negargarria ere bai, era honetako jendea ikustea. Oi, aitortzerik bazenute zeinen handia, baloraezina, esanezina egiten ari zareten zeuen buruei! Hezurretako barne-muina ere urtuko litzaizueke.

Eska diezaiogun gure Jaunari grazia, sakon-sakonetik Jainkoagan ezerez gaitezela, horrela, geure buruentzat hilik, Jaunagan gaitezen aurki.

VII

Argia⁸

"Neu naiz munduaren argia" (Jn 8,12)

Gure Jaunak esan du: "Neu naiz munduarentzat argia". Juduek ez zuten beren arteko jotzen Jesus, galilearra zela esanez, eta lurralde honetako jendeak bakarrik zutela zerikusi Jesusekin. Horregatik esaten die Jesusek: "Ni naiz mundu osoarentzat argia", hau da, gizaki guztientzat.

Hau da lurreko argi guztiak argitzen dituen argia: argi materiazkoak, hala nola eguzkia, ilargia, izarrak, gizakiaren gorputzeko zentzuak. Baita arrazoidun gizakien adimenaren argi izpirituzkoa ere. Argiari esker gizaki guztiak itzuliko dira argiaren sorburura. Itzulketa hau gabe, sortutako argiak egiazko iluna baizik ez dira, konparatzen baditugu egiazko argiarekin, izatez argia denarekin, mundu osoaren argiarekin.

Horregatik dio gure Jaunak: uko egiozu zeure argiari, egiazki iluna baizik ez denez. Nire argiaren aurrean aurkari gertatzen zait, neu egiazko argia naizenez, eta eman nahi dizut zuretzat nire betiereko argia, zure ilunduren truke. Nire argia zurea izan dadin neronena den bezala, eta zuk izan ditzazula, neronek bezala, nire izatea, nire bizia, nire zorientasuna, nire atsegina. Horregatik eskatzen nion Aitari: "Egizu guztiak bat izan daitezela. Aita, zu nirekin eta ni zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela gurekin" (Jn 17,21). Ez bakarrik elkarturik, baizik eta osotoro bat eginik, horrela izan daitezela bat gurekin. Hala ere, naturaz berdina izan gabe, baina bai graziaz, ulertu ezinezko misterioa.

Harriak, suak eta gauza guztiek beren sorburura dute isuria. Gizakia sorkari noblea da, miresgarrietan miresgarri, eta zeinentzat maitasunez beteriko Jainkoak egin zituen gauza guztiak: zerua, lurra eta hauetan dagoen guztia. Zer dela-eta sorkari honek itxirik dirau bere baitan, eta berehala ez du nahi itzuli bere betiko sorburura, bere perfekziora eta bere argira?

Bi gauza oharrarazi behar ditugu: bata, zein eratan itzuliko den bere sorburura, zein bidetatik eta nola. Bigarrena, zein diren eragozpenak, hara iristea galarazten dutenak. Dirudienez, boteretsuak dira hauek, ezin esan adinako handitasuna duen ondasun bat galarazten dutenez, beronetatik aldentuz.

Eragozpenak bi eratakoak dira, eta bi orobat, jende-motak ere. Lehenengo mailakoak dira bihotz mundukoak, hauei atsegina eta poza sorkarietatik eta zentzuetatik datorkielarik, sorkari eta zentzuek agortzen dietela beren kemena, beren bihotza, beren denbora guztia galaraziz. Gizaki hauek erabat ilunpetan bizi dira, egiazko argiari atzea emanik.

Bigarren sailekoak dira jende pietatetsuak, itxura distiratsua dutelarik eta sona handia. Uste dute kanpoko iluntasunen gainetik daudela oso, fariseuak direlarik funtsean, norberaren maitakeriaz gainezka, berenganako nahikundea gidari dutenak. Berak dira hain zuzen beren ekintza guztien erdigune eta helmuga.

Itxura batean ez dute bereizkuntzarik Jainkoaren lagunetatik, hauek bezain maiz edota gehiago ahalegintzen baitira otoitzen, barauen, bizitza latzaren kanpoko ekitaldietan. Kanpotik begiratuta zail da Jainkoaren lagunengandik hauek bereizten. Izpiritu jainkozkoa duena bakarrik da gai batzuk besteetatik bereizteko. Bada, orde, ageriko alde bat, horrelakoen eta Jainkoaren egiazko lagun artean. Horrela direnek errazki epaitzen dute mundu guztia eta bereziki Jainkoaren lagunak, berak gai ez direlarik beren akatsak aitortzeko. Jainkoaren lagunak, bestalde, ez dute inor epaitzen, beren buruak bakarrik. Haiek beren interesa dute gidari gauza guztietan. Egokiera guztietan, Jainkoarekiko eta sorkari guztiekiko harremanetan beren aukera bilatzen dute batez ere. Gizaki orok bere burua du maitatzen eta bilatzen. Fariseismo hau sustraiturik dago horien izaeraren muinean, zokorik eta azpildurarik ezkutueta-raino. Errazago litzateke

burdinazko mendi bat zulatzea fariseua naturazko indarrez bakarrik garaitzea baino. Inolaz ez dago menperatzerik. Ezinezkoa da, Jainkoak toki-aldatzen ez badiu beren barrunbeaz erabat jabetuz. Baina Jainkoak ez du horrelakorik egiten bere lagun minekin ez bada. Zoritzarrez, horrelako gaitzez beterik dago mundua. Eta hain da astuna gaitz hau, non Jainkoaren lagun bhotza ihartu bailiteke eta gorputzean izoztu, ikusiz zeinen desegoki portatzen den jende asko beren Jainkoarekin, eta nolako kaltea jasotzen duten hortik.

Hondo makur horrek arreta berezia eskatzen du. Gizakia bizi den arte, joera makurra inoiz ez dago hilik, ez erabat garaiturik, arazoak sortzen ditu beti. Eragozpen handi bat dago hor egiazko argira eta sorburura itzultzeko. Batzuk berriro beren naturazko argira erortzen dira, eta beronetan dute atsegin. Berebiziko poza hartzen dute naturazko arrazonamenduetan, munduko beste plazerretan baino gehiago, nahiz eta handia izan hauek ekar diezaketena. Badira paganoetan hori aitortu dutenak. Hauek naturazko argietan irauten zuten aurrerago joan gabe, ilunpean geratuz, eta eragozpen izan daitezke egiazko argiarentzat.

Bigarren oharkizuna da nola itzuli geuron sorburura eta egiazko argira. Eta zein den biderik hurbilena hara iristeko. Hau da bidea: uko egin egiaz nork bere buruari; maitatu eta ez izan begi aurrean Jainkoa besterik, garbitasun osoz eta bete-beteko ontasunez. Ezertan ere ez nahi izan norberaren interesik baizik eta desiratu eta bilatu Jainkoaren ohorea eta aintza bakarrik; guztia Jainkoagandik zuzenean itxaron eta itzulingururik eta bitartekorik gabe Berari gauza guztiak eskaini, datozen lekutik datozela, horrela Jainkoaren eta gure artean zuzeneko eta bitartekorik gabeko harremana egon dadin gora eta behera. Hau da bide zuzena eta egiazkoa. Honetan ezagutzen dira Jainkoaren egiazko lagunak eta lagun faltsuak. Lagun faltsuek dena beren buruentzat dute, dohainei atxikitzen dira eta ez dizkiote Jainkoari benetan eskaintzen, esker onez, beren buruei uko eginez, eta hauek Jaunagan bete-betean utziz eta Harengan bakarrik. Aitzitik, dena goraki Jainkoarentzat duena lagun on-ona izango da beste guztien artean. Horrela egiten ez duenak, horretan saiatu ere ez denak, baizik eta norberaren maitasunean gatibu izan denak eta heriotzako orduan jarrera horretan aurkitzen denak, ez du sekulan egiazko argia ikusiko. Horrela etor daiteke ezagutzera nola natura bete-betean dagoen han, Jainkoa ustez bilatzen den hartan. Oso kezkarria da hau eta guztiz neketsua.

Ezagutzen da, baita ere, egiazko argia froga handi eta astunen garaitetan. Horrelakoetan Jainkoaren egiazko lagunak Harengan babesten dira eta maitasunez onartzen dituzte frogak. Bere eskuetatik hartzen dituzte Beragatik eta beragan sofritzea bailiran, izan ere Jainkoa berekin dute hain begi aurrean, non Jainkoagatik sofritzea ez baitzaie neke, atsegina eta poza baizik.

Lagun faltsuek, berriz, fariseuak, bidegaltzea jasaten dute froga datorkienean. Larritzen dira, laguntza, aholkuak eta pozbideak bilatzen dituzte. Jainkoa ez dago horiekin lagun modura. Hondoratzear daude eta desesperazioz lur jotzear. Arrazoiz, benetan beldur izatekoa da horien azken orduan zila izango dela, Jainkoa ez dutelako aurkitzen beren baitan, arima-zolan. Beren etxea ez dute eraiki harria den Kristogan. Bidezkoa denez, hondamendira doaz.

Jende horiek gizaki gehienak baino arrisku handiagoan daude munduan, beste hauek ohartzen direlako gaiztoak direla eta apalki beldurturik bizi dira. Garai batean ere hala gertatzen zen, herri arruntak Jaunari jarraitzen zionean. Fariseuek, berriz, apaiz nagusiek, lege-maisuek eta santutasun-itxurak zituzten haiek guztiek oposizio gogorra egin zioten eta azkenean heriotza-zigorra eman. Jende hauei ezin zaie ezer esan, suminarazi gabe edota gaia bazter utzi gabe. Horrela egin zuten fariseuek ere gure Jaunak lurrean idazten zuen hartan. Ez zituzten aitortu nahi beren hutsegiteak; doktoreak eta zaharrak izan ziren lehenik alde egiten hasi zirenak, guztiak ezkutatu

ziren arte. Askoz ere errazagoa da jende xumeei laguntza eta aholkuak ematea, hauek gutxienez beren hutsegiteak aitortzen dituztenez. Erremedioa beti dago bekatari direla aitortzen dutenentzat beldurturik eta apaltasunean iraunez.

Eraskotako oztopoen aurka, Jaunak laguntza eta kontsolamendu handiak eman dizkigu. Bere Seme bakarra bidali digu, Jainko gizonaren bizitza santuak, beraren bertuteen distirak, beraren bizimoldeak, irakatsiak eta oinaze-min askok eraman gaitzaten geure baitatik erabat ateratzera eta naturaren argi zurbilak bertan behera uztera, egiazko eta esentziazko argian urtzera. Eta berak emanak ditugu Sakramentu santuak: lehenik bataioa, sendotza eta penitentzia, gero bere Gorputza eta azkenik Oliadura. Hauetan esku kementsua eta laguntza eraginkorra aurkitzen dugu beti geure sorburura eta hasierara itzultzeko. San Agustinek esana da: "Eguzki handiak azpirago beste txikiago bat ezarri du, hodei estalkien artean, ez ordea ezkutatzeko, itsu ez gaitzan baizik". Zeruko Aita da beheragoko eguzkia egin duena, behean dagoena, bere Semea. Jainkoa den aldetik Aitarek berdina bada ere, bere Gizakundez beherago dago; jainkotasun estalia, nahiz ez gordea, horrela, bere distira gutxiturik, Beragan ezar ditzagun geure begiak. "Bera da egiazko argia, mundura etorritik gizaki guztiak argitzen dituen" (Jn 1,9). "Argi horrek ilunbetan egiten du argi, baina ilunbeek ez zuten onartu" (Jn 1,5).

Argi hau hartzen dute gogoz behartsu direnek bakarrik, eta ongi biluzturik daudenek beren buruetatik, norberarekiko maitakerietatik, berekoikerietatik. Asko izan litezke materialki behartsu izan direnak berrogei urtez, eta inoiz ere beren leihorik ireki ez diotenak argi errainuari. Gainez eginik daude zentzuen eta arrazoiaren argiekin, baina funtsean ez dute gozatu argirik. Arrotza zaie argia eta urrun gelditzen da berengandik.

Seme-alaba maite-maiteok, ahalegin zaitezte zuen egintzekin izpirituan eta zentzuetan lor dezazuen egiazko argiak argi egin dezan zuen baitan; ireki ateak eta goza bere laguntasuna. Horrela sorburura itzuliko zarete, egiazko argiak distiratzten duen hartara. Desira ezazue, eta eskatu izpirituen gozamenez eta zentzuen arbuioz grazia hau emana izan dakizuen. Jarri horretan zuen apeta guztia, erregutu Jainkoaren lagunei lagun zaitzatela zeregin honetan; egin zaitezte horien lagun Jaunagana eraman zaitzaten lagun eginez.

Jainkoak, mugarik gabe ona denak, argi zaitzatela guztiok bere argiz.

VIII

Basahuntz zauritua⁹

"Egarri dena betor niregana, eta edan beza niregan sinesten duenak" (Jn 7,37)

Jaietako azken egunean, nagusienean, gure jaunak oihu egin zuen esanez: "Egarri dena betor niregana, eta edan beza..."

Gure Jaunaren Pasio gurgarria oroitzeak errukizko eta esker onezko sentimendu handiak sortu behar ditu. Inork ez du geratu behar hotz eta motz. Gure Jaunak hainbeste oinazemin eta hain gogorrak jasan zituenez gero, haren lagun izan nahi dutenek ere gogo onez jasan beharko dute gertatzen zaien guztia, zuzenbidez datorkiena edota zuzen-kontra gertatu. Benetan da osasungarri poztea eta alaitzea izan duten ohoreagatik eta zoriagatik, lagunaren antzeko izanez eta honen urratsei hurbiletik jarraituz.

Jaunak esana da: "Egarri dena... Zein egarriz ari ote da? Jainkoarekiko desira sutsuz. Izpiritu Santua arimara datorrenean, bere maitasunaren suz erre egiten du, ikatz piztuz bezala. Maitasunugarria pizten da ariman, non txinparta gozoak saltatzen baitira eta Jainkoaganako sentipen egarberak. Hau sentitu duenak berekin darama gainera halako atsekabe eta asperdura bat sorkariekiko; maila desberdinean, perfekzio-bidean perfekziodun diren heinean, aurreratu edo hasiberri..."

Dabid Profeta Santuak, nahikunde sutsuak eraginik, hots egin zuen: "Basahuntza irrikaz errekaraz bezala, halaxe ni zuregana, ene Jainko" (Sal 42,2).

Ehiza-txakurrek, basahuntzari erasotzen diotenean aurrean hartuz, basoan, mendian eta muinoetan zehar, itolarri hartan beste edozein animaliak baino egarri sutsuagoa sentitu ohi dute. Era berean, perfekzio-bidean sartzea erabakitzen dutenak, tentaldi neketsuek erasotuak izan ohi dira. Zazpi bekatu nagusiak dira, artzanora oldartsuak bezala dira, beren indar guztia jartzen dutelarik bekatu-bizitza uztea erabaki duenaren aurka, graziaren ukitua izan ondoren erabaki ere. Tentaldi gogorragoek erasotzen dute orain, munduko legera bizi zenean baino. Lehenago, ezustean harrapatua zenez, ez zuen eragozpenik jartzen; orain, zain dagoenez, borroka gogorra egiten du, Salomonek dioen bezala: "Seme, Jauna zerbitzatu nahi baduzu, prestatu zeure burua probarako" (Si 2,1).

Zenbat eta oldartsuagoa izan eraso, orduan eta handiagoa behar du izan Jainkoaren egarriak eta gure desirarenugarriak. Inoiz gertatzen da artzanoretako batek basahuntza harrapatzen duela eta hortzak sartzen dizkiola sabelean. Orduan basahuntzak, bere erasotzaileari ihes egiterik ez daukanez, zuhaitz baten albora eramaten du, joka erabiltzen du arbola-gerriaren kontra, burua hausten dion arte eta libratu bere burua. Horrela jokatu behar du tentaldien artzanorek erasotuta dagoenak ere. Joan bedi berehala Gurutzearen eta Jesukristo gure Jaunaren Pasioko zuhaitzera, eta honen kontra joka erabil dezala bere artzanora, hau da, tentaldia honi, burua hautsi arte. Horrela ihesi joango dira etsaiak eta ondoren bakea izango da.

Gertatzen dena da, basahuntzak txakur handiak garaitzen dituenean, samaldan datozela txakur txikiak, sabela horzkatzen diotela, min emanez. Basahuntzak ez dio txikieria hauei jaramonik egiten, baina gero horzka horiek gaiztotu egiten zaizkio eta ahuldu egiten da edota hil. Hori bera gertatzen zaie hasiberriei ere: hauek, trebeki garaitu ondoren artzanorak, hau da, bekatu astunak, gero txakur txikiak ez dituzte zaintzen. Hala nola jokoko lagunek, harrokeria janzkeretan, esamesak, jendearen begiramenak eta losintxak eta antzeko beste zenbait gauza. Hau guztia, ongi menperatzen ez bada, horzkada dator handik eta hemendik. Ahultzen eta hustutzen dute hasiberrien barrena, eta arima epeltzen dute izpirituzko bizitzan, graziaren berotasunean, jaieran, naturaz gaindiko sendotasunean, jainkozko gauzetarako gogo beroan, apostolu-arretan. Azkenean hil egiten dute zauri ustelduek basahuntza bezala. Hutsegite arinen txakurkumeek tentaldi astunak baino kalte handiagoa egin dezakete. Astunak berehala baztertzen dira, baina ez gara arduratzen hutsegite txikien aurka. Arrisku gordea duten

gauzek kalte sendagaitzagoak egin ditzakete arriskua argi eta garbi ezagutzen denean baino. Hori gertatzen zaigu arduragabe jokatzeko dugunean: hala nola jolasaldietan, giroan, gizarteko harremanetan eta abar.

Ehiztariek eraso ahalean basahuntza berotzen den bezala eta bere egarria handitzen, modu berean gertatzen zaio arimari ere: Jainko-jaiara eta Jainko-gosea gehiagotu egiten direla, tentaldiak erasotzen dioten bakoitzean. Prestutasun handiagoz ager bedi Jaunagana era Beronengan aurkituko ditu behar diren bakea, santutasuna eta kontsolamendua, horrela tentaldia bera etekin handiago baten egokiera bihurtzen delarik arimarentzat.

Ehiztariek askotan egin ohi dute horrela. Ikusten dutenean basahuntza egarriak eta nekeak akiturik dagoela, deitzen dituzte zakurrak eta lotzen une batean, ehiza inguratua eta segurtatua daukatenean. Aldi batean bakean uzten dute arnasa har dezan, indarra etor dakion eta sendo egon dadin bigarren erasoaldirako. Era berean egiten du Jainkoak arimarekin. Ikusten duenean tentaldiaren setiaketa eta arima-ehiza oso gogorak eta neketsuak gertatzen direla, etenaldi bat egin ohi du eta bihotz atsekabetuaren bilgunetan ur tanta bat jaurtikitzen du, hau da, betiko bizitzaren zapore atsegina. Honi esker hain adoreturik gertatzen da arima, non Jainkoaz kanpo zaporegabe eta mingotsa baitzaio dena. Uste du proba guztiak gainditu dituela, eta ez da konturatzen, bera landugabea eta ezjakina delako, atsedenaldirako bat bakarrik eman zaiola erasoaldi berrirako presta dadin.

Gutxiena uste duenean, tentaldiaren txakurrek berriro erasotzen dute eta eztatritik diote heltzen lehen baino amorru handiagoz. Oraingoan, ordea, arimak ausardia biziagoz jasaten du eraso, Jainkoak lehen emaniko edaritik indarra hartuz. Jainkoak baimentzen du arimak tentaldi berrien nekeak jasan ditzan, ezbairik gabe bere maitasun azkengabeak eta bere leialtasun miragarriak eraginik. Orduan arima, inguratutako basahuntza bezala, Jainkoagana doa gogo beroz eta egarri sutsuz, egia osoa, bake bete eta kontsolamendua dituen irrikatuz. Jainkoak hori egiten du, horrela egarria kenduko duen edaria leunagoa, atseginagoa eta gozoagoa izan dadin baita mundualdian ere. Baina gehiago, askoz ere gehiago gero, betikotasunean, non asebate arte eta mozkortu arte edaten baitugu, gozamen handien iturrian, zeruko Aitaren bihotzean, on guztien ur-begian. Arimak alde aurretik zerbait dastatu duenean, hain kemen eta kontsolamendu handiak bereganatzen ditu, non iruditzen baitzaio edozein gauza gogo onez sofri dezakeela, denik eta zailena eta astunena izan jasan behar hori.

Basahuntzak bere erasotzaileak garaitu dituela ikustean, ahoa uretan eztatari-zuloraino egarri biziz sartzen du, bere gogara edanez. Gauza bera gertatzen zaio arima egarberari ere, zakur-taldetik askaturik, graziaz fidaturik eta sendoturik, zeruko Aitagana iristen denean. Hemen freskaldi bat hartzen du eta pozez edaten jainkoazko edaria, Jainkoaz ase eta bete arte, hain bozkariotsu, non zorion-gainezkaldian bere burua erabat ahanzten baitu. Iruditzen zaio zereginik zailenak ere erraz eta gozatuz bete ditzakeela, baita su-artetik eta erreka ekaizsuetan igaro behar badu ere, eta mila soldaduri lantzaz aurre eman behar. Ez heriotzak, ez garaipenak, ez hutsegiteak dute izutzen. Barne gozamen hau maitasun zoragarritik jaiotzen da, Jainkoagandik beragandik elikatzen den hartatik. Bozkario deitzen diote, kantuz, irriz, eta nigarrez ere bai, gainezka egiten duen horri.

Mundu honetako jakintsuek, beren jakinduriez harro daudenek, eta jakin-min aseeginaz harro, horrelako bizipenik eduki gabe, nahiz eta oso jakitsuak izan, ezin ulertu ditzateke Jainkoak bere santuekin eta aukeratuarekin egiten dituen miragarriak, errukizko ontzi bairan santu eta aukeratu horiek. Hain jakinduria erabat giza mailakoa da, beren ahaleginez lorturikoa. Gerta balekie horrelako zerbait Jainkoaren lagunengan ikustea, beren adimoldeetatik kanpo dagoena, harriturik dute galdetzen: Zertara datoz zeinu horiek? Egia esan, jakinminek eta eruditoek ez dakite ezer izpirituaren zoraldiari buruz.

Zoraldiaren ondoren, esan ezinezko bakeaz blai, alaitasuna zabaltzen dute. Edozer gauza etortzen zaiela, bakean irauten dute eta egiazko gozotasunean. Horietan ikatz piztua aurkitzen da, ur irakinaren antzera borboka dagoena; maitasunaren sua da, bihotza gozotasun eta alaitasunez irakinarazten duena.

Batzuek ezin eutsi diote barne-suari eta bihotzak maitasun zauria du jasaten. Hain dira bortitzak eta biziak Jainkoaren miragarri hauek! Bat baino gehiago badira hilak, naturak jasan ezin dituelako hainbeste mesede. Jainkoak ordea, gauzen moldatzaile guztiz jakintsuak, ikusiz batzuk, bere graziez gehiegi erakarriak, behar baino gehiago zaletzen zirela, etxean ardo gozoak ugari dituen aita on eta zuhur bat ere bezala jokatzeko du horiekin. Bazkaldutakoan zutitzen da mahaitik, uzten du ardoa eta ateratzen da apur bat deskantsatzera. Haren semeak bien bitartean upategira jaisten dira eta edaten dute ardo hartatik mozkortu arte. Aita jaikitzerakoan konturatzen da gertatuaz, zigorgailuak prestatzen ditu eta gogor zigortzen, edarian hartutako gehiegizko plazerra neurri batean tristurak galgatu arte. Eta hori aski ez zuela, aita ura edanarazi zien harik eta mozkorra joan arte.

Gauza bera egin ohi du Jaunak bere seme kutunekin. Lo-itxura egiten du eta uzten die asebate arte edaten. Gero, ikusiz gehiegikeria hura kaltegarri zaiela, denboraldi batean pozbiderik gabe uzten ditu, eta hain da handia sortzen dizkien tristura eta mingostasuna, non iduri bailuke ez direla inoiz alai izan. Hain neurritsu orain, mozkorraldia ezagutu izan ez balute bezala. Berritro arrotz gertatzen zaizkie izpirituzko kontsolamendu eta gozoak.

Norbaitek esan dezake: Zeren errua dute seme horiek, hain-besterainoko egarria baldin badute eta asebate arte edaten utzi bazaie? Bestalde, Jauna horretaz baliatu da seme kutunak beregana ditzan, horiek beren baitatik atera daitezen eta sorkarien morrontza errukarritik aska ditzan. Halaxe da. Baina ez ziren neurritz ibili, eta Jaunak behartu zituen beren baitara itzultzera, mozkorra neurritasun bihurtuz. Zentzudun egiten ditu, zer diren eta zer dezaketen jakitun, berritro beren buruekin aurkituz. Une batzuk lehenago inork ezin zien galgarik jarri, eta prest zeuden beti agintzen zitzaiena baino gehiago egiteko, sofrikizun gehiago hartzeko, egintza izpirituzkoak areago betetzeko. Orain neurritsu ikusten dira, beren indarretara mugatuak, beren barrutia sakon ezagutzen dutela. Eta Jainkoak bere graziaren distirak eta dohainak kentzerakoan apal bihurtzen dira, etsia hartzen dute, ongi pentsatzen dute mundu guztiaz, baretzen dira, xume agertzen, Jaunak ongi bideratuak eta adoretuak bailiran.

Gauza hauek guztiak, ordea, (tentaldien oldarrak eta ekaitzak, kontsolamendu jainkozkoak, era bateko nahiz besteko bihotz-ikarak), behe-mailako ahalmenetan gertatu ohi dira. Ez da hau Jainkoa bizi den lekua. Txikiegiak eta estuegiak dira hain gauza ospetsua berengan hartzeko, horietan ez bailuke izango mugitzerik, ez bere langintza betetzerik. Jainkoak goiko ahalmenetan nahi du bizi, oroitzapenean, adimenean eta borondatean; hauetan Jainko erara dihardu Berak, berari dagokion erara. Hemen du bere bizilekua, hemen bere irudia. Hemen bila dezala aurkitu nahi duenak, beste inon ez baitu idoroko.

Azkenean honeraino iritsi dena konturatzen da oso urruti ibili dela Jainkoaren bila eta inguraketa asko eginez. Orduan arima, poz handiz, barreiatzen da inork deskriba ezin dezakeen basamortu bakartian zehar; neurri gabeko ondasunaren ezkutuko ilunbeetan. Hemen-honetan izpiritua txundituta geratzen da batasunean, bakun, formez biluztua, hain bat egina, non galtzen baitu bereizkuntza guztien sentipena, baina oharturik berari izatez dagokion bereizkuntzaz. Objektuak eta sentsazioak besterik ez dira, aniztasun oro batasunean galtzen denez.

Gizaki hauek beren baitara itzultzen direnean, badute bereizmenik gauzak beste inork baino argitasun eta perfekzio handiagoz epaitzeko. Nondik etor dakieke dohain hau,

lehendik bereganatu zuen batasun bakan-bakanetik ez bada? Fedeko sinesgaiak argitasunez eta trebetasunez ulertzen dituzte. Gauzok adi litezkeen neurrian, ulertzen dute Jainkoaren batasuna hiru pertsonetan. Inork ez du egiazko bereizmena hobeto ulertzen batasuna iritsi dutenek baino. Dei dagiote batasunari eta egiaz esan ezinezko ilunbea da, baina argitasun esentziazkoa; basamortua deitzen zaio eta arin zeharkatzen da hegaldi bat bailitzan. Ikustagun.

Esandakoa argiago demagun. Ilunbeak argitasun dira, egindako adimen batek hauteman ezin ditzakeenak, eta gutxiago oraindik ulertu. Basamortua deitzen zaio berezko bidezidorrik ez dagoelako ibiltzeko. Izpirituak sartzen da hemen, jakin gabe sartu ere, bere burua gaindituz, adimena eta susma bideak lo. Edaten du han ur bizien iturri beretik, ur-begi esentziazko eta egiazkotik.

O ur geza, garden eta hotzeko iturri kristalezkoa, hala baitira iturburu guztiak haizeen eta eguzkiaren berotan ibili aurretik. Zeinen gozagarri den ur-begi horretatik edatea, nork dezake adieraz? Nahi luke arimak zanga-zanga edan, ahoa eztarriraino sartuz, baina alferrik ahalegintzen da zeregin honetan, bere gorputzak atxiloturik daukan arte. Bien bitartean jainkotasunaren leizezuloan sartzen da eta han urtutzen da uhinak eta istilak lurtean iragazten diren antzera.

Goietan dabil arima, baina beheko ahalmenak ezin dira alferkerian edo lo geratu. Arriskutsu gertatuko lirateke, sortuko lirateke harrokeria, ordenarik gabeko askatasuna, norberaren burua ederrestea. Izpiritu Santua handik kanpo izango litzateke eta arima erabat geldirik egongo. Apaltasunean sakondu beharra dago, Jainkoaren borondatera bete-betean makurtuz. Jainkoak orain biluztasuna eskatzen du, orain arte baino handiagoa, nobleagoa, garbiagoa, xumeagoa; batasun gehiago, askatasun gehiago, kanpoko isiltasun gehiago eta barrukoa batez ere; sakonagoko erroak apaltasunean eta beste bertuteetan, zantzuetan eta sentiberatasunean oinarritzen diren haietan. Horrela iritsiko da arima Jainkoaren familiarteko izatera, jainkotua izatera.

Gera gaitezen orain Jaunaren bideak zeinen harrigarri diren ikusten. Arimak nola kudeatzen dituen, berauekin nolako jokamoldeak izaten dituen.

Ardo-gozoaren aho-gozoz beheko ahalmenak erabat mozkortu egin ziren, bidezidorretik ateratzeko arriskuan. Gero Berak, besoetan hartuz, gora jasotzen ditu bere kopetaraino, arimak pentsatuko ere ez lukeen moduan. Jainkoak bere aurpegia agertzen dio. Jadanik ez dago arriskurik arimarentzat, dena harmonia baizik ez denez. Hau da Kantarik Ederrena-n esaten dena: "Bere ardangelara (jangelara) nau eraman, eta ezaugarri hau jarri dit gainera: Maitasuna" (Kt 2,4).

Egiaz, Jainkoak oparo eratu zuen arima, bide estu eta desertuetan barrena zuzendu zuen, eskutik eraman zuen maitasunaren leizeraino, bere baitaraino. Elkartzearen gozamina sentimendu guztien gainetik dago. Adimenak ez dauka haraino iristerik. Inork ezin dezake irudika eta gutxiago ulertu, zeruaren egiazko antzinamendua denez.

Ikusi duzue nola jokatzen duen Jainkoaren ontasun guztiz gurgarriak bere arima aukeratuekin! Gure onagatik egiten du hori. Beregana erakartzen gaitu santu egin gaitzan eta bizitza zoriontsua izan dezagun, betiko zoriontasunean. Egarri dago Bera gudan maitasunaren eta graziaren egarria sortzeko, eta horregatik zuen oihukatu: "Egarri dena betor niregana eta edan beza". Behar du gudan horrelako egarria aurkitu: Beragana erakarriko gaituena, gu asetzeko egokiera emango diona, bere bizitzaren iturburu gu egiteraino.

Gorputzeko hazkurria urdaileraino iristen da, atal guztietatik zabaltzen da, gorputz guztitik. Izpirituak edari horrekin jainkotasunaren hazkurri preziagarria hartzen du; maitasun noblea, sutsua, jainkozkoa; eta barreiatzen du barrunbe guztitik, atal guztitik, izate guztitik, gizakiaren bizitza guztitik. Bere egintzak ongi zuzenduta daude. Izan litekeen modurik hoberena da besteen onerako. Izan ere barne-harmonia honek oparo

zuzentzen du kanpoko gizakia, handi eta sendo egiteko, eta bete dezala Jainkoaren deiez datorkion eginkizuna, hortik betiko bizitzara jo dezan. Jainkoak eman diezaiela guztiei betiko bizitza hori.

IX

Askapena¹⁰

"Gorenera igo zenean, gatibuak berekin eraman zituen eta gizakiei dohainak eman zizkien". (Ef 4,8)

Bizitza hilkor honetan, gizakia gogor espetxeratzen duten bost gatibualdiaz hitz egiten dugu. Kristok presondegi guztiak zabaldu zituen. Berak ateak zerura eramaten ditu, gudan bere igokundea osabetetzen duenean.

Lehenengo gatibualdia honetan datza: gizakia sorkariekiko maitakeriaz atxiloturik geratzen da, hilak izan edo biziak izan sorkariok, Egilea ahaztuz maitatzen ditugunean. Giza sorkariak, hurbilagoak dira, batez ere elkarren antzeko izateari esker. Ezinezkoa da maitakeriak egindako kalte guztiak aipatzea, bi modutara aurkeztzen zaizkigularik kalteok.

Badira jendeak beren erruak beren kabuz aitortzen dituztenak; hauengan horrelako maitasun baten beldurra sortzen da, estura, oinaze-mina, barren-kezka eta gaitzespena ekartzen dietelako. Ez da sinale txarra. Ez ditu Jainkoak bertan behera utzi, gau eta egun sentitzen dute-eta. Haren ahotsa eta erakarpena, baita jaten edo edaten ari direnean ere. Belarriak ixten ez dituen eta jainkozko deiari adi dagoena, hura da salbatuko.

Badira, ordea, beste batzuk beren gatibualdi arriskutsuen esku beldurrik gabe jartzen direnak, erabat gor eta itsu direlarik, eta pozik bizi direnak. Akatsgabeak beren iritziz. Egintza on asko egiten dituzte, kantatzen dute, irakurtzen, isilik egoten, beren eginkizunak eta errezoak zintzo betetzen. Dena dagite beren ederra eskuratzen duten neurrian, Jainkoaren kontsolamenduetan eta jendearen txaloetan eskuratu ere. O, gogoko zaie, bai, otoitzean biltzea, kontsolamendu gozoaren malkoak sorrarazteraino. Arriskuan bizi direnak dira. Deabruak horiengan itxurazko bakea sortzen du, bere gatibualdian edukitzeko. Horrelakoetan naturak gizakia iruzurtzen du, tentaldi galgarrien arriskuz. Hobe lukete otoitzik ez egitea, otoitzarekin egolatria egitea baino. Estura, pena eta tristura lirateke biderik hoberenak gatibualdi honen gaitz arriskutsutik askatzeko. Epai-egunean egoera honetan aurkitzen dena deabruak atxilotuta geratuko da eta ez du inork askatzerik izango.

Bigarren gatibualdia honetan datza: asko, sorkariekiko eta ondasun materialekiko maitasun ordenagabekotik jadanik askaturik, norberaganako maitasunaren atxilo gertatzen dira. Ikaratzen du ikusteak nola zurretzen eta defendatzen duten maitasun kaltegarri hori. Horrelako egoeran inor ez da ausartzen hauek aholkatzera, eta oraindik gutxiago berauek euren buruei hori egitera. Mantu eder batez estaltzen dute, ongi estali ere, kanpora ezer agertzen ez dela. Oso egoki. Gero, norberaganako maitasun honek eraginik, etorri ohi dira gauza guztietan bilatzera beren interesa, beren atsegina, beren kontsolamendua, beren erosotasuna, beren ohorea. Hainbestearaino hondoratzen dira beren "ni"an, non gauza guztietan beren burua bilatzen baitute, Jainkoagan ere bai, hortik kanpo ezer ere bilatzen ez dutela.

O Jauna, norbere maitakeriaren zenbat usteldura ez da aurkituko zolagune horretan, bere izaera osoa agertuko den egunean! Santutasun handiko aurrealdea eta zaborrez atzealdea, itxuratzen duten hartatik erabat urruti. Tamalgarria! Praktikoki ezinezko gertatzen da horrelako pertsonen laguntzea, pertsona hauen izpiritua norberak nahi duena egiteko borondatearen menpe baitago, arrazonamendu zorrotzak erabiltzen dituelarik gainera hori zurrizteko. Zeinen zaila den beren gatibutasunetik askatzea! Nork hautsi norberekoikeria gogorrek estuturik dauzkan atxilotu horien kateak? Jainkoak bakarrik, maitasunaren mirariz. Hainbestekoak dira sortzen dituzten behar-izanak non gauza guztiak berenganatzen baitituzte alde batera eta bestera. Finezien eta leunkerien lagun, lortzen dute denak beren zerbitzurako egon daitezen. Ezbarharren bat jazotzen bazaie beren jabetasunean, erosotasunean, lagunetan, kontsolamenduan, Jainkoa ez zaie

baliagarri; urruti daukate eta besterik ez. Amorrutzko hitzak, mendeku-gogoak, gezurrak. Gorde behar lituzketen ezkutukoak agertzen dituzte. Gizon izateari uzten diote, zakur amorratuek bezala dihardute, otso harrapariak bezala.

Gatibutasun handiegia da norbere maitakeriaren gatibu izatea.

Zenbait pertsona hirugarren gatibutasun honetan hondoraino dira jausten. Jainkoaren grazia eta dohainak, beren izpirituetan jaio behar luketenak, kirastzen dituzte. Harrotzen da horrekin arrazoiak; eta edozein gauza ulertzen dutela, egia jainkoazkoak edota irakatsi gizakizkoak, eta horietaz nola hitz egin badakitela, beren buruak agertzeko egin ohi dute hori. Berenez ez dute ezer egiten, ez dute ezer bizitzen. Jesukristo gure Jaunak emaniko etsenplu gurgarriak ere beren ulermenaren argitan bakarrik ikusten dituzte. Besterik izango litzateke utziko balute jainkoazko eta naturaz gaindiko argiak kudea ditzan beren irizmoldeak. Ezer ez direla ikusiko lukete, ez dutela ezer ulertzen, oraindik ere gutxiago jakitera iristen. Kriseilu argia eguzki-argiarekin konparatzea bezala izango litzateke. Hilagoa da oraindik horien trebetasunaren argia Jainkoarenarekin konparatzen bada. Badago zenbait irizpide, bereizteko zer den arrazoitik datorrena eta zer den Jainkoarena. Naturazko argia kanpora zabaltzen da: harrokeria, eder-ustea, besteek eginiko goralmenak, zentzuen eta bihotzaren barreiatzea. Jainkoazko argian, berriz, joera dago gizakia hondoraino kudeatzeko, ikustarazten dio txikia dela, bilauena, ahulena eta itsua. Eta arrazoiz; izan ere, ezer baliotsurik badute, dena Jainkoagandik datorkie. Argi hau barruan zabaltzen da, ez kanpoko aldera; barruko zolagunea bilatzen du beti, hemendik baitator eta bulko egin ohi du bertara itzultzeko. Azkenik, argi hau lortu dutenek barrurantz zuzentzen dute beren bizitza, beren ahaleginak erroraino.

Hemendik dator hainbesterainoko aldea egotea hauen artean: batetik, Biblia ikasten dutenak, bakarrik mintzaldiak emateko eta bere jakindurian laketzeko, eta bestetik, Biblia beren bizia egiten dutenak. Aski dutenak irakasle izatearekin, batez ere ohoreak bilatzen dituzte, bizi dutenak mesprezatuz, burugabetzat, harrotzat, arbuia garritzat hartzen dituztelarik, zapuzten eta kondenatzen. Baina egiaz bizitzen duten horiek bekatarik sentitzen dira eta errukitsu dira guztiekiko. Bizitzaren azkenean ere aldea egongo da batzuen eta besteen artean, mundualdian izan zena baino handiagoa, batzuk betiko bizian, besteak heriotzan. San Paulok esana da: "Legearen letrak hil egiten baitu; Izpirituak, berriz, bizia ematen". (Kor 3,6).

Laugarren gatibutasuna gustamolde izpirituzkoen hura da. Asko beren bidetik ateratzen dira urrutiegi jarraitzeagatik, eta gustamoldeoi oso sendo atxikitzeagatik. Ondasun handitzat daukate eta horien esku jartzen dira gogotsu berenganatuz. Naturak eusten dio han bere parteari. Kontsolamenduak bakarrik jaso ohi dituzte, Jainkoa berekin zutela uste zutenean. Galde litekeena da ea Jauna egiaz bilatzen zuten, edota beren gustamoldeak. Hona zenbait ezagupide bereizketa egiteko.

Norberaren izaeratik datozela seinale, gizakiak bakea galtzen badu, kontentagaitz eta larrituta bihurtzen bada, gozotasunik aurkitzen ez badu. Ez badute Jauna zerbitzatzen gogo onez eta kontsolamenduak sentitzen zituzten aldietako leialtasun beraz, orduan garbi dago gozotasun hura ez zetorrela Jainkoagandik eta ez datorrela ongi Jaunarekin. Gizaki hau bekatu astunetan erraz eroriko litzateke gustamoldeak kentzen badizkiote, berrogei urtean edukitako gustamoldeak. Kontsolamendu artean bizi izana ez da bide segurua salbamenerako. Duda egingo luke Jainkoak egoera honetan bizi izan dena salbatzeko.

Bosgarren gatibutasuna norberaren nahia da. Gizakiak nahi du Jainkoa mendeko izan dakiola haren nahiera. Horrelako gizakiak ez luke onartuko Jainkoa jaits dadila beraganaino, bizioetatik eta hutsegiteetatik garbi dadin eta bertuteetan eta perfekzioan aurrera egin dezan. Hori ez luke onartuko, horrela ez delako bere nahia.

Bada beste zerbait askoz goragokoa dena. Pozik egon gintezke gure nahia Jainkoarenaren arabera bete delako. Ongarri da hori. Baina hobeki legoke esatea: "Ez, ene Jauna. Nire nahia, nik deitoratuz, betetzen bada ez da grazia bat, dohain bat. Baina Zeuk zerorrentzat nahi duzuna, neronek ere hori nahi dut niretzat, eta Zeuk nahi ez duzun onik, neuk ere ez dut nahi, eta gabe geratzea hobesten dut".

Egiaz Jaunaren esku jartzean, ondasunak galtzen baditugu eta dagokion gozotasuna galtzen, hortik gozatzen eta hartzen den ona handiagoa da nork bere nahiaz lortuko lukeena baino. Gizakiarentzat mila aldiz onuragarriagoa da, gabetze hori gogo onez eta apaltasunez onartzea, norberaren gogoz lortuko lukeen guztia baino, dela Jainkoari, dela gizakiari dagozkienetan. Beraz, mila aldiz hobe da gizaki bat bete-betean inoren esku jartzen dena, egintza gutxi edukiz kanpoaldean, eta ez beste bat berekoikeriazko gauza harrigarriak dituen, bururakizun goienak eta egitasmo handiak, baina jartzen ez duena bere burua Jaunagan.

Jesukristo bere ikasleekin bizi izan zen bitartean, ikasleok atxikirik bizi izan ziren Haren gizatasunari, jainkotasunaren ezagutza hobea edukitzea galaraziz. Maisuak ongi zekien honen berri eta esan zien: "Hobe da zuentzat ni joatea; izan ere, joaten ez banaiz, ez zaizue etorriko Laguntzailea" (Jn 16,7). Kristoren heriotzak tristatu zituen. Jainkotzeko lehen urratsa zen. Berrogei egun itxaron behar izan zuten Jesus zeruratzeko eta Berarekin jaso zezan bere lagunen izpiritua, jainkozkoago eginez. Eta beste hamar egun itxaron behar izan zuten Izpiritu Santua, egiazko Laguntzailea, hartzeko. Hamar egun haiek hamar urte dira guretzat. Apostoluak ziren Elizaren oinarriak; laburra izan zen denboraldia baina egun batek urte baten balioa zuen.

Gizakiak ez du egiazko bakerik izango, berrogei urte bete arte. Bere bihotzean ez da gizaki zerutiarra izango adin hori bete dezan arte. Hainbat gauza daude erakartzen diotenak! Naturak batetik bestera bultzatzen dio, aldakorra da, gauza desberdinei ekiten die, "ni" a da nagusi, Jainkoa zela uste zenean. Ez dago bizi-aroen gainetik igarotzerik. Gizakia ezin daiteke denbora baino lehen egiazko bake betera iritsi eta guztiz zerutiar egin. Hori Jainkoaren graziari esker bakarrik egin daiteke, neurriz kanpoko oparotasunez emandako graziari esker, behin baino gehiagotan gertatu den bezala.

Gizakiak oraindik hamar urte gehiago itxaron behar du, Izpiritu Santua, Laguntzailea, egiaz eman dakion, Jainkoaren gauza guztiak erakusten dituen Izpiritua. Ikasleek hamar egun itxaron zuten, sareak eta untziak lehendik utzi arren. Eta prestakuntzarik hoberena eduki ondoren: Igokundea, gauza guztien gainetik maitatzen zuten Haren aldegitia. Jaunak berekin jaso ondoren ikasleen gogoak Zerura, hauen pentsamenduak, maitasuna, bihotza eta Jesusi eskainitako berean izate osoa ere bai. Prestakuntza honen guztiaren ondoren, o heziketa noblea!, hamar egun gehiago itxaron behar izan zuten Izpiritu Santua hartzeko.

Denak bildurik zeuden, otoitzean.

Gauza bera egin behar du gizakiak ere. Iristen dira berrogei urteak. Gizaki baketsu, zerutiar eta Jainkozkoa, eta natura garaitua. Hamar urte gehiago, berrogeita hamar urte. Era nobleagoan emango zaio Izpiritu Santua, honek erakutsiko diolarik egia osoa munduan irits litekeen neurrian. Hamar urte hauetan, gizakia iritsi bada bizitza jainkozkora, eta natura garaitua badago, iritsiko da ere bere baitan biltzera, murgiltzera, jainkotasunaren ondasun goren eta garbi-garbian urtzera. Bakartasuna da, eta bakartasun honetan barne-bizitzaren txinparta nobleak, izarrak, arimaren balioak, erakarri ohi du eta bere sorburura maitasun-mugimenduz eramaten, jaiotzera eraman zuen antzeko maitasun-mugimenduz. Bihurtze hau berriro betetzen denean, zor guztia kitaturik dago, nahiz eta mundua sortu denetik bizi izan diren gizaki guztiena adinakoa izan. Graziak eta zorionak gainez egin dute. Jainkotuta dago gizakia.

Hauek dira Eliza Santuaren eta mundu guztiaren zutabeak.-

Jaunak egin dezala geu ere antzalda gaitzen.

X

Zentzudun izan izpiritua¹¹

"Izan zaitezte zentzudun eta bizi neurritasunez otoitzari lotzeko" (1P 4,7)

Egun hauetan Izpiritu Santuaren etorrera ospatzen dugu, zeina Jainkoak era harrigarri eta pertsonalean bidali baizuen Apostolu eta ikasleengana. Beste edozein gizakirentzat baino beharrago zen haientzat argi oparoz argituak izan zitezen, eta irazekiak Jainkoaganako maitasunean, bidezko ere bazelarik Izpiritu Santuaren grazia ugariagoz poztuak izatea, utzikeria jasan zutenez eta barruko nahiz kanpoko atsekabea. Izpirituaren etorrerak gai egin zituen baita ere, egunero fruitu handiagoz Izpiritua har zezaten.

Era berean Jainkoaren lagunek etengabeko Pentekostesa bizi behar dute, Izpiritu Santua gero eta modu nobleagoan hartuz, gero eta era jasoagoan, beren bizitzako egun eta ordu guztietan. Hartze bakoitza prestaera berri bat izango da, hartzeko gaitasuna handiagotuko duena. Izpiritu Santua bidaltzea, ikasleen mesedetan Pentekostes egunean gertatu zena, izpiritualki egunero eraberritzen da sakonki prestatzen direnengan. Orduan Izpiritua era berezian etortzen da, beti berriak diren graziakin eta dohainekin, gizakia hemen bizi den artean, barrutik Izpiritu Santuari zabaltzen bazaio eta Izpiritua hartzeko prestatzen bada.

Norbait balego ez dakienik nola prestatu Izpiritu Santuaren etorrerako, San Petrik, Apostoluen buruak, argi eta zehaztasun osoz erakusten digu esanez: "Izan zaitezte zentzudun". Gure eguneroko hizkerabidean, zentzudun izateak adimen-ezagutza baino gehiago bizipenez ezagutzea esan nahi du. Hau nahi dut esan. Gizaki bati behin eta berriz ofizio batean arduraz aritu denean, aditua esaten zaio. Ofizioduna da sakonki eta trebeziak. Horregatik San Petrik hitz horien bidez esan nahi digu geure buruon bizipena izan dezagula, hau da, arduraz aztertu behar dugula, gure diskrezioaren argitan, gauza bakoitzean egiten dugun, edo egin gabe uzten dugun, guztia: zer bilatzen dugun, zeren atzetik gabiltzan maitasunez eta asmo osoz, egiaz Jainkoagatik bakarrik den edo beste zerbitengatik. Horrela iritsiko gara eskuartearen ditugun gauzekin ohitzera.

Hauek dira prestaera hurbilenaren eta egiazkoaren baldintzak, Izpiritu Santua hartzeko geure buruak apailatu nahi baditugu. Baldintza horiei esker badugu modurik egiaz Izpiritua hartzeko, bitartekorik gabe, eta era bikainean. Hona baldintzak: era bateko atxikitasun eza, pasibitatea, barneratzea eta batasunean biltzea. Hau da prestaerarik hurbilena eta egiazkoena. Baldintza hauek gero eta maila altuagoan betetzen dituenak gaitasunik hoberena dauka Izpiritu Santua hartzeko.

Zertan datza biluztasun izpirituzkoa? Honetan datza gizakiarentzat: erabat banandu behar du argi eta garbi Jainkoa ez den guztitik, eta ikusi Jainkoa bakarrik den bere asmoen helburua. Aurkituko balu Jainkoarekin zerikusirik ez duen beste desirarik, motz dezala eta kanpora jaurti. Hau, gainera, ez dagokio gizaki nobleari eta barne-bizitzara emanik dagoenari bakarrik. Pertsona jator guztien egitekoa da. Bada jende ugari eta guztiz jatorra dena, gauza goresgarriak egiten dituen, baina ezer ez dakiena barne-bizitzari buruz. Era berean beharturik daude Jainkoagandik alden ditzakeen guztia aztertzer, erabat bertan behera utz dezaten. Atxikitasun eza hori guztiz beharrezko zaio Izpiritua eta honen dohainak hartu nahi dituenari. Ez da bilatu behar Jainkoa besterik, eta eskatu beharra dago Jainkoari gogoko ez zaion guztitik.

Atxikitasun ezaren maila desberdinak daude Izpiritua etorri zai prestatzeko. Batzuek nabarmenago hartzen dute Izpiritua sentiberatasunean eta irudipenean. Besteek, era askoz nobleagoan, goi-ahalmenetan, bereziki arrazonamenduan, zentzuzko ahalmenak baino askoz goragokoetan. Besteek, azkenik, hartzen dute beren animen zolagune misterioetan, ezkutuko erreinuan, zolagune atseginean, Hirutasun Guztiz Santuaren

irudi noblea gorderik dagoen hartan. O, nolako gozotasunez aurkitzen duen han Izpiritu Santuak bere lekua! Han banatzen ditu bere dohainak, Jainko erara banatu ere.

Norbaitek zolagune honetara arrazoiaren argiz begiratzen duen bakoitzean eta Jainkoagana berriro itzultzen den bakoitzean, beste hainbestetan eraberritze bat ematen da han, eta Izpiritu Santua berriro isurtzen da. Bere barrunbean sartzen den bakoitzean, aipatu dugun ezagutza familiarrekin, gizakiak dohain berriak hartzen ditu, grazia berriak, ardura eta berotasun berriak.

Sakonki azter ditzala bere egitate, bide, hitz, egintza eta ohitura guztiak, bilatuz zer dagoen hor Jainkoaz kanpo. Asmoa Jaunagan bakarrik norabide dadila. Edozein gauza aurkitzen duela, zuzen dezala eta zentzatu diskrezioaren bertutez. Naturazko argi honek bertute hauek apailatzen ditu: apaltasuna, bihotz-beratasuna, gozotasuna, errukia, pietatea, lasaitasuna eta beste batzuk gehiago, bertute naturazkoak direnak, nahiz eta denek Jainkoagan izan beren sorburua. Argi honek berak argitu behar luke baita ere ohitura-bertuteen praktika, hala nola zuhurtzia, justizia, sendotasuna eta neurritasuna, bertute nagusiak deiturikoak. Beharrezkoa da zuhurtziaren bertuteak azter ditzala asmo garbiz eta egiazkoz, zuzen ditzala eta apaila, harmonia onean eta plangintza jainkozkoetan jar ditzala, horrela jardun dezaten Jainkoagan eta Jainkoagatik.

Orduan, Izpiritu Santuak, ontasun bera denak, aurkitzen duenean ahal duen guztia gizakiak egiten duela bere aldetik, bere argitasunarekin etortzen da, arrazoiarena baino handiagoarekin. Isurtzen ditu bertute teologalak, hala nola fedea eta esperantza, eta beste grazia ere ematen ditu grazia ugartu dadin. Argi hori nonahira zabalduko da barnealdean, beste gauza asko ikusteko, jainkozko diruditen gauzak eta gero hala ez direnak.

Gizakiak, bere atxikimendu ezari esker, gizaki zentzuduna behar luke izan eta noblezia goienekoa duena.

Honetaz gainera, oharturik egon behar dugu beste honi buruz: Jainkoa garbiki bilatzen duen gizakiak estura eta tristura moduko bat nabaritu duela behin baino gehiagotan. Beldur da bere ahaleginak eta lanak alferrikakoak izango ote diren. Honen sustraia inoiz malenkoni tenperamentuan dago, giroan, atsegin ez diren bihotz-hondokotan. Etsaietatik ere etor daiteke, hauek handik eta hemendik bilatzen dutenez hain gizaki nobleen bakea aztoratzea. Horrelakoetan beharrezkoa da guztizko pazientzia edukitzea. Beste batzuk bortxatzen dute beren burua tristura kentzeko, buruko mina sortzeraino. Beste batzuek medikuengana eta Jainkoaren lagunen bila joaten dira aholku eske. Ihes egin nahi duten arren eta beren buruak askatu, larridura handitzea baizik ez dute lortzen. Ekaitz beldurgarri batek ariman eztanda egiten duenean, gizakiak egin beharko luke jendeak euri- eta kazkabar-erasoetan egiten duen gauza bera: aterpean babestu ekaitza igaro arte. Gizakiak ere berdin egin behar luke, egiaz jabetzen baita ez duela ezer ere nahi, ez irrikatu, Jainkoagandik kanpo dagoenik. Tentaldi-garaian eta baretasuna iritsi arte, zuhurtziaz ihes egin behar dio bere buruari den guztia Jaunagana jarritz babestu behar du, larrialdian Jainkoagan itxaronez. Nork daki, non eta nola izango zaion atsegin Jainkoari etortzea eta bere dohainak banatzea! Gizakiak iraun dezala, bada, eramankizun gozoan, jainkozko borondatearen portuan.

Hori onuragarriago izango zaio debozio-argiaz gozatzea baino, loretan dauden bertuteez poztea baino, eta berak kosta ahala kosta gozatu nahiko lituzkeen sentimenduez osatzea baino. Horrelako egoera batean, gizakiak ez dezala Jainkoak nahi duena egitea beste ardurarik izan, natura berekoikeriaz sartzen denez baita ondasun jainkozkoetan ere, hauek direnagatik bakarrik bilatzen direla.

Gustamoldeak nahasten direnean, arima neurritz kanpoko atseginez lohitzen da, Jainkoaren dohainak Jainkoa bera ez direlako, eta guk Jainkoagan bakarrik behar dugu izan atsegina.

Zorigaiztoko natura ziztrina hain da harrapari eta hain dago bere buruari emana, non dena nahasten baitu eta bera ez dena ere bere egiten. Zikintzen eta kirasten baititu Jainkoaren dohain guztiz garbiak, eta galarazten ere bai Jainkoari bere egitatea bete dezan. Jatorrizko bekatuak zizta sartutako pozoia dela-eta, giza natura erabat berebaitaturik bizi da gauza guztietan. Santo Tomasek esaten digunez, aingeruak eta sorkari guztiak. Honek ez du esan nahi Jainkoak natura era honetakoa sortu zuenik. Kutsadurak zainak egin ditu arima-zolan eta maisurik adituenak ere beharturik daude horien jarraipena egitera, errotik ateratzeko. Gogotik arituz eta horretan arreta guztia jarritz ere, doi-doi iristen dira zainak ateratzera.

Askotan faltsukeriazko zolagune bat da izpirituan eta naturan zoritxarrez bizi ohi dena. Ustez Jainkoa den lekuan, han aurkitzen da berekoikeria pozoitsu horretarako isuria; gizakiak bere burua bilatzen du egitate guztietan. Egia-egitan esan zuen Apostoluak: "Azken egunetan une latzak izango dira. Izan ere, gizakiak berekoi, diruzale, harro eta handiputz eta erlijioaren aurkako izango dira" (2 Tm 3,1-2). Profezia honek gure egunotan aurkitzen du bere betea, gaur egun tristuraz begiz jotzen den ikuskizuna baita mundu guztian. Edozein dela giza izaera, sexua, maila; nahiz apaiz, erlijioso-erlijiosa izan, eta berdin sekularra izanik ere. Bakoitzak ezin sinetsizko apeta jartzen du berea ez dena harrapatzeko, zuzenkontra, maltzurki eta bortxaz harrapatu ere. Bakoitzak bere gustuko aitorleak bilatzen ditu eta Idazteunak testu paganoekin iruzkindu nahi ditu. Hemen aipatzen dena azaleko portaera da bakarrik.

Berekoikeria ehun aldiz okerragoa da barne-bizitzan, egiazko ondasuna ematen den hartan. Egia esan, ez da garrantzizkoa gazteluak, lurrak, dirua bertan behera uztea. Bai, ordea, nor bere burua hiltzea, norbere borondatearen indar-lapurketentzat hilik egotea, hildura bizitzea, inoren esku jartzea eta barne-atsegin guztiekiko hiltzea, baita bertuteen fruituekiko ere, edota presentzia jainkozkoaren kontsolamenduekiko. Alde guztietatik natura deika ari da, ohartu gabe deitu ere, eta dena galtzen du naturazko maitasunagatik. Horregatik, gure Jaunak ikasbide on bat adierazi digu jainkozko irakatsietan sendo iraun dezagun, esanez San Pedro Apostoluak gogoratzen diguna: "Izan zaitezte sugeak bezain zuhur" (Mt 10,16). Gogora ezazue batez ere nola Jainkoaren betiereko Semeak, Aitaren jakinduriak, ezkutatu izan dituen beti jakinduriaren distirak konparaketa xumeen azpian. Bera guztiz apala zenez, bere doktrina ere orobat apala eta xumea izan da. Ikus dezagun, beraz, zertan datzan sugearen zuhurtasuna, Jaunak beronen antzeko izatea eskatzen baitu.

Sugea konturatzen denean larrua zahartzen hasi zaiola, ahitzen, usain txarra hartzen, ertza biziko bi harri bilatzen ditu eta bien artetik pasatzen da, harik eta larru zaharra erabat erori eta berria azaldu arte.

Hau da hain zuzen gizakiak egin behar duena naturazko bere izaerarekin. Denik eta handiena eta onena dirudien arren, zarkitua da, akasduna. Horregatik, beharrezkoa da ongi garbitzea, sugea bi harrien artean bezala. Zein dira harri hauek? Bata, betiereko jainkotasuna, egia. Bestea, Jesukristoren gizatasun maitagarria, funtsezko bidea. Bi horien artean gizakiak pasatu behar du eta karrakatu bere bizitza guztia, bere izaera, bere egintzak, zaharkituta aurkitzen duena bertute naturazkoetan edo ohiturazkoetan.

Hau da Pentekoste eguneko gorazarreak kantatzen duena:

Sine tuo numine

nihil est in lumine (testu zaharrean)

nihil est innoxium.

"Zure laguntza gabe/ ez du gizonak ezer/, ez du ezer on denik" (Orixe) Zure jainkotasunik gabe, ez da ezer gizakoirik, ez argirik, ez errugabekorik.

Adibidetarako har itzazue bertuteak, denik eta nobleenak eta finenak direla. Pikorta izpirituzkoez beterik daude, eta pikorta horiek hainbat eta gordeago daude, zenbat eta hobeto

praktikatu aipatu bertuteok. Bertute ohiturazkoek, naturazkoek edo goi-isurizkoek zikintzen eta zahartzen dute izpiritua. Garbitu behar dute Kristo den harrian, eta hemen, desira bizi batez eraberriturik, balio berria har dezatela eta atsegin izan, Jainkoaren begietan. Hau da San Paulok aipatzen duen harri maitagarria. Hau izan da oinarria, zeinen gainean eraiki baita Eliza (1 Kor 10,4). Hau da Jesukristok aipatutako giltzarria (Mt 21,42). Behin eta berriz harraskatu beharra dago harri honen gainean. Hori ez eginik, izan zintezke beste Salomon bat, eta Sanson bezain indartsu; ez dizu ezertarako balio.

Murgil zaitez Kristoren pobrezian, bere menpekotasunean, bere garbitasunean, bere maitasunean. Pasa itzazu Beragandik zure hutsegiteak, zuzen zaitezen eta askatu soilik naturazkoa den edozein bertutetik. Era honetan ematen zaizkio gizakiari Izpiritu Santuaren zazpi dohainak, hiru bertute teologalak, Fedea, Esperantza eta Karitatea, eta perfekzio oro, egia, gozotasuna eta barruko bakea Izpirituagana.

Kristogan aurkitzen da norbera besteren esku jartzea eta eramankizun gozoa, eta hauei esker dena Jainkoagandik hartzen da bihotzeko orekaz.

Jainkoak gizakiarentzat agintzen edo ontzat ematen duena, oinaze-min edo poza, zoriona edo ezbeharra, egiaz balio du gizakia zorionera eramateko. Gertatzen zaion guztia aurrez ikusia da, Beragan aldezturik dago, eta bere betera heltzen da asmo jainkoaren arabera, ez bestela. Honek ematen du bide beldurra galtzeko, edozein gauza gertatzen dela. Bake hau bakarrik ikasten da barruko atxikitasun ezean, izpirituzkoan gauza guztiekiko. Bake hori nahi duenak arima bilduaz bila dezala aurkitzen den hartan: atxikitasun ezean. Beste inon ez dezake aurki. Hori du baieztatzeko eta errotzeko bidea.

Esan dugun hori guztia gizaki nobleari dagokio. Honek uneoro begiaurrean behar ditu eduki beti ere hitzetan, egintzetan, bere izaeran. Litekeen zerbait da. Horra iristen da Jainkoagan bizitzen eta errotzen hasten garenetik. Arima haren irrikaz dagoenean, eta Harengan bakarrik atsedena hartzen duenean. Handik begiratuta, sorkari guztien ezagutza familiartekoa eta argia gertatu ohi da. Garbiturik dago dena. Kristogandik igaro da. Hau da barne-izpirituaren bizitzan jaio direnek eta sendotutakoek egiten dutena, guztizko atxikitasun ezaz.

Zenbat eta gehiago hazten diren eta handitzen, nobleagoa izango da dohaina, handiagoa hori hartzeko gaitasuna.

Jainko guztiz amultsuak lagun gaitzala hori lortzen.

XI

Zerua ariman¹²

"Dakiguna esaten dugu guk" (Jn 3,11)

Gure Jaunak esan ohi zuen: "Dakiguna esaten dugu guk, eta ikusi duguna aitortzen; baina zuek ez duzue gure testigantza onartzen. Nik lurreko gauzak esatean sinesten ez badidazue, nola sinetsiko didazue zerukoak esatean?"

Hitz hauek eguneko ebanjelioan irakurtzen dira, Hirutasun goren, oroz gaineko eta gurgarriaren festaburu beneragarrian. Urtean zehar ospatzen diren jaiak, azken batean, festaburu honetara zuzentzen dira, beronetan denak biltzen direnez. Hirutasun Guztiz Santua da, gainera, gauza guztiek duten mugimenduaren azkena eta helburua, batez ere sorkari arrazoidunena, misterio honi propioki dagokionez hasiera eta azkena izatea.

Ezinezkoa da hitz egokiak aurkitzea misterio guztiz ospetsu honetaz mintzatzeko, nahiz eta guk zerbait esan beharra daukagun. Nola ez dagoen zerua buruarekin ukitzerik, ez dago ere Hirutasun Guztiz Santuko misterio oroz gaineko eta hondo gabekoan sartzerik. Gai honetaz esan edo pentsa daitekeen guztia errealitatea baino mila aldiz beherago geratzen da, hala nola orratz-punta bat zeru-lurren luze-zabalarekin konparatzen bada.

Sortutako adimen orori erabat ezinezko zaio ulertzea nola esentziaz gaineko batasun hura, esentziaz singlea, hirukia den pertsonetan; nola pertsonak bereizten diren; nola Aitak sortzen duen Semea; nola Semea Aitagandik datorren, eta aldi berean, beragan dagoen, izan ere Beragandik jalgitako ezagupenean, maitasunaren ezin esanezko uholdea ateratzen da, Izpiritu Santua dena; nola jalgidura miragarri haiek distiratzten duten Hirutasunaren esan ezinezko atseginean: Hirutasun berean eta esentziazko batasunean. Berdinak Aita eta Semea ahalmenean, jakindurian eta maitasunean. Semea berdin Izpiritu Santuarekin, Aitarekin amankomunean duten esentzia. Hala ere, ez dago adierazterik zenbaterainokoa den pertsonen arteko bereiz-izatea, hauek bata besteagandik datozenean esentziazko batasunean, eta batasun honetara berriro itzultzen direnean guztizko singletasunean.

Gai honi buruz etengabe hitz egingo balitz ere, ezer ez esatea litzateke bereiz izatean ematen den esentziaz gaineko eta oroz gaineko batasuna ulertu nahi bada.

Hobe da misterio hauek sentitzea berorietaz hitz egitea baino. Ez da atsegina horiek aditzera eman beharra edo entzun beharra, ikusiz gure hitzak kanpoko gauzei dagozkienak direla. Hori bera gertatzen da ikusiz nolako aldea dagoen objektuaren aldetik berau urruti eta arrotz zaionez gure adimenari, ezin esateraino. Eta aingeruen adimenaren gainetik dago bestalde. Utz dezagun hau teologiako irakasleentzat eta beste doktoreentzat. Berauen egitekoa da misterio hauetaz mintzatzeko fedearen defentsarako, eta egiaz liburuki handiak dituzte idatziak. Guretzat aski da fede xumea.

Santo Tomasen ustez "Inork ez luke ausartegi joan behar doktoreek esan dutena baino harantzago, doktore hauek, beren bizitzetako duintasunaz, merezi izan baitute Izpiritu Santuak argituak izatea, misterioa adierazi ahal izateko". Ez dago ezer atseginagorik ere misterio hori sentitzea baino, baina ez dago ere ezer arriskutsuagorik horretan bidea galtzea baino. Horregatik komenigarri da eztabaida guztiak alde batera uztea, apaltasunez sinestea eta Jainkoagan geure buruak jartzea. Eztabaidak gera bitez doktoreentzat, hauek orain inoiz baino zorroztasun handiagoa erakusten baitute gai hauetan. Ahalegin zaitezte, beraz, Hirutasuna egiaz jaio dadin zuengan, ez adimenaren langintzaz, baizik eta esentzialki jaio zuen arima-zolan.

Hirutasuna geure barruan kontsideratu behar dugu, eta ohartu ere bai, beraren irudira eginak garela. Egoera naturazkoan aurkitzen da ariman, hau da, Jainkoaren irudi bera da, egiazko irudia, garbia, baina hainbesterainoko bikaintasun eta nobletasunik gabea, nahiz eta irudian agertzen diren pertsona jainkozko horiek berez hala izan. Gure izpirituzko aurrerapena batez ere honetan datza: irudi maitagarri honetaz ohartzea, gure

barruan baitago, era naturazko eta atseginean. Ezin da inor irudi honen nobletasunaz egoki mintzatu, hala nola ez den egokia ere irudi berean dagoen Jainkoari buruzko edozein hizkera.

Teologoek asko hitz egiten dute irudi horri buruz eta bilatu ere bilatzen dute naturaren forma desberdinetan eta esentziazkoa duen hartan. Doktore guztiak bat datoz esatean memoriaren, adimenaren eta borondatearen ahalmen nagusietan aurkitzen dela berez. Ahalmen hauei esker, gai gara gu Hirutasun Guztiz Santua hartzeko eta Beronetaz gozatzeko. Egiazkoa da esakun hau, baina egiaren maila txikiena du berekin, naturan jadanik dagoena errepikatzea besterik ez litzatekeelako. Santo Tomas hurbiltzen da misteriora dioenean, irudi hau ahalmenen arieran besterik ez dela perfekziozkoa. Hau da, ahalmen nagusien egitatean: memoriaren egitatean, adimenaren egitatean, maitasunaren egitatean. Aski du honekin doktore santuak, aurrerago joan gabe.

Beste doktoreek irizpide egokiagoz esan ohi dute Hirutasun Guztiz Santuaren irudiaren barnenean, ezkutuenan, sakonenean dagoela. Arimaren erdigune ezkutuan, han dago Jainkoa izatez, errealitatez, funtsez. Han-hartan egiten du lan Jainkoak, bere izate jainkozkoa zabalduz, bere buruaz gozatuz. Jainkoak ez dauka zolagune hortatik urrutiratzerik, Berak betidanik erabaki duelako ez duela nahi, eta ez daukala ere, handik alde egiterik. Zolagune honek graziaz du Jainkoa naturaz dena. Grazia jaioko da han, gizakiak, erarik nobleenean, zolagune honi bere burua opa dion eta eskutan uzten dion neurrian.

Honetaz ari zelarik, Proklo filosofo paganoak esan zuen: "Gizakia beheko irudiez arduratzen den denbora guztian, ezer gabe gelditu arte arduratu ere, ezin da sinestu zolagunera iritsiko denik. Praktikoki ukatzen ari da arima-zola hori bere baitan duela". Eta gehitzen du: "Badela nabaritu nahi baduzu, ken zuregandik aniztasun oro eta ez beste ezertan jarri zure adimenduaren begiak. Nahi al zenuke gorago iritsi? Arrazonamenduzko asmoak eta gogoetak utz itzazu, arrazoa maila askoz ere beheragokoa baita, eta egin zaitez gauza bat bera Batarekin".

Proklok dioenez, Bata iluntasun jainkozkoa da, ezin minberagoa, sugar baketsua, isila, lotan dagoena.

Lagunok! Lotsatzen eta ahalketzen gaitu pagano batek sakonki egia hau ulertu izanak, gu geu urruti geratzen garelarik, arrotz bezala. Argi eta garbi dio Jaunak: "Jainkoaren erregetza zuen artean baitago jadanik" (Lk 17,21). Hau da, sakonenean, arimako zolagunearen erdigunean bertan, ahalmenen ekintza guztiak baino harago, edota goi-fakultateen egitatea baino harago. Zolaguneari buruz Ebanjelioak esaten digu: "Dakiguna esaten dugu guk, eta ikusi duguna aitortzen; baina zuek ez duzue gure testigantza onartzen" (Jn 3,11).

Halaxe da izan ere! Nola dezake gizaki animaliak, beti sentsualitateari begira dagoenak, kanpoko aldera emanak, zentzuei eta sentiberatasunari adi dagoenak, kanpoko ekintzetan ari denak, nola har dezake testigantza hau? Guztiz ezinezkoa da kanpoko-aldera emanikoek, zentzuentzat eta zentzuengatik bizi direnek, kanpoko gauzentzat eta gauzengatik bizi direnek hori sinestu ahal izatea. Gure Jaunak esan zuen profetaren bidez: "Nola zerua lurraren gainetik garai, halaxe nire jokabidea zuenaren gainetik eta nire egitasmoak zuenen gainetik" (Is 55,9). Jaunak ere gauza bera dio: "Nik lurreko gauzak esatean sinesten ez badidazue, nola sinetsiko didazue zerukoak esatean?" (Jn 3,12).

Nik hitz egin dizuedanean zauritzen duen maitasunaz, esan didazue nire hitzak ez zenituztela ulertzen, eta gauza lurtar bat besterik ez zen hori. Nola irits zintezketen ulerkuntza txinparta bat edukitzera barruko eta jainkozko gauza hauei buruz?

Hainbestekoak dira zuen zereginak, kanpoko gauzetan zaudete beti sartuta, hau edo hura dela, hemendik hara joanez. Erabat zentzuen ondotik zabiltzate. Hemen ez du lekurik

Jaunak aipatzen duen aitormenak: "Guk ikusi eta aitortzen duguna". Arima-zolan garbiki egin ohi den aitormena da, irudirik gabe, Zeruko Aitak Semea sortzen duen hartan, non erlazio jainkozkoak ehun mila aldiz azkarrago osabetetzen baitira begi-klika baino, beti berria den eternitate baten begiradan, ezin adierazizko distiran.

Norbaitek horren bizipena eduki nahi badu, sar bedi bere baitara, zereginetan ari diren barruko ahalmenak baino haratago. Uko egin biezaie kanpoko eragin guztiei eta murgil bedi sakonenean. Aitaren ahala orduan iristen da, gizakia beregana deitzen du, Semearengatik, eta Semea Aitagandik jaiotzen den bezala eta Aitagana itzultzen, era berean gizakia Semeagan Aitagandik jaiotzen da eta Aitagana Semearekin batean itzultzen, Berarekin bat izateraino. Honi buruz gure Jaunak dio: "Ene Aita, deituko ninduzula uste nuen, eta niregandik ez zinela inoiz urrunduko" (Jr 3,19). "Nire seme zara zu; gaur zaitut nik sortu" (Sal 2,7). Izpiritu Santua isurtzen da maitasunez eta esan ezinezko pozez gainezka, eta zoriontasunez blai egiten du arima-zola bere dohain amultsuekin eta bertan finkatzen du bere bizilekua.

Dohain hauetako bik zuzentzen dute gure eginkizuna: pietatearena, honek gizakia errukitsu bihurtzen baitu, eta jakintzarena, honek galbahetzen baitu zer den ongarriena arimarentzat. Horiei dagozkien bertuteek aurrera dagite eta dohainek oraindik gehiago aurreratzen dituzte. Elkar loturik doaz gure pasibitatea hobeagotzen duten dohainak: aholkua eta kementa. Horiekin batera intuzio-dohaina: beldurrarena. Izpirituak sortutakoa gordetzen eta segurtatzen duena. Azkenik, dohainik gorenena, adimenduarena eta jakinduriarena, Jainkoaz beraz gozatzea dakartenez.

Gizaki hauek inork baino gehiago jasaten dituzte etsaiaren tentaldirik zorrotzenak, eta orduan arimak jakintza-dohainaren behar handia du.

Barruko kontenplazio honetan irautea, une bat besterik ez bada ere, hobe da kanpoko egintza eta bizitza-asmo guztiak baino. Arimako zolagune honetan gizakiak bere lagunen alde erregutzen du, hauek biziak izan edo hilak. Otoitz ongarriagoa hauxe, salmotezia esatea baino. Frogak hemen daukagu.

"Izpiritu berberak barrutik aitortzen digu Jainkoaren seme-alaba garela" (Erm 8,16). Gu geuon baitatik dator aitormena, San Joanen gutunak dioenez. Zeru honetan, hau da, barne-zeruan, "testigantza hirukoitza" dago (1Jn 5,7), Aita, Semea eta Izpiritua, hauek zintzoari ziurtatzen diotelarik Jainkoaren seme-alaba dela. Haiek zolagunean egiten dute argi, testigantza sortzen den hartan. Eta Hirutasun Guztiz Santuaren bizilekuak, daramazun desordenaz salatzen zaitu eta argitzen ere bai, nahiz zuk ez onartu. Gehiago oraindik, bizitza osoaren testigantza egiten dute, zuk hala nahi baduzu.

Beraz, testigantza hori orain entzuten baduzu, eta bertan esandakoa bete, barrutik eta kanpotik bete ere, salbatuko zara azken epaiketatik. Ez baduzu onartzen, berriz, eta ez baduzu jartzen zure hitz guztien gainetik, zure egintzen eta bizitzaren gainetik, testigantza horrek zure aurka erabiliko luke azken epaia. Errua zurea izango da, ez Jainkoarena. Nire lagunok, gauzak horrela izanik, zuen baitan iraun ezazue, eta testigantza onar ezazue ardura osoz. Hori izango da zuen poza.

Goitik behera zeharkatu duzu Rhin ibaia, gizaki behartsua izateko asmoz; baina jaisten ez bazara zeure buruaren sakoneraino, Izpiritu Santuari menpekotasun osoa gordez, ez uste izan hori kanpoko egintzen bidez lortuko duzunik. Kanpoko gizakia garaitu baduzu, itzuli zaitez barrura, sar zeure baitan eta bila zolagunea. Sekulan ez duzu aurkituko zola hori kanpoan, gauzetan, egiteko modu batean edo bestean, kanpoko araudietan.

Vitae Patrum idazkian irakurtzen da, gizon ezkondu bat, bere perfekzioaren aurka zeuden gauza guztietatik askatzeko, basamortuan gorde omen zela. Barruko zolagune hori bilatzen zuten bi mila eremutar bere zuzendaritzapean jarri ziren. Haren emazteak ere gauza bera egin zuen eta beste hainbeste emakume zuzentzen zituen.

Bada hemen bakartasun single bat, oroz gaindikoa, misteriotsua, eta iluntasun bat libreki eskuera dagoena, baina zentzuen bidez eskuraezina. Esango didazue: maite dut barne-bizitza duen jendea; pozik lagunduko nieke argitasun-ukitu hau behin edo beste hartu dutenei. Baina, zoritxarrekoak eginkizun zakarren metodoetara arimak aterarazten dituzten haiek. Jainkoaganako finezia beren barruan galtzen dutelarik, zigor-epaia berentzat prestatuz! Gizaki horiek, izan ere, debozio kaxkarreko beren metodoen bidez, besteak irabazi nahi dituzte. Baina gizakien aurrerapenari eragozpen gehiago jartzen diote, garai batean paganoek eta juduek jartzen zutena baino.

Horregatik, zuek, hitz zakarrez eta keinu haserrekorrekin epaitzen duzuenok, saia zaitezte barruko bizitza duen jende finago hori ongi tratatzen. Bestalde, zuk Hirutasuna zeure arima-zolan kontenplatzerara iritsi nahi baduzu, gogoan eduki behar dituzu hiru aholku hauek, arduraz eduki ere.

Ezer baino lehen, garbiki eta bakarrik Jainkoa bilatu gauza guztietan. Haren aintza bilatu, eta inolaz ere ez zeure interes pertsonalik. Bigarren, zure hitz eta egintza guztietan, izan ardura zeure buruaz, gogoratu etengabe zeinen sakona den zeure ezereza, eta gero ez ken une bat ere zeure begiak zeuregan daramazun altxor ezkututik. Hirugarren, ez sar zuri ez dagokizun gauzetan. Bil zaitez sakonean eta ez atera handik. Entzun ezazu Aitaren ahotsa, zeure barruan nabaritzen dena. Dei egiten dizu Beragan, eta halakoa da ematen dizun jakintza, non erantzun baitieziaiekezu Elizako apaiz guztien galderei ere. Hain dira distiratsu argi horiek gizaki argiztatu baten barruan!...

Ahazten bazaizu hemen luze eta zabal hitz egin duguna, gogora beti bi gauza: bata, izan garbiki eta hondoraino apal, barruan eta kanpoan, ez itxuraz eta hitzez bakarrik, egian eta adimenaren oso-osoko ustean ere bai. Ezereza behar duzu izan zeure begientzat arima-zolan, inolako zuriketarik gabe. Bigarren, eduki ezazu Jainkoaganako egiazko maitasuna, eta ez zentzuen araberako maitasuna deitzen diogun hori. Sakoneko maitasuna, Jainkoaren maitasuna ahalik eta barrukoena. Maitasun hau ez da kanpoko eta zentzuekiko ardura singlea, baizik eta asmo kontenplatzailea da, norbere borondatearen sakonenean errotua, ehiztariak tirokatzean bere arreta jartzen duen jo-puntuaren antzera edo zerbait horrela.

Hirutasunak berak lagun diezagula bere irudi biziak egonlekua duen hartako zolagunea aurkitzen.

XII

Drakma¹³

"Zein emakumek zilarrezko hamar drakma izan eta..." (Lk 15,8)

Egun honi dagokionez adierazi dut Ebanjelioaren parte hura, non esaten baita bekatiariak hurbildu zirela gure Jaunarengana. Entzun duzue nola ardi galduaren bila ibili ziren eta aurkitu zuten. Utzidazue zerbait gehitzen hainbeste aldiz aipatu izan dizuedan parabola honi. Gauzak edozein modutara etortzen zaizkigula, ardi apal baten jarrera hartu behar da, gauza horiek ezтики, pasibitatez eta konfiantzaz onartuz. Era honetan, Jainkoaren mende dagoen arima bat izango zara, eta Jainkoaganako maitasunagatik, besteen menpe ere dagoena. Jarrera pasiboa duen arima eta ez erasokorra.

Jainkoa da zu biltzen zaituena; ez eragozpenik jar. Baliatzen da gizakiaz, deabruaz, zeruko edo lurreko edozein sorkariz. Tratu zorrotzez eta eraso gogorrez. Jainkoa da eta ez babestu zeure burua. Eredu guztietan maitagarriena den etsenpluari jarraituko diozu, Jesukristo gure Jaunari, berau izan baita bildots guztien artean eztena. "Moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu" (Is 53,7). Ilea moztuko dizute hitz gogorrekin eta auzibideekin, Jainkoak bilatu nahi zaituen arabera. Honen antzekoa izango zara. Bildots maitagarria izango zara, Jaunak bizkarrean hartzen duena gizatasun jainkotuaren mendira igotzeko, esentziaz gaineko jainkotasunaren sabeleraino, non dena poz betea baita. Hau da beharrezkoena gauza guztien gainetik.

Gainerakoan, egon ziur, Jesukristo gure jaunari, gure etsenplu maitagarriari jarraituz, - eta beharrezkoa da jarraipen hau-, ardi txiki bihurtzen zarenean, gizaki on eta santu zarela ordutik. Baina Jainkoak deitzen bazaitu gizaki noblea izan zaitezen, mendi-gailur guztiak baino gorago dago zuk igo behar duzun gailurra.

Ondoren Ebanjelioak aipatzen du nola emakume batek, drakma bat galdu ondoren, kriseilua biztu zuen eta bilaka hasi zen etxe guztitik. Emakumeak jainkotasuna adierazten du, kriseiluak gure Jaunaren gizatasun jainkotua.

Hiru koalitate dira beharrezko drakma bat, nahiz edozein moneta, emango bada: pisu berdina, dagokion materiala eta behar den irudia. Urrea edo zilarra; hau da txanponaren gai noblea. O drakma miragarria! Arima urrezko drakma da. Neurtu ezina bere balioa, Jainkoaren irudiz ikurreztatua dagoelako. Bere pisua aztatu ezina da. Zerua eta lurra eta hauek daukaten guztia baino aztatu ezinagoa, Jainkoa dagoenez drakma honetan, eta beraz, Jainkoak duen pisu bera du.

Drakmaren ifrentzua goi-isuriko jainkotasuna da, zeina, bere esan ezinezko maitasunaren esentzia gainekoz, izpiritu honetara jaisten baita, berau berriro erabat bereganatuz. Egintza hau kanpora emaniko gizakiak darabiltza bideak baino laburrago eta jasogoetatik egiten da, nahiz eta gizaki hori egile izan edo pasibo, bere praktika, irudi eta forma jakinekin. Kristoren gurutzea daramanean, bertute guztietan honen antzeko izanez, orduan lortzen da egiazko irudia txanponaren ifrentzuan. Baina esentzia jainkozkoan barneratzen denean, ariman dagoen hartan, eta Jainkoagan iraunez eta Jainkoa beregan, orduan Hirutasun Guztiz Santuaren irudia goi-indarrez hartzen du drakmaren gainaldean.

Eska dezala, beraz, Izpiritu Santuaren laguntza, horrela, suaren bidez arima garbituz nahasmendu guztietatik, gero eta gehiago presta dezala urre garbi bihurtu arte. Horrela sarbide hurbil eta meharra izango du, bide zuzena eta laburra baino gehiago; eta sarbide jasogoa ere bai kanpora emaniko gizakiak bidal dezakeena baino, nahiz egile edo pasibo izan hau, eta edozein modutakoak direla berorren egitateak, irudiak edo forma jakinak. Zein da, ordea, bide hau? Erantzuna Ebanjelioak dakar. Emakumeak kriseilua pizten du eta etxea garbitzen du.

Betierako jakinduria da bere jainkozko maitasunez kriseilu hau piztu duena. Sugarra egiaz jainkozkoa den maitasunaren ikurra da, eta pizturik egon behar du eta garra agertu.

Lagunok, ez dakizue maitasuna zer den. Uste duzue baduzuela maitasuna eta esan ere hala esaten duzue Jainkoaren gustu eta kontsolamenduen sentimendu bortitzak bizitzen dituzuenean. Inolaz ere hori ez da maitasuna. Gabezia, biluztasunean eta norbera inoren esku jartzean, gogoak bero eta sutsu egon behar du, berotasun eta pairamen sendoan, eta beti bat izan urtze bat ematen denean eta idortasun bat, betiere berdin jarritz norbera besteren esku, hori da maitasuna. Ez zuek uste duzuen.

Hori da kriseilua pizteak adierazten duena. Ondoren emakumeak, kriseilua pizturik, etxe guztia garbitzen du eta galdutako drakma ardura guztiaz bilatzen. Bi eratako bilaketa da: pasiboa eta ekilea.

Ekilea esan ohi da gizakia denean bilatzen duena; pasiboa, berriz, gizakia bilatua denean. Ekilea, bestalde, bikoitza da baita ere: kanpoko eta barrukoa. Honek kanpoko gaitzen du, zerua lurretik urruntzen den neurrian. Oso desberdinak dira. Gizakiak Jainkoa kanpotik bilatzen du, egintza onak betetzeari emanik, eraskotara gainera, eragin jainkozkoei jarraituz edota Jainkoaren lagunen aholkuei. Jainkoa bereziki bertuteen ariketan bilatzen du, hala nola apaltasunaren, eztitasunaren, moduzkotasunaren, etsimenduaren eta gizakiek landutako beste gauza askoren ariketetan.

Barruko bilaketa, bestalde, hori baino askoz goragokoa da. Honetan datza: gizakia bere zolagunean sartzen da, bere buruaren sakonenean, eta Jauna bilatzen du esan zitzaien eran, hitz hauekin esan ere: "Jainkoaren erregetza zuen barruan baitago" (Lk 17,21). Erreinua aurkitu nahi duenak, erreinua ez baita Jainkoa bere aberastasun guztiekin besterik, eta bere esentzia eta natura, aurkitzen den hartan bilatu behar du, hau da, zolagunerik barnenean, erdigune sakonean, non Bera inon baino barrurago baitago arimaren alboan, askoz ere presenteago arima bere buruarentzat den baino. Zolagune hori bilatu behar da eta aurkitu. Gizakiak sartu behar du bizileku honetan bere zentzuei uko eginez eta sentibera den guztiari uko egin, irudi guztiei eta zentzuek inprimaturik utzitako irudi eta forma bereziei. Irudimenaren eta zentzuen inprimaketak. Bai. Gaitzen ditu arrazoiaren adierazpenak ere, arrazoiaren langintzak, zeinak naturaren legeei jarraitzen baitie eta bere egiteari. Gizakia bizileku honetan sartzen denean, eta han bilatu Jainkoa, Jauna da arima goitik behera aldatzen duena.

Orain esango dizuet zerbait inork ere ulertuko ez duena, nahiz eta ni alemanez ongi mintzatu. Haiek bakarrik ulertuko dute pentsamendu hau: aurre-susmo bat eta grazia-argia eduki dutenek bakarrik. Beste inork ere ez. Bizileku honetan sartzea ez da behin edo beste barruratzea, berehala ateratzeko eta sorkariez arduratzeke. Etxe guztia goitik behera arakatzen da, eta baita Jainkoak gizakia bilatzeko darabilen ekintza ere. Jainkoa presente egiteko dauden adierazpen guztiak, eta edozein motatako forma guztiak, erabat desagertzen dira, Jainkoa etxe honetara iristen denean, barruko zolagune honetan dagoen etxera. Hau guztia bazterrera botatzen da inoiz eduki ez balu bezala. Ideia eta argi bereziak; gizakiak adierazi edo emango zitzaiona; orain arte gizakiari gustatutakoa. Dena erortzen da, Jauna modu honetan arimaren bila sartzen denean.

Naturak ausiabantza hau jasaterik badu, zazpi bider hirurogeita hamar aldiz jasan ere, gau eta egun gainera; gizakiak ahal balu pasiboki hartu egintza jainkozkoak horrela moldatzen duena, askoz gehiago aurreratuko luke horrekin adimenduz eta eskuera argi guztiez beregana dezakeena baino. Ausiabantza horretan, esaneko izanez irekitzen den gizakia, egintza jainkozkoekin harbera dena, gorago igotzen da pentsa daitekeena baino. Inoiz pentsatu edo asmatu izan diren egintza, jardura eta asmo on guztiak baino gehiago. Bai, honeraino iristen direnak, egia esan, denetan maitakorrenak bihurtzen

dira. Hain erraza egiten zaie Jainkoarekiko intimitatea, non begi-klik batean, berek nahi dutenean, bil bailitezke beren barnean, berezko inpresioak baino harantzago joanez.

Baina gizaki gehienek erraz ematen dute amore naturak eraman ditzan, zerbaiti atxikitzea eskatzen duen naturak. Asko eta asko hain uzkur izaten dira beren buruak Jainkoaren esku jartzeko, eta hain dira edozein gauzari atxikitza emanak, non merezi bailukete tratatzea larraina prestatzen den eran. Lurra ez da berdina, gorabeherak ditu, burdina-pala eta eskuarea behar dira, lurra marraskatu eta sendo berdinduko dutenak, ongi lautu eta berdindua geratu arte. Ondoren, jadanik larraina berdin eta tinko geratzean, aski da garbialdi bat ematea. Horiek horrela, badira gizakiak harri zakarrez beteak eta Jaunagan uste onik ez dutenak, hainbestearino non Jainkoa beharturik baitago tentaldi eta oinaze-min askoren erratz gogor eta tinkoa erabiltzera, erakusteko gizaki horiei Jaunak kudeatuak behar dutela izan. Baina gizaki amultsuentzat, beren arimak integraturik eta bat eginik dituztenentzat, garbitasuna inolako zailtasunik gabe egiten da. Orduan iristen dira erabat gizaki maitagarriak izatera, eta aldentzen dira eta urruntzen gauza guztietatik, naturak hauei eranstea nahi duenean eta erants litekeenean. Hondora doaz zuzen-zuzenean, ezertan sustengurik hartu gabe, pobrezian geratuz, biluztasunean eta egiazko utzitasunean.

Laguna! Erabat eta itsu-itsuan zeure burua Jaunagan utzirik, lagako bazenu Jaunak zu bilatzea, uzkailezea eta berak nahi duen eran etxea arakatzea, aurkituko litzateke drakma, fortunaz pozak gaindituko lukeelarik gizakiak uste eta uler dezakeen guztia. Lagun maiteok! Ontzat emango bagenu modu horretan uzkaileak izatea, oso urrutira iritsiko ginatke. Ongarriago izango litzateke guretzat hori, zentzuen bidez mundu guztiak osabete ditzakeen egitasmo guztiak, egintza guztiak eta metodo jakinak baino. Gure Jaunak hala baieztatzen du dioenean: "Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, bere gurutzea hartu eta jarrai beki" (Mt 16,24). Horrela gizakiak uko egin behar dio bere buruari eta inoiz ere ez dio eutsi behar aurrerapena eragozten dionari.

Jainkoaren esku jartzeko errebelde diren gizakiak proba sakonetan erortzen direnean, eta xehe-xehe egiten dituelarik Jaunaren esku sendoak, uste izaten dute dena galdua dela. Tentaldi astun eta gogorak jasaten dituzte, tentaldi izugarriak zalantzaz, tristuraz eta beldurrez. Ez, Jauna, esan ohi dute, dena galdurik dago. Nabaritzen dut kendu didatela argi eta grazia guztia.

Izango bazina gizaki bat zeure baitan ongi apailatua eta Jaunaren eskuetan konfiantza osoa duzuna, ez litzateke izango gauza hoberik zuretzat. Ametsetan ere ez zenuke asmatuko gauza ongarriagorik Jainkoak zure bila eginiko bisitaldiak baino. Sinetsidazu, nahikoa zenuke horrekin; berdinik gabeko bakea biziko zenuke. Jaunak nahi duen eran: itsutasunean, iluntasunean, hotsun edo berotasunean, beharlean, gabezia edo oparotasunean.

Edozein direla Jaunak erabiltzen dituen helbideak zu bilatzeko, zuk utzi harrapa zaitzan. Ene lagunok bide hau jarraitzen duena eta bere burua barrutik eta kanpotik askatzen duena: zer uste duzue egingo duela Jainkoak horrelakoarekin? O, hain gozoro jasoko luke gauza guztien gainetik!

Zuei dagokizuenek, lagunok, ez izan beldurrik. Jaunak era honetan aztertzen dituenak, gizakiak dira hauek ere; ura edaten eta garagar-ogia jaten dutenak bezala bizi dira. Horiek ere portu babestura iristen dira. Eta gorago igo nahi ez baduzue, Jauna egokitzen da zuen ibil-pausora.

Drakmak bere pisu neurtua izan behar du eta ongi ikurkaturik egon. Baina neurri justua ere bai, berriro eror dadin bera ateratako hondo hartara, eta ezer gabe jaits dadila, bere sort-egunean zegoen bezain biluzik eta argi.

Bere irudia oso garbi dago. Antz-bide soila ez da irudi hau; Jainkoaren irudi bizia da. Jainkoa bere esentzia garbi eta jainkozkoan. Jainkoa da bere burua maitatuz, gozatuz, biziz eta egintzak eginez. Arima iristen da erabat Jainkoaren irudia izatera, jainko-kolorez, jainko-formez, jainkozko izatez. Arima graziaz da Jainkoa naturaz dena, estu-estu Jainkoarekin bat egina; eta arimak ikusiko balu barrutik bere burua, pentsatuko luke Jainkoa bera dela. Inori emango balitzaio arima ikustea, usteko luke Jainko beraren kolore, forma eta izaera bihurtu dela. Graziari esker dauka guztia, eta ezagutze jainkozkoak zoriontsu egiten du, jadanik Jainkoa eta arima bat besterik ez direlako. Ez naturaz, bai, ordea, graziaren bat egitez.

Aitzitik, berak hala nahita maitasunetik aldendu denak bere arimaren zolagunea ikusten badu, sorkarien kolorez ikusiko luke. Deabrua den bezalaxe aurkituko luke, izugarri, higuigarri, beldurgarri. Gizakiek ikusiko balute, heriosuhar egingo lukete ihes ikaraturik, hezur-mamietaraino ikarak akiturik. Larritasun berarekin ikusiko du arimak deabrua betieran, heriotzako orduan arimak zolagunea aurkitzen badu, sorkarien esklabo, higuigarri eta deabrua bezain izugarri.

Arima garbia, esanekoa, Jainkoarekin bat dena, antzeko izango zaio betierean; beragan denek aurkituko dute zoriontasuna. Bere baitan Jainkoa bezala ikusiko da, jadanik batasunera iritsi delako, biek Bat egiten dutelako.

Lagunok! Zeinen zoriontsu diren, goien-goieneko zoriontasunez gainera, bide ematen dutenak bilatuak eta aurkituak izan daitezen, halako moduz, non Jaunak bereganaino eramaten baititu eta Berarekin bat egiten, adierazi ezin den moduan. Honek gainditzen ditu horrelakoen zentzuak, adimen oro, esan eta pentsa daitekeena. Nire lagunok, gaindegi honetara iritsi nahi duenak, zintzo jarraitu beharko dio bide honi, ordenaz eta zuhurtziaz. Hau egiten badu, ez da galduko. Baina zentzuetan irauten badu, sorkarietan, eginak izan diren gauzetan, nahitaez atzera geratuko da orain eta beti.

Garraizkiola gu guztiok bide honi, eta Jainkoak, arren, lagun gaitzala.

XIII

Otoitza¹⁴

"Izan zaitezte denok gogo eta sentiera bateko" (1P 3,8)

San Petriren gutunean irakurtzen dugu: "Bihotz batez iraun ezazue otoitzean". Era honetan San Petrik aipatzen du hemen zer den ekintzek duten onuragarriena, gustagarriena eta nobleena. Otoitza da mundualdian egin dezakegun gauzarik ongarrien eta maitagarriena. Beraz, jakin behar dugu zer den otoitza, bere mina, egikera, zergatik egin behar dugun otoitz eta zein den lekurik egokiena otoitzerako.

Zer da otoitza? Otoitz egitea funtsean da nork bere burua Jainkoagana jasotzea arimazolan. Hala esango luteke santuek eta doktoreek. Otoitz lekua arima bera da, Jaunak esan bezala. Nola prestatu nork bere burua eta nolako portaera izan, honetaz hitz egingo dugu orain laburki.

Gizaki jator den orok, otoitz egiterakoan, bere zentzuak bildu behar ditu eta arima-zola aztertu, Jaunagana zuzen dadin garbitasunean. Barneratze honek hiru maila ditu: behekoa, erdikoa, goikoa. On da gizaki bakoitza oharturik egotea zer den gehien komeni zaiona debozio osasuntsu eta benetakoenera igo dadin, horretara laguntzen duen bideari jarraituz.

Baina ez duzue ahaztu behar gizaki jatorrak, benetan eta behar den bezala otoitz egin nahi badu, bere erregua egiaz entzuna izan dadin, ezer baino lehen atzea eman behar diola mundualdiko gauzei, jainkozko ez den guztiari, lagunak izan edo arrotzak, janzkien harrokeria, jostailuak, edota Jainkoak garbiki eskatzen ez duen beste edozein gauza. Beharturik dago, gainera, bere hitzetatik eta bere portaeratik aienatzera barruko eta kanpoko desordena oro. Hau da bidea gizakia presta dadin egiazko otoitza egitera.

San Paulok esaten duenean otoitz egiten duenak arima bateratua behar duela eduki, honek esan nahi du bihotza Jainkoarekin baturik behar duela eduki bete-betea eta berarekin bakarrik; gizakiak bere zolagunearen eta bihotzaren begirada Jainkoagana erabat zuzendu behar duela eta Jainkoari atxiki bihotzez eta batasun oparoz.

Lagunok, Jainkoagandik datorkigu daukagun guztia. Beraz, bidezko da Jaunari berriro itzultzea Beragandik jasotako guztia: barruko begirada, Beragana bakarrik zuzendutako bihotza, ezerekin eta inorekin erdibanatu gabe, egiaz bat den bihotza. Era honetan gizakiak zabaldu behar ditu bere barruko eta kanpoko ahalmenak, eta denak Jainkoagana jaso. Hau da benetako otoitz-metodoa.

Ez dezazuela uste, otoitza datzala ahoz-kanpoko xuxurlatzean, salmo-sortak, eskariak esatean, eta errosarioa errepikatzean, bihotza galduta dabilen artean. Gogoan har ezazue hau: otoitz-formula guztiak eta egintza guztiak, bihotzez otoitz egiten uzten ez badizute, alde batera utz itzazue, edozein direla pietatezko praktika horiek, izen bat edo beste zuek ematen diezue, denik eta handienak eta onenak zuei irudititu, non eta "Orduak" ez diren behintzat, hauetara Elizaren legeak behartzen zaituztenez. Hauek izan ezik, gainerakoak bazter itzazue, zuretzat eragozpen izan daitezkeenez benetako eta egiazko otoitza egin dezazun.

Behin baino gehiagoan gertatu ohi da, arrazoiaren batengatik, elkarte bati otoitz luze eta neketsua ezartzen zaiola. Nola jokatu behar du gizaki batek horrelakoetan, gizaki honi ahozko otoitzak, bere kanpoko egiteekin, barruko otoitza galarazten badio? Aldi berean behar du egin, eta ez egin, otoitz hau. Nola? Lehenik, bere baitan bildu behar du, arimazolara itzuli, bihotza jaso, bere goi-ahalmenak aurkitu, Jainkoaren presentzia barruan kontenplatu, borondate amultsu eta jainkozkoa denen gainetik egin dadila nahi izan, bere buruarekiko eta sorkari guztiekiko lotura hautsi eta sakonago murgildu. Jainkoaren borondate ospetsuan. Hau egin ondoren, ahalegindu behar du borondate horretan biltzen gomendatu zaizkion intentzio guztiak, desiratuz Jainkoak bete dezala bere aintza eta goralmena bere esku utzitako jendeen ongari eta kontsolagarri. Lagun maite, hau

eginez gero, askoz hobeto otoitz egingo zenuke milioi bat errezo ezpaineekin esanez baino.

Adimen-otoitza ahozko otoitz guztien gainetik dago, Aitak nahi duelako gizakiek horrela gur dezaten bera eta gainerako errezu guztiak ez dira izpirituaren otoitzerako bide baizik. Dena otoitzaren zerbitzurako dago, eta honetarako laguntzen ez duena utz ezazu behingoz alde batera.

Begira arretaz katedral baten eraikuntzan ari diren guztiei. Lan desberdinak dira egiten direnak. Baliteke han ehun baino langile gehiago aritzea, eraikuntzari emanak, era desberdinetan zerbitzu eginez. Batzuk harri-garraio, besteek kare-orea dakarte, bakoitzak bere zereginaren arabera, baina denak etxea eraikitza zuzenduak. Honek ez du otoitz-etxea izatea beste helbururik. Otoitza da langintza miragarri horren arrazoia. Era berean, gainerako metodo guztiak otoitzera daude zuzenduak, Jainkoarekin bat egitera. Barruko otoitza egiten bada, egiazko otoitza, horretara daraman guztia ongarri da, lortu du bere helburua.

Gainerakoan, esan dudanez, barruko otoitza goragokoa da kanpokoa baino, non eta bat ez dagoen hain ongi trebatua ezen elkar baitezake kanpoko otoitza barrukoarekin, inolako eragozpenik gabe gainera, batera eginez eta gozatuz. Hau gizaki bikainen berezitasuna da, ongi barneraturik eta antzaldaturik daudenena; hauetan bat eginik doaz otoitza eta poza, bata bestea eragozten ez duela. Otoitz bat eta bestea goieneko mailara jasorik daude bizitasunean, tarterik gabe.

Jainkoagan pertsonen dagokie hain zuzen ekintza, eta poza berriz ezartzen zaio esentziari sinplizitatean. Zeruko Aita, bere pertsona-berezitasunez, ekintza hutsa da. Beragan den guztia ekintza da. Izan ere, bere burua ezagutuz, bere Seme maitea sortzen du, eta bata eta besteak betiereko besarkadaz, Izpiritu Santua dute arnasten. Hau da pertsona jainkozkoen betierako eta egiazko ekintza.

Jainkoagan bada baita ere aseitatea eta esentziaren sinplizitatea. Ez da poz baketsu eta singlea besterik, esentzia jainkozkoaren gozamenen. Jainkoagan gauza bera dira ekintza eta gozamina.

Era berean, Jainkoak egitate bat eman dio sorkari guztiei berak duenaren antzekoa: zeruari, eguzkiari, izarrei eta maila jasoagoan aingeruei eta gizakiei, bakoitzari bere izate bereziaren arabera. Ez dago inon loretxorik, ostu txikirik, belar izpirik, berorietan zeru zabalak, izarrek, eguzkiak, ilargiak beren eragina ez dutenik. Eta bereziki Jainkoaren ekintzak. Nola, bada, gizakia, sorkari noble eta duina, Jainkoaren irudira egina, ez da izango ekilea, Jainkoagan eratua izan denez dituen ahalmenetan, eta esentziaz bere antzekoa ere badenez? Gizakiaren egitateak nobleagoa behar du izan oraindik arrazoirik gabeko sorkariena baino, hala nola zeruena, beheragokoak direnez gizakia baino Jainkoarekiko kidetasunean. Dela bizitza kontenplatiboan, dela ekintzazkoan, edozein bizitza-motan aurkitzen dela gizakia, ahalmen guztiei esker, behekoenak izan edota gorenekoenak, gizakia ekilea da. Honen ahalmen bakoitzak bere objektua du. Jainkoarena izan edo sorkariena, ahalmenak objektu horrengan egiten dute lan, aurkezten zaienaren naturaren arabera.

Baldintza horietan, modu honetan jarduten duenak, hau da, bere ahalmenen objektuak jainkozkoak eginez, atzea emango lieke mundualdiko gauza guztiei, eta ikusiko luke bere egintzak jainkozkoak egiten direla. Jesukristo gure Jaunaren arima noble eta gurgarriak beti izan ditu, sortzetiko une beretik, ahalmen goragokoak, objektiboki jainkotasunera zuzendutakoak. Hasieratik izan zuen orain duen zorion eta poz bera. Beheko ahalmenek, bestalde, har zitzaketen bihotz-zirrarazko eta oinaze-mineko beste eraginak. Poza, ekintza eta pasibitatea nahasian dituen bizitza bat zen. Gure Jaunak gurutzean sofritu eta hil zenean, bere goi-mailako fakultateetan orain gozatzen duen poz bera zegoen. Beraz, gure Jaunaren antz-bidean jarraitzen dutenak, zoriontasunik

handienez jarraitu ere jainkozko gaietan, non gauza bera baizik ez baitira ekintza eta poza gai horietan, jarraitzaile horiek izango dira han goian antzik handiena izango dutenak betiko eta funtsezko zoriontasunean.

Nire lagunok, kalte ikaragarri handi eta hilgarria egiten dute egintza hau mesprezatzen dutenek eta beren ahalmen nobleak erabiltzen ez dituztenek. Berealdiko arriskuan bizi dira. Horrelako gizakia bere bizialdi ederra galtzen ari da. Neurri gabeko sumindura merezi du, eta purgatorioko su jasangaitza ere bai, betiraunderako ez daukalarik betiereko sariaren zatitxo bat besterik. Bere zoria gizon kaskail batek duenaren antzekoa da, zeinari ez baizaio biderik ematen Erregearen jarraigoan parte hartzeko, ez Erregearen etxera hurbiltzeko. Gizaki arinek eta kanpora emanek mila aldiz gaitasun gutxiago dute beti, ikusteko nola Jainkoaren lagun noble eta bihotzekoak biziko diren beti Jaunaren ospean. Nagiak direlarik, barruan eta kanpoan Jaunagandik at bizi dira eta etengabe egokiera ematen diote etsaiari beregan sarrera izan dezan.

Itzul gaitezen orain geure helburura. Gizakia Jainkoaren antzeko da, ekintza eta gozamenak une berean bat egiten dituenen. Hau gertatzen da barne-gizakia muin-muinean bat egiten denean Jainkoarekin, ezin askatuzko eran bat egin ere, bere garbitasunagatik eta asmo sakonagatik. Jainkoaganako ohiko desira hau ez da hori esandakoan eskuarki ulertzen dena; desberdina da, korrika egitea eta eserita egotea desberdin diren bezala. Ohartzea bezala da Jainkoa arima-zolan han dagoela eta Jainkoa biziki desiratzea. Barruko ohartze honek gozamenak damaio gizakiari eta borondate onaren eraginpean kanpoko egintzetan saiatzen da, behar-izanen arabera. Baina barne-oharpenetik ez da ateratzen berriro itzultzekotan ez bada. Hau da modua, barne-gizakiak kanpoko eskutik, lotu-lotu eginik, eramateko. Argin-maisuak egiten duenaren antzeko zerbait da: honek bere esanetara ikasle eta langile asko dauzka; bera zuzenean ez da ari lanean, gutxitan agertzen da lantegian, berehala zirriborrotzen du egintzaren plangintza eta erakuntza, gero bakoitzak bete beharko duena. Zuzentze eta maisutza hauek nahikoak dira uste izateko berau dela langileek egindako lan guztiaren autore. Aitortzen zaio berea dela egintza, eman dituen agindu eta adierazpenei esker, eta lana bereagoa du, egin dutenetako edozein langilerena baino.

Horixe eta bera egin ohi du gizaki barnekoi eta antzaldatuak. Barru-barruan bere gozamenen dago, eta hala ere, bere zuzentzearen argiari esker, begi-kolpe batez gainbegiratzen ditu kanpoko ahalmenak eta bakoitzari jartzen dio bere zeregina, horrela puntu bat, denik eta txikiena izan, gelditzen ez delarik helburu berera norabidetu gabe. Esan daiteke hemen egintzarik desberdinenak batasun batean biltzen direla.

Modu honetan berean, Eliza Santuan ere bada ordena-batasun bat, gorputz mistikoa izena justifikatzen duena. Gorputz izpirituzkoa, zeinaren burua Jesukristo baita, gorputz-atal askorekin. Bada begi bat gorputza ikusten duena baina bere bururik ez; bada aho bat gorputzarentzat eta edaten duena, ez ordea bere buruarentzat. Eta era horretan eskua, oina, eta gainerako gorputz-atalak. Bakoitzak bere egitekoa du, eta guztiak gorputz bakar eta bakan batenak dira, buru bakar baten azpian. Modu honetan berean, Kristau-herrian ere ez dago egintzarik, denik eta txikiena denik, hala nola txilin baten hotsa edota argi-mutil baten gartxoak, barne-bizitzara atxikita ez dagoenik.

Nire lagun jatorrok, gorputz mistiko honetan, gorputz izpirituzkoan, solidaritate handia behar da izan, gorputz-atal desberdinen artean ematen dena, ikusten duzuenek. Bakar batek ere, bakarrik ez dagoenez, ez diezaieke kalterik egin besteei, baizik eta denekin bat egin, han-hartan direlarik denak bakoitzarentzat eta bakoitza denentzat.

Beraz, gorputz mistikoan ezagutzen badugu norbait geuk baino noblezia handiagoa duena, estimu handiagoa eduki behar diogu geure buruei baino. Hala nola besoak eta eskuak babesten dituzten burua, bihotza eta begia beren buruak baino gehiago. Era berean, Jainkoaren gorputz-atalen artean ere hain berezko maitasun bat behar litzateke

agertu, non ongi-nahizko maitasunez poztuko baikinake gure senideetako baten ongiagatik, hala nola egingo gukeen buruarekin, gizakiaren atal duinenarekin. Jaunak nahi duen guztia neuk gogoan hartu behar dut nirea balitz bezala. Nire senidearen ongia neurea baino maiteago dudan unetik, ongia hori egiaz nireagoa da harena baino. Gaizkirik baleuka, hori harekin geratzen da, baina nik beragan maite dudan ongia egiazki nirea da. San Paulok gainezkaldi bat izan bazuen, Jainkoa izan zen hori harentzat nahi izan zuena eta ez niretzat. Baina neuk Jainkoaren borondatean gozatzen badut, gainezkaldi hori maiteago dut San Pauloren baitan neure baitan baino; eta San Paulorengan egiaz maite badut, bai gainezkaldia, bai Jainkoak Apostoluari emaniko guztia, nirea ere bada, nik neuk nire baitan gertatuko balitz bezala maitatzen dudanetik. Disposizio berberak eduki behar nituzke itsasoz bestalde aurkitzen denarentzat ere, nahiz eta etsaia izan. Hau da izpirituzko gorputzari dagokion solidaritatea. Horrela, aberastu naiteke Jainkoaren lagun guztiengan -zeruan eta lurlean- dagoen ongiarekin, eta burua den harenarekin ere bai.

Buruari eta gorputz-ataleki dagokien ongia, zeruan eta lurlean, aingeruei eta santuei dagokiena, hori guztia niregan ere egiaz eta izatez gertatuko litzateke, baldin eta buru noblearen azpian, maitasunak bat egingo banindu Jainkoaren borondatearekin eta era berean gorputz izpirituzkoaren beste atalekin. Nagusiarekin bat bera egindakoa, nik neuk beronen forma jantziko dut eta nirea kendu egingo dut.

Egiaz diot. Gauza erraza da hemen antzematea maite dugun Jainkoa eta honen borondatea, edota maite ditugun geure buruak eta zenbateraino dugun maite geurea. Askotan urrea dirudiena ozta-ozta da burdingorria. Egiaz uko egin diotenak, behar den bezala egin ere, norberaren onurari, horiek dira benetan gogoz behartsu direnak, nahiz eta gauza guztien jabe izan.

O, lagunok! Maitasun bat, beti bera dena, alaitasunean edo oinaze-minen artean, gutxitan aurkitu ohi da jendearen baitan.

Mintza gaitezen orain barne-bizitzaren hiru mailei buruz: beheko, erdiko eta goikoari buruz.

Lehenengoa, barne-bizitza bertutetsuarena, eta zuzenean Jainkoagana garamatzana, honetan datza: gizakiak bete-betea eskaintzen diela bere burua Jainkoaren dohain ezin esanezkoak agertzen dituzten egintza miragarriei, non Jainkoa zabaltzen baita bere borondate misteriotuan. Hortik dator arima-egoera bat geuk pozkario deitzen duguna.

Bigarrena, arimaren pobrezia da eta Jainkoagandik urruntzea, bi hauek izpiritua uzten dutelako gabezia mingarrian.

Hirugarrenak jainko-antzeko izate batera jasotzen gaitu, bat eginik sortutako izpiritua, bere baitan irauten duen Jainkoaren izpirituarekin. Egiazko bihotz-berritzea dei dakiok honi, eta sinestezina da maila honetara iristen direnak banakatu daitezkeela Jainkoarengandik.

Lehengo mailara, pozkarioarena, iristen da arretaz gogoratzen ditugunean maitasun-testigantza gozagarriak, Jainkoak agertu dizkigunak zeruko eta lurreko miragarrietan. Hobarien ugaritasun miresgarria Berak guri opari eman diguna, guri eta sorkari guztiei, gogora ekarri nola dena loreten den eta berdeberritzen, nola dena Jainkoz beterik dagoen, nola Jainkoaren ezin pentsatzeko libereatasunak zabaldu dituen bere aberastasunak sorkari guztietara, nola Jainkoak bilatu duen, onik eraman eta hornitu gizakia, nola Berak dei egin dion eta gonbita luzatu, eta nolako onberatasunez itxaroten duen, nola gizakiarekiko maitasunagatik Bera ere gizon egin den, nola sofritu duen eta nola gure alde eskaini duen bere bizia, bere arima, eta bere izate osoa, eta nolako intimitate harrigarria Berarekin edukitzera egin digun dei, eta nolako eskuzabaltasunez Hirutasun Guztiz Santuak itxaroten duen gizaki hau, beroni Bera dena eskaintzeko betiereko pozaldian.

Gizakiak, beronen begirada amultsua gauza guztietan sartzen denean, nabaritzen du ariman alaitasun handi eta bizia jaiotzen zaiola. Miragarri hauen maitasun-begirada garbiak gainezka eginarazten dio bihotzari, halako atseginez, non bere gorputz ahulak ez baitezake barruan gorde gertakari ikusgarrietan lehertzen den alaitasuna. Horiek gabe, odola aterako litzaioke ahotik, inoiz gertatu den bezala, edota gizaki honek nabarituko luke lehertzen ari den zapalketa handi baten azpian. Era honetan gure Jaunak gozotasunez betetzen du eta besarkada samurrez, Bera bat egin zaio bestetan inon ematen ez den eran. Horrela Jainkoak hasieratik Beraganaino erakartzen du gizakia, gonbidaketa egiten diolarik bere baitatik atera dadin eta biluz dadin antzeko ez zaion guztitik.

Inor ez dadila ausart Jainkoaren seme-alabak oharkabetzen aktibismoaren zorabiora eramanez edota multiplizitatean sartuz praktika arrunten zama astunegiaz eta kanpoko egintzez. Seme-alabok gal ditzateke. Lekaide-buruak ez du zertan galdetu nora joan den korutik atera den anaia, kantua bukatu eta gero, non eta ez den seriotasun gutxiko gizona, bere egitez eta jokabidez zaintzea behar duena.

Behinola gure Jaunak bere jainkozko musua eskaini zion lagun bati, eta gizakiaren izpirituak erantzun zion: egia-egiaz, gure Jauna, ezesten dut hori, zeren eta zure musuaren alaitasunak nire onetatik aterako bainau, eta gehiago ez natzaizu izango baliagarri. Nola jarrai maiteke otoitzean zuen arimen alde, hauei lagunduz purgatoriotik atera daitezen, eta eskatu bekatarien alde? Ez hildakoek, ez bekatariek laguntzen diete beren buruei. Gure egitekoa da horiei laguntzea, mundualdian bizi garenona. Jainkoak ez dezake ezer egin horien alde, geure laguntzarik gabe, haren zuzentasunak ordaintza eskatzen duenez. Jainkoaren lagunak dira, hain zuzen, mundualdian bizi direnak, etengabe horien alde lana egin behar dutenak.

Nolakoa izango ote zen gizaki haren maitasuna, arrazoi noble horrengatik uko egin nahi izan baitzion hain kontsolamendu handiari!

Bigarren maila dator orain. Jainkoak gizakia sortutako gauza guztietatik urruti eraman duenean, eta jadanik umea ez denean gizakia. Gozotasunaren adorez sendotutakoan, zekale-ogi guztiz gogorra ematen dio jaten, heldutasunera iritsi delako. Adineko bati janari sendo eta bortitza baliagarriagoa zaio. Gehiago ez du esnearen eta ogi zuriaren beharrik. Basamortuko bide bakartia zaio zabaltzen, eta bide honetan Jainkoak kendu egiten dio lehen opari eginikoa. Hain bere kabutan geratzen da non ez baitaki ezer, ez eta ezertxo ere, Jainkoari buruz. Halako larritasunera iristen da, non zalantzak baititu inoiz egon izan den bide zuzenean, Jainkorik baden berarentzat edota ahaztu egin duen bere sofrikario sakonetan. Hain da larria bere oinazea, non iruditzen baitzaio lekuaren zabaltasunak itotzera daramala. Ez du beste sentimendurik Jainkoaganako, ez daki gehiago ezer beroni buruz, gauza guztiak higuigarri zaizkion bitartean. Bi hormaren artean sarturik balego bezala da, ezpata atzean eta lantza zorrotza aurrean.

Zer egin dezake? Ezin du ez atzera eta ez aurrera jo. Eser bedi eta esan beza: "O Jainko, agurtzen zaitut zu, mingostasun garratza, grazia guztiez betea".

Bete-betea maitatzea eta maitatzen den ondasuna kentzea frogatzen gogorragoa iruditzen zaio infernua baino, munduan infernurik izatea balego. Gizaki honi orduan esan dakiokkeen guztiak kontsolatu ohi du harriak bezala. Sorkariei buruzko hizketatze oro nekagarri egiten zaio. Horrelako biluztasunean sentitzen diren garraztasuna eta oinazea hainbat jasangaitzago gertatzen dira, Jainkoaganako oharpena eta sentimendua handiak eta sakonak izan direnean.

Jo aurrera. Izan bihotz! Ziur asko Jauna oso hurbil dago. Tinka zaitez fede guztiz bizi baten zutabea. Berehala dena oso ongi joango da.

Oinaze-minen artean arima gaixoak ezin du sinestu ilunpe jasangaitz horiek sekula argi bihur zitezkeenik.

Ondoren, Gure Jaunak gizaki hau barren-barrendik prestatzen duenean zapalketa jasangaitzez -izan ere horrelako zapalketak hobeto prestatzen baitu, gizaki guztiek izan ditzateken praktika guztiak baino-, orduan Jauna dator eta arima hirugarren mailara darama. Han jasotzen dio begietako estalkia eta egia agertzen dio. Une honetan eztanda egiten du eguzki distiratsuak, eta honek bere samindura erabat ezabatzen du. Larridurak, behar gorriak, ezbeharrak aienatzen dira eta iruditzen zaio heriotzatik bizitzara igaro dela. Orduan, Jaunak arima bere baitatik aterarazten du eta Beragana jasotzen. Han arintzen du arima ezbehar guztietatik, eta beronen zauriak sendatzen. Orduan Jainkoak egiten du gizakiak antzalda dezala gizakieran argi dago horrela bizitzeko modua, Jainkoeran bizitzeko. Hondamen handienetik Jainko beraren gozamen paregabera igarotzen da.

Maila honetan, hain jainkotua geratzen da gizakia, non bere izate eta egitate guztia Jainkoa bera baita gizakian ari dena. Hain dago goratua bere naturazko molde guztietatik, non graziaz iristen baita Jainkoa naturaz esentzialki dena izatera. Hemen-honetan gizakiak uste du, eta sentitzen ere bai, galduta dabilela. Ez daki, ez du gozatzen, ez du sentitzen ezer bere buruaz, eta ez da ezertaz ohartzen, zatiketarik gabeko izate bat denaz besterik.

Lagunok, honaino iritsi izana da, egiaz ukitzea benetako beheratze baten zolagunerik sakonenak. Ezerezte bat da, ez zentzuek ez adimenak ulertu ez dezaketena. Hain zuzen ere, hemen jabetzen da bat, egiazki jabetu ere, ezereza baizik ez dela. Eta hemen beheratzen da ahalik eta sakonena apaltasunaren zolagunean, izan ere zenbat eta gehiago beheratu hainbat eta gehiago goratzen baita. Altuera eta sakontasuna hemen gauza bera dira.

Gerta baledi orduan gizakia, era batera edo bestera, altura hartatik erori dela harrotasunaren sentimendu batengatik, ondasun jainkozkoa nolerebait ebasteagatik, eroriera ziur aski Luziferrenaren parekoa izango litzateke.

Otoitzean ari den arimaren batasunari esker, San Petriren gutunak horretaz dioenaren arabera, iristen gara egiaz Jainkoa bezala egitera.

Hala gerta dakigula guztioi eta horretan Jainkoak lagun gaitzala.

XIV

Galduak¹⁵

"Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa" (Lk 10,27)

Fariseu batek, gure Jauna probatzeko asmotan, galdetu zion zer egin behar zuen ondareztat betiko bizia jasotzeko. Gure Jaunak galdegilea eraman zuen beronen mintzamolde eta irizpidera. Erantzun zion: "Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?" Hark erantzun: "Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz".

Nire lagunok, gizon honek ez zuen bilatzen ez Jainkorik ez betiko bizitzarik; bere asmoak ez ziren leialak. Tamala! Fariseismoa hain dago zabaldurik munduan! Erlijiotasunaren itxurakeriak! Horien ustez, fedea hitzetan eta egintzetan dago, eta itxura hobe eman, sonatuagoak izan eta ospetsuagoak. Gauza hauek guztiek, denik eta duinenak direla emanik ere, ez dute ezer balio Jaunaren begi aurrean. Efektua kausaren baitan dagoen bezala, egintzek ere balio dute egileak duen asmo sustraiari esker.

Badago hor barruko fariseismorik, lagunok. Edozein gauza dela gizaki fariseutarrak dagiena, norberekaikeriatik dator beti. Horrela jokatzeko zenbait erlijioso-erlijiosek, hauek, hala ere, uste dutelarik onenak direla Jainkoaren aurrean. Hauen egintzak hurbiletik ikusitakoan, otoitza dela edo beste edozein ekintza, funtsean norberekoikeria besterik ez dago. Gauza guztietan beren interesa bilatzen dute, ohartzeke ere. Nekez dago desberdintasunik horrelako pertsonen artean. Gauza handiak eta ederrak egin ohi dituzte, indulgentziak irabazten ahaleginak egiten dituzte, otoitz egiten dute, bularra jotzen ere bai. Irudien aurrean geratzen dira beren gustamoldeak asetzeko, elizaz eliza doazelarik hiri guztian zehar.

Jainkoa inolaz ere ez dute aintzat hartzen horien egintzek. Hauen asmoak eta sentipenak sorkarrietan oinarritzen dira. Ohartuki eta berariz beren gustamoldeak bilatzen dituzte, beren etekina, beren erosotasuna, atsegina eta onura barruan eta kanpoan. Oso urruti daude egintzetan Jaunaren agindua betetzeko: Jainkoa maitatzea bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz. Hauen egintzak ez dira aintzat hartzen Jainkoaren aurrean.

Badira beste batzuk hobexegoak. Aitortuz beren hutsegitea, atzea eman ohi diete lehen bidegaltzei. Beren erlijio-bizitza, hala ere, zentzuetan oinarritzen da. Ez dakite irudimena alde bat uzten. Askotan gogoratzen dute Jesukristoren gizatasun gozoa, honen jaiotza, bizitza, nekaldia eta heriotzako gora-beherak. Atsegin handia dator ondorioz eta negar-malkoak isurtzen dira Rhin ibaian zehar doazen untziak bailiran. Bihozkada sentiberak, besterik ez. Hau da Homilien Lorategian maitasun haragizkoa deitzen zaiona, baina neuk nahiago dudana maitasun sentibera deitzea. Honekin adierazten da pertsona horiek gogoratzen dutela gure Jauna burutik oinetaraino; zentzuekin eta irudimenarekin bakarrik ordea. Jende hau gehienbat erakartzen duena zenbait jaierakiko gozoa eta sentimendua dira, egiaz jainkozkoa den maitasunak baino askoz ere gehiago. Oraindik hor dituzte fariseismoaren aztarrenak. Beren egintzetan gehiago pentsatzen dute Jaunagan baino, zeinari zuzentzen baitzaizkio egintza horiek. Beren gustamoldeak eta erosotasunak lehenago jartzen dituzte arreta eta asmoen erdigunea izan behar lukeena baino. Azalekoa nahiago izaten da funtsa baino, bidea helmuga baino, kanpoko barruko baino. Hain daude kanpokoari atxikirik, non guztiz txikia baita Jainkoaren parte beren asmoetan. Hain loturik doaz horiengan maitasun naturazkoa eta Jainkoaren maitasuna, non nahasi egiten baitituzte maitasun jainkozkoa eta berekoikeria. Ziur aski ongarriago izango da gizakiarentzat ahal duen guztia egitea, kontsolamendurik gabe gainera. Hobeto ezagutuko luke bere burua.

Hala ere, Jainkoak nahi beza ez daitezela eskas mota honetako jendeak, horien bizitzeko eta sentitzeko modua gora-behera.

Gatozen berriro guretzat hartu genuen maitasunaren gaira. Hiru mota bereizten ditu San Bernardok: maitasun biguna, maitasun jakintsua, maitasun sendoa. Hiru motatako estatuekin konparatzen badugu hobeto ulertuko dugu. Lehenengoari dagokio zurezko estatua bat ongi erreztatua. Bigarrenari zilarrezko beste bat. Hirugarrenari urre garbikoa. Maitasun biguna zurezko estatua da; zilarrezkoak maitasun jakintsua adieraziko du. Maitasun sendoak urre garbiaren antza du.

Zurezko estatua maitasun biguna da, sentibera, irudimenezkoa. Atseginez begiratzen zaio ederra bada, ongi zizelkatua eta erreztatua. Urrea joaten zaionean, huskeria da balio duena. Gauza bera gertatzen da irudimenaren maitasun bigunarekin, asmo onez erreztatuarekin. Asmo onak joanez gero, gutxi balio du, zentzuentzat bakarrik da atsegin. Dena den, Jainkoa gozamenaz baliatzen da gizakia erakartzeko eta bertutearen praktika gogorragoetan trebatzeko. Gustamolde eta kontsolamenduen bidez Jainkoak eragiten du ariman sor dadin egiazko maitasuna. Jaierarekiko gustuak itzal dezake gizakiak sorkarietan aurkitzen duen atsegina. Grazia hau gizakiak ez du arbuia behar, baizik eta begirunez eta apaltasunez onartu, norberaren txikitasunari eta koldarkeriari erantsiz Jainkoak horrela tratatu izana. Irudimenaz baliatu behar du grazian hazteko eta bere burua gaintzeko. Ondoren, kanpoko eta sentiberatasunezko praktikatik igaro bedi barruko deboziora. Sar bedi bere baitan, hain zuzen Jainkoaren Erreinua sakonenean dagoelako. Badira gizakiak oso trebeak direnak irudimenezko praktiketan, atsegin handia hartuz berauetan, baina ez dira sartzen arimaren muinera, burdinazko mendia dirudielarik arimak, biderik gabea, barrurako sarrerarik ez duena. Hau gertatzen zaie trebatzen ez direlako, eta baita ere gizaki horiek gehiegi laketzen direlako irudipen sentiberetan. Hauei indartsu eusten diete eta ez dira aurrerago joaten. Saiatu ere ez dira saiatzen zolagunera iristen, egiazko biziak distiratzten duen hartara. Ezin da bi nagusiren morroi izan: zentzuena eta izpirituarena.

Ondoren, maitasun jakintsua dator, hau da, izpirituan oinarritzen dena. Nire lagunok, maitasun miresgarri hau urruti dago lehenengo hartatik. Estatua erreztatuarekin dugu konparatu. Hain ederra eta hain handia, non bera bakarrik aski bailitzateke eliza bat edertzeko. Arrazoizko maitasun noble eta jakintsua ere gauza ospetsua da, preziagarria eta gustagarria. Zaude adi eta ikusi nola eskuratu behar duzun.

Ezar ezazu zeure funtsezko bulkoa gaintzen gaituzten gauzetan. Zure gogoeta zen irudikatzea Jesukristoren denborazko jaiotza, beronen bizitzako zertzeladak, eta orobat egintzak. Sar zaitez orain barrurago, betiereko jaiotzan. Gogora ezazu nola Hitza, Aitagandik jaioa, Hasiera ez bezalakoa den, eta Hasieran dagoen. Nola Izpiritu Santua Aitagandik eta Semeagandik den, eta maitasunean zabaltzen den eta esan ezin diren atseginetan. Nola esentzia jainkozkoa, bat, single, garbia, berbera dela Hirurengan. Sar zaitez han, jautiki barruan zure ezereza, zeure ezerez errukarria, zure askotasuna eta barreiakuntza. Gogora ezazu barruko misterioaren ezkutukia, eta konpara beronekin zeure barreiatu beharra, kanpoko ihesa. Gogora ezazu berorren betikotasuna: ez du lehenik ez gerorik, bakarrik du une honetako bere buruaren jabetza, gauza guztiak bere baitan, presente bakar eta berdin batean, iraunkor beti. Betikotasun honekin erka ezazu zeure denboraren joana eta segurtasunik eza. Zeure bizitza eta zeure arima mugikorak, iraunkortasunik gabe.

Zure maitasunak asmatuko du aldentzen eta gora egiten, maitasun jakintsuaren antzeko izatera iritsiko da. Gaintutuko du irudi oro, forma jakinak eta sinboloak. Denera iristen da eta dena gaintzen du. Maitasun jakintsuak norabidetzen du gizakiaren funtsezko bulkoa kanpoko gauzetatik urruti. Azkenean hauek egiaz ahaztu egin ohi ditu. Lehenengo maitasunean, maitasun bigunean, arima kanpoko gauzetatik askatzen da oinaze ugari ordainduz. Hemen, aitzitik, berenez erortzen dira gauzak arimatik. Arimak mesprezatzen ditu nahigabeak okaztatzeraz eramango balute bezala. Dena da arbuio

desordenarentzat. Nahigabe honek zaletasun guztien gainetik jasotzen du eta mundualdiko gauzetatik askatzen, kanpoko edozein praktikak baino areago.

Lagunok, gizakiak hemen barne-jaiotza goragoko bat jasotzen du. Hemen begiek luzatu egin ohi dute beren begirada iluntasun jainkozkoekin, adimen ororentzat ilun direnekin. Jainkoak gainditzen du ezagutzeko eta ikusteko gaitasun oro, nola eguzkiak bere distiraz itsutzen dituen gizakiaren begiak. Dionisio Areopagitak idazten digunez, Jainkoa irudika daitekeen guztia baino askoz gorago dago. Ez dira egokiak kontzeptuak eta antzirudiak. Bera erabat gauza guztiak baino harantzago dago.

Erabat barrukoa den pietate honek, behin dastatu eta gero, gizakiari eragiten dio ur dadin bere txikitasunean eta ezerezean. Zenbat eta gehiago garbitasunez eta gardentasunez distiratu Jainkoaren handitasunak, hainbat eta gehiago ohartzen da bere txikitasunaz eta ezerezaz. Beronetan murgiltzen da gizakia. Hau da irizpidea jakiteko egiaz argitua izan den Jainkoaren bidez arima-zola edota agertzen dena irudipenaren fruitu den edo giza ahalegin soilarena.

Izpiritu Askea sailekoak direla-eta diot hau, uste baitute, gezurrezko argitasunez, ezagutu dutela egia. Gogoberotzen dira beren buruekiko atseginez eta ederrez. Gezurrezko pasibitatean biltzen dira, eta hemendik oker asko jaiotzen zaizkie Jauna hainbeste desohoratzen dutenei. Harridura agertzen dute Jesukristo bere gizatasun santuan gogoratzen delako, eta hitz iraingarriak esaten dituzte. Egiaz ona den gizaki batek inoiz ez du usteko beste edozein pertsona baino hobe denik, nahiz eta pertsona hau txikia eta ezereza izan, baina ona baldin bada. Atzean utzi baditu ere pietatearen forma beheragokoak, hauek maite ditu oraindik estimu jasoenez. Uste du gauza guztien azpian geratu dela eta ez duela ezer gainditu.

Beren arrazonamenduekin datozenok erabat harro agertzen dira, eta uste dute ontasunik garbiena ezagutarazi zaiela, doi-doi entzun dutelarik berritasun gutxiko hitzaldiren bat, bizitzaz eta doktrinaz gutxi hornitua. Hitz egiten entzutean ikusten da zer diren. Ez dute gogoko hain beharrezko zaien egia bizirik eta garbirik, eta ez dakite egia nahas-mahasetik bereizten. Berokoikeriaren atxilotu dira. Beren naturazko argietara mugatzen dira, eta hemendik datorkie hainbesteko harrokeria. Inoiz ez dira barrendu Jaunaren bizitza gurgarran. Inoiz ez dituzte bete-betean landu beren buruak bertutean ahaleginduz, eta ez dira sekulan ibili egiazko maitasunaren bidetik. Arrazoiaren argira mugatzen dira, eta barruko oporraldi faltsura, non hainbesteko atsegina hartzen baitu naturazko gustuak, irudirik gabe, barealdian eta atsedenean.

Hain dituzte sustraituak oporraldi eta barealdi horiek beren izaeran non errukia den Jainkoak gupitu behar baitu ikustean, zeinen zabaldua dagoen errakuntza hau gure egunotan. Norberaganako maitasunak gaitasuna kentzen die sakrifizio-bizitza eramateko.

Aitzitik, maitasun jakintsura iritsi direnek egarria dute sofritzeko, mesprezatuak izateko eta Jesusen, Jaun guztiz maitatuaren ikasgaiak betetzeko. Ez dira erortzen askatasun faltsuetan, ez dute ohorerik bilatzen. Txikiak dira eta ez dute ezer ikusten beren begietan. Horregatik dira handi Jainkoaren begi aurrean.

Ondoren maitasun sendoa dator, egiazko maitasuna. Konparatu ohi da urre finarekin, urre garbiarekin, inolako aleaziorik ez duenarekin. Nire lagunok, gizakiak ez badu berekin maitasun hirukoitz hau, eta aurkitzen ez badu zolagunean, aitor dezala arriskuz beterik dagoela. Egin beza horregatik negar betea, gau eta egun.

Lagunok, urrea, zeinarekin konparatzen baitute maitasun hau, hain da aratza eta distirakorra, non doi-doi eusten baitiote begiek. Itsukorra eta sendoa da gure begi ahulentzat. Horrela gertatzen zaio arimari maitasun sendo honekin, zeinetan baitago Jauna. Hain funtsean argitzen baitu arima-zola, non izpirituak, bere jatorrizko ahuldadea dela-eta, ezin baitio eutsi, eta ezinbestean makaldu egin ohi da. Orduan ez dago beste

sustengurik leizezulo jainkozkoan murgildu eta azpiratu besterik. Hain ongi galdurik aurkitzen da han, non jadanik ez dakien ezer bere buruaz. Itsaso jainkozkoa da maitasun sendoari erantzunez gainez egina.

Orduan, hain zuzen gertatzen zaio Eliasi gertatutakoa kobazuloaren sarreran, hau da, bere ahuldadearenean, Jainkoa profeta ikustera etorri zenean. Une hartan Eliasek kapusaiaz estali zuen bere aurpegia. Honekin aditzera ematen da izpirituak bere atxikitasuna kendu duela, bere ezagupenetik eta bere egitatetik. Bere ekintza jadanik Jainkoarena da. Jainkoak arima baitan ezagutzen du, Jainkoak arima baitan maitatzen du, maitasun sendo honekin izpirituak bere buruarekiko atxikimendua galtzen duelarik Maiteagan murgiltzeko. Beronengan galduta dago, ur-tanta bat itsasoaren erdian bezala. Askoz ere lotuago dago, haizea eguerdian eguzki distiratsua argitasunari baino. Orduan ariman zer gertatzen den, hobe da sentitzea hitzez esatea baino. Zer gertatzen zaio gizakiari horrelako egoeran? Ezertxo ere ez. Neurtu ezinezko mesprezua bere buruarekiko eta erabateko ukapena jabego-izpirituari gauza guztietan: borondatean, izpirituan, bizitzako eginbideetan. Gizakiak hemen bere burua galtzen duenean, apaltasunaren sakonenean azpiratzen da. Oraindik gehiago jaisterik baleuka, maitasunean eta apaltasunean ezer ez izatera heltzeraino, pozik egingo luke hori. Hain da handia beragan jaio den beheratu nahia!...

Une horretan iruditzen zaio ez dela duin gizakia izateko, elizan sartzeko, paretean dagoen gurutzeari begiratzeko. Deabrua baino gaiztoagotzat dauka bere burua. Inoiz ez zaizkio hain maiteak izan Salbatzailearen Nekaldia eta bere Gizatasun Santua. Iruditzen zaio orduan hasten dela bizitzen. Izan ere, berarentzat berrikotik hasten da bertutean eta pietatearen jardun santuetan. Bizitza berri hau modu esentzialean jaiotzen da beragan, nola gauza txikietan hala handietan. Txikia eta handia gauza bera dira beragan. Jainkoak ez al du horrela paratu natura, non behekoena goikoenari egokitzen baitzaio? Zerua da goiena, lurra behekoena, baina eguzkiaren ekintza inon ez da hain emankor gertatzen nola behekoenak diren lurretan. Era berean Jainkoaren handitasunak ez du inon ere fruitu handiagorik ematen ezereztutako gizakian baino. Eguzkiak iresten eta jasotzen dituen bezala zokoetako ezetasunak, era berean Jainkoak, bere goitasunetik, izpiritua Beregana erakartzen du, sentiarazteraino Jainko beraren osagarri dela.

Gero gizakia hain sakoneraino murgiltzen da, non uste baitu ez dela duin gizakia izateko. Tupin handi batean, berotasun handia denean, urak irakiten du eta une batzuetan ontzi-ertzeraino igotzen da. Ondoren jaitsi egin ohi da, sua kendu eta laster. Horrela da maitasun sendoa bere oldarraldian. Bere bulkoan abiatutako izpirituak bere baitatik atera egin nahi du, eta murgildu ere bai ez jakinean. Une batzuetan oharkabe geratzen da. Gero berriro azpiratzen da bere ezerezaren oharpenean.

Maitasun sendoak hiru berezitasun ditu. Lehenengoak, giza mugak gainditzen ditu Jainkoa iristeraino, berezitasun guztiak ahaztuz, eta adimenaren, oroitzapenaren eta borondatearen ekintzak gainezkatuz. Gertakari hau gure ideien eta zentzuen gainetik dago.

Bigarrena da, izpiritua zolaguneraino jaitsiaraztea, hau da, ezer ez izateraino. Apaltasun honek ihes dagio oharpenaren nagusigo sentiberari, zeinak hemen bere izena galdu ohi baitu.

Hirugarren berezitasuna da gizakiari adiurrezko sakontasun miragarria ematea. Gizakia barnekoi egin ohi da, eta bakea gordetzen du edozein nahigabetan, zirkinik egin gabe, atsedenaldi lasaian, Jaunak eraman nahi duen bidetik joateko prest. Jainkoarekin lankide izanez honek nahi duen gauzetan. Mirabea bere jaunaren mahai aurrean bezala, begiratu beste egitekorik gabe, berorrek agindutakoa betetzeko prest.

Hain gizaki noble honen aurrerapenen guztien ondoren, oraindik benetan gerta daiteke, etsaiak burua hartzea tentaldi likits eta beldurgarriekin, berauek sortzen diotelarik

pentsa daitekeen baino oinaze gehiago. Hala ere, goienera jasotzeko balio dute. Lurrikara denean, gorago jaso ohi dira harkaitzak. Naturan balego zerbait Jainkoak blai eginda uzten ez duenik, froga horien bitartez arima geratzen da erabat garbi.

Gizakia hemendik igarotakoan, apaiza aldare alboan bezala geratzen da. Tresnak eta apaiza bera Jainkoak sagaratuak dira. Badu ahalik Jaunaren gorputz gurgarriaren gainean, eta hala ere ez da ausartzen Gure Aita esaten, aldezturik bere burua desenkusatu gabe: "Zeru-lurrekin bat eginik eskatzen dizugu... eta salbatzaileak agindu eta erakutsiari jarraituz beldur gabe esan dezagun".

Gizakiaren ezereztasun sakonak eta Jainko Aitaren duintasun handiak eskatzen dute begirunezko beldurrikaraz otoitz egitea. Gizakiak arretaz gogoratu behar du zeinen harrigarria den Jainkoari Aita deitu ahal izatea, nahiz eta bera duingabea izan eta ahula.

Zer geratzen zaio jainkoantzeko den gizakiari? Arima Jainkoz betea eta gorputza oinaze-minez. Jainkoaren begirada tximista bezala dirdaitsu sartzen da arima horren zolagunean, eta hain pozik geratzen da, non gutxitzat baitauka sofrikizun oro. Jainkoa sakonenean bat-batean sartzeak ikusarazten dio, tximista bailitza, oraindik zer dagoen egiteko. Hau da arrazoi otoitz egin beharra izateko, predikua egiteko.

Bizi gaitezela gu, gure Jaunaren egiazko maitasunak argitzeko eran. Eta honetan lagun gaitzala bere izatez egiazko maitasuna den hark.

"Zorionekoak zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak" (Lk 10,23)

Aste honetako Ebanjelioan aurkitzen da egia-rik garbiena, zoriontasunaren mailarik gorenena nondik datorrigun. Egunotan aipatu ditugun hitzok, gure Jaunak ikasleei zuzendutakoak dira: "Zorionekoak zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak, profeta eta errege askok ikusi nahi izan baitzuten zuek ikusten duzuen, baina ez zuten ikusi".

Ondoren irakurtzen dugu, lege-maisu bat hurbildu zitzaioala gure Jaunari, azpikeriaz galdetuz. Lagunurkoa zirikatzea berez da gaiztoa. Eta esan zion: "Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko?" (Lk 10,25). Gure Jaunak ezтики erantzun zion, haren gaiztakeria ezagutuko ez balu bezala, eta Liburu Santuen testigantzara igorri zuen. Izan ere, denek, hiru testigantzaz kudeatu behar dute perfekzioz jokatzekotan. Lehenengoa Jainkoagandik dator, bigarrena adoretzen gaituen izpiritutik eta hirugarrena Liburu Santuetatik. Lege-maisu hark ez zuen bat besterik, eta beronetara eraman zuen gure Jaunak. Horregatik galdetu zion: "Zer irakurtzen duzu?" Eta lege-maisuak erantzun: "Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, indar guztiz eta funtsezko zeure eragin guztiz eta lagun hurkoa zeure burua bezala". Erantzun zuzena izan zen, eta honetaz jabeturik, lege-maisuak galdezka jarraitu zuen. Utz dezagun oraingoz "nor da nire lagun hurkoa" galderari emaniko erantzuna eta sar gaitezen zeure gaian.

Bi ulerkuntza izan behar dira, "begi zoriontsuak" gaiari buruz. Zein dira zoriontasun-begi horiek? Aditzera ematen dute, batez ere, barruko eta izpirituzko gogoeta, nobletasun handi eta bereziari buruz egina, beronetan baitago Jainkoarekin dugun ahaidetasun izpirituzkoa, Jainkoak berak gure arima-zolan ezarria. Miragarri hau behar den bezala ausnartuko bagenu, zoriontasun handia aurkituko luke bihotz maiteminduak. Barruko noblezia honetaz, arima-zolan gordetzen denetaz, maisu asko dira hitz egin dutenak, lehengoak eta oraingoak. Alberto apezpikua, Dietrich Maisua eta Eckhart Maisua. Batzuek "arimaren txinparta" deitzen diote, beste batzuek zolagunea edota leizezuloa, besteentzat hasiera da. Alberto Apezpikuak dio irudia dela, zeinetan adierazten baita eta egiaz bizitzen Hirutasun Guztiz Santua.

Txinparta hau hain gora igotzen da ongi prestaturiko ariman, non ezin jarraitu baitio adimenduak, lehen atera zeneko zolagunean sartu arte, sortu baino lehenago zegoen hartan.

Honetaz adimendu handiz hitz egin zuten doktoreek, hala egin zuten beren baitan bizi izanarazi esker. Hauek egiazko bizipenak eduki dituzte, eta irakurri dute egia hau Elizako santu eta doktore handietan, egia honetaz idatzi dutenetan. Gizakundea baino lehenago ere filosofo batzuek hitz egin izan zuten nobletasun honi buruz: Platonek, Aristotelesek, Proklok.

Gai honek, onen barruan, nahikunde biziak sortzen ditu barnean biltzeko, eta barne-nobletasun gorenean hazteko, Jainkoarekiko ahaidetasun estuak eskatzen duen moduan. Sasi-izpiritualentzat, ordea, benetan kaltegarri izan daiteke.

Baina azter dezagun egiazko zorionera daraman bidea; beronetaz hitz egin baitugu egun hauetan. Benetako apaltasunaren bidea da: nork bere buruari bete-betean uko egitea, uko egin nork bere irizpideei, eta ahaztu bere buruaz, egin denaz, edota nork berak dituen asmo pertsonalez. Gauza denetatik biluztu, nork bere ezereza gogoratzera atxikiz. Hau bai egia sakona! Izan ere, ezer baliotsurik badago bidean, hori ez zara zu, Jainkoa da bakar-bakarrik.

Zolagune horretara iritsi behar duzu, zure begiak egunen batean zoriontsu izan daitezela nahi baduzu. Ikasi beharra daukazu zolagune horretara sustraitik begiratzen, hori baita Jaunak utzi zigun legea esan zuenean: "Ikas niregandik, bihozbera bainaiz eta apala". Bihozberatasuna eta apaltasuna lagunak dira, senideak, eskuz esku doazenak. Bat

zologunean dagoenean, besteak nahitaez lagun egin behar dio. Zeruko Aitak txikiei bakarrik agertzen dizkie bere misterioak, eta handiei eta jakintsuei, berriz, ezkutatu. Txikitasun honetan ulertzen da, eta ez bestetan, egia single eta garbia, zorionaren funtsa.

Gure Jaunak dio: "Profeta eta errege askok ikusi nahi izan zuten hau, baino ez zuten ikusi". Profeta esatean ulertzen dugu hemen izpiritu handiak, zorrotzak eta arrazoikariak, beren naturazko asmamenaren zorrotasunari emanak daudenak, eta hortik beren harrokeria. Horrelakoen begiak ezin izan zoriontsuak.

Erregea aditzera ematean adierazi nahi da izatez maisu den gizakia, ahots sendo eta indartsua duena, bere buruaren jabe dena, eta hitzena, egintzena, mintzairarena ere bai, eta nahi duen guztia egiten duena: barauak, bijiliak eta otoitzak. Uste dute inoren beharrik ez dutela eta denen gainetik daudela, eta mesprezatzen dituzte gainerakoak. Hauen begiak ere ez dira gai zoriona ikusteko.

Horiek guztiek ikusi nahi zuten eta ez zuten inoiz ikusi. Ikusi nahi zuten baina zapiz estali zituzten begiak beren borondatez. Izan ere, lagunok, borondatea da gaizkiaren tokia; borondatea, hain zuzen, ikustea debekatzen duen sujeta eta eragozpena. Borondateak itsutzen ditu barruko begiak, geruza bailitzan, gorputzeko begiak berrestaltzen dituen gandua, ikustea galaraziz. Horregatik begiak ezin du kolorerik eduki, kolore guztiak ikusi ahal izateko. Gauza bera arimako begiak ere, nahi izate gutzitik, eta nahi ez izate gutzitik, garbi, zoriona garbiki nahi badute ikusi.

Borondatea margo-askoduna da, kolore mundutiarrez hornitua, lakarra, erabat kanpora emana.

Bihotz erlijiozkoak, aitzitik, badu bere kolorea. Gizakiari buruz, egiaz esan daiteke hiru gizaki dituela osagai gizaki batean. Lehenengoa kanpoko gizakia da, aberekia, zentzukoia. Bigarrenkoa, gizakoi arrazoiduna, bere goi-ahalmenekin. Hirugarrena bulko substantziazkoa, arimaren gailurra. Hori guztia bildurik, ez da gizaki bat baizik osatzen, une berean desberdintasun banatzailea ere hor dagoelarik norberaren borondatean. Hiru horietako bakoitzak bere erara nahi du eta jokatzen du.

Nire lagunok, moztu egin behar du norberak bere borondatea, Jaunak esan zuen bezala: "Ez bainaiz zerutik jaitsi neure nahia egitera, bidali nauenen nahia egitera baizik" (Jn 6,38). Norberaren borondateak zabal eta sakon zugaran irauten duen adinean, jakin ezazu, neurri berean ukatuko zaizula zoriona. Izan ere, benetako zoriona inoren esku jartzetik dator, norberaren borondatearekiko atxikimendu ezatik. Apaltasunaren zologunean sortzen da; hantxe galtzen da norberaren borondatea. Borondatea da, hain zuzen, etxeraikuntza osoko oinarrien euskarria. Zutabea lurreratzerik bagenu, eroriko lirerateke paretak. Zenbat eta txikiagoak eta apalagoak izan Jainkoaren aurrean, orduan eta urriagoa da norberaren borondatea.

Maitasunaz hitz egin dezagun eta ikustagun nola maitatu geure bihotz osoz, geure arimaz, geure indar guztiz eta geure funtsezko eragin betez.

Teologoek eztabaidan dihardute, bi egite hauetatik, ezagutza edo maitatzea, zein den garrantzitsuena. Utz dezagun alde batera eztabaida. Ez dago zalantzarik karitateak hemen lurrean meritu eta etekin handiagoak dituela ezagutzeak baino, izan ere maitasuna sartzen baita ezaguera kanpoan geratzen den hartan. Maitatzeak, bestalde, ez du arrazonamendu handi eta zorrotzen beharrik, aski duenez fede garbi eta bizia, Kristau bizitzan ispilatzen dena. Gogora dezagun orain zein den karitatearen moldeak, gaia eta helburua.

Materia gure bihotza da, arima eta honen ahalmenak. Forma maitasuna da, beronen egitatea hau baita: indar osoz maitatzea. Bere maitasuna, karitatea maitasunagatik maitatzea denez. Errikardo San Viktorrekoak zenbait bereizkuntza jartzen dizkigu karitateari buruz, eta dio: "Mailarik behekoenean maitatzea bihotzez maitatzea da, hau da, pentsamendu kalkulatuan eta sentiberatasunean. Arimaz maitatzea da isuriaz eta

atseginez eramana izatea. Indar guztiz maitatzea da, halako moduz maitatzea, non ez baitzaio inori kalterik egiten eta ahaleginak egiten baitira karitatearekin ez huts egiteko".

Baina horrelako maitasuna ez da izate osoko maitasuna.

Alberto Apezpikuak gai honetaz, Ebanjelioari buruzko iruzkinetan hitz egiten du, eta dio: "Bihotz-bihotzez maitatzea da, arima osoz eta indar guztiz hori egitea, ongi oldoztutako aukeramen libre baten eraginpean". Izan ere, gertatu liteke gizaki baten asmoa dela edozein gauza maitatzea, eta zuhurtziak eskatzea, erabaki aske baten ondoren, hori ez nahi izatea; edota, aitzitik, zuhurtzia horrek berak, gogoeta heldu baten ondoren, behartzea beste edozein gauza maitatzera, nahiz eta beste gauza honetan ez aurkitu ez irrikarik, ez atseginik.

Era honetan, bihotz osoko maitasun hau fede-gogoetak argituriko bihotz batetik sortzen da, erabaki sendoa hartu duen bihotz libre batetik, zeina gure desira eta pentsamendu guztien ardatz izango baita, bizitza pasakor honetan egin litekeen neurrian.

"Arima osoz maitatzea" da guztizko pozez eta atseginez maitatzea, norbere isuriaz maitatzea, borondate askearen zaletasunez, Jainkoa maitatzea ariman diren gauza guztiekin, hau da, barruan eta ariman daraman gizakiarekin. Maitasun hori egia ezagutzetik datorrena da.

"Indar guztiz maitatzea" da, jarduera eta praktika perfektuez maitatzea, menpean hartuz abere-ahalmenak, kanpoko zentzuak eta ahalak, Jainkoaren maitasunari emanik barruko eta kanpoko indar guztiekin, ahal deneraino saiaturaz, arku bat bortizki teinkatzen den bezala, azkena urrutira jaurtiki nahi denean eta jo-puntuari eman. Hau da maitasun-perfekzioa bere mailarik gorenean.

Oraindik geratzen da "arima osoz" esapidea, zeinetan sartzen baita gainerako guztia. Izenez eta izanez da funtsezko bulkoa, eta adimena (mens) edota neurria (mesura), gainerako guztiaren neurria ematen duenez. Denari damaio bere forma eta neurria. Bere bertutea denean barrentzen da, habitus mentis (adimen aztura) denez. San Agustinek dio: "Ekintza on bat berez ez da bertutea esan ohi duguna; iritsi behar du azturaren estatu formala izatera, horrela ohikoa ere izan dadin, gizakiarentzat hain erraz eta atsegin, berezko isuriaz bailetorkion bezala". Hau karitatearen zolagune apaletik sortzen da.

Gogoeta bat egin dezagun orain funtsezko bulkoari buruz. Gauza bikaina da. Izpirituzko ahalmenak baino goragokoa eta barruragokoa da, funtsezko bulkotik baitatorkie ekintzarako gaitasuna. Bulko horretan dute erroa, beren sorburua. Ahalmen horien guztien oso gaineratik dago, erabat single, esentziazko eta formazko denez. Badira maisuak honi buruz asko hitz egin dutenak. Esaten dute esan, hain dela noblea funtsezko bulkoa non etengabe ari omen da bere langintzan, gu esna egon edo lo, horretaz oharturik edo ohartzeke. Etengabeko isuria du Jainkoagana itzultzeko, isuri jainkoantzeko, jainkozko, esan ezinezko, betiko. Zenbait iritsi ere da esatera Jainkoa kontenplatzen ari dela beti, eta etengabe gozatzen duela. Zer esan azken puntu honi buruz? Oraingoz ez gaitezela horretaz ardura, baina gogoan atxiki dezagun funtsezko bulkoan Jainkoa Jainko baitan ezagutzen dela, izanik, hala ere, zerbait sortua.

Proklok, filosofo pagano hark, loa deitzen dio, isiltasuna, atsedenaldi jainkozkoa, eta dio: "Gure baitan badago Bataren ezkutuzko bilaketa bat, arrazoa eta adimendua asko gaingitzen dituen. Arima bilaketa honetan biltzen bada, jainkozko egin ohi da, eta jainkoeran bizitzen da".

Gizakia, aitzitik, kanpo eta sentiberazko gauzez arduratzen da, eginean ari da, ez dezake ezer jakin bilaketa horri buruz, ez du uste ere bere baitan altxor hori dagoenik. Funtsezko bulkoa, erroa, gudan jarria dago, hala jarria, non landare bat baita, arrastaka erakartzeko indar betierekoa duena. Funtsezko bulkoak betiereko isuria du, sakona, bere

sorburura itzultzeko. Inoiz geratzen ez den isuria, ez eta infernuan ere. Honetan datza kondenatuen oinazetik handiena, inoiz ere izango ez dutelako Jainkoagana joateko erroko joera asetzerik.

Gizakiak bere zuhurtziara jotzen duenean, hor esnatzen da, zuzentzen eta menperatzen ditu barruko ahalmen guztiak, eta ikusarazten dizkio gizakiari beronen desira guztiak eta bidegabekeria gutziatsiak. Alde batera uzten du kanpoko gauzen bilaketa guztia, eta zuhurtziak atxikimendua galtzen dio horri guztiari, gauza arrotza bailitzan, urruntzen da zentzuetatik, eta neke-pena guztitik kanpo jartzen da.

Baretzen denean, arimak bere izate eta ahalmenak ikusten ditu, konturatzen da bere burua arrazoizko irudia dela harena, zeinagandik atera baitzen. Zorionekoak honeraino sar daitezkeen begiak, honetan bakarrik eta esentzialki arreta dutenak, funtsezko bulko honetan, leizeraino murgilduz beren begirada. Miragarrietan miragarriena da orduan aurkitzen dena, Alberto Apezpikuak dioenez, izan litekeen gauzarik garbiena eta ziurrena. Inoiz ken ezin litekeena, ibiltzea sekula galarazten ez duena, gutxien atzeratzen gaituena.

Hemen ez dago ezer kontrajarririk, han ez dagoelako antzirudirik, ezer sentiberarik, ezer galkorrik, ezer denborazkorik. Irudietatik sortzen diren bereizkuntzak ez dira honeraino iristen, San Dionisiok dioen bezala.

Alberto Apezpikuak azaltzen du ondoko sei puntu hauetan: "Gauzarik miragarriena da; ez dago ezer duinagorik ez goitasunaz, ez zabaleraz. Honeraino sartzen diren begiek ez dute gauza hoberik ikusiko mundu honetan; hemen dago gauzarik goienena, ezerk gainditzen ez duena. Ez dago garbiagorik ezer, inolako zerikusirik ez duelako materiarekin eta gauza materiazkoekin. Ez dago ziurragorik ezer, ezaguera hauek ziurtasuna ematen dielako beste gainerakoei, besteengandik ziurtasunik jaso gabe. Galduezina da gainera, ez dagoelako berezko joerarik, ez beste tentaldirik norberaren eginbidea galaraz dezakeenik. Ez dago behaztoparik, argitasun guztiz distiratsua delako arimak bere burua biluztu duenean. Naturazko mugimenduak menperatzea jadanik jabetza betearen ohitura edukitzea da. Hori da sendoen irauten duena. Ez dago, izan ere, inolako aurkatasunik. Galtzen ez den alaitasuna da, sentiberatasunaren oinarrietan tinkatzen ez delako. Egia garbiena da egia argian eta bizian".

Zolagune honi "betiereko zoriona" deitzen zaio, hiru arrazoi hauengatik: lehenengoa, erabat jainkozkoa delako, Jainkoaren irudia gizakiagan. Bigarrena, Jainkozkoa izanez jarraitzen duelako, Jainkoagan erabat murgildurik dagoen bitartean. Hirugarren, Jainkoak berak egite honetaz eta jainkozko substantzia honetaz gozatzen duelako, jainkozko substantzia deitua, Jainkoak beronetan parte hartzen duenaren arabera. Maisu honek aipatzen duen aldaezintasuna ez dago egimenean, denboraren aspektupean ikusitakoan. Izan ere denboran gauzak aldakorak dira eta askotasunak agintzen du. Horiek horrela, etenaldi bat egon daiteke egimenean, baina sekula ez esentzian, ongi prestatua baldin badago. Eta honaino iritsi den hura arrazoibidez izenda daiteke zoriontsua, zoriontasun hau aipatzen baitzuen Jaunak zera esan zuenean: "Zorionekoak zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak".

Nire lagunok, sentimendu honen bizipena lekuak, denborak, barruratzeak eta atxikimendurik ezak baldintzatzen dute. Gaua da unerik emankorrena, luzea eta isil-isila delako. Gertatzen bazaigu jainkozko bihotz-ukitu hauetatik zerbait sentitzea, zereginen premiak galarazten du barruan arreta jartzea, sorkari guztiekiko atxikitasun eza edukiz. Orduan etortzen da deabrua, poztasun horren bidea itxiz, grazia hori zuri inoiz ez emateko edo Jainkoak beste norbaiti eman diezaion zure orde.

Laguna, Jainkoak erreinu bat ematen badizu, komentu bat ere ez zaizu faltako. Grazia handia ematen badizu, arrazoi handiagoz erraztuko dizu graziaren lagungarri izan behar duena. Kalterik handiena datorkizue graziari erabat ekiten eta jarraitzen ez diozuelako.

Inork ere ez du sartu behar antzeko arimen gora-beheretan, Aita Santua ere sartzen ez denez, ez eta Eliza ere. Jainkoa zuzenean konponduko da horrelakoekin.

Arimaren egoera hau ematen dela ongi frogatu daiteke garai guztietako santuek utzitako idazki-txatal askorekin. Dabidek dio: "Bakean etzaten naiz eta berehala lokartzen, zuk bakarrik bainauzu, Jauna, lasai biziartzuten" (Sal 4,9). San Paulok: "Guk pentsa dezakeguna baino handiagoa den Jainkoaren bakeak" (Flp 4,7). San Joanek: "Isiltasuna egin zen zeruan, orduerdi batez edo" (Ap 8,1). Elizako beste santu handiek ere, San Dionisiok eta San Gregoriok eta beste askok, geldiro idatzi dute gai honi buruz. Egin diezaiozun leku kontenplazio honi eta ardura gaitezen berorretaz, San Agustinek ohartarazten gaituen bezala: "Jainkoak nahi badu jardutea, arretaz zaindu behar da haren egitea".

Gizaki horiek entzungo dute gure Jaunagandik, ezintasuna eta apaltasuna erakusten diela, eta bere uztarria leuna dela eta bere zama arina. Uztarria tiraka aritzeko da eta arrastaka zerbait eramateko. Zeruko Aitak gizaki hauek barrutik kudeatzen ditu eta erakartzen, bere barruko eta kanpoko foroan, proba asko eta beldurgarrien bidez eta praktika neketsuen bidez. Hau guztia biguna da gizaki horientzat, eta zama guztiak arin, sinestu ezin den moduan. Aitak erakar ditzake berak nahi bezala. Uzten badu zure gainera eror daitezen zartada gogorak, isiltasun baketsua bakarrik gorde ezazu. Berak bere zamaz zapaldu nahi ditu zure sorbaldak. Esaera zaharrak dio: "Burua galtzen baduzu, egia galdu duzu". Zauze, orde, isilik. Jainkoak ezarri dizun zama horretan, ez du nahi izan zuri burua moztetik, santuekin egin izan zuten bezala.

Jarraitzerik izango ahal dugu eta ikusterik, gure begiak zoriontsu egiteraino. Jainkoak lagun gaitzala.

XVI

Gogo-berritzea¹⁷

"Gogo-bihotzak berritu" (Ef 4,23)

Erakutsi zaizue, Jesusen egiaren arabera, zuen adimen-izpiritua berritu dezazuela, eta gizaki berriaz zeuon buruak jantz ditzazuela, Jainkoak zuzentasunean eta egiaren santutasunean sortutako gizaki berriaz. Beraz, gezur oro baztertuz, bakoitzak egiaz hitz egiozue lagun hurkoari, batzuk besteen atal garenez. Haserretzen bazarete, ez egin bekaturik. Zuen haserreak ez beza eguzkia sartu arte iraun, ez eman inolako aukerarik Deabruari. Lapur denak ez dezala aurrerantzean ostu, saia dadila baizik bere eskuz lan egiten, beharrean dagoenari zer eman edukitzeko (Ef 4, 22-28).

San Pauloren gutun hau irakurtzen dugu gaur, Elizako printzeetan maitagarriena den harena. Irakurgai horretan daude gogapen eta irakatsirik nobleenak, eta dei egiten zaigu ohartzera berritu behar ditugula gogo-bihotzak. Hiru gauza dira nahitaez saihestu behar ditugunak, berrikuntza hori lortu nahi badugu. Lehenik, gezurra baztertu eta egian bizi. Bigarrena, ez haserretu. Azkenik, ez ostu. Hiru gauza hauek nahitaez bete beharko ditu berritu nahi duen gizakiak.

Zer da gezurra esatea? Gezurra esaten da, gizaki batek bere jitez, kanpoko itxuraz, bere hitzez eta eginez bihotzean ez dituen sentipenak adierazten dituenean; hitzak eta bihotzak elkarren kontra daudenean. Maila honetan sartu behar dira bizitza izpirituzkoaren itxurak egiten dituzten pertsonak, baina hori egiaz edukitzetik oso urruti daudenak. Horien bihotza mundukoia da, sorkariek atxilotua; berdin da pertsonak izan edo gauzak atxilotzen dutenak.

Ez naiz munduan bizi direnez ari, baizik eta bihotz mundukoia dutenez, deliberatuki munduko gauzetan atsegin bilatzen duten haietaz, Jaunaren aintzari inolako begiramenik eduki gabe. Bitxiak eta jantziak esate baterako. Gogaitzen dira zuzenketarik txikiena ere egiten bazaie eta aurkituko dituzte aitzakiarik faltsuenak. Gazteak omen dira, jolastu behar dutenak, gustu txiki horiek omen dira, Jainkoari zerbitzu bat hobe eta maitakorragoa eskaintzeko. Gezur gorrotagarria. Uste ahal duzu Jainkoa hobeto zerbitzatuko duzula zeuregana erakarritz harengandik egiaz urruntzen zaituena? Ez ote litzaizuke atsegin handiagoa izango maitasunaren Jainkoa, eta ez okertzen eta kirastean zaituzten sorkariak? Gezur maliziatsua. Aski ongi ikus dezakezue eta uler.

Bada beste gezur motarik ere. Uste dutenena bizitza izpirituzkoa badaramatela, praktika on eta santuetan badihardutelako, zeinetan beren atsegin eta interesa gehiago bilatzen baitute Jainkoaren aintza baino. Era honetan bizi ohi dira hogeita hamar edo berrogei urtez beren buruak ezagutu gabe, ez eta beren egiazko asmoak ere. Ezin barkatzeko ezjakintasuna haxe, beren buruak aztertu behar baitzituzten eta beren asmoak ere bai, Jainkoa izan zedin helburua eta ez beren interesa: gozamina, baliagarritasuna, zeruko saria.

Lagunok, oso beharrezkoa da arreta bizia jartzea norberaren jarrera on eta txarrak ezagutzen. Gau eta egun nork bere burua aztertu behar du, egoera desberdinetan ikusi. Nork bere burua aztertu behar du eta geure jokabideen zergatia ikertu. Orduan, berehala eta indar osoz Jainkoagana zuzendu egiten den guztia. Buka dezala gizakiak bere buruaren gezurrarekin. Gezurra esaten da Jainkoa ez den beste edozein gauzagarik egintza onak betetzean. Jainkoa helburutzat ez duen guztia idolo bat da.

Apostoluak galarazten duen bigarren gauza haserretzea da. Profeta (Sal 4,5) eta San Paulo (Ef 4,26) bat datoz esaten digutenean, haserretzean ez dugula heldu behar bekatu egiteraino. Horrek esan nahi du gorroto handia eta saminkorra sentitu behar dugula beti, edozein gauza gertatzen dela Jainkoaren borondatearen aurka. Gehiago oraindik: egoera

jakinetan gure nahigabea agertu behar dugu, hori egitea guri dagokigunean eta gauzak hobetzeko modua ikustean.

Bada, ordea, jenderik besteren hutsegiteak zuzentzeko prest dagoenik, baina honekin hutsegite astunagoetan erortzen dira, herraz eta garraztasunez jokatzen dutelako. Hitz gogorak esaten dituzte, aurpegi eta keinu bortitzak erakusten, bakea galtzen dute beren baitan eta besteei galarazten. Horrelakoetan esan ohi da bere onetik atera direla. Baina inori zer axola zaio zure zentzugabekeria? Ihes egin zeure buruko minei, eta ez eman inori horrelako minik. Ez haserretu zeure nahigabea duintasunez agertzen asmatzen ez baduzu. Beharrezkoa da nork bere burua ongi menperatzea, haserretu ahal izateko, bekaturik egin gabe haserretzeko, hemen agintzen den eran. Auzokoaren etxeko sua nahi duzu itzali, zeureari su ematen diozun bitartean. Hobe litzateke horrelakoetan zeurea salbatzea lehenik. Auzokoari zauri txiki bat sendatu nahi diozu eta jenio txarragatik bi eta hiru zauri larriagoak egiten dizkiozu.

San Paulok gehiago dio: "Zuen haserreak ez beza eguzkia sartu arte iraun". Hau esan nahi du: lagun hurkoarekin haserreturik dagoenak, edozein arrazoiengatik dela, horrelakoak baketu behar du ahalik eta azkarrena. Izan gogoan, lagunok. Irakatsi hau ez baduzue kontuan hartzen eta lagun hurkoarekin haserretuta bazaudete, galduko duzue Jainkoa eta honen grazia, eta hainbeste denbora kostatako ondasun-pila guztia.

Ikustagun orain hirugarren galaraztea: ez ostu. Ostutzeak esan nahi du gurea ez den zerbaitetaz, gorputzeko nahiz izpirituzko ondasun izan, jabe egitea. Askotan gertatzen zaie gizon erlijiosoei ohoreak, abantailazko egoerak eta antzeko gauzak nahi dituztela, baina Jainkoak ez dituela bide horretatik eraman nahi. Batzuetan, gauza horiek bereganatutakoan, ez dituzte bihotz-zuzentasunez erabiltzen. Inork ez lituzke kargu horiek bere egin behar, baizik eta beldurrez onartu, batez ere maila bikainetakoa denean. Geroko batean gerta dakioke lotsaz karguak utzi beharra, beste bati emateko. Urte asko igaro izan ditut nik Santo Domingoren semea naizela pentsatzen ere ausartu gabe, eta neure burua ez dut ikusi predikarien sailean. Beti uste izan dut ez naizela nor ohore hori edukitzeko.

Lapurreta dei dakioke, baita ere, limosnak gaizki erabiltzeari, egiaz erantzukizun handia denez eske-sariak jasotzea. Kontsideratu behar da zertan erabiltzen diren, zertarako hartzen diren eta nola merezi izan diren. Nire lagunok, egia da Testamentu Zaharrak eta Berriak baimentzen nautela erremusinak hartzeko nire apaiz-izaeragatik, "aldarea zerbitzatzen dutenek aldaretik parte hartzen dutenez". Hala ere, handia da horiek hartzeko beti dudak beldurra. Jakin izan banu nik, gure aitarekin bizi nintzenean, orain bizipenez dakidana, haren ondaretik biziko nintzatekeen eta ez limosnetatik.

Ondoren San Paulok dio: "Zeuen gogo-bihotzak berritu" (arima-zolan) (Ef 4,23). Giza izpirituak era bateko eta besteko izenak hartzen ditu, egitate eta aspektu desberdinen arabera. Arima deitzen da gorputzari bizia ematen diolako, eta gorputz atal bakoitzean dago bizia eta mugimendua emanez. Izpiritua esaten zaio Jainkoarekin duen ahaidetasun hain estuagatik, neurri guztiak hausten baititu. Jainkoa izpiritua da eta arima ere bai. Beraz gizakiaren izpiritua etenik gabe itzultzen ari da, isuria du eta begirada ere bai bere sorreraren zolagunera. Bat etortze horrek edo izpiritua berriro bere sorburura jaurtiki dadin, bere egokitasunera. Isuri honek ez du sekulan etenik, iturrira doanean. Kondenatuak ere horretara dute beren joera. Erakar-indar horrek merezi luke funtsezko goratzea deitzea. Gustagarria da. Arrazoiak eta borondatea han lortzen dira, baina hauen guztien gainetik dago. Gehiago du. Ahalmenak baino gorago eta harantzago dago eta barruko subjektua da eta esentziazkoa. Funtsezko bulko hau ordenapean dagoenean eta perfekzioz norabidetua, dena doa ongi. Funtsezko bulkoa gaiztotu bada, dena, ohartuki edo ohartzeke, gaiztotu egin ohi da. Adimena (mens) ere deitzen diote.

Nire lagunok! Hau da arima-zola, non ezkutuan bizi baita Hirutasun-irudia. Hain da noblea, non ez baita ongi datorkion izenik. Zolagunea deitzen zaio, eta inoiz esan ohi dute gailurra dela. Ez dago egokitzen zaion izenik, Jainkoari egokitzen ez zaion bezala, hitzez ez bailiteke esan zer den Jainkoa. Norbaitek ikusiko balu Jainkoa nola bizi den zolagune honetan, usteko luke zeruan dagoela. Zolagune honen eta Jainkoaren artean dagoen hurbiltasuna eta ahaidetasuna hain da miragarri ezin esanezkoa, non ez baitago definitzerik eta nekez egongo da zizikatzeraz ausartuko denik.

San Paulok estutu egiten du: zuen gogo-bihotzak berritu, funtsezko bulkoan. Funtsezko bulko hau perfekziozko jarreran badago, bulko horretan etengabeko isuria dago arima-zolan biltzeko, non Hiruren irudia bizi baita, goiko ahalmenak baino haratago. Funtsezko bulkoaren egitateak nobleziaz eta goitasunaz gaintitzen ditu gainerako ahalmenak, ardoz betetako zahagiak ur-tanta bat baino areago. Funtsezko bulko honetan gizakiak berritu behar du, etenik gabe zolaguneraino beheratuz, Jainkoari aurpegi emanez, beste helbideen debekurik gabe, maitasun eraginkorrez, Jaunagan begiak tinko edukiz. Bihotz-berritzeko ahalmen hau funtsezko bulkoari dagokiona da, eta etenik gabe norabide daiteke, baina arimaren ahalgoek ezin dute etenik gabe Jainkoarekin bat eginik iraun.

Horrela egin behar da eraberritzea funtsezko bulkoan. Jainkoa izpiritua denez gero, sortutako izpirituak Jainkoagan behar du bildu, Jainkoagan igo, eta sortua ez den izpirituan gero zabaldu, funtsezko bulko beraren ihesbide bailitzan. Kreazioa baino lehenago gizakia Jainkoa zen Jainkoagan. Era berean, ahalegindu behar du hemen bete-betea berriro Beragan sartzen, orain sortua den natura osoarekin.

Doktoreek galdetzen dute ea gizakiaren izpiritua hiltzen den, hilkor diren gauzetara deliberatuki zuzentzen den bakoitzean. Gehienek baietz diote. Baina doktore noble eta handi batek dio: "Gizaki bat bere funtsezko bulkoz eta borondate osoz bihurtzen den unetik bere izpiritua Jainkoaren izpirituarekin bat egitera, denbora oro gaintituz, une horretan bertan eskuratzen da galdutako guztia". Bihotz-berritze hau egunean mila aldiz egin ahal baledi, beste hainbeste berrituko litzateke gizakia. Barruko egitate hau da eman daitekeen berrikuntzarik nobleena eta garbiena: "Gaur zaitut nik sortu" (Sal 2,7).

Izpiritua, berak duen guztiarekin, bete-betea zolagune honetan murgiltzen den bakoitzean, Jainkoaren sakonenera igotzeko, birsortua izango da eta eraberritua. Jainkoak orduan izpiritua blai egiten du eta gainetik eratzen, eta hainbat gehiago hori, zenbat eta izpirituak leialtasun eta garbitasun handiagoz bidea jarraitu, Jainkoagan bakarrik asmoa edukiz. Jainkoa hedatzen da izpirituan, eguzkia eguratsean zabaltzen den bezala. Argia hainbesteraino zabaltzen da eta sartzen eguratsean, non ez baitago inor ikusten eta bereizten duenik non bukatzen den argia eta non jarraitzen duen eguratsak. Nork ezar dezake bereizkuntzarik batasunean ematen den bategile naturaz gaindiko eta jainkozkotan, non izpiritua erakarria eta irentsia gertatzen baita hasierako leizezuloan? Norbaitek ikusterik balu izpiritua egoera horretan, jainkotua, ezbairik gabe usteko luke Jainkoa bera ikusi duela.

Ene lagunok. Etengabeko eraberritze eta bihotz-berritze honetan, izpiritua une oroz bere buruaren gainetik igotzen da, sekulan arrano batek hegan egin duena baino gorago, eguzkiarekin aurkitzeko. Zeruraino igotzen da, inoiz suak lortu duena baino gorago. Orduan izpiritua iluntasun jainkozkora oldartzen da, Jobek oharrarazten digunez: "Nondik jo ez dakien gizakia, Jainkoak irteera guztiak ixten dizkiona" (Jb 3,23). Izpiritua, beraz, jaurtikitzen da jainkozko ezezagunaren ilunbeetara, Jainkoa dagoen hartara, beroni ezar dakioken guztiaren gainetik, izenik gabe, formarik gabe, irudirik gabe. Izaki mugatu guztien gainetik, esentzia guztien gainetik. Hauek dira, lagunok, egiazko bihotz-berritzeak. Gaualdia eta hemen-honetako isiltasuna lagungarri on zaizkio izpirituari, laguntza handia bihotz-berritze hauentzat. Loaldi luzetik esnatzean,

matutietara joateko, lekaideak askatasuna eman behar dio zentzuei eta gainerako ahalmenei. Behin bukatutakoan, murgil bitez hondo-hondoraino, eta ibil bitez irudi eta forma guztien gainetik. Ahaz bitzate beren ahalmenak. Hain txikia ikustean bere burua, ez du kezkarik izan behar ilunpe nobleetara hurbiltzeko. Santu batek idatzi du hauei buruz: "Jainkoa iluntasun bat da, argi guztia baino harantzago dagoena". Misterio barneratu ezina. Itsuek ikus dezaketena.

Gizakiak bere burua inoren esku utz dezala besterik gabe, ezer eskatu gabe, ezertara inor behartu gabe. Aski izan dezala Jainkoa bere gogapenean, bere maitasunean edukitzearekin. Jaurti itzatzu, beraz, zeure gauza guztiak Jainko ezezagun honengan, zeure hutsegite eta bekatuak ere bai, eta zeure langintzen bidez ager dezakezun guztia. Dena Herengan jar ezazu zaletasun handiz. Zure Jaunaren borondate ilun, ezezagunean. Hemendik kanpo, gisa honetako gizakiak ez du ezeren atzetik ibili beharrik, eta ez du nahi izan behar ere atsedena edo egitatea, ez hau eta ez hura, ez honelako estatua eta ez halakoa. Bakar-bakarrik bere burua Jainkoaren borondate ezezagunaren esku utzi, besterik gabe.

Barruko langintza honek hartzen zaitunean, Jainkoak eskatzen badizu eginkizun noble eta jaso hori utz dezazun, gaixo bati zerbitzatzeko eta honi kamamila jartzeko, hori bake handiz egin behar duzu. Neroni banintz gizaki hori eta langintza hori utzi behar banu, predikuan aritzeko edota antzeko zereginen bat betetzeko, gerta liteke Jainkoa nigan presenteago egotea, eta kanpoko egintza honen bidez on handiagoa egitea otoitz sakonean baino. Gizaki noble hau barruko bihotz-berritzean ahalegindu bada, gauean, eta zertxobait goizean ere bai, bakean joan daiteke bere zereginetara, Jainkoak bakoitzari agindu bezala. Jainkoagan jar dezala arreta lanean ari denean, Jainkoak laguntzen baitio. Askotan lehenxeagoko kontenplazioan baino hobeto. San Paulok aditzera ematen digu, geure eskuekin lan egin behar dugula, ona baita gizakiak beretzat ahalegintzea, eta besteentzat ere bai beharra sentitzen denean.

Hauek dira gogoz behartsu direnak, beren buruei eta beren interesari uko egin dietenak. Badarraizkio Jainkoari, honek eraman nahi dituen bidetik, egonaren egonez, edota ariaren ariz. Hala ere, hasi berriak diren gazteek beharrezkoa dute Jainkoari denbora asko eskaintzea, beren barruko bizitzari eskaini, berau berezko gerta dakien arte. Hala ez eginez, betiko gera litezke barreiatuak, erabat kanpora emanak.

Gizaki hauetakoren batek une horretan ez badu ezertan aurkitzen pozbiderik eta dena dirudienez gaizki ateratzen bazaio, egonarriz eraman dezala gabezia hori, beronek jaso baitezake gorago. Oinaze-minak, Jaunaren esku jartzeak eta gabeziak gehiago laguntzen dute hazten, egitateak eta ugaritasunak baino. Iraun beza orduan fede santuan besterik gabe.

A, lagun maiteok! Zer pentsatzen duzue jende honen aurrerapenaz? Sinestu ezina da. Ezin da asmatu zeinen handia den horien aurrerapena perfekzioan. Sendotu egin ohi dira gogapen bakoitzean, hitz bakoitzean eta ekintza bakoitzean, denik eta txikiena izanik ere duten langintza. Demagun behar ez den gauza bat dela. Horiek egiten dutena merituduna da, neurri guztiak baino areago. Harritu egiten du horien aurreratzeak. Zeinen garrantzizkoa den jende hau luzaz bizi dadin gure artean! Hauen eraberritzea eta haztura oso handiak izan ohi dira, horiek bidean sartzen direnean. Ez ditu ezerk gelditzen, ikusi duzue. Gizaki horiek berek ere ez dute ezagutzen beren arimetako egoeraren bikaintasuna. Xumetasunak eta gogo orekatuak markatzen dute horien bidea. Jainkoak ezkutuan eduki nahi ditu horien balioak, natura errazegi harrotzen baita. Baina topo egingo balu egiaz apala den gizaki batekin (hain dira gutxi, zoritxarrez) Jainkoak agerian jarriko luke hainbeste ondasun. Benetan apala den gizakia, zenbat eta handiagoa izan egiten dioten ohorea hainbat eta gehiago murgiltzen da apaltasunean. Hain sakonki ezagutzen du bere burua, non bai baitaki ez duela ezer bererik. Sofrimenduak bereziki

balio dio aurrera egiteko. Minaren minez gure Jaunak arian jartzen ditu eta bizi duten giroak era berean zigortu egiten ditu. Ulertuak ez direnez, inoiz gertatzen da, horrelako pertsona bat edo bi komunitate batean aurkitzea, eta gainerako guztiek probapean jarri ohi dituzte modu zakarretan eta hitz mingarriekin, mailu kolpez bezala. Garai batean paganoak izan ohi ziren eta juduak santuen martiritzaile. Orain, ordea, ene lagunok, borreroak dira santu itxurako jendeak, obra on asko egiten dituztenak, zuk baino gehiago agian.

A! Nahigabe hauek sartzen dira barne-muinetan. Esaten dute zu erabat bidetik kanpo zaudela. Horiak diote eskarmentu handia dutela, pertsonaia sonatuak entzun dituztela eta oso eguneratuak daudela gauza guztietan. A! Zuk ez dakizu, orduan, ez norantz hartu, ez zer egin. Ea bada, egonarriz eramazu. Utz inoren esku zeure burua, eman amore, egon isilik eta esazu zeure barruan: "Jaun maite-maitea, ongi dakizu beste inor ez dudala bilatzen nik Zu baizik". Jende horiek ordena bateko partaide guztiak nahiko lituzkete beren ideien ildotik eraman, eta mundu guztiari eragin, joan daitezen beren leku beretik. Ezinezkoa da hori. Bakoitzak behar du eduki bere bizimoldea eta bere deiari behar dio erantzun. Horrela denak eraberrituak izango gara zuzentasunean, egian, santutasunean. Lagunok! Gure santutasun eta justizia guztia ezertxo ere ez dira. Gure zuzentasuna zuzenkontra da, lohikeria, behar gorria, begien aurrean jartzen ausartzen ez dena. Gure eraberritzea haren zuzentasunean egin behar da, Jainko beraren zuzentasun eta santutasunean, eta ez gure modutan eta hitzetan. Ezer ere ez gure denik, Jainkoarena baizik.

Izango ahal dugu orain murgiltzerik eta hondoraino lerratzerik Jainkoaganaino. Beronengan izan gaitzela egiaz eraberrituak. Beragan aurki gaitzela eta Berak lagun gaitzala hori iristen.

XVII

Arbola sutan¹⁸

"Nire gorputza benetako janari baita, eta nire odola benetako edari" (Jn 6,55)

Zenbat eta grazia ugariago jaso gizakiak, hainbat eta behartuago dago Jainkoari eskerrak ematera, goresmena, aintza eta zerbitzua eskaintzera. Pietate-jardunak, dohainak eta grazia guztiak bide dira Jainkoagana joateko; prestakuntza bat dira, beroni esker gizakia hel dadin Jainkoarekin bat egitera. Baina Eukaristiaren dohaia helmuga da eta saria, Jainkoa bera da zuzenean, inolako bereizgarririk eta helbiderik gabe. Jainkoa gizakiari ematen zaio inolako bitartekorik gabe, irudirik gabe. Jainkoa gizakiari lotzen zaio bere sinplizitatean, bete-betea. Maitagarria baino gehiago den dohaina, denen gainekoa, jaien jaia. Ostegun Santuan ezin ospatu liteke bere neurrian, oso hurbil dagoelako Pazkoari eta geure ahuldadeagatik eta festaren handitasunagatik ez genuke izango omenaldi egoki bat egiterik. Eliza Santuak jarri du jai hau, guk geuk bizkor dezagun misterio honi diogun fedea, geure indar guztiz, geure maitasun osoz bizkortu ere. Egintza harrigarria Eukaristiarena, geuk geure sentipen sakonenekin gogoeta dezagun, aitorpenez eta maitasunez gorets dezagun, maitasunean gorago igotzen ahaleginduz, geure ahalmenen gainetik.

Itzul gaitezen orain hitz hauetara: "Nire gorputza benetako janari baita, eta nire odola benetako edari". Eukaristia kanpotik ikusten dutenek, zentzuen bidez ikusi ere, ez lukete sumatuko ogia jatea eta ardoa edatea besterik. Ezer ez dakite fruitu bikoitzari buruz eta han gordetzen den gozotasun harrigarriaz. Gizakiak baliatzen dituen beste janariak, berez dira kaxkarrak, bizirik gabeak, mesprezugarriak. Gizakiaren arabera balioztatzen dira, beronengatik hartzen baitute bizia eta noblezasuna. Aitzitik, janari noble hori berez bizi da eta bizitzaren izate bera da. Beronetik janaritzen eta elikatzen direnak betiko biziko dira, Jaunak agindu bezala: "Nire gorputza jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du".

Jesusen hitzok entzutean, haren entzuleetako askok atzera jo zuen, ulertzen ez zituztelako Jaunaren hitzak, eta esaten zuten: "Onargaitza da mezu hau. Nork jaramon egin?". Zentzuek bakarrik zuten sumatu, eta horregatik atzera jo zuten. Dohain hau, hala ere, sentsazio guztien gainetik dago. Janaritzen duena eta janaria gauza bera dira.

Hiru puntu dira Sakramentu honen duintasun gorenaz aipatuko ditugunak: duintasuna, hartzaileei ematen dien abantaila handia eta izugarria, eta nola prestatu geuren buruak. Oso atsegina zait honetaz guztiaz Jainkoaren grazia lagun hitz egitea. Baina hitzak eskasten zaizkit hain gauza gorenak, miragarriak, preziagarriak eta misteriozkoak aipatzeko. Ez dago hizkuntzarik hori adieraz dezakeenik, gogapen guztien gainetik dagoenez, gizakien eta aingeruen adimendu guztiaren gainetik, zeruko eta lurreko sorkari guztien gainetik.

Lagunok, balego hemen gizaki bat erabat garbi eta barnekoia denik, gizaki barnekoi bat hitzaren esanahi betean, horrelakoak eduki dezake misterio honen ezagupen bat. Ezagupen maitatia, atsegina eta esentziazkoa. Hala ere, ez luke izango hitzez adierazterik, eta ez liguke ezer esango, ezinezko izango lukeen bezala arrazoiz eta gogapenez horretan barruratzea. Tamalez, jende asko dago itxura erlijiozkoak dituen, beren bizitzako egun guztietan, haurtzarotik zahartzaro arte, beren baitan bakarrik bizi direnak. Sentiberatasuna eta eraskotako arierak, batetik bestera ibiliz, hemendik hara. Ezin dute ezer jakin aberastasun honetaz, ez dastatu eta bizi ere altxor hau, sumatzerik ez daukatelako zentzuen bidez ez bada. Egiaz bizipenik eduki nahi baduzu noblezasun harrigarri eta izugarri honetaz, honela iraun behar duzu: guztitik askatua, pasiboa, bateratua eta barneratua, bakardadean.

Ez dago zertan sinestu, jende askok uste duen bezala, ezin dela Sakramentura iritsi gauza guztiei uko eginez ez bada, erabat pasiboak izanik eta bizitza guztiz ezkutua

eramanez. Hori egiterik ez badu, jendeak atzea eman ohi du eta ez du jaunartzen. Ez, lagunok, ez dezazuela horrelakorik egin. Ez hain erraz bertan behera utzi ondasun hoberena eta garbiena, ezin erdiets daitekeen gauza bailitzan. Izan ere, erabakia hartzen baduzu, erdiets dezakezu Jainkoa ondasun garbi eta noblean, edozein egoeratan eta zu zauden edozein modutan. Horretarako, hau bakarra behar da: zaindu zeure burua, iraunpenaz eta gogotsu, aztertu gizakien aurrean edukitako zeure egimenak eta egintzak, egin ohi duzun guztian edota egin gabe utzitakoan, barruan eta kanpoan. Gogamenak eta borondateak barrura begiratu behar dute. Ekileak ez garenean, zer eginik ez daukagunez, geure baitan bildu behar dugu geure izate, ahalgo, sentipen guztiez, eta murgildu barne-batasunean.

Nobletasun harrigarri hau ezin dezakegu uler, ez berataz hitz egin. Aurkez diezagutela gizaki bat bere noblezia naturazkoan, Adam bekatu egin aurretik zen bezalakoa, egoera naturazkoan inolako graziarik gabe. Gizaki horrek hain distira garbi eta dirdaitsuz egingo zuen argi, halako dohainaz aberasturik, non giza adimendu batek ere ez baitzezakeen bere ahaleginez haren garbitasuna ezagutzerik lortu. Arrazoiak beraz, nola dezake hesi eta besarka janari biziaren leizezulo denen gaindiko hau, gizakiarekin miragarriro bat egiten dena eta gizakia beregana erakartzen duena bera bezalakoa eginez?

Giza adimenduak pentsa dezakeen guztia baino askoz ere goragoko batasuna, aldaketa guztien gainetik dagoena, esate baterako, ur-tanta apurrik apurrena zahagi-ardoarekin nahasten denean baino askoz ere goragoko batasuna. Eguzki-izpiak bere labe argitsuarekin duen bezalakoa, edota arimak eta gorputzak gizaki bat baizik egiten ez duten bezalakoa.

Batasun honetan izpiritua erakarria da, eta jasoa ere bai ahuleziaren gainetik, egoera naturazkoaren eta desagokitasunaren gainetik. Garbitua, antzaldatua bere ahalmen guztien gainetik, bere buruaren, bere izaeraren eta egitate guztiaren gainetik. Jainkoaz blai, aldatzen da eta antzaldatzen jainko-erara. Benetako birsorketa bat dago, izpirituak bere egokitasuna galtzen du Jainkoagan urtuz.

Suak egurra pizten duen bezala, aienatzen ditu hezetasunak, berdetasunak, zakartasunak. Berotasun bihurtzen du, gero su hartzen du, eta azkenik suaren beraren antza hartzen du. Zenbat eta antz handiagoa hartu, orduan eta txikiagoak dira aldeak. Ondoren, suak egurra ahitu egin ohi du, egurra su bihurtzen delarik. Jadanik ez dago alderik, gauza bera egin direlako. Dena da su.

Janari maitagarri honek izpiritua eramaten du erabateko desberdintasunetik antzekotasunera, eta antzekotasunetik Jainkoarekin batasun bat eta identitate bat edukitzera. Antzaldatutako izpirituaren azken aldia da, desagokitasuna eta egokitasuna izpirituak galtzen dituenekoa.

Gizakiagan, Jainkoak karitatea piztu zuen hartan, eze, zakar eta desberdin den guztia janari honekin galtzen da, jainkotasunean urtzen da, Jaunak San Agustini esandako eran: "Handien janaria naiz Ni; hazi zaitez, eta jan; ez nauzu ni zugan bihurtuko, baizik eta zu Nigan bihurtuko zara erabat".

Baina, lagunok, hori gertatu aurretik, heriotza asko jasan behar ditu naturak. Haraino ez da iristen ez bada eraskotako bide basati, desertu eta ezezagunetatik, hauetaz baliatzen denez Jainkoa gizakia norabidetzeko. Jainkoak hiltzen erakusten dio. O, nire lagunok, zeinen noblea den, zeinen emankorra eta guztiz atsegina, heriotza honetatik jaiotzen den bizia! Zeinen ontasun bikaina den, eta zeinen harrigarriro noblea, hiltzen jakitea!

Lagunok, ikusten duzue, ordea, jaten dugun gorputzeko janariak, ogiak, ardoak, eta hartzen dugun guztiak, hil egin behar duela bere buruarekiko, eta eragabetu ere bai gure naturak bereganatu baino lehenago, eta naturarekin bat egin aurretik. Zenbat heriotza diren beharrezko! Janariak erabat birrindu egin behar du, xehetatu, urdailera baino

lehenago eta han berriro eragabetu. Ondoren bihotzera doa, gibelera, burura eta zentzuekin bat egin ohi da, gogapena bera ere ukitzeraino. Horrelako egoeran janaria ez da jada janari. Ez dago hain begi zorrotz eta sarkorrik, ez dago ere zentzurik lehen janaria zena ezagut dezakeenik. Hala da. Janaria hain dago antzaldaturik, non ez baitago arrazoimenik lehenak izan ziren osagaiak non dauden eta nola diharduten aurki dezakeenik. Sinets dezakete, baina zentzuek ez daramate frogarik.

Oraindik gutxiago ulertzen da izpiritua batasun jainkozkoan ezabatzea, hainbestearaino ezkutaturik, non adimendu bat ere ez bailitzateke gai ezagutzeko ezer izan ote zen lehenagotik.

Tamalez, badira gizaki ezjakin eta zentzugabeak, hau hitzez hitz ulertzen dutenak, eta esaten ere dutenak eurak natura jainkozkoan antzaldaturik direla; baina hau zeharo faltsua da eta heresia kaltegarria. Natura jainkozkoa eta Jainkoaren izatea oso goian geratzen dira, gaindegi guztien gainetik, baita Jaunarekiko batasun gorenean, sakonenean, gogokoenean ere.

Han sartzen da leizezulo jainkozkoan, Jainkoarekiko batasun gogokoenean, inolako sorkarik uler ez dezakeen hartan. Adimendurik ez bada aski zorrotzik janarien antzaldaturik miragarriak ezagutuko duenik, nola nahi duzu hurbildu janari noble honek izpirituen lekurik garbienean, antzaldaturik den hartan, sortu duen misteriora, ikusiz kanpoko gizaki gaixoa nagia dela, lotia eta denerako traketsa? Honek hondorik ez du. Utzi esamesak, iruzkinak eta eztabaidak gai honi buruzkoak. Ezkutuko misterioa da, izpirituan antzaldaturik, arima-zolan ere bai, eta Jainkoagan.

Orain bertan ere zenbait pertsonak asmatzen dutenean egunean hiru eta lau orduz gogapen nobleak edukiz beren baitan biltzen, horrelakoek atseginez egin ohi dute beren otoitza eta kontsolamendu eta gozamenak senti ohi dituzte, uste izanez goiena jo dutela, egoera bikainean daudela.

Ez, ene lagunok. Oso urruti aurkitzen dira benetan. Askoz ere gorago igotzeko eginak gara, eta dei eta gonbita egiten digun Jainko leialak oso gaizki ikusten du guk ezerezkeria horiekin aski izatea. Ez da beste dohainik Jaunak hainbestearainoko zabaltasunez eta atseginez egin ohi duenik: bere burua eskaini, eskuzabaltasunez eta ugaritasunez eskaini ere, modurik jasoenean, nobleenean. Gu geuk ere, dohain hau eraberritzen dugun bakoitzean, zabaldu behar genuke geure burua, Jainkoa beragana hedaturik, bihotzez, zentzuz eta goi-ahalmen guztiez, gure asmoak eta desirak Beragan jarri. Hau egin beharko genuke, ez zentzuen eta irudiaren arabera, baizik eta erabat jainkozko modu batean. Sar gaitezen ausardiaz leizezulo jainkozkoan, ez baikintezke hainbeste eta hain barruraino hurbil, Jainkoagan gehiago igo eta sakon ez gintezkeen moduan.

O, lagunok, zein kalte astun egin ohi dioten beren buruei zentzuetan eta beheko ahalmenetan geratzen diren jendetza horiek, zentzu-gauzetan baizik ezer ezagutzen ez duten horiek! Ez dira ezertara iristen, geldirik daudelarik. Gorputzeko janaria urdailean geratuko balitz bezala, aurrerago egin gabe. Hauetako inor ez da inoiz iritsiko erabateko ontasunera, zeinetara Jainkoak egin baitigu gonbita eta deia, janari bikain, noble eta amoltsu honen bidez egin ere. Beharrezkoa da, funtsezko bulkoa eta bere ahalmen guztiak, goikoak nahiz behekoak izan, dena erabat Jainkoaren esku gera dadin. Bulko kementsua behar da, naturazko indar ororen gainetikoa, hain garbi, bizi eta single den fedea lagun harturik. Ez bakarrik ikasten eta eskuratzen den hura; erro sakonak behar ditu izan bizitzan.

Horrelakoetan, Jainkoak ikusten badu gizakiak ez daukala aurrerago iristerik, hor dator Bera, ezkutuan egiten du lan, eta naturak sumatu ere gabe, aurrera eginarazten dio gizakiari, naturazko era guztien oso gainetik eramanez.

Bizitza maila honetan, jaunartzea da eskuera daukagun laguntza, errealena, ziurrena eta eraginkorra. Sakramentu noble eta gurgarria da, zeinetan Jainkoa ematen baitzaigu esentzialki, pertsona den eran, berezko esanahian eta egiaz. Maite ohi duten gizaki guztiek, eta egiaren goieneko mailara iritsi nahi dutenek, horrela jokatu behar dute: janari bizi hau maiz eta garaiz hartzeko eran, nabaritzen badute behintzat han aurrerapena eta gehiagotze bat dutela karitatean. Zenbat eta maizago jaunartu, hainbat eta ongarriago izango zaie Eukaristia, baldintza honekin: ez dezatela gal begirunerik eta ez dadila ohizkokeria bihur.

Maiz jaunartzea gauza bikaina bada, beren baitan hazkuntza eta aurrerakuntza sumatzen dutenentzat, eta Eukaristiaganako maitasuna eta desira dutenentzat, zer dela-eta ez zaie ongarri gertatuko egunero jaunartzea? Gu duin egiten gaituena ez dator inola ere giza egintzetatik, ez geure meritutik. Bakar-bakarrrik dator graziatik eta Kristoren merezimenduetatik. Jainkoaren dohaina gudan isurtze soilak baizik ez da. Har baliteke urtean behin, hilean behin edo astean behin, zergatik grazia bera guri ez eman egunero, gizaki nobleak hala nahiko balu eta bere aldetik dezakeen guztia egingo balu?

Perfekziora iritsi nahi dutenentzat ez dut ezagutzen bide ziurragorik, erakargarriagorik, motzago eta baliagarriagorik, eta ausartuko nintzateke lagun guztiei hori aholkatzera, biderik ziurrena bezala aholkatu ere, baldintza honekin: izan eta senti dezatela beldur begirunezkoa, eta karitatea eta debozioa haz eta sendo daitezela.

Egurra su izateko ezerk ez du hain ongi prestatzen, surtara bertara hurbiltzeak adinbat, eta suak egurra gero eta gehiago hartzeak adinbat. Denik eta bustiena dagoela, suaren ondoko harria edo burdina, suak bere antzeko egingo ditu. Su-hargarri bihurtuko du.

Gizaki bat egon daiteke hori bezain gaizto, hori bezain gogor. Irudikatu daiteke bekatu-hezetasunez blai, bizioetara gogotik emana, munduaren erakertasunaz oro har, edota sorkariren batek bereziki. Su jainkozkora maiz hurbildu nahi badu, benetako jaieraz eta asmo zuzenez hurbildu ere, eta bere aldetik ahal duen guztia eginez, ez du iraungo su honetatik hurbil, bere bihotza, harria eta burdina bezain idor eta gogorra, biguin, bero, sutsu eta jainkozko egin gabe.

Ez dago prestakuntza hoberik, ez zuzenagorik Jainkoa bera baino. Bihar izango balitz festaburuaren egun handia, eta nik neure burua modurik onenean prestatu nahiko banu, prestaketarik gorenena, zuzenena izango litzateke, gaur hartzea, deboziorik handienaz hartu ere, Jainko gurgarria Sakramentu Santuan. Nola hobeto prestatu nik neure burua maitasun handiagoz, eta santutasun beteagotz hartzera, Jaunarekin berarekin ez bada? Zer baliabide hoberik izan dezakezu erroagotik ezaba daitezen zure inperfekzio traketsa, izpirituaren etsaia den zure gizaki zaharra eta eraberri daitezen natura, zure ohiturak, zure izateko eta egiteko erak, eta har dezazun bataio berria eta birjaio zaitezzen? Nola gudan hartu Jainkoaren egiazko Semea, honen egiazko gorputza, gorputz bizi, jainkozko eta gurgarria, berorren Odol santua, garbitzen eta ikuzten duena, haren arima gurgarria, haren Izpiritu Santua, haren maitasun sutsuko bihotza, haren betierako jainkotasuna, haren gizatasun samurra, Hirutasun Santua, Bera den guztia, berak duena eta dezakeena? Nola gutxiena uko egin gehiena eman zaionari? Zein dohain irudi lekiok gehiegia Jauna bera bere osoan jadanik eman zaionari? Gizakiekin egotea da bere zoramena, Berak esan izan zuen bezala: "Gizakiekin nuen neure gozamena" (Es 8,31), nola nire bihotzean, hala nire ariman".

Ene lagunok, Jainkoaren graziaz esan dizkizuet gauza hauek guztiak, berauek direlarik neuk irakurri eta teologoez idatzi dituzten gauzarik hoberenak. Honela dio Santo Tomasek: "Jesukristo Gure Jaunak bere Gizakundearen bidez munduari emaniko grazia guztiak, gizaki bakoitzari bereziki eskaintzen dizkio bere gorputz santuaren bidez, eta era berean haren heriotza santuak, piztuerak eta igokundeak baliatutako fruitu guztiak,

haren gorputz santuaren, afari santuaren eta jainkotasunaren aintza eta zoriona. Hau guztia Jaunak eman ohi dio gizaki bakoitzari, aldareko Sakramentuaren bidez bereziki". Santo Tomasen hitzok gehiago eta hobeto adierazten dute guri gogoratu litzaizkigukeenak.

Utz iezadazue orain konparazio arrunt bat hona ekartzen, mundutarrentzat da, forma eta irudi sentiberekin bakarrik gauzak ulertzen dituzten haientzat. Demagun enperadore bat, bere esku dituen altxor guztiak, aginte guztia, edertasun guztia, jakinduria guztia, gizaki guztiek eman ditzaketen atseginak, eta gauzak ere nahi adina eta pentsa ezin den neurrian. Gizon honek berekin hartzen du grazia bat, izan litekeen lepradunik errukarriena, zauri-zornaz betea, kirastuna, itsua eta elbarria, eta enperadorea honen lagun mina egiten da. Hain batasun barnetikoa dutenez, haren bihotza, haren burua, haren eskuak, haren oinak, eta barrutik nahiz kanpotik den osoa, gizaki behartsu honen gorputz izatera iristen da. Lepradunaren gorputz-atalak enperadorearen beraren gorputz-atal egiten dira. Maitasun miragarri eta neurrigabea!

Mila aldiz handiagoa eta gure ezagupena baino askoz ere gorago dagoena da Kristoren batasuna eta maitasuna Eukaristian.

Orain hitz egin beharko genuke, luze eta zabal hitz egin, Eukaristiaren fruituei buruz.

Ezer ez da esan duguna, esan beharko genukeenaren ondoan.

Egin diezaiogun otoitz Jaunari, hain maite dugunari: berak osabete dezala guri eskas zaiguna.

XVIII

Graziaren jauralkia¹⁹

"Etorri niregana irrikatzen nauzuenok" (Si 24,14)

Gaur ospatzen den egun amultsu honetan Ama Birjina, gure Andre Maria, garbi jaio zen, amaren sabeletik santu egina. Berak itzuli digu guk gizakiaren erruz paradisuan galdu genuena: Aitak bere antzera moldekatu zuen irudi noblea. Aitarekin batera, gure Andre Mariak indarberritzen ditu orain gorputz mistikoaren atal guztiak, jatorrizko garbitasuna guri bihurtuz. Jainkoak, bere neurrigabeko errukiz, Mariaren bidez betierako leizezulotik askatu nahi izan gaitu, zeinetara kondenaturik baikeunden geure erruz.

Hitzok irakurtzen ditugu Ama Birjinari buruz Jakinduriaren liburuan: "Etorri niregana irrikatzen nauzuenok" (Si 24,19).

Zeruko Aitari zuzentzen zaizkion hitzok, eramaten eta zuzentzen gaituzte Aitagan gertatutako jaiotzara. Ama Birjinari ere berezko esanahiaz eransten zaizkio, Andre Mariak ere parte hartzen duelako zeruko Aitaren altzoan betidanik beteriko jaiotze berean. Aitaren Seme beraren Ama da, eta gonbita egiten digu hurbil gaitezen, jaiotza honetan bete-betean parte-har dezagun, esanez: Jaiotza hau sutsu desiratzen duzuen guztioi, egiaz nahi duzuen guztioi, emango zaizue agian argi-izpiren bat. Eta emango gainera, zuen irrika berotu eta sutu dadin jaiotza desiratzuz, San Agustinekin batera esan dezakegunez: "Jauna, zuretzat egin gaituzu, eta gure bihotza kezketan dago Zugan atsedean hartu arte".

Ezinegon honek etenik gabea behar luke izan. Eragotzi egiten diote, ordea, gizakiaren baitan gertatzen diren jaiotza arrotzek, batez ere gauza sentiberek, denborazkoek eta iheskorrek, atseginetik, sorkarieratik etorritako gozamenek, hilak edo bizidunak izan sorkari hauek, lagunek, harremanek, jantziek, jakiek. Hitz batean, gizakiari atsegin-iturri zaion guztia. Gauza horiek guztiak zugan jaio ohi dira eta jaiotze horrek galarazten du Jainkoa jaio dadin, zuk ohartuki nahiago baituzu beste zerbait zugan jaiotzea, denik eta txikiena izanik ere gauza hori. Gabe uzten zaituzte eta kentzen Jainkoaren handitasuna eta jaiotze amultsua, Berak zugan burutu nahi duena eta behar duena. Gauza horiek kenduko dizute jaiotzeko irrika eta Jainkoagan eduki behar duzun konfiantza.

Edozein atsegin desordenatuk eragozten dizu hori guztia, eta orduan deitoratzen duzu: "Ez dut maitasunik, ez dut desirarik". Izan ere, hor dago eragozpen guztia, horixe da eragozten zaituena, horixe zure maitasuna eta desira kateatzen dituen. Zerorrek bila ezazu zer den eragozpena; inork ere ez daki zuk baino hobeto. Ez niri gehiago galdetu; galdetu zeure buruari zergatik ez duzun maitasunik, ez desirarik. Arrazoiak dio, ezin den zerbait nahi duzula: Jainkoa eta sorkariak une berean. Ezinezkoa da Jainkoaz eta gauzez une berean gozatzea, nahiz eta odolezko malkoak isuri. Ez gara ari behar diren gauzez, edota Jainkoagatik eta beronen maitasunean ditugun haietaz.

Badira gauzak gure giza kondizioan saihestu ezin ditugunak, hala nola janean eta edanean hartzen dugun atsegina, gosea edo egarria daukagunean; etzateko gustua nekatur dagoenarentzat, eta loarena atxiloturik dagoenarentzat. Horiek horrela izanik ere, horretan guztian atsegina baizik bilatzen ez bada, beharrik edo berezko baliagarritasunari begiratu gabe, gustuagatik bakarrik, horiekiko ardurak galarazten du jaiotza jainkozkoa. Hala ere, eragozpena txikiagoa da beste gozamenetatik datorrena baino, atsegin horiek mugatzen direlako naturaz beharrezko denera. Zaila da, eta ezinezko ere bai, atsegina bereiztea naturaz beharrezkoa denetik. Baina betiereko jaiotza bere baitan eragotzi nahi ez duen gizakiak, jainkozko gauzetarako bere irrika handiarazi nahi duenak, erne egon behar du zentzuetan eraginiko gozamenetik datorzkigun eragozpen guztiekin, naturarekin eta sorkariekin. Zenbat eta txikiagoa izan sorkarieratik

datorrigun atsegina hainbat eta handiagoa izango da jaiotza jainkozkoa. Hotza ateratzen den neurrian, beroa sartzen da.

Erne egon bedi, baita ere, atsegin nagi edo zabarrik egon ez dadin gustuen maitasunean, asko itsutzen baitira ahuldade honekin. Badira jendeak ardura ez zaienak zer egiten duten, arrazoitzen ez dutenak, ausartegi jokutzen dutenak. Ongi gogoan har ezazu, eta errua ez bota aitorleari sorkariekiko duzun atxikimendutik eta zure axolagabetik datozen hutsegiteengatik, zeure baitan eusten diozun bitartean, gustu guztiei amore emateko gogoari. Aitor zintezke egunean hamar aldiz. Ez lizuke ezertarako balioko horrek, ez bazenu borondaterik atxikimendua diezun sortutako ontasun guztietatik askatzeko. Ikas hau ere: aurkitzen bazara, zerorrek hala nahita, sorkarien maitasunari loturik, ez duzu gozatuko Jainkoaren presentziarik.

Esakritura Santuek errepikatzen dute eta Ebanjelioko orrialde guztietan irakurtzen da. Testamentu Zaharreko eta Berriko agindua da Jainkoa maitatzea bihotz-bihotzez eta gogo osoz. Beste pasarte batean irakurtzen da: "Zuetako inor ezin daiteke izan nire ikasle, dituen guztiei uko egiten ez badie" (Lk 14,33). "Ez da aski niri Jauna, jauna! esatea, Jainkoaren erreinuan sartzeko; zeruko nire Aitaren nahia behar da egin" (Mt 7,21).

Uste al duzu Jainkoak bere erreinua eman nahi diela sorkari gaixoei, eta horregatik isuri duela Berak bere odola eta eman bere bizia? Kontuz ibili; ez uste izan Jainkoak utziko duenik dena modu horretan igaro dadin. Pentsatzerik bazenute zeinen gogorra izango den Jainkoak eskatuko duen ordainketa, estuasunez ihartuko zinatekete. Jainkoak gauza guztiak eman ditu berauetaz balia gaitezen Jainkoaganako bidean. Bidearen helmuga Jainkoa bakarra da, eta ez hau edo hura. Uste al duzue ergelkeria dela hau?

Jantzia ez da santu egiten gaituena. Nire kapusaiak, nire ilemotzak, nire konbentuak, giro santuak, honek guztiak ez nau santu egiten. Beharrezkoa zait arima-zola santua, hutsa, garbia eta askea, ni santu izatera hel nadin. Neuk oihukatu arren: Jauna, Jauna. Neuk asko irakurri eta erreztatu arren. Neuk ongi hitz egiten jakin arren, eta gauzak konprenitu arren, eta itxura onekoa izan... Ez, ez. Ez da hori erreinuan sarraraziko gaituen guztia. Askoz gehiago behar da. Zeure burua liluratzen baduzu, zurea da gaitzaren errua eta ez nirea.

Zure bihotza eta funtsezko jasoera mundukoi ekin, eta erlijio-itxurapeko hainbesterainoko harrokeriarekin aipatu berri ditudan gauzok zure ariman egiaz txertatzen dira, hala nola mentua jartzen den zuhaitz-gerrian: ondoko fruituek txertuaren ezaugarriak izango ditu eta ez zuhaitz-gerriarenak. Horrelatsu dira zuen bihotza hartzen duten jaiotza arrotz eta kanpokoak, berauek, txertu bezala, mentu txarrak ematen dietelarik zuen fruitu guztiei. Gure egintzak, jainkozkoak izan behar luketenak, probetxu gabekoak izan ohi dira, erabat gainera. Gauzak zuengan jaiotze honek ahalmen guztiak, barrukoak eta kanpokoak, kutsatzen ditu.

Honela esan ohi zuen Jobek: "Gau-ikuskari kezkarri bat izan nuen lozorroak gizakia hartzen duen garaian; izuak dar-dar eragin zidan, ikara hezurretaraino sartu; haizeak aurpegian jo ninduen, gorputzeko ilea tentearazi" (Job 4,13-15). Gau-ikuskariaren latzikara haxe da: sorkariek bihotza ilunki eta itsuki hartu izana. Honi ezin ulertuzko latzikarak eta izuikara estuagarriak jarraitzen diote, hezurak dar-dar jartzeraino. Horren aurreko Izpirituaren pasabidez Jainkoaren pasabidea da.

Liturgi testuak pasabide bat aipatzen du hemen. Bi "transite" bi pasabide dira hemen. Bata izpirituarena da, hau da, Jainkoa geuregana; eta bestea gure pasabidea da Jainkoagana. Igarotze honek irteera bat suposatzen du, entzuna duzue izan ere, filosofoek diotenez, ez litezkeela bi forma batean eman materia berean. Sua sartzen den lekuan, sua indartu ahalean egurra ezkutatu egin ohi da. Arbola jaiotzeko ere haziak hil egin behar du.

Jainkoari leku emateko, guregan bete-betea jaio dadin, ezkutatu egin behar du sorkaritik dugun horrek.

San Gregoriok iruzkin bat dagio testu honi: "Haizeak aurpegian jo ninduen, gorputzeko ilea tentearaziz", hitzok ilea moztu behar zuten lebitei erantsiz. Hau nahi du esan larmintzan ileak hazten diren moduan, gure ahalmenetan ere, goikoetan eta behekoetan, hazi ohi direla ohitura zaharretiko eranspenak. Hori da moztu behar dena Jainkoaren epai zorrotz, beldurgarri eta misteriotsuaren harriarekin, eta bere zuzentasun argitsuaren harriarekin, honek ez baitu gogapen bakar bat ere epaitu gabe uzten. Deliberatuki barruan eutsitako irudirik txikienak urratua behar du izan eramangaitza den garbi-toki baten bidez, Jainkoaren aurpegiraino iritsi arte. Baina, ile gaizto eta likitsak labain zorrotzez ebakita gero ere, jaiotzen dira berriro, eta orduan gauza bera egin behar da. Batzuk hain dira prestuak ze, pentsamendu bakar batez ohartu bezain laster, burdinazko borondatez berehala mozten baitute. Hasieran ahalegin handia eskatzen du, gizakiak bere burua etengabe zaindu nahi badu. Baina gerora, ohituraren ohituraz, oso erraza gertatzen da, eta gogortasun handia eskatzen zen lekuan, gero nahikoa da haizemate arin bat.

Gizakiak karitate eragile asko behar du izan beste gizakientzat. Ez bereziki pertsona jakinekin bakarrik. Hoberentzat bezala behartsuentzat eta ez-gustagarri direnentzat ere, bereizkeriarik egin gabe. Horrela egin ohi zuten Jainkoaren lagunik handienak ere: Andre Mariaren aitak eta amak, San Joakinek eta Santa Anak. Hiru gauza izan zitzaizkien beharrezko: lehenengoa, Jainkoa zerbitzatzea jauretxean, bigarrena ohiko behartsuei zerbitzatzea. Hirugarrenik, beren bizitza. Kontuan izan, tripazalekeriak eta diruzalekeriak agintzen duten lekuan, zulo lizun eta zatar bat dagoela, guztiz arriskutsua dena. Gizakiak oso eskuzabala behar luke izan ezkutatzen diren ondasun hutsalen erabileran. Ematen duenari emango zaio, eta barkatzen duenari barkatuko. Zuk neurtzen duzun neurriaz neurtuko zaituzte zu.

Badira izan barruko ondasunei hain atxikiak, non, konturatu gabe, desegokierak geratzen baitzaizkie bihotzean. Hau eragozpen izango zaie Jainkoaren aurrera iristeko. Erabat garbi bizi zitezkeen gizakiak, eta pietatezko jardunaldi ederrak bete zitzaketeenak. Baina hori, zeinetan atxikita geratzen baitira, zolagunean zaie gelditzen, berak konturatu ere gabe.

Egiaz bizi nahi dutenentzat, erabaki zuhurra izango litzateke Jainkoaren lagun bat edukitzea, honi bere irizpidearen kontu emateko, eta berorrek aholkuak eskaintzeko Jainkoaren izpirituari dagokionez. Horretaz ez dira jabetzen, harik eta barruko gaitz hauek jasaten dituzten jendeekin tratamentu labur bat eduki arte. Gizaki horiek milatan mila bat baino harantzago horrelako bat bilatu behar dute: Jainkoaren laguntasuna bizi izan duena, bide zuzena ezagutzen duena eta inor norabidetzeko gai dena. Espezialdurik ez dagoenean, aitorleek ere egin dezakete zerbitzu hau, nahiz eta aukerakoak izan ez. Horiek, karguaren enkarguz, Izpirituaren izenean hitz egiten dute, askotan jakin eta ulertu ere gabe. Horien esanetara jartzea, eta horien iritzira ibiltzea, gauza ona da.

Eredu bete-betekoa dugu Ama Birjinaren baitan. Neskabila zenean, gurasoen esana egin zuen. Gero, jauretxeko menpetasunean bizi izan zen. Ondoren, bere senar San Joseren babespean gertatu zen; geroago gure Jaunaren babespean, eta azkenik San Joanenean, honi agindu baitzion gure Jaunak bere lekua har zezan.

Horregatik, bihotz-bihotzez eskatzen diogu Andre Mariari bere babesean har gaitzala, eta bere jaiotegunean berriro sorraraz gaitzala gure jatorrizkoa izan zen bizitzan.

Denoi egin diezagula horrenbeste mesede.

XIX

Holokaustoa²⁰

Aukeratutako santuaren jaiotza ospatzen dugu gaur, San Joan Bataiatzailearena, bera baita santu bakarra jaioteguna ospatzen zaiona. Joan izanak grazian dagoena esan nahi du.

Grazia jaioko bada, aurrenik lehengo egunean aipatutako bideak ibili behar dira. Orduan bi gaitz gogoratu nituen: bat, naturan errotoa, jatorrizko bekatuaren ondorioa; bestea, zigorraren gaitza. Lehenengoa datza gizakiak gainditu behar du gaitz hau, bere indarrak jarritz borondatea gaizkiatik aldentzera, eta Jainkoaren asmoari kontrako zaion guztitik. Bigarren gaizkia lehenengoaren ondorio da: zigorra, behar gorria. Ongi etorria izan bedi eta gizakiak onartua.

Oinaze-mina berorren gainera erortzen da, Jaunaren bizibidea jarrai dezan, zeinak bizitza osoa igaro baitzuen sofrimendu asko eta mingarritan. Askotan Jainkoak ontzat ematen du gizakia erasotua gerta dadin, bekaturako isuria dela sentitzeak damaion gaitzagatik, erorketa neketsuek eraman dezaten bere burua benetan ezagutzera, maitatzen ikas dezan, eta oinazearen eta sofrimentuen bideetan bere burua gogoz uzten, oinaze-minok gainera baitatozkio eta azpian baitute hartzen. Ene lagunok, bide horretan nork bere burua uztea hain gauza gozoa izango litzateke...! Sofrimentuaren bidexkatik, denetan zoriontsuena den horretatik, gizakia etengabe aurrera doa, begiak bere ahultasunean jarritz, bere ezinean, bere itsuskerian, bere ezerezean.

Bide honi jarraitzen dionak, berau ulertzen duenak, hau beste jardunik ez du egingo: gogoratu bere txikitasuna, bere ezereza, ona izateko duen gaitasun eza. Egiaz ikusiko luke grazia bere barruan jaiotzen. Lagunok, gizakiak berez ez du ezer. Dena Jainkoari dagokio jabego bete eta zuzeneko. Gauza handiak zein txikiak, dena da Jainkoarena. Gizakiak berez ez du ezer egiten. Bere egin dezakeen bakarra da on den guztiaren usteltzaile izatea, barruan eta kanpoan. Bere baitan ezer baldin balu, ez dezala beretzat har, ez du berea eta. Gizakiak ez luke sekula bihotzez saihestu behar egia hau. Bere ezereza ikus dezala beti. Naturak hedeak lasaitu bezain laster, gizakiak gaiztoa den guztirako isuria duenez, bekatu-mugan aurkituko litzateke. Arreta jarri behar zaio norberaren ezagutzari, ikusteari ere bai nora bideratzen diren funtsezko bulkoa, bere asmoa, bere maitasuna, bere gustamoldeak. Ikusi zeinen belar txarrak jaiotzen diren soroan. Izan ere, sakonenetik Jainkoagana joan behar du garbiki eta bakarrik, Beragandik kanpo dagoen ezertan begiak jarri gabe. Azter itzazu, baita ere, zeure kanpoko urratsak, zeure hitzak, zeure egintzak, zeure ohiturak, zeure jokabideak, zeure jantziak, zeure ikustaldiak. Aurkituko bazenu egunean zehar zerbaitan huts egin duzula, minaren minez itzul zaitez eta igo zaitez Jainkoaganaino, errudun jo ezazu eta salatu zeure burua Haren aurrean. Haren jauralkiraino igo bedi norberaren zolagune sakonenetik ateratako aiene bat. Horrela berriro dena ordenapean ezartzen da.

Bihotz-damu hau Apostoluek eduki izan zuten, ez bekatu egin zutelako, baizik eta munduko gauzei atxikimendurik ez edukitzeko, hain baita handia atxikimendu hori gizaki guztietan. Joera hau orekatzen du, ordea, etengabe sentitu betikotasunean finkatzeko grazia, berau aldeztu aurretik gozatzea, orduan hasperen bat sortzen da eta kanpoko zentzuak erdiz erdi zulatzon ditu. Aldarea ongi dago han, kanpoan, Sancta Sanctorum-en aurrean, aldare horren gainean erretzen zirelarik akerrak eta zezanak. Orobat, gizakiak bere haragiaren oparia eskaintzen du, eskerrak emateko Jesukristo gure Jaunaren Odol guztiz preziatuagatik. Gizakiak, begiak bere hutsegiteetan jarritz, hondoraino apalduko du bere burua, Jainkoaren oinetan ahozpezturik errukia iristeko. Itxarongo du Jainkoa jaio dadin apaltasun-zola honetan. Zenbat eta sakonago jaitsi den, orduan eta goragokoa izango da horren jasoera: gauza bat bera dira bata eta bestea. San Bernardok dioena: "Kanpoaldetik egin daitezkeen jardute guztiek eta apaltasun-

ibarrean irauteak ez dute balio berdina. Apaltasun-ibarrean jaiotzen dira gozotasuna, norbera inoren esku jartzea, baretasuna, eramankizuna, ontasuna. Hau da egiazko bidea eta bide zuzena. Hortik ez doana burua galduta dabil. Denik eta ugarienak izanik ere kanpoko egintzek ez dute baliorik gizakiarentzat. Ez eta ezerenik ere. Gehiago dira Jainkoa haserretzeko, berari atsegina emateko baino.

Ene lagunok, itzul gaitezen orain eguneko ebanjeliora. Esan da, beste gauzen artean, Zakarias apaiz ospetsua zela, honek eta bere emazteak ez zutela haurrik, egun haietako lotsakizun handia bailitzan. Zakarias bakarrik sartu zen santutegian, herria kanpoan zegoen bitartean. Bete beharra zeukan bere apaiz zerbitzua. Zutik zegoenean aldare alboan, Gabriel aingeruak esan zion seme bat jaioko zitzaiola: Joan. Izen honek grazian dagoena esan nahi du. Zakariasek ez zituen erabat sinestu hitzok, eta horregatik mutu gelditu zen dena bete zen arte. Zakariasek esan nahi du Jainkoaren oroitzapena, Jainkoa gogoan edukitzea. Barne-gizakia da Jainkoa gogoan duena, santutegian sartzen den apaiza, herri guztia kanpoan utziz.

Gizaki bati apaiza deitzeko arrazoia ofizio honetan datza: zeruko Aitari Seme bakarra herriaren alde eskaintzean. Beldur naiz, argi dagoen bezala, apaiz guztiak ez direla on beteak. Aldarera hurbilduko balira beren buruez harro, Kristoren eta kristau-herriaren izenean etorri beharrean, kalte gehiago egin dezateke ona baino, eta Jainkoa haserretu gehiago, ederretsi baino. Beren egiteko santua Elizaren ordezkari ofizialak direnez bete ohi dute. Ordezkaritza honek egiten du, beren sakramentu-eginkizuna bete dezaten. Horrelako gizakiek bakarrik egin dezateke. Berauek dira Jesusen gorputza sagaratu dezaketenak, ez beste inor.

Izpiritualki, ordea, apaizaren opari-errealitatearekin batean, honen egiteko berezia oparia eskaintzea baita, kristau batek eskaini dezake bere burua. Era berean, emakumeak ere izpiritualki oparia eskaini dezake gizonak bezala, berak nahi duen guztian, gauez, egunez, edozein garaitan. Orduan emakumeak santutegian sartu behar du eta kanpoan utzi arrunkeria guztia. Bakarrik sartu, hau da, bere baitan bat egin; izpiritua bildurik edukiz. Han-hartan, zentzuetako gauza guztiak kanpoan utziz, zeruko Aitari eskainiko dio opari maitagarria, beronen Seme maitea, honen egintzak, hitzak, oinaze-minak, bizitza santua. Berak nahi duen guztirako, bere asmo guztietarako. Jaiera sutsuz bildu behar du mundu guztia bere otoitzean: bekatari tristeak, zintzoak, eta Garbitokiko atxilotuak. Zinez eraginkorra da praktika hau.

Alberto Apezpikuak apaiz handiaren egitekoa honela deskribatzen du. Sancta-sanctorumean sartu ohi zen, berekin hartuz txekor baten odola, ikatz piztuekin batean. Barrura sartuta gero, ontzi sakratuak odolez zikintzen zituen. Gero su ematen zien pilatutako belar usaintsuei. Ke-mordo bat igo ohi zen. Jainkoa etortzen zen orduan eta hodeitik hitz egiten zion apaizari.

Ene lagunok, apaiz hori edozein gizaki bertutetsu eta barnezale da, bere baitan sartzen dena, berekin Jesukristo gure Jaunaren odol aintzagarria eramanez jaierazko suarekin batera, eta karitatezko gartsutasunez. Urrezko ontzi guztiak markaturik daude haren odolez. Hau da, grazian bizi direnak, han bertan daudenak, eta zoriontasuna itxaroten duten arima behartsuak. Apaiz-opariak kontsolamendua eta kemena damaie guztiei.

Apaiz-eginkizun maitagarri hau betetzerakoan, gizakia horrela barruratzen denean, santutegian, eta han irauten du, bere ahalmenak bete-betean eskainiz, hitzik esan gabe, orduan Jainkoaren aingerua, Gabriel, zutik dago, aldare ondoan, egiteko beneragarri eta jainkozkoa bete ohi den hartan. Gabriel hitzak ahal-izate jainkozkoa esan nahi du. Ahal-izate hori apaiz orori emango zaio, gauza guztiak Jaunagan jarri ahal ditzan. Apaiz ospetsuak belar-sorta bat egin ohi du, eta su ematen dio. Ke-hodei bat igotzen da orduan eta Jainkoak handik hitz egiten du. Sorta hori bertuteen multzoa da: apaltasuna, menpekotasun, gozotasuna, eta beste asko. Bertute horiek ez dituenarentzat, eta berorien

antz-bidean ahalegintzen ez direnentzat, edozein mailatan datzala, behenekoan, goienekoan, erdikoan: horrelakoentzat bizitza guztia gezurra bat baizik ez da, eta ez du ezertarako balio.

Gizakiak sintonia bat eduki behar du Aitaren bihotzarekin, beronekin batean Aitaren borondatea egiteko mundualdian eta betierean. Batzuek hau diote: "Adimen-otoitzetan ahalegintzen bagara, orduan ezabatu egingo zaigu gure Salbatzailearen Pasioko irudia". Ez, lagunok, irits zaitezte arima-zolara, grazia egiaz jaiotzen den hartara. Beronen laguntzaz, gure Jaunaren pasioa eta bizitza gaurkotu egingo dira zure baitan, sustatuz sinpletasun osoko maitasun sentimenduak, begirada soilak. Osotoro zure begien aurrean jarriko balira bezala, ez xehetasunezko aniztasunean, baizik eta nik neuk ikusten zaituztedan bezala, begi-kolpe batez. Dena zure aurrean balego moduan. Hau da Aitagana igotzeko bidea. Kontenplazioa, zeina askoz era baliagarriago baita bost hilabeteen pentsatzen aritzea baino, nola jokatu zuen Kristok berak jasandako pauso bakoitzean: zutabea, gurutzea bizkarrean, gertakari bat eta bestea jazo ziren arabera.

Lehen gartsutasuna. Maitasun garra su dagio bertute-sortari. Ke-hodeia igotzen da, argi eragotziz, eta han zure izpiritua zoratuta geratzen da Agur Maria bateko tartean. Arrazoia eta zentzuak ahultzen dira. Ilunpe hauetan Jainkoak egiaz hitz egiten dizu, idatzirik dagoenez; "Isiltasun berak inguratzen zuen dena eta, gaua bere ibilbidearen erdian zegoela, zure hitz ahalguztiduna atera zen zeruko tronutik" (Jkd 18,14-15). Hitz misteriotso bat esan zen orduan. Uler dezatekenek hartzen dute zurrumurruaren ufaldia. Era honetan eman zen aditzera hain pozbide ugaria sortuko zuen jaiotza. Jaiotza hau Isabelen bidez beteko da, honen izenak "betetze jainkozkoa" esan nahi baitu. Jainkoaren indarrak (Gabriel aingeruak) hots egiten du, onberatasunez gertatuko dela horrelako jaiotza pozgarria. Hau oraindik beheko ahalmenetan gertatzen da.

Naturazko argiak zolagune huts, biluzi eta irudi gabeko honetara ateratzen dira. Gauza atsegina aurkitzen dute eta uste dute Jainkoa bera dela. Oraindik ez ditu gaintitzen gizakiaren mugak, baina poz handiagoa dago han, zentzuen eztitasunak ekar dezakeen guztia baino. Gizaki horiek diren bezala irauten dutenetik, eta argi hau beren ontasuna bezala gordetzen, horiek iritsiko dira, bizi diren bezala biziz, gizakietan gaiztoenak izatera. Ezaugarri hau daramate: bertuteetan ez dira ahalegindu, eta ez dute interesik agertu ere hilduran edo santutasunera daramaten egintzetan. Nahiago dute zentzuen pasibitate faltsua. Ez barrutik, eta ez kanpotik, ez dira arduratzen maitasuna egintzetan ager dadin. Garaia baino lehen utzi dituzte gogoetagintzak. Orduan hor datorkie deabrua, eta isurtzen die sasi-gozotasun bat eta sasi-argi bat, hauekin liluratzen dituelarik arriskuan jartzeraino. Gozoki sartzen zaie naturazko joerez baliatuz, dirugosez, haragikeriaz eta harrokeriaz. Deabruak bultzatzen ditu pentsatzera, argi eta gozotasun horiek Jainkoagandik datozela egiaz, eta ez uzteko inolaz ere. Eusten diete, bada, berekoikeriaz, eta erortzen dira askatasun desordenatuan, berezko isuriekin barkabera izanez. Ihes egin behar da gizaki horiengandik, deabru beragandik bezala. Beren itxuretan, barruko eta kanpoetan, iritzi bat eman litekeen neurrian, hain dira zintzoen antzekoak, non ez baitira erraz bereizten.

Zintzoek, berriz, bertutearen bidea ibilia dute: apaltasuna, beldurra, beren burua inoren eskuetan jartzea, gozotasuna, Jaunaganako beldurraren beti iraunez. Ez dute uzten naturazko joerek kudea ditzaten eta ez dira beren buruaz fidatzen. Beren buruen jabe dira eta Jainkoaren laguntza dute irrikatzen. Lasaikeriari emanak, bestalde, ausartak dira, zuhurtzia gutxikoak, liskartiak, haserrekorrak. Berauekin harremanetan jarri orduko, ikusten da aldarte gozakaitza dutela, zakarrak direla keinuetan eta hitzetan, harroak, apalkuntza bat jasateko gai ez direnak. Tamalgarria! Jainkoaren epaiak argi eta garbi agertzen du edertasun-itxura haien huskeria. Ez dago orduan bihotz-berritzeko modurik, baizik eta betieran sutan iraun beharra, kiskaltzen.

Zaindu, arren, zeure burua zentzugabe hauetatik. Arreta jarri arima-zolan, jaiotza jainkozkoren sehaska eta egiaren iturria, nondik kristautasun osoak hain gozotasun handia hartzen baitu. Ez didazu galdetu beharrik bide onetik zoazen edo ez. Entzun berri duzu nola egin bereizketa, eta honek lagunduko dizu ikusten, bide zuzenari jarraitzen diozun edo okerrari. Bertutearen bide segurutik ote zoaz? Zein mailatan: erdikoan, behekoan edo goienekoan? Hau da aztertu behar duzuna.

Zolagune horretako jaiotza jainkozkoak pozez blai egiten du arima. Hori eskuratzean, esan ezinezko gozotasunez pozten da izpiritua. Ene lagunok, ez dadila inor ausart gizon hauek aztoratzen, kanpoko egintzen askotasunera behartuz. Utzi Jainkoak buru dezan bere langintza. Gure Jaunak honela dio Maitasunaren liburuan:

"Jerusalemgo neskatzok,
basoetako orein eta gazelen izenean, otoi,
ez iratzarri ene maitea,
utzi lo egiten
nahi duen arte" (Kt 2,7).

Arima horiek ez liekete galderarik egin behar ezer ulertzen ez duten maisuei. Hauek jar ditzateke haiek nahas-mahas batean eta arriskuan, egiazko bidetik aldenduz, hainbeste, non igaro baititzateke hogeit hamar urte berriro bideratu gabe. Pertsona hauek asko zaindu behar dituzte beren buruak, beren alaitasuna hazten delako barruan eta gainez egiten duelako, ardi berriak upeletan irakiten duen eran. Hobe da hain atsegin handiaren sua hiltzea, eta ez arriskatu gehiegi ahul ez dadin berezkoa, orduan odolatan lehertuko liratekeenez ahoa eta sudurra. Maila hau, hala ere, oso urruti dago goieneko hartatik, oraindik sentiberatasunaren eskuera geratzen denez.

Aingeruak esan zuen graziaren egiazko fruitu honi buruz: "Ez du ardorik ez pattarrik edango" (Lk 1,15). Honek esan nahi du, gizakia, zeinengan jaiotza hau egin behar baita kalitaterik eta mailarik hoberenean, gorapen handiagoko bidetik eramana izango dela. Hiru gradu daude: ona, hobe eta bikaina. Bidezidor honetatik doazenek ez dute ezer edan behar, hordi litezkeenez, aipatu berri ditugun haiek bezala. Hauengan hori eginarazi zuen bere kontenplazioko objektuaren gozotasun gehiegizkoak, hunkigarritasunezko eta biguntasunezko gozamenak.

Hemen jarriak izan dira bide estutik aurrera egiteko, ilunbearen eta hondamendiaren bidetik. Ezin eraman den zapalketa sentitu ohi dute, ihesik egin ezinez. Edonondik datozela, ez dute aurkituko behar gorria, hondamendia, etsipena eta ilunbea besterik. Ausardia guztiz sartu behar dute, eta Jaunagan jarri beren buruak bide honetatik joanez, Berak nahi duen denbora guztian. Jaunak bertan behera uzten ditu han, jende honen estura ezagutuko ez balu bezala. Orduan jasan ohi dute ezin eraman den hustasun bat eta larritasuna. Beharrezkoa da, hala ere, guztiari beren burua Jaunagan jarritz eustea. Honi buruz esan liteke bihotz-berritze esentziazkoa dela, eta honen erantzuna ez litekeela sari esentziazkoa baizik izan. Beste bihotz-berritzei sari akzidentala bakarrik dagokie. Honi buruz Santo Tomasek idazten du, kanpoko egintza handi guztiei, denik eta handienak direla, kanpoko egintza izatetik igarotzen ez diren bitartean, ez dagokiela sari akzidentala besterik.

Oso bestelakoa da izpirituaren barruko berrikuntza Jainkoaren izpirituagan, arima-zolan hasten den berrikuntza, beste edozein akzidentetatik aske. Gizakiak bakarrik bilatzen du Jainkoa, argi eta garbi, egintza guztien gaitetik eta otoitz egiteko era jakin guztien gaitetik, gogapen eta arrazoiak baino haratago. A, bai! San Dionisiok dioen hura: "Maitasun bat da, zeinetan ez duten parterik arrazoiak eta adimenduak". Hau da egiazko bihotz-berritzea, edozein garaitan sari esentziazkoa dagokion hura. Jainkoa bere burua eskainiz.

Badira beste bihotz-berritzeak, maizago ematen direnak eta ez hain barrukoak, egiazko bihotz-berritzea izendatzea merezi dutenak. Hau gertatzen da, gizakiak bere asmoetan argi eta garbi Jainkoa daukanean, beste gauzarik bilatu gabe. Beste arrazoibiderik gabe, ez bada Jainkoa eta hau beragatik bakarrik. Baina askoz goragokoa da honetan datzan beste hau: barruan Jainkoaren presentzia sumatzea, formarik eta helbide jakinik gabe. Sortutako izpirituaren haraindiko hegaldia da, Jainkoaren izpirituaganaino doana. Bizitzan behin bakarrik lor dezake gizakiak horrelako bihotz-berritzea.

Beraz, gizaki honi, Jainkoaren esaneko denari, eta bere esturetan erabat leial denari, Jaunak erantzungo dio, saritzat bere burua eskainiz. Sakonagotzen da laguntasuna eta partaide egiten du bere zorionean. Han izpiritua hain eztiki zoraturik aurkitzen da, hain jainkotasunez erabat beterik eta blai eginik, Jainkoagan hain zoraturik, non batasunean galtzen baita bestelakotasun guztia. Hemen behean ere Jainkoak askatzen ditu atsekabe guztitik, eta betierean izango duten gozamenaren aitzinamendu bat hartzen dute.

Hauek dira Eliza Santuaren zimentarri. Horiek gabe Kristau-herria hondamendi izango litzateke. Suntsituko litzateke. Horien presentzia, horien izate hutsa, preziagarriago da eta baliagarriagoa mundu guztiko egitatea baino. Horietaz esan du Jaunak: "Zuek ukitzen zaituztenak, neure begi-ninia ukitzen du" (Za 2,12). Inor ez bedi ausar horiei kalte egitera!

Iritsiko ahal gara gu guztiok honetara modurik azkarrenean, eta Jainkoarentzat aintzagarrienean. Berak horretan lagun dezala.

XX

Testigantza²¹

"Testigu izatera etorri zen, argiaz testigantza egitera". (Jn 1,7)

Eliza gure Amak San Joan Bataiatzailearen festaburua ospatzen du aste honetan. Hitzegoratu nahi izatea gauza hutsala litzateke, gure Jaunak hain egoki eta zuzen ohoratu eta gero, esan baitzuen ez dela amaren semerik sortu Joan Bataiatzailea baino handiagorik (Mt 11,11). Gehiago ere esan zuen: "Zer ikustera irten zineten? Profetaren bat? Bai, noski, eta profeta baino ere handiagoa. Zer ikustera irten zineten? Soineko apainez jantzitako gizona? Edota haizeak kulunka darabilen kanabera?" (Mt 7-10).

Joanek bere buruaz esan zuen, basamortuan oihuka ari denaren ahotsa dela. Zuzendu jaunaren bideak (Jn 1,23) eta (Mt 3,3). Joani buruz aste honetan kantatu ohi da, argi egiten duela "kriseilu piztuaren antzera" (Jn 5,35). Eta Joan Ebanjelariak idazten du "argiaz testigantza egiten duela" (Jn 1,7). Azken hitzok dira gaur gure mintzaldiko gai.

Santu bati buruz egin ote liteke goralpen handiagorik? Hitzak errepika ditzagun: "Argiz testigantza egitera". Berak testigantza eginiko argia esentziazkoa da eta harandikoa. Ezagutza eta errealitate oro gainditzen du. Arimaren lekurik kutunenean eta sakonenean distiratzten duen argia. Argi hau eta testigantza hau gizakiagana datozenean, eta berau ukitzen hastean, dagoen lekuan bilatu eta aurkitu beharrian, gizakiak atzea eman ohi dio zolaguneari, ordena aldatzen du, eta kanpora lasterka joan nahi du, Treverisa, edo ez dakit nora. Honen ondorioz, ez du testigantzarik jasotzen, zentzuetan bakarrik bizi delako, erabat kanpora emana. Badira oraindik jendeak testigantzari uko egiten diotenak. "Bere etxera etorri zen, baina beretarrek ez zuten onartu" (Jn 1,11). Beratarrek esatean ulertzen da argiaren etsai direnak, bihotz munduzalea dutenak. San Joanek dioenez, fariseuak dira, sugedorri arrazakoak, nahiz eta berek uste izan Abrahamen jatorrikoak direla. Argia maite dutenen aurka jartzen dira. Gauza kezagarri eta arriskugarria, doi-doi irautea baitute, hari baten bidez edo, argiarekin eta federekin bat eginik.

Hori hala da. Natura ahuldadea da, erabat gaitasunik gabea. Jainkoa errukiorra izaki, horregatik aberastu du argiaren eta graziaren indarrez eta haraindiko laguntzaz. Sortutako argi honek natura jasotzen du beroni dagokionaz gaindi. Berekin ditu indarrak, bizimodu berri honetarako gizakiak behar dituenak. Argi honen gaintetik, bada sortua ez den beste indar bat, aintzazko argia deiturikoa, jainkozkoa, Jainkoa bera. Izan ere, joan behar badugu Jainkoagatik ikustera, Jainkoarekin ere izango da, eta Jainkoagan, profetak esan zuenez: "Zure argiaz ikusten dugu argia" (Sal 36,10). Gainezkako argia da han dagoena. "Mundura etorritik gizaki guztiak argitzen dituen argia" (Jn 1,9), onak eta gaiztoak, eguzkiak sorkari guztien gainean distiratzten duen bezala. Inor balego itsu denik, beretzako kalte. Gizaki bat etxe ilun batean aurkituko balitz, itzalez ere baliatuko litzateke leihoren bat edo zuloren bat aurkitzeko, eta handik burua aterako luke argia iristeko.

Joan Bataiatzaileak "argi testigantza" egiten du. Lehenik gogora dezagun, nola jokatu behar duen gizakiak testigantza honen aurrean, eta nola egin behar duen gai bere burua hori bereganatzeko. Askatu behar du bere burua denborazko eta hilkorrek diren gauzetatik. Testigantza egin goiko eta beheko ahalmenentzat. Azkenok irrikagarriak dira eta haserrekorrak. Beste edozein joerak baino lehenago, jabe izateko joerak testigantza hartu behar du. Menpera dezala naturazko joera oro zentzuetan, pozbideetan, gozamenetan, solasaldietan, jantzietan. Hitz batean, uko egin biezaie zentzuen atseginei. Jainkoak emango dio behar-orduan. Jainkoaren ahotsa basamortuan entzun ohi da, izpirituaren eta zentzuen ederrari atxikimendu guztia galtzean, dela barruan, dela kanpoan. Atxikimendu gabeko bizitza deitzen diote.

Bigarrenik, testigantza egin ohi da ahalmen haserrekorretan. Han gizakiari iraupena eta kemena erakusten zaio. Testigantza hartu ondoren, gizakiak ezin hautsizkoa behar du izan, altzairuzko mendia bezala. Ez luke beheratu behar kanabera bailitzan. Gure jaunak San Joani buruz esan du ez dela soineko apainez jantzitako gizona. Apaina esatean ulertzen da, gorputzarentzat gauza erosoak nahi eta bilatzen dituen. Egia da badirela jendeak edertasunak erraz arbuiatzen dituztenak, baina oraindik kanaberak dira. Zozokeria inozo bat, inozo edo serioa, aski dute aztoratzeko eta bere onetik ateratzeko. Oraindik kanabera hauskorrak dira. Erne, gizaki dohatsu hori: hitz batek zer gaitz egin diezazuke? Baina hor dator etsaia, orain baten eta gero beste batean ziria sartzen dizuna. Tristura-nahasketari amore ematen diozu, batzuetan pozik, besteetan goibel, gaur prest, bihar txarto. Herri aldakorra zarete, kanaberak bezala.

Testigantza goi-ahalmenentzat ere: arrazoiarentzat, borondatearentzat, maitasunarentzat. Arrazoibidean profeta da, ikusten du, hain urruti, non egiazko miragarria baita bere ikuspena. Gizaki ilustratu batek, hemen aipatzen dugun egia-maila oraindik lortu ez duenak, gauza misteriotuak ulertzen ditu. Hala aitortzen du arima-zolak. Joani buruz Jaunak esan zuen: "Profeta baino ere handiagoa". Honek esan nahi du, arrazoa sar ez litekeen zolagune honetan, argia argitan ikusi ohi dela. Han barruko argia ikusten da, han sortutako argiaren bidez, esan nahi dut graziaren argiaz, jainkoazko argia ikusten da. Ezagutze hori hasieran ezkutaturik dago. Ahalmenek ezin dute erdietsi, ez eta mila miliatara hurbildu ere. Ezin liteke aurkitu zolagune haretan agertzen den zerumugarik, ez hango sakontasunik. Ez irudirik, ez formarik, ez modalitate jakinik zolagune hori adieraz dezakeenik. Ez da bereizten hemen eta han. Leizezulo barneraezina, hondorik gabea, bere baitan du sustengua. Esan daiteke gal-gal dagiten urak direla, ur-ikarak. Zenbait aldiz hainbesteraino dira jaisten, non baitirudi leizezuloa agortu egin dela. Handik une batera, hainbeste igotzen dira eta halako harrabotsez, non baitirudi mundu osoa irentsi behar dutela. Leizezuloan barrentzen da, eta leize honetan dago Jainkoari dagokion bizilekua, zeruetan baino areago. Beste edozein sorkaritan baino gehiago han bizi da Jainkoa. Han sar daitekeenak egiaz Jainkoa bera aurkituko du, Beronekin gurutzatzen da soilki, Jainkoak ez baitu inoiz bertan behera uzten bizileku hau. Hemen ohartzen da betikotasunaz, eta berau sentitu egin ohi da. Ez dago lehenik, ez gerorik. Sortua izan den argi bat ezin daiteke han sartu, Jainkoarentzat bakarrik gordetako eremua da. Sorkari denek ere ez lukete sekula beteko zolagune hau, ez eta zundatu ere. Ez du ezerk pozten eta gozatzen, neurrigabetasuna den Jainkoak bakarrik. Jainkoaren leizeak arimaren leizea bete ohi du. "Leizezuloak oihu dagio leizezuloari" (Sal 42,8).

Benetako arreta jartzen dionari, zolagune honek bere argia dagio azpiragoko ahalmenetan, izurrazten eta bizkorrazten dizkio goiko eta beheko ahalmenak, beren sorburura eta funtsera itzul daitezen. Eskatzen du, hala ere, gizakia han aurki dadila eta han bizi; arreta handia jar diezaiola deiari, basamortuan entzun ohi den ahots maitagarriari, zolagune honetan entzun ere, eta gauza guztiak barrurago erakartzen dituenari.

Basamortu honek hain du bakardade handia, non pentsamendu bat ezin bailiteke sar inolaz ere han. Ez horixe. Ez eta Hirutasun Guztiz Santuaren gaiari buruz gizakiek egindako teologiak ere, nahiz eta bat baino gehiago gai horretaz hain arduratuta ibili. Horrelakorik ezer ezin da sartu. Hain barrengoa da eta hain urrutikoa misterio hori, non ez baitezake erdiets ez denborak, ez espazioak. Ez dago misterio horretan ez konposiziorik, ez bereizpenik. Norbaiti ematen bazaio misterio horretan sartzea, susmo du han egona dela betierean, eta bat egin dela Hirurekin. Nahiz eta honek une batzuk besterik iraun ez. Begien itxi-ireki azkarrak dira sentitzen, eta betikotasun baten antzera agertzen. Argitasuna kanpora zabaltzen du.

Egiaztatzen du, gizakia, sortua izan baino lehen, Jainkoagan zegoela betikotasunean. Orduan zen gizon Jainkoa Jainkoagan. San Joanek idatzi zuen: "Egina izan den oro harengan bizia zen". Orain gizakia kreazio-izaeran dago. Sortugabea zen betierenean, Jainkoagan zegoen, han subsistentea zen. Gizakia itzultzen ez den arte garbitasun-egoerara, zeinetan bizi izan baitzen sortu gabeko egoeratik kreaziokora igaro zen arte, ez da sekulan Jainkoagan sartuko. Erabat ezabatu behar ditu isuriak, atxikimenduak, bere buruarekiko ederrespenak. Zolagunea zikin zezakeen guztia, norberak gauzak edukitzean amore emanez. Uko egin beharra dago norberak ariman dauzkan gozamen guztiei, norberak nahita izpirituan edo zentzuetan gordetakoei. Inoiz gertatutako eta denbora gutxian onartutako gehiegikeria oro erabat garbitu behar da. Ez da gizakia bere sorburuan sartuko, galdutako garbitasuna berreskuratu arte. Horretaz gainera, beharrezkoa da izpirituak argiaren grazia goragoko forman har dezan. Eraldaketa honi azpian bete-betean amore ematen badio, eta bere baitan biltzen den gizakia bada, perfekziozko ordenamenduan izan, ongi prestatu egongo da Jainkoak eman diezaion haraindian sartzea bizitza honetan bertan. Gorapenik goienena, egokiena litzateke Jainkoa atzemateko, zeina ez baitezake inork ezagut sortu gabeko argian ez bada, Jainkoa bera den argian. "Jauna, zure argian argia ikusiko dugu".

Bere barruko zolagunean maiz sartzen den hark, eta zolagune hori etxebizitzatako daukanak, askotan izango ditu gorapen nobleak, non ikusiko baitu zer den Jainkoa, argiago ikusi aurpegiko begiekin eguzkia baino. Paganoek ere ezagutzen zuten zolagune hau, nahiz eta erabat mesprezatzen zituzten amaitzen diren gauzak. Irrikaz bilatzen zuten. Proklo eta Platon nabarmentzen dira bidea argitu zuten guztien artean, beren kabuz aurki ez zezaketen haien zatia argitu ere. San Agustinek dioenez, Platonek taxuz agertu zuela Ebanjelioak esaten duena, "Hasieran"-etik hasi eta "Agertu zen gizon bat" hitzetaraino. Egia da, bai, hitz ezkutukoekin eta ez garbiekin. Aurkitu dute, baita ere, Hirutasun Guztiz Santuko pertsonen berezitasuna.

Ene lagunok, guztia barruko zolagunetik zetorkien, beronentzat bizi zirelarik eta arreta osoa jartzen zutelarik. Laido eta lotsakizun handia da, guk, gaixo atzeratuok, ahazten duguna. Guk, kristauok, eskuetan ditugunok baliabiderik hoberenak, Jainkoaren grazia, fede santua, eukaristia eta beste hainbat laguntza eraginkor. Jira-biraka gabiltza oilo itsuen modura, geure buruak ezagutu gabe, eta ezagutu gabe ere geure barruan dagoen Hura. Ezjakintasun honen sustraia da, barreiatzen garela kanpoko pila bat gauzetan. Zati handi bat, baita ere, zentzuen egitateagatik, gure praktika, gau-beila, salmotezia eta antzeko gauzengatik; hainbestearaino hartzen gaituzte, non galarazten baitigute geure barruan sartzea. Demagun, lagunok, bere upela Zipreko ardorik onenarekin betetzerik ez daukanak, ondo egingo duela harriz eta errautsez betetzen badu. Ez dadila, orde, hutsik geratu, deabrua beretzat hartzera etorriko denaren beldurrez. Hobe luke orduan errosario asko erreztatzea.

Bada beste testigantza bat goi-ahalmenetan, borondatean, maitasunean dagoena. Aste honetan kantatu dugu San Joani buruz: "Argi egiten zuen kriseilu piztuaren antzera" (Jn 5,35). Kriseiluak argi egiten du eta beroa ematen. Eskuan beroa sentitu ohi duzu garra ikusi gabe ere, gainera igotzen ez bazara behintzat. Argia ikusten duzu ezkututzen duen gorputzaren bidez. Ai, lagunok, arretaz oldoztuko balitz honek zer esan nahi duen. Begiak arreta handiagoz irekiko bagenu argira eta barruko gartsutasunera! Zauritzen duen maitasuna, zolagunean kudeatzen zaituena, jarrai diezaiozu zurekin duzun arte, eta utziozu bizkortu eta eramán zaitzan. Tenka ezazu zeure arkua berriro erdian jo dezazun, goien dagoenean. Jadanik leizezuloaren zolagunean egonik, eta maitasuna jadanik atxilotua, zeure buruan besteren esku jarri behar duzu eta gora egin zeure borondaterik gabe. Ez duzu orduan ahal gehiago izango zeure buruaren gain. Kanpoan geratu dira gogapenak, ahalmenak eta bertuteen egintzak. Oraindik askeagoa izango zara zure

gogapena zeure esku badaukazu, berriro erabil dezazun zauritu zaituen maitasunean murgiltzeko. Berri ezazu zeure bulkoa, sortu zeugan ekaitza, maita, desira, eska eta akuila maitasuna. Ezer ezin baduzu esan, oldoztu eta nahi ezazu San Agustinek dioen hura: "Jauna, zu maitatzea agintzen didazu; emaidazu agintzen didazuna. Eskatzen didazu zu maitatzea bihotz-bihotzez, adimen osoz, neure indar eta izpiritu guztiz; egizu, Jauna, zu maita zaitzadala denen aurretik eta gainetik!" Hain adore gutxiarekin aurkitzen bazara, pentsatzeko ere ahalmenik gabe, ahoz esazu otoitz hori. Horrelako maitasunik ez du eserita geratzen den jendeak, ahalegin zirkinik ere egin gabe, dena egina balego bezala.

Ondoren maitasun estua dator, eta laugarrenik zoramenezkoa. A, ene lagunok! Asko galdu du maitasunak eta asko irabazi arrazoiak. Jendeak inoiz baino gehiago pentsatzen du dirua egiteko asmoz. Maitasun zoramenezkoa konpara daiteke kriseilu batekin. Maitasun garra gizakiagan sentitu ohi da orduan. Larridura sortu ohi du ahalmenetan. Amets dagi arimak, esturetan maitasuna amets, jakin gabe berekin duela. Maitasunak orduan odolaren barne-muina xurgatzen du. Zaindu ongi horrelakoetan. Ez energiari xahutu kanpoko legeen gatibu bazina bezala. Maitasunak bere langintza dagienean, ez egin ihesik ezertan; zarraizkio ekaitzaldian eta berealdian. Horrelakoetan bada esaten duenik, babesean egon nahi duela ekaitza igaro arte, beldurra duenez itsasoan galtzeko; eta hau ez dator ongi bere bizitzarekin.

Lagunok, maitasun zoramenezkoa etortzen denean, giza egitateak alde egin beharko du. Jauna dator eta ariman hots egiten du hitz bat, bakarra, gizaki guztiek esan ditzaketen beste ehun mila hitz baino nobleagoa eta baliagarriagoa. Dionisio jainkoazkoak hala dio: "Betiereko hitza arima-zolan esaten denean, zolagune honek behar den gaitasunik baldin badu hitz hori bete-betean hartzeko, generazioz hartu eta ez zatika bakarrik, orduan arima-zola bat egiten da Hitzarekin. Egia da, bai, sortutako izaki izanez jarritzen duela, baina batasun osoa dago horrelako elkartzean". Jaunak ere hala aitortzen du Aitari eskatzen dionean: "Aita, bat izan daitezela gu geu bat garen bezala" (Jn 17,11). Gauza bera aitortzen du San Agustini Berak esan zionean: "Zu ni bihurtuko zara". Lagunok, maitasun-bidetik bakarrik iristen da hara.

Entzun diezaiogun San Joani, esaten digunean, bera dela basamortuan oihuka ari denaren ahotsa: "Prestatu bidea Jaunari", hau da, onerako bidea. Bide zuzen-zuzena ezbaierik gabe; eta horrengatik dio San Joanek: "Zuzendu bideskak hari" (Mt 3,3). Bidezidorrak bideak baino laburragoak dira. Norbaitek zelaiko galsoroan bidezidorra bilatzen badu, zailtasunak aurkituko ditu eta galdu egingo da. Baina bidezidorrek zuzenago eta azkarrago eraman ohi dute galtzadek baino.

Lagun maiteok, zolagune honetaraino eramaten duen bidezidorra aurkitzerik balego, zuzendu eta labur dezake bere bidea zolaguneari bakarrik begiratzen baitio dabilen bitartean. Jar zeure begiak bidezidorrean, eta ez handik atera, nahiz eta bidezidor basatia izan, ezkutua, iluna, ezezaguna eta arrotza. Begiak ongi finkatu dituenarentzat, gehiago ez da izango okerrik, ez esturarik, barrukorik eta kanpokorik. Jadanik ez dago hutsegiterik, gizakiari bidean aurkitzen zizkioten haietakorik. Orain gauza guztiek zolagune horretara erakartzen dute eta bultzatzen.

Erabat zuzendu behar dira bideskak, ongi begiratu behar dira bideak, izpiritutik Jainkoagana doazenak, eta Jainkoagandik gureganakoak. Egiaz dira asmaezinak eta ezkutukoak. Jende askok atzekoz aurrera ibili ohi dituzte, kanpoko praktiketarik eta egintzetarik beti joanez. Erromarantz abiatzen denaren antzeko dira: nahiz eta Erroma goian dagoen, Holandara doazen lur-pendizetan jaisten dira. Zenbat eta gehiago ibili, orduan eta urrutiago aurkitzen dira bidetik. Egunen batean itzultzen badira gizaki horiek, jadanik zaharrak dira, arindu zaie burua, ez dira gai maitasunaren egintza eta ekaitzak jasateko.

Ene lagunok, gizakia horrelako maitasun-ekaitzetan aurkitzen denean, ahantz bitza bere bekatuak, ez bedi umiltasun-ekintzez arduratu, ez eta beste gauzez ere. Bakarrik arduratu bedi leialtasunez betetzen maitasunaren langintza. Ekaitz hau suma daiteke hoztasunean, utzitasunean eta gogortasunean ere bai. Horrelakoetan maitasunaren esku jarritz, osorik gorde behar da bihotza, maitasuna ez den guztian behartsu eta biluzi izanez. Desira sutsu eta etengabea, konfiantza oso eta ziurra eduki maitasunean. Hainbeste mesede eta hain handiak hartuko dituzu orduan, gizakiak inoiz hartu ez dituen bezalakoak mundualdi honetan. Zure zoriona, ordea, eskasa baldin bada, jaitsi egiten da zure desira eta ez darama inora.

Ongi oldoztu ezazu hau: nahiz eta zuk ezaupide guztiak eduki, zuretzat egiazko bizitzarenak diren ezaupideak, maitasunaren testigantza hau sentitzen ez baduzu, galdu zara. Gogorra dela hau? Bai, hala da. Eta etsaiak pozik egingo dizu beste edozein mesede, egiazko maitasunaren testigantza hartzea zuri galaraztekotan. Zuri utziko dizu gezurrezko maitasuna, itxurazkoa. Askok dute uste karitatean bizi direla, baina beren arima-zolara begiratzen badute, ikusiko dute maitasunetik zer geratzen zaien. Honetan dago akatsa: ez dakitela beren arima-zolaraino sartzen. Han sartuko bazina, ikasiko zenuke, nola graziak etengabe ohartarazten dizun bihotza zeuon gainetik jasotzen duzuela. Gizakia halako indarrez eta hainbeste aldiz kontrajartzen zaio deiari, non ongi merezia baitu zigorra, deia betiko ken diezaioten. Lur jotzen du bere buruari atsegin emateko. Bestalde, distiren esanera jarriko balitz, distiren bidez argitzen baitu graziaren begiradak, halako batasun-mailara iritsiko litzateke, non mundualdian hartuko bailuke betierean zoriontsu egingo duen guztia.

Denok sariztatuak izan gaitezela honelako graziaz.

Oharrak

Kontsolamentu jainkozkoaren

liburua

¹ Jatorrizko izenburua Das Buch der Göttliche Tröstung, hemen, itzulpen klasikoak gogoan, eta zuzenketagilearen kontrolpean emana.

Predikuak

¹ Argitalpen aukeratua. Testuen aukera, T.H. MARTIN, Obras de Tauler, Fundación Universitaria Española, Madrid, 1984. Latinaren kontrolgintza, L. Surius, D. Joannis Tauleri... opera omnia, Coloniae, 1548.

² "Zenbait adoretze eta aholku" sailekoa, hirugarren atala, "Gure aurrerapena bilatu behar dugu Jainkoari erantsitako propietate eta izenetan" deritzana.

³ In Nativitate, lehenengo predikua.

⁴ Dominica proxima post natalem Domini. Eckhart-en predikua, "Opus Taulerianum"-en sartzen dena, klasikoek ezagutua eta San Joan Gurutzekoaren "Noche activa del Espíritu"-arekin antzik handiena duena. T.H. MARTIN, Temas de oración, Ediciones Sígueme, Salamanca, 1990, 225 or., 3. oharra.

- 5 In Epiphania Domini. Epifaniako Predikuaren zatiak.
- 6 Dominica IV post oct. Epiphaniae.
- 7 Dominica II Quadragesimae.
- 8 Dominica Quarta Quadragesimae.
- 9 Dominica I post oct. Epiphaniae.
- 10 In Ascensione Domini II. Bigarren Predikua.
- 11 Dominica infra oct. Ascensionis.
- 12 In festo SS. Trinitatis. Bigarren predikua.
- 13 Dominica III, post Trinit. Hirugarren Predikua.
- 14 Dominica V post Trinit. Lehenengo Predikua.
- 15 Dominica XVIII post Trinitatem. Bigarren Predikua.
- 16 Dominica XIII post Trin. Hirugarren Predikua.
- 17 Dominica XIX post Trinitatem. Hirugarren Predikua.
- 18 In festo SS. Sacramenti. Hirugarren predikua.
- 19 In Nativitate S. Mariae.
- 20 Sermo in Nativitate J. Baptistae. Lehenengo predikua.
- 21 Sermo in Nativ. Joannis Baptistae. Bigarren predikua.

